

# HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2013



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**

OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS  
OBSERVATOIRE DES DROITS LINGUISTIQUES  
OBSERVATORY OF LINGUISTIC RIGHTS



# AURKIBIDEA

1.	ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA.....	5
1.1.	Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente	
1.2.	Ministerio de Defensa	
1.3.	Ministerio de Educación, Cultura y Deporte	
1.4.	Ministerio de Empleo y Seguridad Social	
1.5.	Ministerio de Fomento	
1.6.	Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas	
1.7.	Ministerio de Industria, Energía y Turismo	
1.8.	Ministerio del Interior	
1.9.	Ministerio de Justicia	
1.10.	Delegación del Gobierno	
1.11.	Justizia Administrazioa	
2.	FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA.....	37
3.	BESTELAKOAK.....	40
4.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA.....	42
4.1.	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	
4.2.	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	
4.3.	Herri Administrazio eta Justizia Saila	
4.4.	Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Saila	
4.5.	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	
4.6.	Lehendakaritza	
4.7.	Osasun Saila	
4.8.	Segurtasun Saila	
5.	NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA.....	70
5.1.	Ekonomia, Ogasun, Industria eta Lan Departamentua	
5.2.	Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua	
5.3.	Hezkuntza Departamentua	
5.4.	Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua	
5.5.	Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua	
5.6.	Osasun Departamentua	
5.7.	Sustapen Departamentua	

6.	FORU ALDUNDIAK.....	91
	6.1. Arabako Foru Aldundia	
	6.2. Bizkaiko Foru Aldundia	
	6.3. Gipuzkoako Foru Aldundia	
7.	UDALAK ETA MANKOMUNITATEAK.....	105
	7.1. Arabako Udalak	
	7.2. Bizkaiko Udalak	
	7.3. Gipuzkoako Udalak	
	7.4. Ipar Euskal Herriko Udalak	
	7.5. Nafarroako Udalak	
	7.6. Mankomunitateak	
8.	SEKTORE SOZIOEKONOMIKOA.....	153
	8.1. Aisialdia: aisialdia, argitalpenak, hedabideak, kirola, kultura	
	8.2. Aseguru-etxeak eta finantzak	
	8.3. Eragileak: alderdi politikoak, sindikatuak, bestelako eragileak	
	8.4. Merkataritza handia/Elikadura/Ostalaritza	
	8.5. Interes orokorreko zerbitzuak: energia hornitzaileak, garraioak, hezkuntza, lan mundua, osasungintza, telekomunikazio-enpresak	
	8.6. Profesionalak eta zerbitzuak	
9.	ZORIONAK.....	231
10.	KONTSULTAK.....	239

# 1. ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE

Dosierra:	443-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE
Arrazoia:	AEMET - Agencia Estatal de Meteorología erakunde publikoak kontu berezi bana du Twitterren EAerako eta Nafarroako Foru Komunitaterako. Bietan txioak erdaraz baino ez dituzte zabaltzen, eta kontuon informazio-atala edo "bio" delakoa ere erdara hutsean dute.
Erantzuna:	ERABILTZAILEEN ARRETARAKO SAILEKO BURUA: <i>Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzaren 2013ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bidez Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Administrazio Prozedurak Eraberritu eta Administrazio Elektronikoa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren Estatuko Administrazio Orokorrerako Komunikazio Digitalerako Gida onetsi zen. Bertan jasotzen diren gomendio, irizpide eta praktika egokiek zuzentzen dute Administrazio erakundeen jarduna. Gidak "eleaniztasuna"ri eskaintzen dion atalean, hiru itzulpen maila zehazten dira, Estatuaren Administrazio Orokorreko web-orrien edukien eta kudetzailen aniztasunak web-orriak itzultzeko ahalegin handia eskatzen baitu giza-baliabideen nahiz baliabide ekonomikoen aldetik. Horiek horrela, Gidaren arabera nahitaez itzuli beharrekoak diren I. mailako itzulpenak "Atariko orria eta nabigazio menuak" eta II. mailako itzulpenak "Informazio estatistikoa" eginda ditu dagoeneko. Hala ere, eta kexaren edukiari lotuz, Twitter sare sozialeko edukiak dira itzuli gabe daudenak. Beraz, izaera dinamikoko edukiez ari gara, Gidaren arabera "Informazio Dinamikoa" ren barruan eta III. mailako itzulpenetan sartuko lirakeenak, eta ondorioz, derrigorrez itzuli beharrekoak ez direnez. Gidan ezarritakoaren arabera, bada, izaera dinamikoko edukiak ez dira ezinbestean itzuli beharrekoak, horrek zeregin horretara bideratutako giza-baliabideak, baliabide ekonomikoak eta antolakuntzakoak planifikatzea eskatuko bailuke. Kasu honetan, txioak egunero argitaratzen direnez, eduki horiek hizkuntza koofizialetara itzultzeko berariaz prestatutako langileak beharko lirakeke, baina AEMETen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Ordezkaritzan ez dugu halakorik, eta horretarako langile bat kontratatzeak aurrekontuko diru hornidura eskatuko luke, gastu publikoa neurritzeko egoera honetan ezinezkoa dena.</i>

Dosierra:	565-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE
Arrazoia:	Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusiak eta Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak Plentziako portuan aurrera eramango dituen lanak iragartzeko seinaleak ez daude euskaraz idatziak: "Conservación y mantenimiento de la Costa de Bizkaia" ageri da.
Erantzuna:	

Dosierra: 928-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE

Arrazoia: AEMET estatuko meteorologia agentzia publikoak bere web gunean ematen duen informazioa: 1) Ez du Gipuzkoako hondartzen euskal toponimoen ofizialtasuna betetzen. Oraindino Deva/Deba, Motrico/Mutrico etab... jartzen du. Eta beste hondartzekin konparatuz Bizkaian, Katalunian, Balear Irletako edo Galiziako hondartzetan bertoko hondartzen bertoko eta ofizialak diren toponimoak betetzen dira, baina ez Gipuzkoan (ikusitako erantsitako adibideak). 2) AEMETek Matxitxakon duen behatokia MACHICHACO bezala agertzen da. 3) AEMETek Euskal Herrian duen bi ordezkarietako helbideetan ez dira Donostiako eta Iruñeko hiriburuen izen edo toponimo ofizialak agertzen, soilik gaztelarazko San Sebastián eta Pamplona.

Erantzuna: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Erabiltzaileen Arreta Saileko: *Arduradunak igorri digun erantzunean esaten duenaren arabera, txosten juridiko bat eskatu behar omen dute Estatuko Administrazioako erakundeetako webguneetan egiten den hizkuntza koofizialen inguruko legegintzaz eta arauez. Eta horren arabera, ikusiko dute zer arau aplikatu euren webgunean. Era berean, txosten horren bidez web gunean dituzten akats guztiak antzematea espero dute, zentzuzko denbora tarte batean zuzendu ahal izateko. Eskerrak ematen dituzte euren zerbitzua hobetzen laguntzeagatik.*

Dosierra: 967-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE - SECRETARÍA DE ESTADO DE MEDIO AMBIENTE

Arrazoia: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren fauna eta floraren gaineko argitalpen eta dokumentuetako fitxetan, hainbat hizkuntzatan ematen dira espezieen izenak. Bada "Eusquera" terminoa ageri da Euskara izendatzeko.

Erantzuna: ARLOKO KOORDINATZAILEA: *Argitalpenen Zerbitzuari eta gure web-orriko Edukien Zentroari jakinaraziko diegu akatsa, zuzendu eta euskarazko grafiaz idatz dezaten. Gisa bereko lanak burutzen dituzten beste argitalpen unitateei ere akatsa zuzentzeko eskatuko zaie.*

Dosierra: 969-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE AGRICULTURA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE - SECRETARÍA DE ESTADO DE MEDIO AMBIENTE

Arrazoia: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren fauna eta floraren gaineko argitalpen eta dokumentuetako fitxetan, hainbat hizkuntzatan ematen dira espezieen izenak. Bada "Eusquera" terminoa ageri da Euskara izendatzeko.

Erantzuna:

MINISTERIO DE DEFENSA

---

Dosierra: 627-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA

Arrazoia: Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioak erdara hutsean argitaratu du iragarkia gaurko El Correo egunkarian. Honela dio: "El día de la fiesta nacional. 12 de octubre 2013. El día de todos"

Erantzuna:

---

Dosierra: 964-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE DEFENSA

Arrazoia: Espainiako Defentsa Ministerioak Bilboko Juan de Garai eta Urizar kaleen inguruan duen "Gobierno Militar" delakoaren kanpoaldean bideo-zaintzaz ohartarazten duten kartelak erdara hutsean daude. Horiez gainera, kanpoaldean diren beste idatziak ere erdara hutsean daude: eremu militar hori zer den ageri duten kartelak, ministerioaren logoa eta guzti, atetzar batean dauden azalpenak, hizki handitan, ibilgailuak eremuaren barrura sartzeko zeintzuk argi eta nola piztu behar diren diotenak.

Erantzuna:

---



## MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE

Dosierra: 1001-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE - UNED

Arrazoa: UNED-Bizkaia (Portugalete) ikastetxeko hainbat errotulu erdara hutsean daude; adibidez: "extintor", "salida", "pulsador de alarma" eta bideozaintza sistema dela-eta datuen babeserako legediak zehazten dituen kartelak.

Erantzuna:

MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Dosierra: 298-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Arrazoa: Gizarte Segurantzak Deustuko Julio Urkijo kalean duen bulegoan hartu nauen emakumeari galdetu diot euskaraz ote dakien. Sarritan joan naiz eta beti esan didate ezetz, baina pentsatu dut beharbada izan dutela ikasteko denborarik edo interesik. Bulego horretara joaten naizen GUZTIETAN erantzuten didate ezetz, ez dakitela, eta gaztelaniaz egiteko.

Erantzuna: LURRALDE ZUZENDARIA: *Estatuko Administrazio Orokorrak, TGSS horren parte da, uztailaren 29ko 951/2005 Errege Dekretuaren 15. eta hurrengo artikuluen bidez ezarrita dauka herritarren kexak jaso eta bideratzeko sistema. Arau hori garatuz, Gizarte Segurantzaren Zerbitzuak protokolo bat ezarri du kexa eta iradokizunak kudeatu eta erantzuteko, eta protokolo horren arabera herritarrak kexa edo iradokizuna formalki aurkeztu behar du, bere nortasuna agertuz, Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera datu horiei tratu konfidentziala emango bazaie ere. Kasua zabaldua, behar diren egiaztapenak egingo dira eta herritarrak erantzuna jasoko du, eta gainera, kasuak hala eskatuko balu behar diren neurriak hartuko dira, hizkuntzaren alorrean nahiz bestelakoetan. Herritarrak bi bide ditu kexa aurkezteko: 1. Telematikoa. DNI sarbidea ahalbidetzen duen, edo eskumena duten agintariak luzatutako beste edozein ziurtagiri behar da horretarako. Halakorik ezean, zuzenean aurkeztea da 2. bidea, Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara bertaratu eta kexa eta iradokizunetarako imprimakia bete eta sinatu ondoren Gizarte Segurantzaren Zerbitzu Komuneko erregistroan sarrera emanaz.*

Dosierra: 324-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Institutuak Europako osasun txartela bidali dit. Txartela gaztelania hutsean idatzita dago, baita harekin batera heldu den aurkezpen gutuna ere.

Erantzuna:

Dosierra: 340-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Arrazoa: Gizarte Segurantzak Bilboko Iruña kalean duen bulegora joan nintzen maiatzaren 23an, nazioarteko osasun-txartela egiteko asmoz. Funtzionario jaunari euskaraz bazekien galdetu eta buruko keinu hutsaz erantzun zidan ezetz. Ez da hori gertatzen zaidan lehen aldia (izatez, inoiz inork ez du euskaraz jakiten bulego horretan).

Erantzuna: *Hizkuntza-eskubideen bermea eta babesa bultzatzea da Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren nahi eta kezketariko bat. Jakin badakigu gure bezero guztiek euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela eta hala egiten da eskatzen dutenean. Baina hau ez da beti posible izaten, justifikatutako kanpoan izateak gertatzen direlako tarteka, batez ere opor garaian.*

Dosierra: 464-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Arrazoa: Gaztelania hutsean jaso dut Gizarte Segurantzaren Altxortegitik bidalitako sms mezu hau: TRAMITADA BAJA DE FECHA 30 06 2013 EN DEPARTAMENTO DE EDUCACION.MAS INFORMACION 901502050.TESORERIA GRAL.SEG.SOCIAL

Erantzuna:

Dosierra: 71-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL- INSS

Arrazoia: Uztailaren 1ean Gizarte Segurantzaren Durangoko bulegora azaldu naiz Europako Osasun Txartela eskatzera. Sarreran txandak ematen diharduen langileari esan diot "Egun on, Europako Osasun Txartela eskatzeko" eta gaztelaniaz erantzun dit galdetzen "¿Para quién es, para ti?" eta erantzun diot "Bai, niretako da", buru- eta esku-keiniz lagunduta. Orduan bota diot "¿me puedes hablar 'en erderaz' [sic], por favor?" eta erantzun diot "Sí, pero ya me has entendido...". Gaztelaniaz segitu dugu elkarrizketa. Zenbakia eman dit eta azkenean berarekin egokitu zait tramitea egitea. Beraz, funtzionarioak euskaraz ez hitz egiteaz gainera, nik euskaraz egitea ere galarazi dit, ulertzeko batere arazorik ez bazuen ere.

Erantzuna:

Dosierra: 73-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL- INSS

Arrazoia: Uztailaren 1ean Gizarte Segurantzak Durangoko Francisco Ibarra kalean duen bulegora azaldu naiz Europako Osasun Txartela eskatzera. Ordezko agiri bat eman dit, behin-behinekoa ("Certificado provisional sustitutorio de la Tarjeta Sanitaria Europea"), gutxi gorabehera bidaia-egunetarako baizik balio ez duena. Bada, dokumentua ez dago euskaraz.

Erantzuna: ZUZENDARI PROBINTZIALA: *Estatuko Administrazio Orokorraren kide modua, prestazioen kudeaketa gure Zerbitzu Zentralek egiten dituztela adierazi behar dizugu. Zerbitzu Zentral horiek dira Autonomia Erkidego guztietarako, modu arautuan, erabilitako aplikazio informatikoak diseinatzen dituztenak. Hala ere, jakinarazten dizugu zure idazkian egindako proposamenaren berri eman diegula Zerbitzu Zentralei, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten erkidegoetan dagozkien neurriak har ditzaten.*

Dosierra: 582-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – SECRETARIA DE ESTADO

Arrazoia: Nafarroan euskara ofiziala den eremuan bizi naiz. Hala ere, Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzak urtero ohi duen moduan langileei zuzendutako 2013ko Komunikazio kanpainaren barruan bidali dizkidan agiriak (gutuna, lan historiala, kotizazio oinarriak, herritarraren asebetetzea neurtzeko galdetegia eta datuak eguneratzeko inprimakia) ez daude euskaraz idatziak; guztiak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Dosierra: 675-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - TGSS

Arrazoa: Iruñeko herritarra naiz eta ez ditut euskaraz jaso "Campaña de Comunicación a los Trabajadores 2013"ri loturiko gutuna, txostena, txostenean agertzen diren hitzen glosarioa eta datuak eguneratzeko orria. Den-dena gaztelaniaz baino ez dago.

Erantzuna: TGSS, Zuzendaritza Nagusia: *"Espainiako Konstituzioko 3.2 eta 3.3 artikuluek zenbait Autonomia Erkidegotako hizkuntzen koofizialtasuna aitortzen dute. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra ahalegin handia egiten ari da herritarrari zerbitzuak gerturatzeko eta horretarako ezinbestekoa da informazioa eta zerbitzuak ahalik eta neurri handiengan eskuratzea Estatuko hizkuntza koofizialean. Kexan aipatutako kanpainako dokumentazioa gaztelaniaz burutzen da Nafarroako. Hala ere, erakunde honi dagozkion eskumenekoak diren alorretan zenbait urrats egiten ari da Europako Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Itunaren III. parte eta irailaren 17ko 1465/1997 Errege Dekretuan hizkuntza koofizialei dagokiena aplikatu eta garatzeari begira. Horien artean inprimaki eta ereduak, hizkuntza-paisaia eta kartelak. Hala ere, arlo batzuk jorratzeke daude, baina horietan ere Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra bertako hizkuntzen erabilerara egokitzeko interes handiz jarraitzen du lanean".*

Dosierra: 690-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – TGSS

Arrazoa: Espainiera hutsean jaso dut Gizarte Segurantzaren Altxortegiaren Tolosako bulegotik bidali didaten ebazpena, nahiz eta hemen euskara ere hizkuntza ofiziala izan eta erretiroa hartzeko betetako paperetan jakinarazpenak euskaraz nahi nituela adierazi.

Erantzuna:

Dosierra: 709-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL –TGSS

Arrazoa: Urriaren 29an Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzatik bidalitako jakinarazpen bat jaso dugu enpresan eta ez dago euskaraz idatzia. Jakinarazpenaren gaia "Datos Contacto NOTESS" da.

Erantzuna: TGSS - BIZKAIKO LURRALDE ZUZENDARIA: *Espainiako Administrazio Orokorra, -Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia haren parte da, uztailearen 29ko 951/2005 Errege Dekretuko 15. artikulua eta hurrengo bidez arautzen du herritarren kexak nola jaso eta zer trataera eman. Arau hori garatuz Gizarte Segurantzaren Zerbitzu Amankomunak protokolo bat sortu du kexak aztertu eta erantzuteko, eta ondorioz kexa edota iradokizuna formalki aurkeztu behar da, kexa-egilea identifikatuz. Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz, kasua zabaldu eta behar diren egiaztapenak eginda, konfidentzialtasunezko trataera emango zaio, erantzun egingo da, eta behar izanez gero, neurri egokiak hartuko dira, hizkuntza alorrean, nahiz gainerakoetan. Heritarrak bi bide ditu horretarako: 1) Bide telematikoa, ekainaren 22ko 11/2007 Legean oinarritzen dena, DNI sarbidea edo eskudun agintzaritzak luzatutako beste edozein ziurtagiri behar da horretarako. 2) Gure administrazioetako edozeinetara bertaratzea, eta kexa eta iradokizunetabulegotara bertaratu eta kexa eta iradokizunetarako imprimakia bete eta sinatu ondoren Gizarte Segurantzaren Zerbit*

---

Dosierra: 932-2013  
 Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL – TGSS  
 Arrazoia: Gizarte Segurantzatik, Bizkaiko Administrazioetik, beste jakinarazpen bat jaso dugu, berriz ere gaztelera hutsean. Euskaraz ez egoteaz gain, bertan agertzen diren posta elektronikoetan ez da betetzen ere bestelako legeria, zeinek dioena "Bizkaia" izan behar dela izen ofiziala eta ez "Vizcaya".

Erantzuna:

---

Dosierra: 934-2013  
 Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - SEPE  
 Arrazoia: Azaroaren 18an, goizean, SEPEko 948.99.05.79 telefonora deitu nuen eta erantzungailuak gaztelaniaz esan zuen mezu oso-osoa.

Erantzuna:

---

Dosierra: 954-2013  
 Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
 Arrazoia: Gizarte Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriotik, berriz ere, gaztelera hutsezko gutuna jaso dugu. Gutunazala ere berdin.

Erantzuna:

---

Dosierra: 212-2013  
 Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL - FOGASA  
 Arrazoia: FOGASAK gaztelania hutsean bidali dio Iruñeko erakunde bati espediente baten inguruko ebazpenaren jakinarazpena.  
 Erantzuna: FOGASAREN NAFARROAKO ADMINISTRAZIO UNITATEKO BURUA: Kasu honi aplikatu dakiokkeen hizkuntza-legeriari erreparatuz (LORAFNA, 18/1986 Foru Legea, 4/1999 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) eta kontuan izanda FOGASA ez dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakundea, Espainiako Estatuko Administrazio Orokorraren menpekoa baizik, eta bestalde, Nafarroako administrazio-unitatea Iruñean duela, euskara ofiziala ez den eremuan, alegia, ez dago legez jakinarazpenak edo ebazpenak ele bietan ematera behartuta.

---

Dosierra: 996-2013  
 Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL-FOGASA  
 Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Fogasatik jakinarazpen bat jaso du gaztelaniaz.

Erantzuna:

---

MINISTERIO DE FOMENTO

Dosierra:	166-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - ADIF
Arrazoia:	ADIF-eko web gunean, euskarazko bertsioan, gaztelania da nagusi: <a href="http://www.adif.es/eu/ES/index.shtml">http://www.adif.es/eu/ES/index.shtml</a>
Erantzuna:	
Dosierra:	167-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - ADIF
Arrazoia:	ADIF-eko web guneak ez du BIZKAIA izendapen ofiziala errespetatzen.
Erantzuna:	
Dosierra:	196-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – ADIF
Arrazoia:	Bilboko Abando-Indalecio Prieto tren-geltokian hainbat lokal libre daude eta alokagai ipiniak ditu ADIF enpresa publikoak. Bada, lokaletan hainbat kartel daude ipinita, erdara hutsean den-denak, alokagai direla iragartzen: "Local disponible/Para más información Tf 944879371/Existen más locales/espacios disponibles/ Consulte nuestra página web <a href="http://www.adif.es">www.adif.es</a> "
Erantzuna:	
Dosierra:	317-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - ADIF
Arrazoia:	Bilboko Abando-Indalecio Prieto tren geltokian erdara hutsean zeuden kartelak euskaratu dituzte, eta erdiak daude euskaraz eta beste erdiak gaztelaniaz. Euskarazkoek, baina, akatsak dituzte: "alokaitzeko lokala", "alokaitzekoak", diote "alokatzeko lokala" edo "alokatzekoak" beharrean.
Erantzuna:	LEHENDAKARIAREN ETA KOMUNIKAZIO KABINETEAREN ZUZENDARITZA. IPAR-EKIALDEKO ORDEZKARITZAKO BURUA. <i>Erreklamazioa aipatutako kartelen kokapenari buruzko informazioa eskatzen du.</i>
Dosierra	510-2013
Erakundea:	GOBERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO-ADIF
Arrazoia:	ADIF enpresa publikoak Bilboko Bailen kaleko bulego-eraikin bat konpontzen ari da eta kartela ipini du bertan erdara hutsean: "Rehabilitación de las fachadas del edificio de oficinas de ADIF de la c/Bailén nº 1, de Bilbao [...]"
Erantzuna:	
Dosierra	628-2013
Erakundea:	GOBERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO-ADIF
Arrazoia:	ADIF enpresa publikoak erdara hutsean argitaratu du gaur, urriak 11, El Correo egunkarian, Langraiz Okako etxebizitza baten enkantearen berri emateko iragarkia.
Erantzuna:	

Dosierra: 236-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA

Arrazoia: 2012ko azaroaren 23an Bilboko aireportuko arreta gunera joan nintzen, zalantza bat argitzeko. Bertan zegoen pertsonak ez zekien euskaraz eta momentu horretan beste inor ez zegoenez, erdaraz jarraitu behar izan nuen.

Erantzuna: AIREPORTUEN SAREKO ZUZENDARIA: *Aireportuan bezeroei arreta egiteko bi puntu daude, eta gutxienez horietako batean edo bietan jendeari arreta euskaraz egiteko gai den pertsona bat badago. Kexan aipatzen duzun egunean, zoritxarrez, zu izan zinen puntuan ez zegoen arreta euskaraz egiteko gai zen inor, baina bai beste arreta puntuan. AENAK behar diren bitartekoak jarri ditu arreta puntuetako langileek euskara ikas dezaten eta herritarren hizkuntza-eskubideak berma daitezen. Aurten, urtarrilaren 13n hasi ziren ikastaroak, eta une honetan 2013-2014 ikasturtean formakuntzarekin aurrera jarraitzeko neurriak hartzen ari gara. Zure erreklamazioa kontuan hartuko dugu, oso baliagarria baitzaigu ematen dugun zerbitzua hobetzeko.*

Dosierra: 247-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA-

Arrazoia: Loiuko aireportuko aparkaldia ordaintzeko makinetan euskara hautatuta ere, ordainagiria gaztelania hutsean ateratzen da. Euskaraz ageri den berba bakarretakoa 'Ausoa' da eta txarto idatzia dago; 's' hizkia baitu 'z' beharrean.

Erantzuna: BILBOKO AIREPORTUA, *Gabinete y Servicios Aeroportuarios Departamentuko Burua: "1) Herritarrak dioen moduan, "Denbora laburreko aparkalekuko" ordainagiritan "Auzoa" hitza gaizki idatzita zegoen, eta akats hori dagoneko zuzenduta dago. 2) Aireportuan beste bi aparkaleku gehiago daude: a) P2 edo "Denbora Luzeetarako aparkalekua", eraikitzen azkena, eta bertako makinek inprimatzen dituzten ordainagiriak euskaraz eta gaztelaniaz daude. b) P1 edo "Erabilera orokorreko aparkalekuko" makinak berriz, zaharragoak dira. Makinen fabrikatzaileari herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan inprimatzea agiria eskatu diogu, baina teknologikoki ezinezkoa dela jakinarazi digu. Enpresak egoera zuzentzeko ordainagiriak luzatuko ditu bi hizkuntzak bata bestearen segidan agertzeko."*

Dosierra: 511-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - AENA -

Arrazoia: Loiuko aireportuan, heldueretako kanpoko aldeko aparkaldiak ordaintzeko makinetan gaztelania hutsean daude txanponak ("monedas"), tiketak ("tickets") eta kreditu-txartelak ("terjetas") nondik sartu behar diren adierazten duten errotiluak.

Erantzuna: BILBOKO AIREPORTUA, *Gabinete y Servicios Aeroportuarios: "Herritarrak Bilboko Aireportuan dagoen Denbora Laburreko aparkalekuari buruz jarri du kexa. Aparkaleku horretan ordaintzeko makinak piktogramaz errotilatuta daude. Ordaintzerakoan lau hizkuntzatan egiteko aukera ematen du. Aparkalekua kudeatzen duen enpresari, makinetan argibideak jartzerakotan euskaraz eta gaztelaniaz izan behar direla esan diogu."*

---

Dosierra:	577-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA
Arrazoia:	Gaur Hondarribiko aireportura deitu dut kontsulta bat egiteko. Erantzungailuak gaztelaniaz eta ingelesez egin dit, baina ez euskaraz.
Erantzuna:	AIREPORTUEN SAREKO ZUZENDARIA: <i>Aena Aeropuertos S.A.ren informazio eta Arreta Zerbitzu telefonikoa, Madrileko Arturo Soria kaleko 109. zenbakian kokatuta dagoena, Aena Aeropuertos-en aireportu eta heliportuen sareko informazioa eskaintzen duen zerbitzu zentralizatua da. Hortaz, ez da Donostiako Aireportuaren zerbitzu espezializatu bat, ezta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen zerbitzu bat ere; Aenaren sarean dauden aireportu eta heliportu guztiei eskainitako zerbitzua baizik. Harrerako mezuak Estatuko hizkuntza ofizial guztietan eta ingelesez eman beharko balira, bidaiariak egindako deia luzeegia izango litzateke; eta helburua berriz deien luzapena eta kostua ahalik eta gehien laburtzea da. Era honetan, herritar batek aireportu baten Informazio zerbitzura deia egiten duenean, 902404704 zenbakira deitzen du, Aena Aeropuertos S.A.ren Informazio eta Arreta Telefonikoaren zenbakira. Eta lehen esan bezala, informazio orokorrari buruzko sistema bat da, Arreta zerbitzua gazteleraz eta ingelesez eskaintzen duena deiaren iraupena laburragoa izan dadin. Hala ere, hegaldiei buruzko informazioa, behar duzun beste edozein gairen ingurukoa edota Euskal Autonomia Erkidegoan dauden aireportuei buruz behar duzun edozein informazio zure esku dago euskaraz Aena Aeropuertos-en web-orrian: <a href="http://www.aena-aeropuertos.es">www.aena-aeropuertos.es</a>.</i>

---

Dosierra:	578-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA
Arrazoia:	Gaur Loiuko aireportura deitu dut kontsulta bat egiteko. Erantzungailuak gaztelaniaz eta ingelesez egin dit, baina ez euskaraz.
Erantzuna:	AIREPORTUEN SAREKO ZUZENDARIA: <i>Aena Aeropuertos S.A.ren informazio eta Arreta Zerbitzu telefonikoa, Madrileko Arturo Soria kaleko 109. zenbakian kokatuta dagoena, Aena Aeropuertos-en aireportu eta heliportuen sareko informazioa eskaintzen duen zerbitzu zentralizatua da. Hortaz, ez da Bilboko Aireportuaren zerbitzu espezializatu bat, ezta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen zerbitzu bat ere; Aenaren sarean dauden aireportu eta heliportu guztiei eskainitako zerbitzua baizik. Harrerako mezuak Estatuko hizkuntza ofizial guztietan eta ingelesez eman beharko balira, bidaiariak egindako deia luzeegia izango litzateke; eta helburua berriz deien luzapena eta kostua ahalik eta gehien laburtzea da. Era honetan, herritar batek aireportu baten Informazio zerbitzura deia egiten duenean, 902404704 zenbakira deitzen du, Aena Aeropuertos S.A.ren Informazio eta Arreta Telefonikoaren zenbakira. Eta lehen esan bezala, informazio orokorrari buruzko sistema bat da, Arreta zerbitzua gazteleraz eta ingelesez eskaintzen duenuena deiaren iraupena laburragoa izan dadin. Hala ere, hegaldiei buruzko informazioa, behar duzun beste edozein gairen ingurukoa edota Euskal Autonomia Erkidegoan dauden aireportuei buruz behar duzun edozein informazio zure esku dago euskaraz Aena Aeropuertos-en web-orrian: <a href="http://www.aena-aeropuertos.es">www.aena-aeropuertos.es</a>.</i>

---



---

Dosierra: 795-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - AENA

Arrazoia: AENaren Noaingo aireportuan megafonia bidez ematen dituzten mezuak ez dira euskaraz izaten. Bertzeak bertze, hegazkinen iritsieren berri eta bidaiariei hegazkinera igotzeko atea irekia dagoela jakinaraztekoa gaztelaniaz eta ingelesez azaroaren 8an.

Erantzuna:

---

Dosierra: 797-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - AENA

Arrazoia: Noaingo aireportuko pantailetan, hegazkinen irteeren eta iritsieren berri ematen dituzten horietan, informazioa ez dago euskaraz idatzia, gaztelaniaz eta ingelesez bai.

Erantzuna:

---

Dosierra: 798-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - AENA -

Arrazoia: Noaingo aireportuan 0 solairuan dauden bulego eta gainerako zerbitzuen berri ematen duen kartela ez dago euskaraz idatzia. Ondokoa ageri da: "Facturación", "Oficinas AENA". "Embarque", "Restaurante", "Llegadas", "Equipajes extraviados".

Erantzuna:

---

Dosierra: 799-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – AENA -

Arrazoia: Noaingo aireportuan dauden zenbait ohar ez daude euskaraz idatziak; gaztelaniaz eta ingelesez bai. Besteak beste, "Zona videovigilada/video surveillance area" dioen eranskailu berdea, kafetegiko seinaleak "restaurante cafetería/restaurant coffee shop" edo argazkiak eta irudiak ezin direla grabatu dioen kartela.

Erantzuna:

---

Dosierra: 256-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS Y TELEGRAFOS

Arrazoia: CORREOSEk Agoizko herritarrari apirilaren 12an bidalitako mezu elektronikoa gaztelaniaz eta ingelesez dago, ez ordea euskaraz., Nafarroako berezko hizkuntza eta ofiziala izan arren.

Erantzuna: BEZEROAREN ARRETARAKO ARDURADUNA: *Correosek bezeroari bere paketea erreferentziak bulegoan duela sms bidez jakinarazi besterik ez du egiten. Paketearen edukiari buruzko gainerako guztia enpresa bidaltzailearen kontua da. Beraz, uste dugu, produktua igorri dizun enpresara jo beharko zenukeela, aipatzen duzun intzidentzia ez dagokiolako CORREOSi.*

---

Dosierra:	259-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS –
Arrazoia:	CORREOSek Agoizko herritarrari apirilaren 15ean posta bidalketa zein bulegotan jaso zezakeen jakinarazteko bidalitako mezu elektronikoa gaztelaniaz eta ingelesez zegoen, ez ordea euskaraz, Nafarroako berezko hizkuntza eta ofiziala izan arren.
Erantzuna:	
Dosierra:	264-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS
Arrazoia:	Apirilaren 18an, goizeko 11:00ak aldera CORREOSeko Arrotxapeako bulegora joan nintzen eta ezin izan nuen euskaraz egin langile euskaldunik ez zegoelako.
Erantzuna:	
Dosierra:	309-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - CORREOS Y TELEGRAFOS-
Arrazoia:	Agirre Lehendakariaren etorbidean dagoen posta-bulegora joan nintzen, Deustun, eta euskaraz hitz egin nien. Ohi duten legez, gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zidaten. Dagoeneko ez dakit zenbat aldiz errepikatu den egoera bulego horretan.
Erantzuna:	<i>BEZEROEN ARRETARAKO ARDURADUNA: bulego horretako langileei jakinarazi diegu, euren eginbeharra dela gure bezero guztiei harrera adeitsua egin eta zerbitzu egokia ematen ahalegintzea, eta bezeroaren galdera edo eskaerei haiek aukeratutako hizkuntzan erantzutea.</i>
Dosierra:	382-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS Y TELEGRAFOS-
Arrazoia:	<i>Trafikoko isuna ordainzera joan naiz Beasaingo postetxera. Bertan luzatu didaten ordainagiria (pago de denuncia de tráfico de la DGT) espainiera hutsean dago. Ez dute Gipuzkoako lurraldearen izen ofiziala ere errespetatu, "Guipuzcoa" jartzen baitu.</i>
Erantzuna:	<i>BEZERORAREN ARRETARAKO ARDURADUNA: Gaur egun CORREOS estatu-sozietate anonimoa da, eta begirune handia erakusten du Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialekiko. Ahalegin handia egiten dugu indarrean den legediak ematen ditugun zerbitzuen erabiltzaileei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak gauza daitezen, eta sentiberatasun handiz jokatzeko dugu hizkuntza-politikari dagokion arauak aplikatzerakoan, gure xeda bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan bi hizkuntzen erabilera sustatzea baita. Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan bi hizkuntza erabiltzen ditugu, oro har, izan inprimatuak, izan automatikoki luzatzen direnak, bai eta CORREOSek ematen dituen zerbitzuen azalpenetan, direla bulegoetako kanpoko nahiz barneko errotuluak, edo/eta argitalpen, jakinarazpen eta abarretan. Hala eta guztiz ere, DGTn salaketen ordainagiria hutsean idazten edo/eta argitalpen, jakinarazpen eta abarretan. Kexan aipatzen diren esku-orriak zenbait hizkuntzatan argitaratu uena deiaren iraupena laburragoa izan dadin. Hala ere, hegaldiei buruzko informazioa, behar duzun beste edozein gairen ingurukoa edota Euskal Autonomia Erkidegoan dauden aireportuei buruz behar duzun edozein informazio zure esku dago euskaraz Aena Aeropuertos-en web-orrian: <a href="http://www.aena-aeropuert">www.aena-aeropuert</a></i>

Dosierra: 422-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO - CORREOS Y TELEGRAFOS-

Arrazoia: Correosek Hondarribian duen bulegoan bezeroei arreta egiten dauden langileek ez dakite euskaraz. Ezin da bertan zerbitzua euskaraz jaso.

Erantzuna: *BEZEROEN ARRETARAKO ARDURADUNA: CORREOSek sentsibilitate handiz aplikatzen ditu hizkuntza-politikako arauak, eta jarrera aktiboa du zentzu horretan. Horren adierazgarri dira esku-orri, seinaletika eta abarreko euskarri elebidunak, bai eta langileak trebatzeko antolatzen dituen ikastaroak. Bestalde, posta bulegoetan eurek aukeratutako hizkuntzan egiten zaie harrera erabiltzaileei, salbu eta guztiz ezinezkoa den kasu puntualetan. Zuk aipatutakoa horietako bat izan daiteke. Biziki sentitzen dugu, horregatik horrelako egoerak hondarrekoak izan daitezen egiten ari garen ahalegina berretsi nahi dugu.*

Dosierra: 444-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA - MINISTERIO DE FOMENTO -CORREOS-

Arrazoia Tolosako posta bulegoan zigilatutako gutuna jaso dut. Zigiluetako idazpenak gaztelania hutsean daude "Correos/España/Franqueo pagado en oficina" dio batek. "Guipuzcoa-26,6,13-Tolosa" besteak. Beraz, probintziaren izen ofiziala ere ez da errespetatzen bigarren honetan.

Erantzuna:

Dosierra: 605-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS Y TELEGRAFOS-

Arrazoia: Biasterira igorritako gutun bat jaso genuen bueltan abuztu hasieran Iruñean. Itzuleraren arrazoia azaltzeko zigilu bat jarri zioten gutunazalari atzealdean. Zigilu hori gaztelaniaz eta frantsesez idatzita dago, baina ez euskaraz: "RETOUR-DEVUELTO" - INCONNU-Desconocido, REFUSÉ-Rehusado..." Guardia-Laguardian jarritako zigilua da.

Erantzuna: *BEZEROAREN ARRETARAKO ARDURADUNA: Dagokion posta-bulegoak jakinarazi digu zuk agertutako intzidentzia konpontze bidean dela eta horretarako itzultze-zigilu berriak prestatzen ari direla, itzulketaren arrazoiak euskaraz ere ager daitezen.*

Dosierra: 987-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – CORREOS Y TELEGRAFOS

Arrazoa: CORREOSek bidalitako publizitate-gutuna jaso dugu TU SELLO izeneko produktuaren berri emanaz. Informazio guztia gaztelania hutsean idatzita dago. Hiz bakar bat ere ez da ageri euskaraz

Erantzuna: BEZEROAREN ARRETARAKO ARDURADUNA: *Correos Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialekiko berigune gandia erakusten duen eEstatuaren Sozietate Anonimoa da. Gure zerbitzuen erabiltzaileei legediak aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean arigara, eta sentsibiltate handiz aplikatzen ditugu hizkuntza-politikako arauak, jarrera aktiboa erakutsiz zentzu horretan. Horren adierazgarri da esku-orri, seinaletika eta abarreko euskarri elebidunak, bai eta langileak trebatzeko antolatzen dituen ikastaroak. Aurrera begira ere, irizpide horiek garatzen jarraituko dugu bi hizkuntza ofizialen erabilera errazteko asmoz. Euskal Autonomia Erkidegoan bezala bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan bi hizkuntza erabiltzen ditugu, oro har, zerbitzuetako inprimaki, esku-orri eta herritarren eskura jartzen ditugun gainerako agerietan, izan inprimatuak, izan automatikoki luzatzen direnak, bai eta CORREOSek ematen dituen zerbitzuen azalpenetan, jakinarazpen eta abarretan. Kexan aipatzen diren esku-uenaren deia iraupena laburragoa izan dadin. Hala ere, hegaldiei buruzko informazioa, behar duzun beste edozein gairen ingurukoa edota Euskal Autonomia Erkidegoan dauden aireportuei buruz behar duzun edozein informazio zure esku dago euskaraz Aena Aeropuertos-en web-orrian: [www.aena-aeropuertos.es](http://www.aena-aeropuertos.es). Jarrera proaktiboa kaontua hartzekoa dela uste dugu, eta horrela ulertu behar da indarrean dagoen legeria betetzeko duen prestutasuna ez ezik, hizkuntza-irizpideak aplikatzeko garaian duen sentsibiltate berezia.*

Dosierra: 62-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE-

Arrazoa: Irungo RENFE tren geltokiko 943 64 96 37 telefonoa hartzen duten langileak ez dira euskaldunak. Deitzen dudan guztietan lehen hitza euskaraz egin arren, erdaraz jarraitu behar izaten dut.

Erantzuna:

Dosierra: 63-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO – RENFE

Arrazoa: RENFEen lan egiten duten langile gehienak (leihatiletakoak, ikuskatzaileak, bezeroen arretarako bulegokoak) ez dira euskaldunak. Ez dute bermatzen haiekin euskaraz jardun ahal izatea.

Erantzuna:

Dosierra: 65-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO -RENFE-

Arrazoa: RENFEren txartelak ateratzeko makinetan "euskara" hautatuta ez da guzti-guztia euskaraz agertzen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 299-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO -RENFE-

Arrazoia: RENFERentzako kexa euskaraz idatizta aurkeztu nuen Donostiako Groseko geltokian uztaila hasieran. Euren erantzuna ez dut euskaraz jaso, gaztelania hutsean baizik. Aipatu erantzunak "Gerencia de Bilbao y San Sebastian" dioen zigilua du. Hortaz, zigiluan ez dira hirien euskarazko izen ofizial ageri.

Erantzuna:

---

Dosierra: 777-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO -RENFE-

Arrazoia: Urriaren 23an Ordiziako tren geltokiko leihatilara joan naiz bidaia-txartela ateratzera eta ezin izan dut euskaraz aritu egokitu zaidan langileak ez zekielako euskaraz.

Erantzuna:

---

Dosierra: 800-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE FOMENTO -RENFE-

Arrazoia: Brinkola-Irun bidaia egitean, tren horretarako txartel-behatzailearekin erdara hutsean egin behar izan dugu, euskara menperatzen ez zuelako. Trena 07:29an hartu dut Zumarragan eta Beasainen agertu da inspektorea, 07:40ean.

Erantzuna:

---

MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

Dosierra:	629-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - MUFACE
Arrazoia:	MUFACEk Iruñean duen egoitzara deitu dut goizeko 09:30etan. Gaztelaniaz egin didate harrera eta euskaraz artatuko ninduten galdetuta, ezetz erantzun didate. Ezin izan dut beraz zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Dosierra:	673-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO
Arrazoia:	Gernika-Lumoko 1. Loteria Administrazioan zozketa baterako loteria-billetea erosi nuen urriaren 5ean. Atzealdean daukan zigiluan ez dira herriaren eta kalearen izen ofizialak errespetatzen; "Guernica y Luno" eta "Artecalle" ageri dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	674-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO
Arrazoia:	Loterías y Apuestas del Estado-ren webgunean saltokiak ordezkartzaren arabera bilatzeko aukera dago. Bada, probintziak zerrendatzean ez dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren izendapen ofizialak errespetatzen.
Erantzuna:	
Dosierra:	707-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - AGENCIA TRIBUTARIA
Arrazoia:	Urriaren 28an AGENCIA TRIBUTARIAren Bizkaiko ordezkartzatik bidalitako jakinarazpen bat jaso dugu enpresan, oso garrantzitsua gainera, eta ez dago euskaraz idatzia. "Notificación de inclusión obligatoria en el sistema de dirección electrónica habilitada y asignación de al misma para la práctica de notificaciones" ageri da izenburuan.
Erantzuna:	
Dosierra:	1005-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - REAL CASA DE LA MONEDA
Arrazoia:	Real Casa de la Moneda-Fábrica Nacional de Moneda y Timbre delakoak erdara hutsean argitaratzen ditu iragarkiak Euskal Herriko egunkarietan. Horren adibide 2013-12-02ko Correion agertutakoa, "COLECCIÓN CONMEMORATIVA EN ORO Y PLATA / MILENIO REINO DE GRANADA" izenburua duena.
Erantzuna:	

Dosierra: 1007-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS - REAL CASA DE LA MONEDA

Arrazoia: Real Casa de la Monedaren web-orriaren euskarazko bertsioan atal asko euskaratu gabe daude. Euskaratuta daudenetan gainera akatsak ageri dira: Esaterako menu nagusian: "Erakunde/Productos y Servicios/ Bildumazalearen" irakur daiteke.

Erantzuna: MUSEOKO BURUA: *Hedabideetan txertatutako publizitateari edota web gunearen eskuragarritasunari buruz jasotzen dugun lehen kexa da honako hau. Diru eta Tinbre Fabrikak ez du Espainiako herritarren eskubide eta betebeharrei eragiten dien kanpaina instituzionalik egiten, aitzitik, bilduma-txanponak ezagutzera eman eta saltzera bideratutako ekintza komertzialak burutzen ditu, estatu osoan mezu eta inpaktu bisual berbera erabiliz. Publizitate tarteen kontratazioa, kasu honetan Vocento Taldeko zenbait hedabideetan egin zen, jatorrizko bakar batetik abiatuz egiten da, eta talde editorialak proposatzen dizkigun bitartekoei eta eskakizun teknikoei jarraituz txertatzen da. Zure eskaria kontuan hartuko dugu, eta aurrekontuak ahalbidetzen digun neurrian, hari erantzuten saiatuko gara.*

---

## MINISTERIO DE INDUSTRIA, ENERGÍA Y TURISMO

Dosierra: 812-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE INDUSTRIA, ENERGÍA Y TURISMO

Arrazoia: Industria, Energia eta Turismo Ministerioak Estatu Espainiarrean turismoa sustatzeko kanpaina bat martxan jarri du, baina Eusko Autonomi Elkarteari dagozkion afixak gaztelania hutsean inprimatu dira.

Erantzuna:



## MINISTERIO DEL INTERIOR

Dosierra:	234-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO
Arrazoa:	Trafiko Zuzendaritza Nagusiak erdara hutsean bidali dit isun baten notifikazioa.
Erantzuna:	<p>TRAFIKOKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>1978ko Konstituzioaren 3. artikulua</i>k xedatzen du gaztelania dela Estatu osoko hizkuntza komuna eta guztiok ezagutu beharrekoa. <i>LORAFN</i>aren 9. artikuluaen arabera euskara ofiziala izango da gaztelaniarekin batera Nafarroako zonalde euskaldunetan, baina ez da xedatzen euskara nahitaz jakin beharrekoa denik, ez eta gaztelania jakinarazpen ofizialetatik bazter utzi behar denik ere. <i>Jakin</i>arazpenak gaztelaniaz idazteak denek ulertzea bermatzen du eta Nafarroako euskal eta erdal hiztunen arteko diskriminazioa eragozten du. Hizkuntza-eskubideei dagokienez, <i>Erakunde</i>en hizkuntza-arabidea xedatzen duen Europako Kontseiluko 1. Erregelamenduak komunikazioak herritar guztiak ulertzeko eran egiteko irizpidea lehenesten du, segurtasun juridikoaren mesedetan. Beraz, trafikoko isuna jakinarazteko gaztelania erabiliz herritarrek jakinarazpena ulertuko duela ziurtatzen da. Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/82/UE arteztaraua jarraitu dela deritzogu. Honela dio: hartzailleak ongi ulertzeko probabilitaterik handieneko hizkuntzan egingo dira jakinarazpenak, herritarrek jakinarazten zaiona ongi ulertzeko bermerik handiena eskaintzen duen hartan, alegia. Guregana jo izana eskertzen dizugu eta jakinarazten dizugu etorkizunean jakinarazpenak Espainiako hizkuntza koofizial guztietan egin daitezen lan egingo dugula.</p>
Dosierra:	235-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO
Arrazoa:	Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren web gunean isunak ordaintzeko sistema erdara hutsean dago. Hartara, ordainketaren ziurtagiria ere espainol hutsean jaso dut.
Erantzuna:	<p>TRAFIKOKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>1978ko Konstituzioan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen</i> markoan oinarritzen da euskararen erabilera Estatuko Administrazio Orokorrean. <i>1978ko Konstituzioaren 3. artikulua</i>k xedatzen du gaztelania dela Estatu osoko hizkuntza komuna eta guztiok ezagutu beharrekoa. <i>Autonomia Estatuari buruzko 3/1979 Lege Organikoaren 6. artikuluan</i> ezartzen da, euskara, Euskal Herriko hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango dela gaztelaniarekin batera. <i>Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 36.1. artikulua</i>k dio, Estatuko administrazio orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko direla. Espainiako estatua bezalako errealitate anitz eta konplexu batean jarduten duen Administrazio baten jarduketaren eraginkortasunak eskatzen du DGTren web orria herritar guztiek ulertzeko irizpidean oinarritzea segurtasun juridikoaren gi ulertzeko probabilitaterik handieneko hizkuntzan egingo dira jakinarazpenak, herritarrek jakinarazten zaiona ongi ulertzeko bermerik handiena eskaintzen duen hartan, alegia. Guregana jo izana eskertzen dizugu eta jakinarazten dizugu etorkizunean jakinarazpenak Espainiako hizkuntza koofizial guztietan egin daitezen lan</p>

Dosierra:	380-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO
Arrazoia:	Maiatzaren 18an legeak baimentzen duena baino abiadura handiagoan pasa nintzen N-I errepidean Altsasu aldean dagoen radar baten paretik. Maiatzaren amaieran Espainiako Trafiko Zuzendaritzatik bidalitako isuna jaso dut, espainiera hutsean.
Erantzuna:	<i>KALITATE ETA GAI OROKORRETAKO ZERBITZU-BURUA: 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua xedatzen du gaztelania dela Estatu osoko hizkuntza komuna eta guztiok ezagutu beharrekoa, eta hura erabiltzeak herritarrak jakinarazpena ulertzea bermatzen du. LORAFNaren 9. artikulua arabera euskara ofiziala izango da gaztelaniarekin batera Nafarroako zonalde euskaldunetan, baina ez da xedatzen euskara nahitaez jakin beharrekoa denik, ez eta gaztelania jakinarazpen ofizialetatik bazter utzi behar denik ere. Jakinarazpenak gaztelaniaz idazteak denek ulertzea bermatzen du eta Nafarroako euskal eta erdal hiztunen arteko diskriminazioa eragozten. Gainera segurtasun juridikoa bermatzen du, jakinarazpenak hartzailerak ongi ulertzeko probabilitaterik handieneko hizkuntzan egin behar baitira. Guregana jo izana eskertzen dizugu eta jakinarazten dizugu etorkizunean jakinarazpenak Espainiako hizkuntza koofizial guztietan egin daitezen lan egingo dugula.</i>

Dosierra:	496-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO
Arrazoia:	Nafarroako herritarra naiz eta uztailearen 24an gidabaimena jaso nuen etxean; ez dago euskaraz idatzia. Berarekin batera zetorren eskutitza ere ez zegoen euskaraz idatzia. Eskutitzaren goiburuan “Jefatura Provincial de Tráfico Navarra” ageri da eta sinatzailea - María Seguí Gómez, Directora General de Tráfico- da. Gutunazalean ere ez dago hitz erdirik euskaraz.
Erantzuna:	<i>DGT, Jefa de Servicio de Calidad y Asuntos Generales: “1978ko Konstituzioaren 3. artikulua xedatzen du gaztelania dela Estatu osoko hizkuntza komuna eta guztiok ezagutu beharrekoa. LORAFNaren 9. artikulua arabera euskara ofiziala izango da gaztelaniarekin batera Nafarroako zonalde euskaldunetan, baina ez da xedatzen euskara nahitaez jakin beharrekoa denik, ez eta gaztelania jakinarazpen ofizialetatik bazter utzi behar denik ere. Jakinarazpenak gaztelaniaz idazteak denek ulertzea bermatzen du eta espainiar lurraldeko eremu misto batean euskal eta erdal hiztunen arteko diskriminazioa eragozten. Aipatutako hizkuntza-eskubideei dagokienez, Europar Batasuneko Kontseiluaren 1. Araudiak hizkuntzen erabilera Instituzioetan arautzen du. Oinarrizko irizpide gisa jakinarazpenak herritar guztiek ulertzea ezartzen du. Segurtasun juridikoa errespetatu nahi izanez gero, ulergarritasun hori bermatzea ezinbestekoa da. Hori horrela, gida-baimena bidaltzeko hizkuntza gisa gaztelania erabili izanak herritarrak komunikazioa ulgi ulertzeko probabilitaterik handieneko hizkuntzan egingo dira jakinarazpenak, herritarrak jakinarazten zaiona ongi ulertzeko bermerik handiena eskaintzen duen hartan, alegia. Guregana jo izana eskertzen dizugu eta jakinarazten dizugu etorkizunean jakinarazpenak Espainiako hizkuntza koofizial guztietan egin daitezen lan egingo dugula. kuntzan egin behar dela baitio. Guregana jo izana eskertzen dizugu eta jakinarazten dizugu etorkizunean jakinarazpenak Espainiako hizkuntza koofizial guztietan egin daitezen lan egingo dugula.”</i>

Dosierra:	1023-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR - DIRECCION GENERAL DE TRÁFICO
Arrazoa:	Gaur bertan (2013/12/11) iritsi zait Espainiako Trafikoko Zuzendaritzatik nire automobilaren berri eta jakinarazpena gaztelania hutsean heldu zait.
Erantzuna:	

Dosierra:	562-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICÍA
Arrazoa:	DIRECCIÓN GENERAL DE LA POLICÍAren web gunean ez dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren izen ofizialak errespetatzen. Besteak beste, nortasun agiria tramitzeko bulegoetara buruzko informazioa ematerakoan. <a href="http://www.policia.es/documentacion/docu_esp/oficinas_provincia.php?id_region=18">http://www.policia.es/documentacion/docu_esp/oficinas_provincia.php?id_region=18</a>
Erantzuna:	DGP, Subdirección General del Gabinete Técnico: <i>"Jakinarazten dugu egungo legediak dioenarekin bat eginez, Dirección General de la Policíaaren web gune ofiziala eta egoitza elektronikoa moldatu direla"</i> .

Dosierra	26-2013
Erakundea	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR - DNI Y PASAPORTES
Arrazoa:	Herritarra nortasun agiria berritzera joan zen Donostiako bulegora otsailaren 4an. Ezin izan zuen izapide hau egiteko egokitu zitzaizkion bi langilerekin euskaraz hitz egin. Horretaz gain, langileek ez zioten euskaraz hitz egiteko beste aukerarik eskaini.
Erantzuna:	DONOSTIAKO COMISARIO PRINCIPAL, JEFE PROVINCIAL: "Donostiako bulegoetan langile elebidunak daude. Halaber, erreklamazio-liburua kontsultatuta, ez dago gai honekin harremana duen inolako kexarik. Herritarraren datuak ez ditugunez, ezin dugu gai honetan sakondu."

Dosierra:	477-2013
Erakundea:	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR - DNI Y PASAPORTES
Arrazoa:	Uztaila bukaeran Espainiako nortasun agiria berritzera joan nintzen Bilboko Gordoniz 8ko bulegoetara. Ez nuen zerbitzua euskaraz jaso; gaztelaniaz egitera behartu ninduten.
Erantzuna:	POLIZIAREN EUSKADIKO BURUZAGITZA NAGUSIA, Bilboko Komisario Nagusia: "Jakinerazten da funtzionari guztiek euskararen gaineko erabilera bikaina ez duten arren, norbaitek euskaraz berba egiteko eskubidea eskatuz gero badagoela zerbitzu hor ematea, nahiz ez unean uneko arreta erraztea sarritan ezinekoa izan funtzionarien lan ordutegia dela eta."

Dosierra: 631-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR - DNI Y PASAPORTES

Arrazoia: Nortasun Agiria izapidetzeko Iruñeko bulegoan herritarrei zuzendutako mezu gehienak gaztelania hutsean idatzita daude. Honakook esate baterako:- Estamos trabajando, por favor modere su tono de voz. - Prohibido usar teléfonos móviles.- Por favor, en beneficio de todos guarden silencio .- Se respetarán hasta 10 números pasados.- Atencion, este actualizador no es un juguete, utilizar sólo para su fin específico.- Prohibido el paso. Sólo personal autorizado. - Salida de emergencia errotulua.- Código ético kartela. - 10 sencillos consejos para estas vacaciones kartela.- Qué hacer en caso de emergencia kartela.

Erantzuna: *BURUA: Egia da, herritarrei kartel txikien bidez zuzendutako mezuetakoz batzuk, gaztelania hutsean daude. Nafarroako Adminisrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Dekretuaren 16.1. artikuluan, oharrak gaztelaniaz idatzi beharko direla arautzen da. Hala ere, Erkidego honetako aniztasuna errepetatze aldera, mezu horietako asko euskaraz ere badaude. Beraz, Burutza honek ezin du zure kexa aintzat hartu, Iruñeko NAN eta Pasaporteen Bulegoan ikusgai dauden oharrak 29/2003 Foru Dekretuaren aginduak betez idatzita baitaude.*

Dosierra: 632-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DNI Y PASAPORTES

Arrazoia: Nortasun agiria izapidetzeko Iruñeko bulegoan txanda emateko luzatzen dituzten papertxoak gaztelania hutsean idatzita daude. Honela diote: Ministerio del Interior. Dirección General de la Policía. DNle. Son las 08:33 del día 15/10/13. Tiempo entre numeros es de 000.

Erantzuna: *BURUA: Egia da, herritarrei kartel txikien bidez zuzendutako mezuetakoz batzuk, gaztelania hutsean daude. Nafarroako Adminisrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Dekretuaren 16.1. artikuluan, oharrak gaztelaniaz idatzi beharko direla arautzen da. Hala ere, Erkidego honetako aniztasuna errepetatze aldera, mezu horietako asko euskaraz ere badaude. Beraz, Burutza honek ezin du zure kexa aintzat hartu, Iruñeko NAN eta Pasaporteen Bulegoan ikusgai dauden oharrak 29/2003 Foru Dekretuaren aginduak betez idatzita baitaude.*

Dosierra: 633-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DNI Y PASAPORTES

Arrazoia: Legeak ezarritako Nafarroako eremu euskaldunean bizi naiz. Nortasun Agiria izapidetzeko Iruñeko bulegoan agiria euskarri elebidunean nahi nuela adierazi nuen. Ezinezkoa zela erantzun zidaten, garai batean posible izan zela, baina gaur egun guztiak gaztelania hutsean egiten direla.

Dosierra:	634-2013
Erakundea	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DNI Y PASAPORTES
Arrazoia:	Legeak ezarritako Nafarroako eremu euskaldunean bizi naiz. Nortasun agiri elektronikoa egiten izan naiz Iruñeko bulegoan, eta agiriarekin batera “Documentos de aceptacion de los certificados de identidad pública contenidos en el documento nacional de identidad electrónico” izenburuko informazio orria espainiera hutsez luzatu didate. Euskaraz baduten galdetu dut eta ezetz erantzun didate.
Erantzuna:	<i>BURUA: Iruñea Nafarroako eremu mistoan dago eta indarrean den araudiak ez du espresuki aitortzen euskararen ofizialtasuna eremu horretan. Gaztelania-euskara koofizialtasunak ez dioenez Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoari eragiten, Nafarroako kasuan berezko hizkuntzak dituzten gainerako Autonomia Erkidegoetan sortzen ez den gorabehera sortzen da. Horrexegatik ez zen aplikatu, hain zuzen ere, 2001eko martxoaren 13an onetsitako akordioa, honela dioena: “Gaztelaniaz gainera, beste berezko hizkuntza ofiziala duten Autonomia Erkidegoen lurraldeetan luzatzen diren Nortasun Agiri Nazionaletan ageri diren datu pertsonalei buruzko testuak, hizkuntza horretan ere idatziko dira”. Nortasun Agiri Nazionala eta sinadura elektronikoko bidezko agirien izapidetzea arautzen duen 1553/2005 Errege Dekretuaren 11.3. artikuluan goian adierazitako puntu bera jasotzen da. Orain artekoan, Nafarroako Nortasun Agiria izapidetzeko bulegoetan, Iruñean edo Tuteran, inoiz ez da NAN eredu elebiduna izapidetu. Gaur egun, Nafarroako Fgi ulertzeko probabilitaterik handieneko hizkuntzan egingo dira jakinarazpenak, herritarrek jakinarazten zaiona ongi ulertzeko bermerik handiena eskaintzen duen hartan, alegia. Guregana jo izana eskertz</i>

Dosierra:	635-2013
Erakundea	GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DEL INTERIOR – DNI Y PASAPORTES
Arrazoia:	Nortasun Agiria izapidetzeko Iruñeko bulegoan izan naiz agiria berritzen. Ezin izan dut egokitu zaidan langilearekin euskaraz jardun badakien galdetu eta ezetz erantzun didalako.
Erantzuna:	<i>NAFARROAKO POLIZIA BURUTZA NAGUSIKO BURUA: Guk dakigularik herritar bakar bat ere ez da atera bulego honetatik Nortasun Agiri Nazionala eskuratu gabe, hizkuntza bat edo bestea erabili izanagatik. Fundazio horrek esku artean dugunaren gisako kexak egin dituen jaso izan duen erantzuna trakribatuko dugu hitzez hitz, eta bide batez, eskatzen dizugu gaia erreklamazio gaintzeko eskumena duten organoei zuzentzeko. “Une honetan ez dugu herritarrei arreta euskaraz eskaintzeko gai den langilerik, beste kexa batzuek direla eta jakinarazi izan dizuegun moduan. Nafarroako Polizia Burutza Nagusiak ez du eskumenik langile horien gainean, beraz, indarrean den Araudia betez, Barne Ministerioko Segurtasunerako Estatu Idazkaritzari bidali dio erreklamazioaren kopia”.</i>

## MINISTERIO DE JUSTICIA

---

Dosierra: 37-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA

Arrazoia: Otsaila hasieran Deustuko Merkataritza Erregistroan izan nintzen. Eman zidaten ziurtagiriaren eredua ez zegoen euskaraz idatzia. Horrez gain, errotulazioaren %90 ez dago euskaraz idatzia eta iragarki taulako ohar guztiak gaztelaniaz baino ez daude.

Erantzuna:

---

Dosierra: 398-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA

Arrazoia: Interneten sartu naiz jabetza-erregistroan kontsulta bat egiteko, eta <http://www.registropropiedad.com/> web gunea gaztelania hutsez atera zait. Ez dut aurkitu hizkuntza aldatzeko aukerarik

Erantzuna:

---

Dosierra: 424-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA - REGISTRADORES DE ESPAÑA - DGRN

Arrazoia: REGISTRADORES DE ESPAÑAren web gunean "Erregistroen bilatzailea" atalean ez dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeen izen ofizialak errespetatzen. Horrez gain, kontsultak euskarazko bertsioaren bidez egin arren, bilaketarako kontzeptuak ez daude euskaraz idatziak ("Provincias", "Municipios" etab. agertzen da) eta kaleen izenak ez dira euskaraz agertzen ("Calle", "Avenida", "Virgen Blanca" e.a.).

Erantzuna:

---

Dosierra: 1042-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: MINISTERIO DE JUSTICIA

Arrazoia: Usurbilgo Bake Epaitegiko idazkari titularrak erretiroa hartu du, eta haren ordez etorri den langile berriak ez daki euskaraz. Gauzak horrela, ezin da euskaraz jardun idazkariarekin egin beharreko administrazio-izapideetan.

Erantzuna:

---

## DELEGACIÓN DEL GOBIERNO

---

Dosierra: 478-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN BIZKAIA

Arrazoia: Espainiako Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztaren egoitzara joan nintzen maiatzaren 20an Hezkuntza-kontuei buruzko informazio eske eta, saiatu arren, ezin izan nuen euskaraz egin.

Erantzuna: GOBERNUAREN ORDEZKARIORETZA BIZKAIAN, Idazkaritza Nagusia: *"Adierazi nahi dizuegu aipatutako bulego horretan jendea erderaz zein euskeraz atenditzen duten langile gaituak dauzkatela eta beraz, oso zaila litzatekela doakionak eskatutako hizkuntza erabili ez izatea. Hala ere, kexa eta iradokizunentzat jadanik ezarrita dagoen prozedura egon arren, herritarrak ez zenez erabili, aipatutako kexa hori ez da jasota geratu."*

---

Dosierra: 397-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN GIPUZKOA

Arrazoia: Gipuzkoako udal batetik euskaraz bidali dugu Espainiako Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzara su artifizialei buruzko txostena. Txostena gaztelaniaz ere bidaltzeko eskatu digute.

Erantzuna:

---

Dosierra: 426-2013

Erakundea: GOBIERNO DE ESPAÑA: DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN GIPUZKOA

Arrazoia: Gaur 13:45ean Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen ordezkariartzara deitu dut, 943 989 000 zenbakira hain zuzen ere. Euskaraz hasi eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu didate. Ondoren, 943 989 346 zenbakira deitu dut, txertoen sailera, eta gauza bera gertatu zait. Euskaraz artatuko nauen norbait badagoen galdetu dut orduan eta "según para qué" erantzun didate.

Erantzuna:

---

## JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Dosierra:	750-2013
Erakundea:	BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIA
Arrazoia:	Azaroaren 7an Bizkaiko Probintzia Auzitegira gerturatu nintzen deklarazioa hartuko didaten epaitegia non dagoen jakiteko. Harrerako edo informazioko langileek ez zekiten euskaraz eta erdaraz hitz egin behar izan nuen.
Erantzuna:	EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA: <i>10/1982 Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, dio Justizia Administrazioarekiko harremanetan herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dutela, eta Eusko Jaurlaritzak, dagokien organoekin elkar hartuta, Euskal herriko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko duela (9. artikulua). 174/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari hizkuntza-normalkuntzari buruzkoak, horrela dio 14. artikuluan: "Herritarra funtzionarioari euskaraz zuzentzen zaionean, edota arreta hizkuntza horretan ematea eskatzen duenean, funtzionarioak, euskaraz behar adina ez badaki, langile elebidunen laguntza eskatuko du". Gauzak horrela, onartu beharra dago ez dela egokia izan herritarrek jaso duen erantzuna. Nolanahi ere, 174/2010 Dekretuak zabaldu duen bide berria. Horrela Dekretua indarrean sartu zenetik Justizia Administrazioan ere hizkuntza arrazoiengatik lanpostuak bereziten hasteko aukera dago, beti ere, herritarrei arreta euskaraz bermatu ahal izateko. Bide horri jarraituz, Herri Administrazio eta Justizia Saila Justizia Administrazioarako lanpostuen zerrendak berritzen ari da eta aurrera doa dekretuak "lanpostuak bereizteko prozesua" deitzen duena, bereizitako lanpostu horiei dagokion hizkuntza-eskakizuna ezarriz. Une honetan onartuta eta indarrean daude Euskal Autonomia Erkidegoko 11 barruti judizialetako lanpostuen zerrendak, eta Bilbokoak, Barakaldokoak eta Donostiakoak dira oraindik onartzeke daudenak. Prozesua bere osotasunean burutzen denean, beraz, herritarrekiko zuzeneko harremanean erabat bermatuta egongo da euskarazko arreta jasotzeko eskubidea.</i>

Dosierra:	47-2013
Erakundea:	CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
Arrazoia:	Abenduaren 12an Tolosako lehen auzialdiko eta instrukzioko 2.zk.ko ZULUPetik bidalitako eta epaitegiko idazkariak sinatutako idazkia jaso genuen Laskorain ikastolan. Bi galdera erantzutea eskatzen ziguten eta erantzuna bidali genuen. Handik bi egunera prozeduran sartuta dagoen gurasoari jakinarazi zioten erantzuna euskara hutsean zegoela eta egun horretan bertan gaztelaniaz bidali ezean ez ziotela agiriak dioena kontuan hartuko, epaileak ez dakielako euskaraz.
Erantzuna:	IKUSKARITZA SAILEKO NAGUSIA: <i>kexa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari bideratu diogu, gure ustez ardura berea da eta.</i>



Dosierra: 139-2013

Erakundea: CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

Arrazoia: Ekaina eta uztailean Agoizko epaitegira joan naiz zenbait aldiz, baita telefonoz deitu ere, baina ezin izan dut inoiz eta inorekin euskaraz egin ez baitago langile euskaldunik.

Erantzuna:

Dosierra: 1053-2013

Erakundea: CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

Arrazoia: Abenduaren 19an Nafarroako 3. epaitegian izan nuen epaiketa erdaraz izan zen eta itzultzailerik eskatu ez banuen ere, itzultzailea jarri zidaten. Nik ez nuen itzultzailea onartu, epaiketa euskaraz izateko eskubidea bainuen eta epaiketa erdaraz egin zen. Ez nuen nire burua defendatzeko aukerarik izan.

Erantzuna: GOBERNU IDAZKARITZA: *Salatutako gertaerek ez dute Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua urratzen, ez eta euskarari buruzko foru-legedia ere. Beste gauza bat da, euskararen erabilera sustatuko luketen neurriak hartu ahal izatea, hala nola, euskara dakiten langileak izatea, edota Administrazioan maiz erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz jartzea herritarren eskura, baina Auzitegi Nagusi honek ez du eskumenik, ez Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen hautaketa eta prestakuntzari dagokionez, ez eta bere jarduna burutzeko behar dituen baliabide materialen gainean ere, Justizia Ministeritza eta Nafarroako Gobernuari baitagozkie hurrenez-hurren.*

Dosierra: 215-2013

Erakundea: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia: Gizon batek proba batzuk egin behar zituen Auzitegiko mediku batekin Donostian. Aurrez jakinarazi zuen euskaraz egin nahi zituela eta itzultzaile bat jarri zioten ahozko zatia egiteko. Idatzizko probak egiterakoan, ordea, euskaraz egitea ezinezkoa zela esan zioten, euskaraz ez direla existitzen.

Erantzuna:

Dosierra:	751-2013
Erakundea:	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoa:	Lekuko gisa deklaratzeko hitzordua nuen gaur Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 5. aretoan. Itxarongelako eserlekuetan zegoen gizon batek galdetu dit ea 3. aretora nentorren eta nik ezetz, bosgarrenera nentorela erantzun diot eta bide batez galdetu diot 5. aretora sartu behar nuen ala kanpo aldean itxaron behar nuen norbaitek deitu arte. Azaldu dit 5. aretoko epaiketa bertan behera gelditu dela, ea ez didaten abisatu. Gero, eskuetan zituen paperen artean arakutzen hasi da eta datorren hilerako zitazioa eta sinatzeko paper bat atera dizkit. Sinarazi didan papera, zitazioa jaso dudala egiaztatzekoa, erdara hutsean zegoen.
Erantzuna:	JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA: <i>Kexan aipatzen den agiri hori Komunikazio Egintzen eta Betearazpenen Zerbitzu Erkideko (KEBEZE) langileek erabiltzen dute zitazio bat egiten dutenean komunikazio egintza hori behar bezala burutu dela ziurtatzeko. Une honetan KEBEZEn erabiltzen diren agiri guztiak bi hizkuntzetan ateratzen dira automatikoki, eta ez dago gaztelania hutsean ateratzen den dokumenturik. Hala ere, badakigu inoiz gertatu izan dela langileren batek, iraganeko inertiaren batengatik edo, indarrean dagoen eredu erabili beharrean baztertutako agiri zaharra erabiltzea. Bistan da jarrera hori Justizia Administrazioa modernizatzeko asmoaren aurkakoa dela, eta ez diola batere mesederik egiten eredu elebidunak betiko finkatzeko egiten den ahaleginari. Gauzak horrela, jakin ezazu Bizkaiko idazkari-koordinatzaileari jakinaraziko diogula, berriz ere horrelako praktika desegokirik gerta ez dadin.</i>

Dosierra	752-2013
Erakundea:	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA
Arrazoa:	Lekuko gisa deklaratzera joateko zitazio berria eskuratu didate Bizkaiko Probintzia Auzitegian. Zitazioa ele bietan dago baina euskarazko eta gaztelaniazko testua ez datoz bat. Euskarazkoak "aditua zaren aldetik" dio, "lekuko moduan" beharrean. Bestetik, euskarazko zutabeen berbarik berba ageri da -2013/11/12rako ikustaldia bertan behera geratu dela jakinaraz bekio- gaztelaniaz aldiz "Se deja sin efecto el anterior señalamiento del 12/11/2013 por suspensión" Inork ez dit jakinarazi ordea ikustaldia bertan behera geratuko zenik.
Erantzuna:	EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA: <i>Kexan aipatzen duzun lehen akatsari dagokionez, Probintzia Auzitegietan erabiltzen diren zitazio, jakinarazpen eta epatze-zedulak aztertu ondoren, lortu dugu dokumentu akastuna identifikatzea, eta zedula horretan garbi ikusi dugu gaztelaniazko "en concepto de testigo"ren tokian "aditua zaren aldetik" diola euskarazkoak. Akatsa ereduaren diseinuari dagokio, dokumentuaren testu finkoari, eta ez langileek txertatzen dituzten testu libreetakoren bati; ez da beraz, agiria bete duen langileari egotz dakiokkeen hutsa. Eredua berrikusi dugu eta dagokion zuzenketa txertatu da, aurrerantzean akatsik gabe atera dadin. Bigarren akatsari dagokionez, itzulpen memoria osoan kontsultak egin ditugu, baina ez dugu kexan aipatzen den esaldi hori inon detektatzerik lortu. Itzulpen memorian 200.000 itemetik gora daude jasota, bai dokumentu ereduaren testu finkoetakoak, bai langileek eredu horiek betetzerakoan txertatzen dituzten testu libreetakoak, baina, hala ere, ez dugu esaukera dago, beti ere, herritarrei arreta euskaraz bermatu ahal izateko. Bide horri jarraituz, Herri Administrazio eta Justizia Saila Justizia Administrazioarako lanpostuen zerrendak berritzen ari da eta aurrera doa dekretuak "lanpostuak bereizteko prozesua" deitzen duena, bereizitako lanpostu horiei dagokion hizkuntza-eskakizuna ezarri. Une honetan onartuta eta</i>

Dosierra 753-2013

Erakundea EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia: Lekuko gisa deklaratzera joateko zitazio berria eskuratu didate Bizkaiko Probintzia Auzitegian. Zitazioa ele bietan dago baina "zitazioa agindu duen organoa" atalean Bizkaia Probintzia Auzitegia jartzen du Bizkaiko beharrean.

Erantzuna: BILBOKO PROBINTZIA AUZITEGIA - LEHENDAKARIA: *10/1982, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea behar bezala ez betetzeak eragindako kexa da honakoa. Hori horrela, Botere Judizialak ez du horren gaineko eskumenik, eta beraz, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailera bideratu dugu kexa, langile publikoen hizkuntza-gaikuntza bere eskumena den heinean azter dezan.*

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA: *Bagenuen geuk ere arazo horren berri, Justizia Administrazioan erabiltzen diren dokumentuetan akats hori sistematikoki gertatzen baita "Bizkaia" hitzaren kasuan, eta egin beharreko hobekuntzen artean aurreikusita zegoen huts hori konpontzea. Tamalez, ordea, ez da lehen begiratu batean eman lezakeen bezain erraza, konponbidea ez baita datu base batean oker dagoen item baten orde zuzen dagoena txertatzea. Hori horrela balitz, aspaldi zegokeen konponduta arazoa. Zoritxarrez, ez da itzulpen memorian egindako aldaketa batekin konpontzen. Itzulpen automatikoaren sistemaren barnean egokitzen batzuk egitea eskatzen du, eta horrek uste baino zailtasun tekniko handiagoak planteatu dizkigu. Hala ere, jakin ezazu gure aurreikuspenen artean zegoela aldaketa horri ekitea, eta luze gabe ereduetatik akats hori kentzea espero dugula.*

Dosierra 1030-2013

Erakundea EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia: Gaur Bizkaiko Probintzia Auzitegitik deitu didate epaiketa baterako hitzordua nuela gogoratzeko. Euskaraz erantzun diot deiari, baina beste aldean zen emakumezkoak gaztelaniaz egin dit, eta gaztelaniaz jarraitu du nik euskaraz erantzuten nion arren, harik eta gaztelaniaz ez nuela ulertzen esan didan arte. Ordura arte ez du euskaraz hitz egin nahi izan.

Erantzuna:

Dosierra 1031-2013

Erakundea: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia:

Bizkaiko Probintzia Auzitegia erdara hutsean idatzitako errotulu eta testuz josita dago. Ni egon naizen epaiketa-areto ateburuan "salida" dioen idazkuna dago. Kanpoaldean, aretoan zer epaiketa zegoen adierazten zuen oharra ere erdara hutsean zegoen. Zorua bustita dagoela oharrarazteko karteltxoak erdara hutsean daude. "Salida de emergencia" dioten karteltxo guztiak ere gaztelaniaz baino ez dira ageri. Auzitegiaren alde berritik kalerantz ateratzeko ate-lerro luzean errotulu pilo-piloa daude, gaineko aldean, denak berdina "salida" diote guztiak. Epaiketa-aretoetara joateko zein zenbaki den. Ezkerrerantz edo eskumarantz jo behar den adierazten duten kartelak ere erdara hutsean daude. Euskaraz dauden errotuluetatik hainbatek akatsak eta trakeskeriak dituzte gainera.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1032-2013

Erakundea: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia: Gaur Bizkaiko Probintzia Auzitegira joan behar izan dut lekuko gisa deklaratzera. Epaiketa gelako kanpoaldean zain nengoela epaiketa-aretoetik funtzionario bat atera da eta erdaraz eskatu dit nortasun agiria. Nik euskaraz erantzun diot "barkatu" berak gaztelaniaz egin didan bezainbeste alditan. Behingoan egin dit euskaraz, baina ongi kostata!

Erantzuna:

---

Dosierra: 1052-2013

Erakundea: NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Arrazoia: Abenduaren 19an epaiketa izan nuen Nafarroako 3. epaitegian. Udaltzainek ni salatu ninduten eta nik ere udaltzainak salatu nituen. Udaltzainen kontra jarritako salaketa euskaraz egin banuen ere (ekaina partean), epaiketarako izapide guztiak erdaraz jaso nituen.

Erantzuna: GOBERNU IDAZKARITZA: *Salatutako gertaerek ez dute Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua urratzen, ez eta euskarari buruzko foru-legedia ere. Beste gauza bat da, euskararen erabilera sustatuko luketen neurriak hartu ahal izatea, hala nola, euskara dakiten langileak izatea, edota Administrazioan maiz erabili ohi diren formulario eta testuak euskaraz jartzea herritarren eskura, baina Auzitegi Nagusi honek ez du eskumenik, ez Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen hautaketa eta prestakuntzari dagokionez, ez eta bere jarduna burutzeko behar dituen baliabide materialen gainean ere, Justizia Ministeritza eta Nafarroako Gobernuari baitagozkie hurrenez-hurren.*

---

# 2. FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Dosierra:	804-2013
Erakundea:	PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA - BAIONAKO ORDEZKARITZA
Arrazoia:	Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorraren web gunea frantses hutsean da.
Erantzuna:	
Dosierra:	843-2013
Erakundea:	PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA - BAIONAKO ORDEZKARITZA
Arrazoia:	Ekainaren 21ean prentsaurreko batetara joan naiz KONTSEILU OROKORREKO egoitzara eta harrera frantses hutsean egin didate. Ez nuen lortu euskarazko harrera jasotzea.
Erantzuna:	
Dosierra:	846-2013
Erakundea:	PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA - BAIONAKO ORDEZKARITZA
Arrazoia:	KONTSEILU OROKORRAREN uztaila-abuztuko 64 aldizkariren 59. Zenbakia jaso nuen etxean. Bertan artikulu bakarra agertzen da euskaraz "Olatulekua angelun, surfaren ameslekua". Gainerako artikulu gehienak, gaskoierazko bi artikulu salbu, frantses hutsean ziren.
Erantzuna:	
Dosierra:	911-2013
Erakundea:	PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA - BAIONAKO ORDEZKARITZA
Arrazoia:	Ziburu, Hendaia eta Urruñako Herriko Etxeak Kontseilu Orokorrekin partaidetzan Erlaitzaren besta antolatzen zuen irailaren 21 eta 22an. Afitxak frantses hutsean ziren.
Erantzuna:	
Dosierra:	823-2013
Erakundea:	CONTRÔLE AUTOMATISÉ -MONSIEUR L'OFFICIER DU MINISTÈRE PUBLIC
Arrazoia:	Maiatzaren 2an Radar baten bidez flasatua izan naiz Baionan. Ondotik, isuna etxera jaso nuen, eta inprimakia frantses hutsean zen.
Erantzuna:	
Dosierra:	890-2013
Erakundea:	INSTITUT FRANÇAIS BILBAO
Arrazoia:	L'Institut Francais (frantziar kultura eta hizkuntza hedatzeko erakunde publiko frantziarra) Bilbon dituen egoitzako webgunea ez du euskaraz kontsultatzeko egiteko aukerarik. <a href="http://www.institutfrancais.es/bilbao/">http://www.institutfrancais.es/bilbao/</a> Alderantziz Bartzelonako egoitzako webgunean kataleneraz kontsultatzeko aukera du. <a href="http://www.institutfrancais.es/barcelona/">http://www.institutfrancais.es/barcelona/</a> Bilboko L'Institut Francais lehen helburua frantziar hizkuntza eta kultura izanda ere, hori ez du esan
Erantzuna:	

---

Dosierra: 906-2013  
Erakundea: CAF DE BAIONA - CAISSE D'ALLOCATION  
Arrazoia: Abenduaren 2an, azaroaren 28ko data zuen jakinarazpena helarazten zidan CAF erakundeak, hilabeteko prestazioen gaineko informazioa emateko, hiru hizkuntzetan zen, frantsesez, gazteleraz eta portugesez, euskarari aldiz, ez zitzaion lekurik eskaintzen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 926-2013

Erakundea: MINISTERE DE LA SANTE ET DE LA SOLIDARITE

Arrazoia: MINISTERE DE LA SANTE, DE LA FAMILLE ET DES PERSONNES HANDICAPEES sailaren esku-orri bat jaso nuen Donibane Lohitzuneko Ospitalean. Esku-orria minaren kontrako borroka aipagai zuen, eta frantses hutsean zen.

Erantzuna:

---

# 3. BESTELAKOAK



## BESTELAKOAK

Dosierra:	475-2013
Erakundea:	ALEMANIAKO KONTSULETXEA - CONSUL HONORARIO DE ALEMANIA
Arrazoa:	Uztailaren 24an Bilbon dagoen Alemaniako kontsuletsera joan nintzen informazio eske eta ezin izan nuen euskaraz egin; gaztelaniaz egitera behartu ninduten.
Erantzuna:	
Dosierra:	1009-2013
Erakundea:	EUROPAKO BATZORDEA - COMISION EUROPEA - Dirección General de Traducción
Arrazoa:	Europako Batzordeak Juvenes Tradutores izeneko lehiaketa antolatzen du, Europako Batasuneko estatu guztietako ikastetxeetako ikasleek parte hartzeko moduan. Funtsean testu bat itzultzean datza, jatorri-hizkuntza eta xede-hizkuntza edozein delarik baina beti ere Europako Batasunak ofizialtzat dituen hizkuntzen artean. Hargatik, baina, euskal ikasleek ezin dute parte hartu euskaratik itzuliz edota euskaratuz. Ez da bereizkeria norbere hizkuntza, bertakoa, ezin baliatzea?
Erantzuna:	ITZULPEN ATALEKO ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Jakinen duzun bezala, Europako Batzordearen hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntzak ikastearen aldeko politikak erregio eta gutxiengo hizkuntzak ere barne hartzen ditu, eta horrela berretsi zuen 2008 urteko eleaniztasunari buruzko komunikazioak. Ikaskuntza Iraunkorreko Programak, 2007az geroztik urterotertero finantzatu ditu alor honetako proiektu multilateralak eta sareak. Juvenes Tradutores lehiaketa Batzordeko Itzulpen Zuzendaritza Nagusiak antolatzen du oso-osorik. Bertan lan egiten duten itzultzaileen zeregina Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetara itzultzea da. Itzultzaile batzuek erregio eta gutxiengo hizkuntzak ezagutzen badituzte ere, Itzulpen Zuzendaritzak ezin die testuak hizkuntza horietan idatzi edo ebaluatzeko gaitasunik edo aginpiderik galdegin. Lehiaketa burutzea Itzulpen Zerbitzu Nagusiak bere gain hartzen duen ahalegina da. Hasteko, gure itzultzaileek itzuli beharko diren 24 testuen jatorrizkoak idazten dituzte. Guztiek gai, luzera eta zailtasun maila bera dute, baina hizkuntza bakoitzaren tonua eta nortasuna mantendu behar dutenez, testua ez da berdina hizkuntza guztietan. Partehartzaileek itzulpenak egin dituztelarik, -azterketa bat bailitza egiten dira Europa osoko ikastetxeetan- Itzulpen Zuzendaritza Nagusiko itzultzaileek irakurri eta ebaluatu egiten dituzte. Hizkuntza bakoitzeko itzulpen onenei buruzko azken hitza Itzulpen Zerbitzu Nagusiko 24 sailetako buruek dute. Batzordeak ardua osoa jartzen du itzulpen guztiek berdintasunezko eta profesionaltasunezko trataera izan dezaten, eta ezin izanen luke hori bermatu Itzulpen Zerbitzu Nagusiko lan-hizkuntza ez diren hizkuntzetan. Horixe da lehiaketa Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetara soilik zabaltzeko arrazoa.</i>

# 5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

Dosierra:	96-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza sailak urtero ohi duen moduan, Euskal herriko azoken egutegiaren berri emateko liburuxka argitaratu du. Liburuxka honetako euskarazko bertsioak mota askotako akatsez beteta dago: ortografikoak, semantikoak... Kasu batzuetan ulertu ere ez da egiten.
Erantzuna:	
Dosierra:	323-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
Arrazoia:	www.mugitu.org Eusko jaurlaritzak sustatutako egitasmoa da. Hala ere, webgunea espainieraz eta inlesez soilik ageri da. Ez du euskarazko bertsiorik.
Erantzuna:	
Dosierra:	297-203
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA. SPRI
Arrazoia:	Lanbiden kontsulta bat egin ondoren, erantzuna ez zekitenez esan ziguten SPRI-ra pasako zutela kontsulta eta handik deituko zigutela informazioa emanez. Spri-tik bezoaren arretarako arduradunaren deia jaso genuen eta erdaraz egin zigun harrera, nahiz eta gure lehen hitzak eta aurreneko galdera euskaraz izan. Denbora guztian erderaz zuzendu zitzaigun inolako azalpenik eman gabe.
Erantzuna:	KALITATE-ARDURADUNA: <i>Salatu duzun gertakaria puntualki soilik gertatu da. Zure galdera konplikatu samarra zenez, Bezeroen Arreta Zerbitzuko langilea ez zen gauza izan galdera horri behar bezala erantzuteko. Informazio hura ematean akatsen bat egin zezakeela edo gaizki ulerturen bat gerta zitekeela ikusita nahiago izan zuen gaztelaniaz erantzun.</i>
Dosierra:	695-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA. SPRI
Arrazoia:	SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak erdara hutsean eman du argitara iragarkia atzoko Diario de Noticias de Álavan: "La empresa vasca esta aquí. Spri.es"
Erantzuna:	KALITATE-ARDURADUNA: <i>SPRI n dagokion legeria betetzeko asmo garbia dugu eta iragarki berdina euskara hutsean argitaratu genuen 2013ko azaroaren 20an, programatuta geneukan bezala.</i>

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Dosierra: 474-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Arrazoia: Abuztuaren 19an Eusko Jaurlaritzaren Izatezko bikoteen erregistroa joan nintzen (Bilboko Kale Nagusia 85). Bertan lan egiten duen funtzionario jaunari euskaraz egin nion, baina gaztelaniaz jarraitu behar izan nuen. Juan du izena langileak; jendeari zerbitzu txarra eta edukazio falta egotzi nizkionean "nahi baduzu zoaz horra behera kexa jartzera, Juan dut izena" esan zidalako dakit. Izatezko bikoteen erregistroan, oro har, ezinezkoa da euskarazko zerbitzua jasotzea ez telefonoz ez bertaratuta.

Erantzuna: *Ordezkaritza honen mende dagoen Izatezko Bikoteen Erregistroak hiru langile ditu: Erregistroko arduraduna eta bi laguntzaile. Bi horiek dira bertaratzen diren herritarrak lehenbizi artatzen dituztenak. Hiru langile horietatik batek soilik dauzka hizkuntza-gaitasun nahikoak: Erregistroko arduradunak. Beste biek ez. Argitu nahi dugu kexa jaso duen langilea lanorduz kanpo ari dela euskara ikasten, ezin baitu lanorduetan ikasi, iaz ez zuelako horretarako baimenik jaso. Beste langileak 63 urte ditu, eta ez du euskara ikasten. Izatezko Bikoteen Erregistroan euskarazko arreta nahi duen herritarra bertaratzen denean, Erregistroko arduradunak artatu ohi du. Baina, kexa jaso duten gertakariak abuztuaren izan ziren, eta langile hori oporretan zegoen. Aurreko guztia kontuan hartuta, eta kexa jaso duen langileak dioenez, herritarraren eta langile horren arteko desadostasunak aurreko bisita batetik datoz, eta Erregistroaren xede eta helburuei buruzkoak dira. Halaber, jakinarazten dizut, hemendik aurrera eta edozein arrazoirengatik Erregistroko arduraduna ez dagonean, Izatezko Bikoteen Erregistroan euskarazko arreta eskatzen duten herritarrak horretarako gai den beste langile batek artatuko dituela.*

Dosierra: 313-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. ALOKABIDE

Arrazoia: Alokabidek maiztaren 13an Donostian eguerdiko 12etan egin zuen bileran izan nintzen. Azalpenak eman zituen teknikariak ez zekien euskaraz.

Erantzuna:

Dosierra: 24-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoia: Herritarra Lanbidek Bilboko San Inazio duen bulegora joan zen informazio eske urtarilaren 2an. Bi pertsonarekin hitz egin zuen eta biek eskatu zioten gaztelaniaz hitz egiteko, euskaraz ez baitzekiten.

Erantzuna:

---

Dosierra: 221-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: Murgiako udaletxeko iragarki-taulan Lanbideren 2013ko trebakuntza saioen eskaintzaren gaineko informazio orria dago. Informazio guzti-guztia gaztelania hutsean ageri da

Erantzuna: *INFORMAZIO ETA ARRETA ZERBITZUA: Barkamena eskatu nahi dizugu sortutako arazoengatik. Lanbidek sortu zenetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen botere publikoa den heinean, euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko legeak ezarritakoa betetzeko ahalegin guztiak egin ditu. Lege hori betetzeari dagokionez. Gure asmoa da bertan arautua ahalik eta zorrotzenen betetzea eta hiritarren hizkuntza-eskubideak zaintzeko behar diren neurriak ezartzea, eta horretarako konpromisorik sendoena adierazi nahi dizut.*

---

Dosierra: 413-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: Lanbidetik erdara hutsean bidali didate lan-eskaria berritzearen inguruko sms mezua. Honela dio: "Su demanda caduca 21/06/2013. Renovar desde hoy en ...

Erantzuna: *LANBIDE: Eskaera berritu behar dela jakinarazteko sms-aren testua hizkuntza bakarrean bidaliko da; hain zuzen ere, eskatzaileak komunikazioetarako eskatu duen hizkuntzan. Izan ere, SMS batean ezin da 159 karaktere baino gehiago idatzi, eta, beraz, ezin dira hizkuntza biak erabili sms berean. Lanbidek Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko legean ezarritako betearazteko ahaleginak egin ditu sortu zenetik.*

---

Dosierra: 438-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE

Arrazoa: Lanbidek antolatutako gas instalakuntzarako formakuntza klaseak jasotzen ari naiz. Irakasleak "Prueba piloto: Formación y competencias online" proba egiteko deialdia luzatu zidan ekainaren 19rako. Bertaratu nintzen, eta arratsalde on esan ostean Eusko Jaurlaritzatik etorritako hiru pertsonen "Buenas tardes" erantzuna jaso nuen. Galdetegia gaztelania hutsean jaso nuen euskaraz bazuten galdetu nuen. Ezetz esan zidan batek, baina ez zuela inporta, berak erdaraz hitz egingo zidala. Euskaraz prestatuta neraman testua luzatu nion, nire arrazoiak agertuz eta galdetegia euskaraz eskatuz. Kostata irakurri zuen, eta beste pertsonen aurrean nirekiko hartu zuen jarrera ez zen batere egokia izan. Erreklamazioa egingo nuela esan nion eta honela erantzun zidan: "¡Si la reclamación la voy a contestar yo! ¡Tú lo que quieres es no hacer la prueba! "

Erantzuna: *INFORMAZIO ETA ARRETA ZERBITZUA: Lanbidek sortu zenetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen botere publikoa den heinean, euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko legeak ezarritakoa betetzeko ahalegin guztiak egin ditu. Lege hori betetzeari dagokionez, Gure asmoa da bertan arautua ahalik eta zorrotzenen betetzea eta hiritarren hizkuntza-eskubideak zaintzeko behar diren neurriak ezartzea, eta horretarako konpromisorik sendoena adierazi nahi dizut.*

---

## HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA. 2013ko sinopsiak

---

Dosierra: 503-2013  
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE  
Arrazoia: Lanbidetik erdara hutsean bidali didate lan-eskaria berritzearen inguruko sms mezua. Honela dio: "Su demanda caduca 13/09/2013. Renovar desde hoy en...". Euskal hiztuna naizen aldetik begirunea eskatzen dut.  
Erantzuna: INFORMAZIO ETA ARRETA ZERBITZUA: *Eskaera berritu behar dela jakinarazteko sms-aren testua hizkuntza bakarrean bidaliko da; hain zuzen ere, eskatzaileak komunikazioetarako eskatu duen hizkuntzan. Izan ere, SMS batean ezin da 159 karaktere baino gehiago idatzi, eta, beraz, ezin dira hizkuntza biak erabili sms berean. Lanbidek Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko legean ezarritako betearazteko ahaleginak egin ditu sortu zenetik.*

---

Dosierra: 687-2013  
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE  
Arrazoia: Lanbidek azaroaren 2ko Correo egunkariaren azalean iragarkia argitaratu zuen erdara huts-hutsean, Vitoria Enplegu Plana iragartzeko.  
Erantzuna:

---

Dosierra: 802-2013  
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE  
Arrazoia: Zuiako Udaletxeko iragarki taulan Lanbideren hainbat lan eskaintza zeuden paratuta. Horietako bakar bat ere ez euskaraz  
Erantzuna:

---

Dosierra: 949-2013  
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE  
Arrazoia: Lanbidera neretzat ea lanik badagoen galdezka joan eta ni atenditu nauenak euskara ez jakiteak amorratu egiten nau.  
Erantzuna: INFORMAZIO ETA ARRETA ZERBITZUA: *Lanbidek sortu zenetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen botere publikoa den heinean, euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Oinarrizko legeak ezarritakoa betetzeko ahalegin guztiak egin ditu. Lege hori betetzeari dagokionez, Gure asmoa da bertan arautua ahalik eta zorrotzenen betetzea eta hiritarren hizkuntza-eskubideak zaintzeko behar diren neurriak ezartzea, eta horretarako konpromisorik sendoena adierazi nahi dizut.*

---

Dosierra: 1006-2013  
Erakundea: EUSKO JAURLARITZA:ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. LANBIDE  
Arrazoia: Sms-mezua bidali didate EAEko Lanbide zerbitzutik, ohi bezala, erdara hutsean, lan-eskaria iraungitzeaz dudala-eta dagoeneko berritu dezakedala jakinarazteko.  
Erantzuna:

---

## HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

Dosierra: 302-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. HAAE - IVAP

Arrazoia: HAAE-IVAPek LANBIDEko langileek 2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko egindako eskaera guztiak ukatu ditu.

Erantzuna: IVAP - ZUZENDARIA: *IVAP, beste zereginen artean, EAeko administrazioetako langileak euskalduntzeko dago, eta alde horretatik gu gara interes gehien dugunak Lanbideko lankideei hizkuntza prestakuntza emateko; baina, legez eman behar diren baldintzak ez dira oraindik ematen, eta ez gure erruagatik. Arazoari ahalik eta azkarren irtenbidea eman nahian harremanetan jarri gara Lanbideko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunekin. Beraiek esan digutenez, urte amaierarako prest egongo dira bai lanpostu-zerrendak, bai hizkuntza eskakizunen esleipenak. Hori horrela bada, datorren urtearen hasieran kasu batzuetan, edo datorren ikasturtean beranduenez parte hartu ahal izango dute Lanbideko langileek IVAPek antolatutako euskarako ikastaro guztietan. Horregatik, bien bitartean Lanbideko aurreko urteetan egin izan duen bezala, bere deialdi propioa egiten jarrai zezala adostu genuen, Lanbideko langileen hizkuntza-prestakuntza prozesua ez etetearren. 2013-2014 ikasturterako deialdi hori, dakigunez, irailaren hasieran plazaratu da eta urriaren 1era arte dago irekitan Lanbiden izena emateko epea.*

Dosierra: 304-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. HAAE - IVAP

Arrazoia: Lanbide Erakunde Autonomiaduneko langilea naiz. 2013.06.11n eskaera bideratu nuen 2013-2014 ikasturtean IVAPen 4. HE prestatzeko ikastaroa egiteko (online, lan orduetatik kanpo). 2013.07.09an jaso nuen erantzuna Lanbideko Langileen Kudeaketarako arlotik posta elektronikoki bidez eta jakinarazi zitzaidanez, IVAPek Lanbideko langileen euskara ikastaroetarako eskaerak ez bideratzea erabaki du.

Erantzuna: IVAP - ZUZENDARIA: *IVAP, beste zereginen artean, EAeko administrazioetako langileak euskalduntzeko dago, eta alde horretatik gu gara interes gehien dugunak Lanbideko lankideei hizkuntza prestakuntza emateko; baina, legez eman behar diren baldintzak ez dira oraindik ematen, eta ez gure erruagatik. Arazoari ahalik eta azkarren irtenbidea eman nahian harremanetan jarri gara Lanbideko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunekin. Beraiek esan digutenez, urte amaierarako prest egongo dira bai lanpostu-zerrendak, bai hizkuntza eskakizunen esleipenak. Hori horrela bada, datorren urtearen hasieran kasu batzuetan, edo datorren ikasturtean beranduenez parte hartu ahal izango dute Lanbideko langileek IVAPek antolatutako euskarako ikastaro guztietan. Horregatik, bien bitartean Lanbideko aurreko urteetan egin izan duen bezala, bere deialdi propioa egiten jarrai zezala adostu genuen, Lanbideko langileen hizkuntza-prestakuntza prozesua ez etetearren. 2013-2014 ikasturterako deialdi hori, dakigunez, irailaren hasieran plazaratu da eta urriaren 1era arte dago irekitan Lanbiden izena emateko epea.*

Dosierra: 78-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. IZENPE

Arrazoia: IZENPEren web-orrian sartu naiz urtarrilaren 22an. Erabiltzaileen arreta gunearen euskarazko bertsioa, akats ortografiko eta sintaktikoz josita dago. Lotsagarria eta negargarria IZENPEk euskaraz egiten digun harrera.

Erantzuna:

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Dosierra:	19-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Arrazoaia:	Semea Murgiako Virgen de Oro eskolan D ereduan matrikulatzera joan eta ezinezkoa dela jakinarazi digute. D ereduan eskolatu nahi izatera, Izarran dagoen ikastetxera joan beharko genuke.
Erantzuna:	

Dosierra:	74-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Arrazoaia:	Orozkoko ikastetxe publikoan eskolatuta dut haurra, D ereduan. Urtero, ikasturte hasieran gurasoekin egiten den bileran, bilera zein hizkuntzatan egingo den galdetzen dute irakasleek. Guraso batzuk erdaldunak direnez, hasierako agur eta hitz batzuk kenduta bilerak gaztelaniaz egiten dira azkarrago bukatzearren. Euskalduna naizen aldetik nire eskubideak ez direla errespetatzen sentitzen dut.
Erantzuna:	<i>OROZKOKO HARANA LHiko ZUZENDARITZA: Orozkoko herritarrek bidalitako kexa irakurri ondoren, zera adierazi nahi dizuegu: Alde batetik, Orozkoko ikastetxean, gurasoekin egiten diren bilerak eta batzar orokorrak, bi hizkuntza ofizialean egin behar dira. Erabaki hau, aspalditik klaustroan hartuta dago. Beste alde batetik, azken hiru ikasturte hauetan, Zuzendaritzak ez du zuzenean gai honi buruz inolako kexarik jaso. Dena den, zuen mezua eskertzen dugu.</i>

Dosierra:	117-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Arrazoaia:	Biasteriko gazteek ezin dugu Biasterin Batxilergoa euskaraz ikasi. Beraz, beste ikastetxe batzuetara jo behar dugu izaten euskaraz ikasten jarraitzeko.
Erantzuna:	

Dosierra:	217-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Arrazoaia:	Ordezkapen bat egiten ari naiz Gasteizko Mendizabala Institutuan. Irakasleen klaustroak gaztelania hutsean egiten dira. Berriki ikastetxeko plan estrategikoa aurkeztu da eta agiria gaztelania hutsean dago. Barne-sareko dokumentuak ere gaztelaniaz baino ezin dira eskuratu.
Erantzuna:	

Dosierra:	251-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Arrazoaia:	Hezkuntza Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkariak 943.022.850 zenbakira deitzen dudanean, nik euskaraz egiten dut beti, baina langileak gaztelaniaz erantzuten dit, nik esaten diodana ulertu arren. Beti langile bera da hau egiten didana eta beti egiten du.
Erantzuna:	



---

Dosierra: 329-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak Errugbi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK - ERRUGBIA 2013 antolatu ditu Durangon, Landakoko errugbi zelaian. Joko arauen azken oharrean adierazten da euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, gaztelaniazkoak lehentasuna izango duela.

Erantzuna:

---

Dosierra: 400-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Arabako hezkuntza ordezkarietara deitu eta gaztelaniaz bakarrik hitz egin ahal izan nuen atzo harrerako pertsonarekin zein barneko arduradunekin. Askotan gertatu zait hori. Horregatik, eskatuko nuke harrera orokorrean dauden langileek, gutxienez, deia jasotzen dutenean euskaraz hartzea eta euskaraz egiten zaienean euskaraz erantzutea.

Erantzuna:

---

Dosierra: 401-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Atzo bezala gaur ere Arabako hezkuntza ordezkarietara publikoari arreta egiten dion langilearekin ezin izan dut euskeraz hitz egin.

Erantzuna:

---

Dosierra: 420-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Gasteizko Hezkuntza Ikuskaritza deitu dut ikuskari batekin hitz egiteko. Telefonoa hartu didan pertsona gaztelaniaz zuzendu zait. Nik euskaraz eskatu diot ikuskariarekin pasatzeko eta berak berriro ere gaztelaniaz esan dit bileran zegoela.

Erantzuna:

---

Dosierra: 473-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Gipuzkoako herritarra naiz eta abuztuan ez nuen euskaraz jaso Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik bidali zidaten jakinarazpena. Edurne Santos Bengoa andreak sinatua zegoen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 587-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoa: Sestaoko Saturnino de la Peña BHI-n Animazio Soziokulturala eta Turistikoa Goi Mailako Heziketa Zikloa eskaintzen dute. D ereduari matrikulatzeko aukera dago, baina benetan 7 ikasgaietatik 3 bakarrik ikas daitezke euskaraz.

Erantzuna:

Dosierra: 665-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hitzarmena egin du Ertzaintzarekin, DBH3 eta DBH4ko ikasleei droga-kontsumoak, sare sozialak eta abarrek izan ditzaketan arriskuei buruzko hitzaldiak emateko. Azaroaren 6an Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean eman zieten hitzaldia Kurtzebarri BHIko ikasleei. Ikasleok D eredukoak dira. Bada, hitzaldia ematera joan zen ertzainak "Mi nivel de euskera es muy básico y voy a hablar en castellano" esanez hasi zuen hitzaldia, eta handik aurrerako azalpen guzti-guztiak gaztelania hutsean eman zituen.

Erantzuna:

Dosierra: 1015-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Arrazoia: Euskal futbol selekzioak abenduan Peruren aurka jokatu duen partidaren kartelean

Erantzuna:

Dosierra: 77-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoia: Urtarrilaren 22 goizean EHUko Donostiako Irakasle eskolako idazkaritzara deitu dut eta telefonoa hartu didanak ez du euskaraz erantzuten jakin.

Erantzuna:

Dosierra: 179-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoia: EHUko langilea naiz. Azaroan kontratu bat sinatu nuen ikertzaile moduan, eta kontratua gaztelania hutsean bidali zidaten Pertsonaleko Gerenteordetzako Ikertzaileen Ataletik. Euskaraz eskatu ondoren, urtarrilean sinatu nuen euskarazkoa. Martxoan, berriro, beste kontratu bat sinatu behar izan dut, eta oraingoan ere eta atal berberatik gaztelania hutsean bidali didate kontratua baita hau igortzeko posta elektronikoa ere.

Erantzuna:

Dosierra: 220-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoia: EHUko Tituluen Bulegora joan zen (masterren tituluez arduratzen dena), Leioan, martxoaren 15ean, eguerdiko 12:00ak aldera. Ezin izan zuen euskaraz egin, egokitu zitzaion langilea ez zelako euskalduna. Lehenago ere telefonoz saiatu zen behar zuen informazioa euskaraz jasotzen, eta ezin izan zuen.

Erantzuna: EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA: *Ezer baino lehen egindako akatsagatik barkamena eskatzea dagokigu; aurrerantzean hau berriro ez gertatzeko eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartuko ditugu. Harremanetan jarri gara zerbitzu horretako arduradunekin eta ziurtatu digute tituluak ematen dituzten langileen artean euskaldunak ere badirela eta ez direnak ez diotela herritarrari gaztelaniaz aritzeko eskatzen, zinez saiatzen direla. Normalean tituluak ematen dituena euskalduna da, baina lan hori ez dagokio pertsona bati bakarrik. Hala, baliteke zerbitzuan pertsona bakarra geratzea eta pertsona hori gai ez izatea zerbitzua euskaraz bermatzeko. Edozein kasutan, etorkizunean ere, gure esku dagoen neurrian euskararen presentzia bermatzeko ahaleginean jarraituko dugu.*

Dosierra: 240-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoa: EHU-tik gutuna jaso dut beren Udako Ikastaroen berri emanez eta nire helbidean hiriaren eta herrialdearen izena gaztelaniaz jarri dituzte, "Pamplona (Navarra)" alegia.

Erantzuna:

Dosierra: 520-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoa: Arabako campusean, Lascaray Ikerguna delakoaren atzeko aldean, EHU eraikitze-lanak egiten ari da, hain zuzen Gizarte eta Giza Zientzietako Ikerguna delakoa. Bada, bertan "salida de camiones" erdara hutsean dioten bide-seinaleak daude: bata, obretarako atean, eta bestea, bertan dagoen aparkaleku publikoko irteeran. Lanen sustatzailea EHU bera da, bertan ageri den kartel batek ageri duen informazioaren arabera.

Erantzuna: EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA: *Lanak egiten ari direnak jakinaren gainean daude eta ziurtatu digute euskaraz egindako seinaleak eskatuta daudela baina ez omen dira heldu oraindik. Hurrengo egunetan jasoko dituzte eta hitza eman digute jarriko dituztela.*

Dosierra: 529-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoa: EHUren Letren Fakultateko (Gasteiz) idazkaritzan, ikasketen ziurtagiria eskatzeko, erdara hutsezko eskabidea sinarazi didate; nahiz ahozko tratua euskara hutsean izan dugun.

Erantzuna:

Dosierra: 586-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU

Arrazoa: EAEko Euskal Herriko Unibertsitateak erdara hutsean ipini du iragarkia Sud Ouest egunkarian, urriaren 2an, asteazkenean.

Erantzuna: EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA: *Barkamena eskatzen dugu egindako akatsagatik eta aurrerantzean horrelakorik berriro ez gertatzeko neurriak hartuko dira. Iragarkia jarri zuen NOR ikerketa taldeko ikerlari nagusiarekin harremanetan jarri gara eta honako azalpenak eman ditu: Ikerketa baterako bilaketa garrantzitsu bat egiten ari ginela, Ipar Euskal Herriko jende nagusiaren laguntza eskatzea erabaki genuen, horretarako iragarkia jarriz Sud Ouest egunerokoan eta Herria astekarian. Lehena frantses hutsezkoa zen, bigarrena euskara hutsezkoa. Argitaratzean prozedura gure kabuz egin genuen, UPV/EHUK horretarako dituen prozedurak bete gabe, jakin ez genekielako bestelako prozedurarik jarraitu behar genuenik. Ohartzen naiz horrela jokotuta eta Sud Ouesten frantses argitaratuta ez genituela bete UPV/EHUK dituen arau eta ohiturak. Egia esateko gure taldearen ohiturak eta printzipioak ere ez genituen bete, oso sentiberak izaten baikara gai honekin (gure taldea izateko arrazoa euskarak komunikabideetan aurrera egitea baita). Jokabide honen arrazoiak bilatzen hasita, suposatzen dut normalean eskuartearen izaten ez dugun egunkari bat izanik, ez ginela okerraz ohartu. Euskarazko medioan euskaraz eta frantsesez aritu ginen modu natural batez, elebitasunari buruzko jokabide arautuak ahaztuta. Beste aukerarik ez dugu, egindako okerra onartu eta hemendik aurrera finago ibitzeko konpromisoa hartu baino.*

---

Dosierra:	1019-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU
Arrazoaia:	EAEko Euskal Herriko Unibertsitatearen Campusa aldizkaria postaz bidaltzeko bilgarri plastikozkoan idatzitakoak erdara hutsean daude eta testu errepikakorrak dira. Bidaltze-lanak egiteko enpresaren datuak eta postariarendako oharrak dira behin eta berriz erdara hutsean ageri direnak. Unibertsitate honek enpresa horri exijitu behar lioke euskaraz (ere) agerrarazi ditzala testuok; edo, bestela, euskara eta euskaldunok begirunez tratatuko gaituen enpresa kontratatu. Bestalde, jasotzailearen helbidea ageri duen papertxoak "España" eta "Franqueo concertado", e.a. erdara hutsean dakartza.
Erantzuna:	EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA: <i>Kexa igorri duenta herritarrak arrazoaia du eta horrelakorik berriro gerta ez dadin dagokion pertsonari jakinaraziko zaio. Dena dela, Campusa aldizkariari dagokionez, ez da berriro paperean inprimatuko eta, beraz, digitalean argitaratuko da aurrerantzean.</i>

---

Dosierra:	1021-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EHU
Arrazoaia:	Bilboko euskarazko injinerutzako ikaslea naiz eta euskal ikaslea izanda bertan bizi dugun egoera salatu nahiko nuke; izan ere, gure zenbait irakasle ez da euskaldun eta, hortaz, hainbat ikasgai eman gabe gelditzen dira. Bestalde, erabiltzen ditugun liburuetako batzuk gaztelania hutsean daude eta euskaraz direnak, zenbait kasutan, itzulpen kaxkarrak dira. Teknologia Elekrika II ikasgaiko irakaslerik ez dugu eta, beraz, azterketa euskaraz egiteko aukerarik ere ez.
Erantzuna:	BIZKAIKO CAMPUSEKO EUSKARA ETA IKASKETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA: <i>Aurreko ikasturtean Teknologia Elektrikako Sailak aurreikusi zuenez ez zegoela irakasle elebidunik 2013/14 ikasturtean irakasgaia emateko, plaza elebidun bat eskatu zen. Birritan eskaera publikoa argitaratu arren, ez zen aurkeztu plaza horri dagozkion eskakizunak betetzen zituen irakaslerik. Irakasle Errektoreordetza ordezkapen-zerrenda batetik hasi zen irakaslea aukeratzen eta plaza hartu zuenak amatasun-bajan zegoenez, urtarrila arte ezin izan zuen sinatu kontratua. Halere, lehenengo lauhilekoan eskaintza betetzeko beste irakasle bat topatzen saiatu ginen, baina inork ez zuenez hartu plaza hori, ikasleek klaseak gaztelaniaz jaso zituzten. Urtarrilean azterketa euskaraz egiteko aukera eman zaie eta batzuk halaxe egin dute. Ikasmaterialari dagokionez, Euskarazko Errektoreordetzatik ahaleginak egiten ditugu, berezko materiala sortzeko eta Euskara Zerbitzutik irakasleei laguntza eskaintzen zaie eurek ekoiztutako testuak orraztu eta hizkuntza kalitta). Jokabide honen arrazoiak bilatzen hasita, suposatzen dut normalean eskuartean izaten ez dugun egunkari bat izanik, ez ginela okerraz ohartu. Euskarazko medioan euskaraz eta frantses</i>

---

---

Dosierra: 377-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EITB.  
 Arrazoa: Maiatzaren 9an EITBko Euskadi Directo programakoak etorri ziren Aretxabaletara erreportaje bat egitera eta udaletxeko 3 lagun izan ginen elkarrizketatuak. Nik kazetariaren gaztelarazko galderei euskaraz erantzuteko hautua egin nuen, jakin arren programa ETB2n ematen dela, baina, jakinda ere erreportajea zuzenean ez zela emititzen eta, hortaz, nik esandakoak azpigitulatzeko aukera zutela. Hala ere, erreportajea nik esandakorik ez zuten txertatu (bai, ordea, beste bi lagunena, gaztelaraz egin baitzuten).

Erantzuna: EITBko ZUZENDARI NAGUSIA: *ETB2ko programetan, euskarazko deklarazioak sartu behar direnean, sartzeko aukera dago honako irizpidea betez: "ETB2ko saioetan kazetaria azpidazketaz baliatuko da adierazpenok gaztelaniara ekartzeko". Intzidentzia konkretu hau Euskadi Directo saioaren arloburuari pasa zaio azter dezan eta honako hau erantzun du: "Erreportaia bat grabatzen den bakoitzean ez da sartzeko grabatutako eduki guztia. Adierazpen batzuk kanpoan geratzen dira. Hautaketa hau edukien arabera egiten da beti ere. Kazetariari dagokio, behin grabaketa eginda, adierazpen interesgarrienak zein diren erabakitzea". Arlo-buruak ziurtatu du Aretxabaletako erreportaiaren irizpide horien arabera jokatu zela. Jarrera hau eta honen antzeko beste batzuk kontuan hartu ditu EITBren zuzendaritzak hurrengo programazioari begira. EITBren gaztelaniazko hedabideetan euskararen presentzia normaltzen, hasteko asmoa dago, modu naturalean.*

---

Dosierra: 521-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EITB.  
 Arrazoa: ETB2ko gaueko albistegian Iruñeko sanferminetara agertutako hainbat ipar euskal herritarren adierazpenak jaso dituzte eta une horietan, gorrendako azpidatzieta, "(ininteligible)" berba ipini dute.  
 Erantzuna: ZUZENDARI NAGUSIA: *Teleberriren bikoizketa prozesu automatizatua da, ahots errekonozimendurako sistema batek soinuaren transkripzioa egiten du. Programa hau merkatuan erosita dago eta gaztelera bakarrik errekonozitzen du. Ez dago oraindik sistema bat euskararen errekonozimendurako, albistegietako hizkera zabala jasoko duena. Horregatik gaertzen da ?ininteligible? hitza, sistemak modu automatikoan sortzen duena. Euskarazko ahozko hizkeraren errekonozimenduan badabilta lanean empresa batzuk, baina -EITBn dakigularik behintzat ? testu mugatuetara lotuta, telefono zerbitzu automatizatu eta antzekoetarako. Aurrerantzean ETBk zerbitzu hau erdi-automatizatu erabiltzea aztertuko du. Sistema berria ere ez da perfektua izango, baina inzidentzia hau neurri batean konpontzea posible izan daiteke. Eskerrak eman nahi dizkizugu kontu honen berri eman izanagatik, izan ere EITBren zuzendaritzak jarrera hau eta honen antzeko beste batzuk kontuan hartzen dituelako hurrengo batzutan hartu behar diren erabakietarako.*

---

Dosierra: 532-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. EITB.  
 Arrazoa: Gasteizko V. Telebista Jaialdiaren webgunea <<http://www.festivaltelevisionyradio.com>> erdara hutsean dago. Jaialdiaren Facebook <<https://www.facebook.com/FesTVaI>> eta Twitter <<https://twitter.com/festval>> orrialdeetan ere euskara eta euskaldunok ez gaituzte batere kontuan hartzen. Euskal Irrati Tebista da jaialdi honetako gonbidatzailea. Besteak beste, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak babesten dute ekimena.

Erantzuna:

Dosierra: 680-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA. HPS

Arrazoia: Maketatzailerak eta enpresa pribatu nahiz erakunde publikoentzat lan egiten dut. Indesign CS6 programarekin ari naiz lanean azken urtean, publikazio digitalean aritzeko ezinbesteko tresna baita gaur egun. Programa honek hitz mozketan 52 hizkuntzatan egiteko aukera ematen du, baina euskara ez dago horien artean (katalana bai, aldiz). Duela gutxi arte Eusko Jaurlaritzaren web orrian eskuragarri egon izan dira hitz mozketan egokia egin ahal izateko programari erantsen zaizkion pluginak. Azken urtean, ordea, ez dute tresna hori eguneratu eta iradokizuna egin diot Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskura jar dezan. Aurrekontu arrazoiak direla eta ezin izango dutela tresna eguneratu erantzun didate. Ez zait iruditzen kostua horrenbesterainokoa litzatekeenik, eta trukean euskaraz txukun lan egiteko tresna bat irabaziko genuke guztiok.

Erantzuna:

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

Dosierra:	52-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA. EUSKOTREN
Arrazoia:	Urtarrilaren 15 eta 16an, Durangoko Alluitz eta Zabalarra kaleetako tren pasabideetan, langak edo pasaguneak aktibo zeudela iragartzeko kartelak zeuden langa-zutabeetan. Kartelak erdara hutsean idatzita zeuden. Honela zioten "Peligro/Paso de trenes/Bajada de barreras" eta "Paso a nivel operativo".
Erantzuna:	
Dosierra:	213-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA. EUSKOTREN
Arrazoia:	Martxoaren 20an Euskotrenen Durangoko geltokiko eskailera mekanikoak konpontzen ibili dira eta hesiak ipini dituzte goiko aldean zein behekoan. Hesiotan erdara hutsean ageri izan dira "Estamos trabajando para usted. Disculpe las molestias" testuak, gutxienez lau testu berdin, guztiak erdaraz baizik ez. Esaldi horrekin batera beste pare bat seinaletxo ere bazeuden hesiotan, horiek ere errepikatuak eta erdara hutsean.
Erantzuna:	
Dosierra:	308-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA. EUSKOTREN
Arrazoia:	Gernikako tren-geltokian informazioa eskatzera joan nintzen, euskaraz, eta inolako azalpen barik gaztelaniaz erantzun zidaten (bide batez esan dezadan, erantzunak ez zuen galderarekin inolako zerikusirik, gizonak ulertu uste izan zuena besterik ez zidan esan). Gero autobus-geltokira joateko esan zidan. Hala egin nuen, eta gauza bera: euskaraz galdetu, inolako zerikusirik ez zuen erantzuna gaztelaniaz jaso.
Erantzuna:	
Dosierra:	513-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA. EUSKOTREN
Arrazoia:	EuskoTrenek Gernikan duen geltokian Barik txartela kargatzean datuak euskaraz sartu arren gaztelania hutsean agertzen dira txartelean. Horrez gain, makinaren audio guztiak gaztelania hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	1002-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA. EUSKOTREN
Arrazoia:	Euskotreneko Bilbo-Hendaia lineako trenetan, Usansoloko geltokira heldu aurretik ageri ohi den errotuluan "OSPITALAREN" berba azaltzen da, "OSPITALEAREN" beharrean; zehazki, ondokoa da azaltzen den esaldia: "HURRENGO GELTOKIA: USANSOLO. GALDAKAOKO OSPITALAREN [sic] AUTOBUSEN LOTUNEA".
Erantzuna:	BEZEROAREN ARRETARAKO ARDURADUNA: <i>Gai honi konponbidea emateko, honetaz arduratzen den sailari kexaren berri eman diogu aurrerantzean kontuan har dezan.</i>

## LEHENDAKARITZA

Dosierra: 360-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: LEHENDAKARITZA. EUSTAT.

Arrazoa: EUSTAT-eko inkestagileak etxera joan eta herritarrekin egoterik ez duenean bertan uzten dien gutuneko lehengo esaldia ez da batere zuzena, akats gramatikal eta ortografikoak ditu: “Egiaztagiri zeraman inkestagile bat zure etxera joan Zen, Euskal Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta eta informazioaren gizarteari buruzko inkesta Estatistika Erakundeak (EUSTAT) egiten dituen informazioa buruzko eskatzeko asmoz.”

Erantzuna:



## OSASUN SAILA

---

Dosierra: 281-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA

Arrazoia: Osakidetza-EAeko Osasun Zerbitzuko erabiltzaile txartela jaso dut egunotan. Txartelarekin batera jaso dudun gutunaren euskarazko bertsioak akats tipografiko, lexiko eta gramatikal ugari ditu.

Erantzuna:

---

Dosierra: 282-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA

Arrazoia: Osakidetza-EAeko Osasun Zerbitzuko erabiltzaile txartela jaso dut egunotan. Gutunazalean euskaraz ageri den testuan huts nabarmena ageri da: "Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza" dago idatzita "Bizkaiko" beharrean.

Erantzuna:

---

Dosierra: 283-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA

Arrazoia: Osakidetza-EAeko Osasun Zerbitzuko erabiltzaile txartela jaso dut egunotan. Gutunazalean Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzako "Osasun Txartelaren Unitatea"ren helbidea gaztelania hutsean ageri da: Alda. Rekalde 39-A-2<sup>a</sup> 48008 BILBAO.

Erantzuna:

---

Dosierra: 284-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA

Arrazoia: Osakidetza-EAeko Osasun Zerbitzuko erabiltzaile txartela jaso dut egunotan gutun batekin batera. Gutunaren beheko aldean Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzako "Osasun Txartelaren Unitatea"ren helbidea gaztelania hutsean ageri da: Alameda Rekalde 39A - 48008 BILBAO.

Erantzuna:

---

Dosierra:	764-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSASUN SAILA
Arrazoia:	Ekainaren amaieran minbizia izateagatik artatuak izan garen pazienteokin ikerketa proiektu bat garatzeko Biodonostia Institututik bidalitako "Pacientes supervivientes al cáncer. Modelos de atención sanitaria y calidad de vida relacionada con la salud" inkesta jaso nuen etxean. Galdesorta, azalpenak eta gutuna gaztelania hutsean zeuden. Euskaraz bidaltzeko eskatu nuen eta erantzun zidaten inkesta osasunarekin erlazionatutako bizi kalitatearen eskala multzo bat denez, sorburu hizkuntzatik (normalean ingelesetik) egokitzapen kulturala egin behar dela xede hizkuntzara, eta bestetik, eskala bakoitzaren ulergarritasunaren, aplikagarritasunaren baldintza praktikoen, baliozkotasunaren eta fidagarritasunaren balidazioa egin behar dela, eta euskarara egin gabe daudela. Hala ere, inkesta ez dela prozesu asistentzialaren barruan sartzen, eta inkestan parte hartzea guztiz borondatezkoa dela jakinarazi didate. Nik inkestan parte hartu nahi dut, baina euskaraz erantzun nahi dut inkesta, horretarako eskubidea baitut.
Erantzuna:	BIODONOSTIA - ZUZENDARI KUDEATZAILEA: <i>inkesta euskaratu gabe dugu euskaratzea prozesu konplexua delako eta garrantzia handiagoa eman diogu zenbait gaixotasunek bizi kalitatean duten eragina neurtzeari, tresna egokiak ez izateagatik ez egiteari baino. Gainera inkesta ez da prozesu asistentzialaren barruan sartzen, osasun ikerketari lotuta dago, eta inkestan parte hartzea guztiz borondatezkoa da.</i>

Dosierra:	23-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Herritarrak, urtarrilaren 22an, Gurutzetako Ospitalean kontsulta izan zuen, neuropediatriarena hain zuzen ere. Kontsulta 2 orduz atzeratu zenez, bukatutakoan kexa bat jartzera joan zen. Herritarra euskaraz egiten hasi eta langileak gaztelaniaz erantzun zion. Orduan, herritarrak galdetu zion ea langile euskaldunik zegoen eta baietz erantzun zion baina beste lan batzuetan ari zela eta ez zekiela noiz bukatu behar zuen. Herritarra kexa jarri gabe joan zen.
Erantzuna:	GURUTZETAKO OSPITALEKO KUDEAKETA SANITARIOKO UNITATEA. <i>Herritarrari barkamena eskatu nahi diote une hartan ezin atenditzeagatik, funtzionarioa beste herritar batekin ari zen eta.</i>

Dosierra:	60-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Azken aldian egin ditudan osasun proben emaitzak, besteak beste, mamografiarenak eta dermatologiako probarenak erdara hutsean jaso ditut.
Erantzuna:	

Dosierra: 114-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Gasteizko San Martin anbulatoriora deitu nuen, otsailaren 28an, hitzordua eskatzeko eta gaztelaniaz egin behar izan nuen telefonoa hartu zidanak ez baitzekien euskaraz.

Erantzuna: ARABAKO ESKUALDEKO ZUZENDARI-GERENTEA: *Osakidetzaren euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuarekin bat etorriz Arabako Eskualdeak derrigortasun data ezarri zien (BAE) Bezeroen Arretarako Eremuko lanpostuen %80ri. Hartara, San Martin osasun-zentroan, derrigortasun data igarota duten 11 plaza daude. Gaur egun San Martin zentroko BAEen honakoa da egoera: 11 administrari laguntzailetik 1ek 3 HE egiaztatuta du, 9k 2 HE, eta 1ek 1 HE. Azken hau liberatuta dago euskara ikasteko, eta honen ordekoak 2 HE egiaztatuta du. Bestetik, euskararen erabileraren irizpideen artean ezarrita dago herritar batek euskaraz jotzen duenean Arabako Eskualdeko langile batengana, langile horrek ez badaki euskaraz, langile euskaldun bati eskatuko diola une horretan laguntzeko eta horren berri emango diola herritarrari. Hala ere, une horretan ezinezkoa bada, erabiltzaileari zergatik ezin den azalduko zaio eta bezeroak kexaren bat aurkeztu nahi badu, nola egin behar den adieraziko zaio. Irizpide hori sei hilero gogorarazten zaie Arabako Eskualdeko profesional guztiei, eta intraneten ere argitaratuta dago gehiago zabaltzearren. Gorabehera hori ikusita, Aranbizkarra II osasun-zentroko BAEko langileei jakinarazi diegu bezeroak darabilen hizkuntzan artatu behar dutela (euskara zein gaztelania izan), herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz, eta era horretako arazoak berriz gertatzea saihestuz.*

Dosierra: 165-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Durangoko LANDAKO osasun etxeak bi ate ditu. Otsailaren 14an larrialdietako atean jarritako kartela gaztelania hutsean zegoen. Kartelak horrela zioen: "Por la otra puerta"

Erantzuna:

Dosierra: 341-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Lasarteko osasun etxera deitu dut zita hartzeko goizeko 11:30etan. Robota jarri da hizketan; hasiera-hasieratik dena gaztelania hutsez izan da, nahiz eta hitzez euskararako aukera eman, aukera hori hautatu eta hala ere gaztelaniaz jarraitu du denbora osoan bukaera arte. Adar jotzea.

Erantzuna: OSAKIDETZA - GIPUZKOA ESKUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA: *Sentitzen dugu horrela gertatu izana. Telefono bidez zita hartzeko erantzungailuaren sistema hizkuntza aukeratu ahal izateko diseinatua dago. Zenbait froga egin ditugu eta guk ez dugu arazorik antzeman. Horrez gain, ordutik (maiatzaren 29an jaso genuen erreklamazioa) erantzungailuari buruzko beste kexarik jaso ez dugunez, pentsatzen dugu sistemaren momentuko hutsegite bat edo erabiltzaileak ahoz esandakoa makinak ulertu ez izana izan zela arazoa. Dena den, hurrengo egunetan egiaztatzeko froga gehiago egingo ditugu.*

Dosierra: 472-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Uztailaren 22an Bakion pediatria zerbitzua eskatzeko gutun bati sarrera eman genion Leioako anbulatorioan. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu genuen, baina gure harridurarako erantzuna gaztelaniaz baino ez dugu jaso. Erantzunaren sinatzailea Uribe Eskualdeko Zuzendari gerentea da.

Erantzuna: OSAKIDETZA, URIBE ESKUALDEKO ZUZENDARI GERENTEA: *Uribe eskualdea saiatu egiten da Eskualdetik beste administrazioetara bidaltzen dituen idatziak ele bitan bidaltzen. Horretarako, eta Eskualdeko itzulpen politika betetz, idatziak euskara-teknikariari bidaltzen zaizkio. Egia era bada, eta bidali diguzuen intzidentzia da horren adibide, euskara-teknikaria lanean ari ez denean (batzarrak erakundetik kanpo, oporrak, etab.) ehuneko ehuneko ez dela betetzen. Horrela, hutsune hori betetzeko, eta jakinaren gainean euskara-teknikaria lanean ez egotea ezin dela aitzakia izan irizpideak ez betetzeko, gure irizpideak ehuneko ehuneko betetzen ditugula bermatzeko aldaketak egingo ditugu itzulpen protokoloan, horrelako hutsuneak zerbitzu erakundeen artean eta Erakunde Zentralarekin lankidetzan konpontzeko. Amaitzeko barkamena eskatu nahi diogu kexa helarazi duen herritarrari edo herritar taldeari.*

Dosierra: 531-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzak erdara hutsezko inprimakietan eman dizkit Donostiako Ospitalean eginiko erradiologiako proben emaitzak.

Erantzuna:

Dosierra: 536-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzaren Arabako lehen mailako Atentzioan "Call Center" zerbitzu berria jarri da martxan. Bertan lan egingo duten langileak aukeratzeko garaian ez dira hizkuntza-eskakizunak aintzat hartu. 45 langiletik 15ek ez dute hizkuntza-eskakizunik, 8k 1.HE dute, 18k 2.HE eta 4k 3. HE. Erdiek ez dute herritarrei arreta euskaraz bermatzeko besteko gaitasunik izango.

Erantzuna:

Dosierra: 568-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Irungo anbulatorioan izan nintzen apirilean Traumatologiako kontsultan. Instrukzio-orri bat eman zidaten. Orria gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Dosierra:	569-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Irungo anbulatorioan izan nintzen apirilean Traumatologiako kontsultan. Traumatologoaren kontsultarako txanda ematen ari zen langilea ez zen euskalduna.
Erantzuna:	
Dosierra:	570-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Hondarribiko osasun zentrora lagundu nion amari. Zaintzan zegoen medikua ez zen euskalduna.
Erantzuna:	BIDASOA ESiko PERTSONALEKO ZUZENDARIA: <i>Hondarribiako zentruan bai goizeko txandan, bai arratsaldekoan ere mediku euskaldunak daude (guztiak ez badira ere). Era honetara, Hondarribiako osasun zentroko atentzioa euskaraz izateko aukera bermatzen da. Ez dakigu zein egoeratan eman zen zuek eskatutako atentzioa eta datu gehiago beharko genituzke zuen kexa guztiz argitzeko.</i>
Dosierra:	571-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Odol analisisen emaitzak jasotzen izan naiz Irungo anbulatorioan. Gaztelania hutsean eman dizkidate emaitzak.
Erantzuna:	
Dosierra:	662-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Duela gutxi odola eman dudala-eta e-maila jaso dut Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentro (Osakidetza) delakotik. E-maila elebiduna da; baina, zenbait kontu erdara hutsean dakartza, adibidez: Accede a nuestra Web: <a href="http://donantes2punto0.org">http://donantes2punto0.org</a> , Contacta con nosotros: <a href="mailto:info@donantes2punto0.org">info@donantes2punto0.org</a> , Labeaga, s/nº (Hospital de Galdakao). Gainera erdarari lehentasuna ematen zaio, erdarazko bertsioa ageri baita aurrena, eta bestetik "Donar sangre es donar vida / Odola ematea bizitza ematea da" eta "Escucha tu corazón / Entzun zure bihotza" leloetan erdara ageri da aurrenik eta letra lodian, eta euskara, azpian.
Erantzuna:	
Dosierra:	663-2013
Erakundea:	EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA
Arrazoia:	Duela gutxi odola eman dudala-eta e-maila jaso dut Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentro (Osakidetza) delakotik. E-maila elebiduna da baina, hainbat akats ageri ditu euskaraz.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 664-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Duela gutxi odola eman dudala-eta e-maila jaso dut Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentro (Osakidetza) delakotik. Haien eskaerari erantzunez inkesta bete dut, euskarazko bertsioan, eta behin amaiturik ondoko mezua agertu zait, erdara hutsean: "Su encuesta ha sido enviada correctamente. Los datos contenidos en ella serán procesados por nuestro personal administrativo. Gracias por ayudarnos a mejorar nuestro servicio".

Erantzuna:

---

Dosierra: 682-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Durangoko Ezkurdiko osasun-etxean hainbat kontu erdara hutsean daude: beheko solairuan, adibidez, "pulsador de alarma" eta odola emateko gelaren ate gaineko "Donantes de sangre". Bestetik, harreran hiru guneko daude bereizita, ospitale-hitzorduak, anbulatoriko hitzorduak, eta informazioa-edo. Hirurek ageri dute, goiko aldeko karteletan, euskaraz egiteko gonbita "e" sinboloa ipinita. Baina mahai horietarik batean, uste dut ospitale-hitzorduetarakoan dela, mahaiaren gainean karteltxo batek erdara hutsean dio "citas de hospital".

Erantzuna:

---

Dosierra: 745-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Gaur alabetako batekin Arabako ospitale berrira joan behar izan dut. Sartu eta harreran ez zegoen langile euskaldunik. Pantailetan zegoen informazioa (txanden berri ematen zuena adibidez) gazteleraz bakarrik ageri zen. Medikuetako batek, euskalduna den arren, azalpenak gazteleraz eman dizkigu beste medikua erdalduna zelako.

Erantzuna:

---

Dosierra: 746-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Azaroaren 4an elektro bat egin zioten alabari Arabako ospitale berrian. Horretaz arduratu ziren erizainak erdaldunak zirenez, itzultzaile lanak egin behar izan nituen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 801-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA  
 Arrazoia: Joan den neguan, Osakidetzara joan nintzen foniatra eskatzera. Zerbitzua zerbitzua euskaraz eskainita zegoen eta lehen saioan, ondo joan zen dena (foniatrak oso ondo egiten zuen euskaraz). Hurrengoan, zoritxarrez, foniatra aldatu zuten eta, asmo ona erakutsi arren, ez zekien ondo euskaraz hitz egiten eta batzuetan, ariketak ulertzeko, gaztelaniaz egin behar izan zidan. Pena handia izan zen.

Erantzuna:

Dosierra: 952-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA  
 Arrazoia: 8 urteko semearekin ekografia egitera joan ginen Groseko anbulategira, abenduaren 4an, arratsaldeko 5etan. Guri ez ziguten sartzen utzi (uler dezaket), baina kontua da ez erizainak, ez sendagileak ez zekitela hitz bakar bat ere euskaraz. Gurasorik gabe, ekografia egiten, eroso sentitzen ez den hizkuntza batean. EZ DA BIDEZKOA.

Erantzuna: DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI-GERENTEA: *ezadostasunean deskribatzen den jokatzeko era ez dator bat erabiltzaileen eskubideekin, are gutxiago, zortzi urteko adingabekoa tartean izanik. Kexa jaso bezain laster Groseko erizaintzako arduraduna eta Erradiologiako Zerbitzuko buruari azalpenak eskatu nizkien eta ziurtatu nuen ez zirela euskaldunak. Dena dela, egoerak bazuen konponbidea, izan ere herritarrak aipatutako txandan erizaintzako hiru profesional eta mediku bat ziren euskaraz ez zekiten bakarrik. Eta horrelako egoeratan, osasun etxearen jarraibideetan esaten den moduan, erabiltzailea euskaraz dakien profesionalarengana bideratu behar da. Hori horrela izanik, aipatutako bi profesional horiei horixe bera gogorarazi nien; alegia, erabiltzaileak hautatzen duen hizkuntzan eman behar dela arreta. Biziki sentitzen dut gertatutakoa eta herritarrari nire barkamenik zintzoenak adierazi nahi dizkiot.*

Dosierra: 955-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA  
 Arrazoia: Osakidetzak kudeatzen duen "Padi" haurren haginak zaintzeko kanpaina dela-eta, ohartarazi eta salatu nahi dut, Bizkaian banatu den dentista-zerrendan behintzat, ez dagoela biderik jakiteko zeintzuk dentista ote diren euskaldunak eta zeintzuk ez. Harrigarri samarra da kanpaina diseinatu dutenen euskararekiko axolagabekeria hau, zeren egin duten datu-basean datu bakar bat gehitzea besterik ez zen egin behar. Azkenean, zoritxarrez, seme-alabak dentista erdaldunera joan ziren, beti bezala.

Erantzuna:

Dosierra: 986-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA  
 Arrazoia: Azaroan pediatra aldaketa eskatu genuen, Ugaoko pediatrarekin arazo bat izan ondoren. Guk gogo onez eta euskaraz lan egiten duen pediatra nahi dugu. Abenduaren 3an heldu zitzaigun erantzuna: Arrigorriagan pediatra izateko aukera dugula, baina arreta ezin digutela euskaraz eskaini. Agiria jaso eta berehala, beste kexa bat jarri genuen, zerbitzua euskaraz jaso ezin izatearen zergatiagatik galdezka. Ordutik ez dugu erantzunik jaso, ta geure 7 hilabete eta erdiko alabak pediatra gabe jarraitzen du... Geure haurraren osasun eta hizkuntza eskubideak urratuak izaten ari dira, eta dena, euskaldunak izateagatik.

Erantzuna:

---

Dosierra: 992-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: OSAKIDETZA

Arrazoia: Osakidetzak koloneko minbizia detektatzeko programarako darabiltzan gutunazaletan erdara hutsean ageri da honakoa: "DEVOLUCIONES: / Gran Vía, 62 - 4º / 48011 Bilbao". Jakin liteke zergatik?

Erantzuna: OSAKIDETZAKO KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMETAKO KOORDINATZAILEA: *Gutun-azalen edizio bat abiaraziko da, izakinak bukatzen direnean.*



SEGURTASUN SAILA

Dosierra: 39-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoa: Gipuzkoako Udal bateko arduradun modura SOS DEIAKera deitu nuen herriko bidean lur jauzi bat zegoela informatzeko, otsailaren 10ean, arratsaldeko 8etan. Euskaraz ez zekiela eta gaztelaniaz hitz egiteko esan zidan deia hartu zuenak. Abisua hartu eta beste datu batzuk eskatzerakoan beste pertsona batek deitu zidan eta honek ere ez zekien euskaraz.

Erantzuna: *Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak hala izan zela egiaztatu du eta beraz, horrelakorik berriro gerta ez dadin saiaturiko dira. Hala ere, uste dute kexan aipatzen den egoera ez dela ohikoa, izan ere, SOS Deiak zerbitzuan deiei erantzuteko erabiltzen den protokoloaren arabera, operadoreak euskaraz ez badaki, herritarrari arreta euskaraz emateko aukera eskaini behar baitio. Argi dago otsailaren 10eko dei horrekin ez zitziola protokoloari zehatz-mehatz jarraitu, baina egun horretan 112 telefonoan 4237dei jaso zirela kontuan hartuta, agian egun horretako lan kargak eragin zuen operadoreen bati ahaztea erabiltzaileari arreta euskaraz jasotzeko aukera eman behar ziola. Gainera, SOS-Deiak zerbitzuak daukan kontratuan, gaitasun lingusitikoaren atalean, argi azaltzen da zerbitzuak EAEko bi hizkuntzetan arreta emateko gaitasuna izango duela. Hala ere, horrelakoak berriro ez gertatzeko, operadore guztiei gogoraraziko zaie deiei erantzuteko protokoloa, hots, herritarrari arreta eskatzen duen hizkuntzan eman behar zaiola, eta euskara ez badakite, beste batekin pasatzeko aukera eskaini behar diotela.*

Dosierra: 164-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoa: Gaur, otsailak 25, Twitterreko @112\_SOSDeiak erabiltzaileak, alegia Eusko Jaurlaritzako Larrialdietarako zuzendaritzak, ondoko tweet edo txio ulergaitza bota du: "Ertzaintza-ren Txakur-Unitateak baztertzen du Bilbon eroritako aldamioko hondarren artean harrapatuago egon dadila". [https://twitter.com/112\\_SOSDeiak/status/306097320863354880](https://twitter.com/112_SOSDeiak/status/306097320863354880)

Erantzuna:

Dosierra: 279-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoa: EAEko poliziaren @ertzaintzaEJGV Twitter kontutik eginiko txiorik gehien-gehienak erdaraz daude, apenas euskarazkorik ageri ohi den. Apirilaren 1etik 21era artekoak aztertu ditut eta honakoa da emaitza: 56 txio gaztelaniaz eta 6 txio baino ez euskaraz.

Erantzuna: *KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA: Legealdi honen hasieran halako gabezia nabarmen bat sumatu genuen Departamentuan euskarazko komunikazioari dagokionean eta bitartekoak jartzen ari gara egoera normalduago bat lehenbailehen lortzearren. Halere, kexan ematen diren datuak ez datoz bat @ertzaintzaEJGV Twitter kontuko txioen zabalkunde datuekin. Ekainaren lehenetik abuztuaren 20ra arte, guztira 249 txio zabaldu ditugu gaztelera eta 117 euskaraz. Askok hobetu dugu egoera azkeneko hilabeteotan eta bide horretan jarraitu behar dugu, ekin eta jarrai.*

Dosierra: 303-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Uztailaren 11n goizaldeko 01:50 aldera istripu bat ikusi nuen Bidegoianen. 112ra deitutakoan euskaraz ba al zekien galdetu nion langileari eta "mejor en erdera" erantzun zidan. Orduetik aurrera gaztelaniaz aritu behar izan nuen. Tartean ulertzen ez nuen zerbait galdetu zidan eta ezin niola erantzun hitzaren esanahia ezagutzen ez nuelako esan behar izan nion.

Erantzuna: EUSKO JAURLARITZA, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria: *"Intzidentzian aipatzen diren elkarrizketen transkripzioak aztertuta, ikusi dugu Zuzendaritza honek SOS-DEIAK zerbitzuan erantzuteko ezarritako protokoloa, hizkuntzari dagokionez, dei horietan ez zela zehatz-mehatz bete. Protokoloaren arabera, deitzen duenak euskaraz hitz egiten badu, operadoreak, euskaraz ez badaki, aukera eman behar dio euskaraz artatuko duen batekin pasatzeko honakoa esanez. "Si desea continuar esta conversación en euskera, puedo ponerle con un compañero o compañera". Horregatik, honen bidez, SOS-DEIAK zerbitzuko operadore guztiei deiei erantzuteko protokoloa gogoratu egin diegula jakinarazi nahi dizugu."*

Dosierra: 325-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Ertzaintzak Donostiako Antigua auzoan duen egoitzara deitu dut (943588606 zenbakira) arratsaldeko 17:00etan. Telefonoa hartu didanak gaztelaniaz hitz egin dit. Euskaraz atendituko nauen norbait bazegoen galdetu diot eta ezetz erantzun dit. Hori horrela, zerbitzurik jaso gabe gelditu naiz.

Erantzuna:

Dosierra: 361-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Uztailaren 24 goizean Oreretako Ertzain-etxetik dei bat jaso nuen. Nik euskaraz erantzun eta tutik ez zuela ulertzen esan zidan telefonoz beste aldean zegoenak, gaztelaniaz egin behar niola. Arratsaldean polizia-etxea joan behar izan nuen eta sarrerako ertzainak ea zertara nindoan galdetu zidan. Nik euskaraz erantzun nion eta goizean telefonoz bezala, gaztelaniaz hitz egin behar niola esan zidan.

Erantzuna: EKINBIDE-POLIZIA ZERBITZUEN HOBEKUNTZARAKO EKIMEN BULEGOKO BURUA: *Erretereriako ertzain-etxeko Unitate Buruzatik jakinarazi digutenez, Behatokiarekin harremanetan jarri ziren interesdunaren filiazioa ezagutu eta zer gertatu zen argitzeko informazioa zabaltzeko, baina ez dute erantzunik jaso. Horrela, igarotako denbora kontuan hartuta, aipatutako egunean lanean zeuden agenteetako batek ere ez du gogoratzen arreta euskaraz inori ukatu zitzaionik egun hartan. Nolanahi ere, barkamena eskatzen diogu interesdunari. Neurri zuzentzaile gisa, Unitateko burutzak berriz ere eskatu die polizia arduradunei erraztasunak eman ditzatela, ahal den neurrian, arreta euskaraz eskatzen duten herritarrei. Esan behar da, halaber, ertzainak euskalduntzeko hainbat prestakuntza-jarduera egin den arren, badirela oraindik ere mugak. Beraz, lanean jarraituko da gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai diren agenteen kopurua gehitzen joateko. Segurtasun Saila Ertzaintzaren euskararen erabilera normalizatzeko plana preztzan eman behar zaiola, eta euskara ez badakite, beste batekin pasatzeko aukera eskaini behar diotela. eskubide guztiak behar bezala errespetatzeko modua izan dezagun. Plan horren bidez, lehentasuna duten unitateak zein diren definituko da estreina, eta gero, unitate horietan herritarrak euskaraz egiteko modua izan dezan zer neurri hartu behar diren argitu.*

Dosierra: 385-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Ertzaintzak erdara hutsezko bide-seinalea ipini du gaur Bilbo-Donostia errepidetik lurretako herrigunera sartzeko lehendabiziko sarbidean. Honela dio: "Ertzaintza-Kontuz/Policia /Atención. Calle Maspe cortada. A durango desvío por variante".

Erantzuna: *EKINBIDE-POLIZIA ZERBITZUEN HOBEKUNTZARAKO EKIMEN BULEGOKO BURUA: Kontu honetan eskumena daukanari jakinarazi diogu zure kexa, agenteei beriz ere gogora ekar diezaien mezu guzti-guztietan bi hizkuntzak erabili behar dituztela. Halaber, jakizu sail honetan aldiro-aldiro azterketak egiten ditugula Ertzaintzaren hizkuntza-paisaia behar bezala dagoen jakiteko, eta eskuliburu bat ere badugula: errotulazioa nola egin ezartzen du eskuliburuak, irizpide orokorren bitartze, erakunde osoak berdin eta batera joka dezan hizkuntza kontuetan, Ertzaintzaren irudi korporatiboan sekulako eragina daukanez. Dena dela. Zure eta gure helburuak eurak dira eta, horregatik, benetan eskertzen dizugu zure kexa, herritarrek zerbitzuari buruz dituzten igurikizunei hobeto erantzuteko balioko digulako.*

Dosierra: 406-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Duela bi egun Ertzaintzak Bilboko Autonomia kalean duen komisaldegira joan nintzen, semeak ertzaintzak sinatutako baimena behar zuelako Baionara egun pasa joan ahal izateko. Ez lehen harrera egin zidanak, ezta baimenerako datuak hartu zizkidanak ez zekiten euskaraz. Euskaraz artatzeko ahaleginik txikiena ere ez zuten egin. Agiria euskaraz egingo zidaten galdetu nuen eta bost hizkuntzetan zegoela erantzun zidaten.

Erantzuna:

Dosierra: 410-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Hernanitik Goizuetarako GI3410 errepidean gerarazi ninduten ekainaren 2an bi ertzainek abiadura muga gainditu nuela eta isuna jartzeko. 1 ertzaina gaztelaniaz zuzendu zitzaidan lehen unetik. Nik euskaraz erantzun arren gaztelaniaz jarraitu zuen. Ondoren biak furgonetara joan ziren eta itzuli zirenean 2 ertzainak eman zizkidan azalpenak euskaraz. Hori ikusita, azalpenak eskatu nizkion 1 ertzainari, ea zergatik ez zidan hasieratik aukerarik eman bere lankidearekin euskaraz aritzeko. Erdaraz esan zion lankideari emateko niri bere datuak kexa jarri nahi banion ere "pero espera, que habrá que decírselo en euskera que igual no entiendo" erantsiz ni datuak hartzera nindoala ikusita. Nire eskubidea zela erantzun nion, eta orduan berak ere bere eskubideak ezagutzen zituela erantzun zidan eta Konstituzioak gaztelania jakitera derrigortzen nauela.

Erantzuna:

Dosierra: 411-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Ertzaintzak isuna jarri zidan ekainaren 2an Hernanin abiadura muga gainditzeagatik. Nik euskaraz egin nien une oro, baina, hala ere, gaztelaniaz bete zuten isuna.

Erantzuna:

Dosierra: 637-2013  
 Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.  
 Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, bizkidetza sustatzeko planaren barruan hitzarmena sinatu du Ertzaintzarekin, DBH3 eta DBH4ko ikasleei droga-kontsumoak, sare sozialak eta abarrek izan ditzaketan arriskuei buruzko hitzaldiak emateko. Azaroaren 6an Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean eman zieten hitzaldia Kurtzebarri BHIko ikasleei. Ikasleok D eredukoak dira. Bada, hitzaldia ematera joan zen ertzainak "Mi nivel de euskera es muy básico y voy a hablar en castellano" hitzekin ekin zion hitzaldiari, eta handik aurrerako azalpen guzti-guztiak gaztelania hutsean eman zituen.

Erantzuna:

Dosierra: 654-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoa: Urriaren 9an, 19:30 aldera, 2 ertzain etorri zitzaizkigun Azpeitiko taberna batera. Ertzainetako bat ez zen euskalduna eta ezin izan nuen harekin euskaraz hitz egin. Bigarren ertzainarekin euskaraz egiten saiatu nintzen, baina honakoa erantzun zidan ironia tonuan: "Tú tranquilo que entiendo castellano". Gauzak horrela gaztelaniaz egitera behartuta sentitu nintzen.

Erantzuna: *Gertatutakoa argitzeko eginbideak eginda honakoa adierazi behar dugu: 2013/10/09ko txandako zerbitzuaren arduradunak taldeko kide guztiei eskatu zizkien aipatu egintzari eta iruzkinari buruzko argibideak. Era berean, bisiten aplikazioa, polizia-jarduketak eta barruko beste erregistro batzuk begiratu ditugu zer gertatu zen jakin ahal izateko eta horretan zer ertzainek parte hartu zuten ikusteko baina ezin izan dugu taxuzko ondorioarik atera. Azkoitiko Unitateburutzatik, hala ere, unitatera atxikitako agente guztiei helarazi zaie kexaren edukia, eta herritarren hizkuntza- eskubideak errespetatu beharra berretsi.*

Dosierra: 655-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoa: Urriaren 16an, gaueko 23:30 aldera, Zarauzko ertzain-etxeko 10 ertzain etorri zitzaizkigun Azpeitiko tabernara. "Inork euskaraz badaki?" galdetu nien nik eta ertzainetako batek mehatxuzko "No?" lehor batekin erantzun zidan, begirada desafiatzailez. Ondorioz, ezin izan nuen haiekin euskaraz jardun.

Erantzuna: *EKINBIDE-POLIZIA ZERBITZUEN HOBEEKUNTZARAKO EKIMEN BULEGOKO BURUA: Gertatutakoak argitzeko eginbideak eskatuta honakoa adierazi behar dugu: Agerian geratzen da uniformez jantzitako lau agente tabernan sartu zirela polizia-jardun baten barruan. Une hartan 10 bat pertsona zeuden taberna barruan. Dispositiboaren arduradunak tabernaren jabea zein zen galdetu zuen, eta han zeudenetako batek bera zela esan zuen, euskaraz. Agentek orduan polizia-operazioaren arrazoiak azaldu zizkion eta bere eskubideak zein ziren adierazi zion, gaztelaniaz, hizkuntza horretan jarriotasun handiagoa zuelako. Une hartatik aurrera, tabernaren arduradunak komunikazioa gaztelaniaz jarraitu zuen, euskarazko komunikaziorik eskatu gabe. Agente guztiek esan dute ez zietela desafio-jarrera edo ?aurpegirik erakutsi tabernako bezeroei eta jabeari. Bestalde, esan beharra daukagu norbaitek euskaraz hitz egiten duenean, zerbitzua hizkuntza horretan emateko ahalegina egiten dela, behar izanez gero hizkuntza-maila nahikoa duen beste agente bat ekarritzen ari da une honetan, euskaraz badakiten agente gehiago izan daitezen, herritar guztien hizkuntza-eskubide guztiak behar bezala errespetatzeko mo*

---

Dosierra: 895-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Gaur goizean Zarauzko Ertzain etxera salaketa bat jartzera joan naiz. Harrerako Ertzainak ez zekien euskaraz eta erdaraz esan diot, mesedez, ertzain euskaldun bat bahi nuela nire deklarazioa egiteko. Hasieran baiezkoa esan badit ere, handik minutu gutxira beste ertzain bat atera da eta honakoa esan dit: "estoy yo solo y no se euskera, si quieres declarar en euskera vienes a la tarde o te vas a Azkoitia".

Erantzuna:

---

Dosierra: 1029-2013

Erakundea: EUSKO JAURLARITZA: SEGURTASUN SAILA.

Arrazoia: Bergarako ertzain-etxearen kanpoko aldean aparkatzea galarazten duen bide-seinaleak testu akastuna ageri du. Zehazki, honako testu hau du seinaleak: "Excepto / Ertzaintza / Ezik". Bada, "Ezik" barik, "izan ezik" da molde zuzena.

Erantzuna:

---

# 5. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Dosierra: 248-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Urtero bezala, aurtan ere errenta aitortpena internet bidez egiten saiatu naiz baina, euskaraz egiterik ez dut izan. Sartu orduko erdarazko alera eramaten nau. Ohiko moduan, aitortpena egiteko hitzordua eskatu beharko dut, eta berariaz eskatu beharko dut, gainera, euskaraz inprima diezadatela.

Erantzuna:

Dosierra: 369-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Ekainaren 5ean 2012ko errenta aitortpena egiteko hitzordua izan dugu Barañaingo bulegoan. Harrerako langilearekin ezin izan dut euskaraz aritu ez zelako euskalduna. Errenta aitortpena egiteko 4 gestore zeuden, baina bakarra ere ez zen euskalduna, hortaz, ezin izan dut euskaraz aritu egokitu zaidanarekin.

Erantzuna:

Dosierra: 370-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Ekainaren 5ean errenta aitortpenaren berrikuspena egiteko izan naiz Barañaingo bulegoan. Etxean jasotako aitortpen-proposamena euskaraz zegoen arren, berau berrikusitakoan bulegoan eman didatena ez dago euskaraz, gaztelaniaz baizik, nahiz eta nik errenta aitortpenak euskaraz jaso nahi ditudala adierazia dudana.

Erantzuna:

Dosierra: 371-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Ekainaren 5ean Barañaingo bulegoan errenta aitortpena egindakoan eman didaten ordainketa-gutuna ez dago euskaraz. Euskarazko inprimakirik baduten galdetuta, ezetz erantzun didate.

Erantzuna:

Dosierra: 372-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuak errenta aitortpena egiteko Barañainen egokitu duen bulegoko atean 2012ko kanpainari dagokion kartela eta paperean idatzitako hiru ohar daude (aldez aurreko hitzordua nola eskuratu, jendearendako harrera orduak eta 10:45etik 11:15era bulegoa itxita egonen dela dioena). Bada, 4 euskarri horietan ez da hitz bat bera ere euskaraz.

Erantzuna:

---

Dosierra: 381-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Espainiako Trafikoko Zuzendaritzak bidalitako isunaren jakinarazpena jaso dut Altsasun behar baino abiadura handiagoan joateagatik. Jakinarazpenarekin batera CEINek luzatutako motorrezko ibilgailuen abiadura neurtzeko tresnen egiaztapen ziurtagiria dator. Ziurtagiria gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

---

Dosierra: 780-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA LAN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun sailak gaztelaniaz baino ez dizkigu bidali jokoaren gaineko zerga-tasa ordaintzeko agiriak (aurkezpen-gutuna eta tasa-gutuna). Horrela, administrazioarekin gaztelaniaz jardutera behartzen gaitu, nahiz eta 18/1986 Legeak herritarrei administrazioarengana euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortu.

Erantzuna:

---

Dosierra: 442-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: NAFARROAKO ZERGA OGASUNA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali dizkigute bigarren hiru hilekoko PFEZ aitopena egiteko inprimakiak, euskaraz lan egiten dugun arren.

Erantzuna:

---

Dosierra: 49-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: REFENA

Arrazoia: Refenan antolatu ohi den Gabonetako Parkerako sarreran ez zen azalpen txikienik ere ageri euskaraz; gaztelania hutsean idatzita zeuden.

Erantzuna:

---



## GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA

---

Dosierra: 31-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiken Departamentuak gaztelania hutsean argitaratu zuen 2012ko abenduko "Sphera" aldizkaria.

Erantzuna:

---

Dosierra: 125-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Gaztediaren Institutuak otsailaren 18an bidali zidan posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: boletín semanal.

Erantzuna:

---

Dosierra: 126-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Gazteriaren Institutuak otsailaren 26an bidali zidan mezu elektronikoa, beti bezala, gaztelania hutsean zegoen. Gaia: Boletín. Horretaz gain, buletinaren euskarazko bertsioak ere gaztelaniazko izenburua zeukan.

Erantzuna:

---

## HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Dosierra:	28-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Barañainen lanean ari den irakasle bati urtarrilean bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Gutun-azala ere gaztelania hutsean zegoen: Nafarroako Gobernuko logoa, zerbitzuaren helbidea, "Gaia: 2013ko urtarrilean seme-alaben kopurua".
Erantzuna:	
Dosierra:	33-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak 2012ko abenduaren 11n Barañainen ari den irakasle bati bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Gutun-azala ere gaztelania hutsean zegoen: Nafarroako Gobernuko logoa, helbidea... Gaia: azaroaren 30eko ----/2012 ebazpena.
Erantzuna:	
Dosierra:	55-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak gaztelania hutsean bidali digu sindikatuei urtarrilaren 15ean Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko espezialitate batzuetan aldi baterako kontratazioak egiteko zerrenda berriak osatzeko deialdiaren ebazpena.
Erantzuna:	
Dosierra:	72-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zidan kontratu amaieraren jakinarazpena.
Erantzuna:	
Dosierra:	86-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA Kontseilaria
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko giza baliabideen zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zien urtarrilaren 25ean sindikatuei 2012-2013 ikasturterako aldi baterako kontratazioetan borondatez parte hartu nahi duten irakasleei helarazteko deialdia.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 87-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko giza baliabideen zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zien urtarrilaren 29an sindikatuei Irakasleen Kidegoko funtzionarioen estatu mailako lekualdatze lehiaketaren behin behineko zerrendak eta puntuazioak onesten dituen ebazpena.

Erantzuna: IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA: *herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduari loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Horregatik, iradokitzen dizut kexaren egilearekin harremanetan jarri eta eman diezaiozula aditzera pest egonen garela dagozkion bideen bitartez egin nahi digun adierazpen orori erantzuteko.*

---

Dosierra: 124-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak otsailaren 4an bidalitako mezu elektronikoa eta atxikitua zetozen dokumentu guzti-guztiak (4) gaztelania hutsean zeuden. Gaia: Convocatoria para la constitución de listas del Conservatorio.

Erantzuna: *Hezkuntza Departamentuko Idazkari tekniko nagusiak Behatokiari adierazi dio kexaren egilearekin harremanetan jartzeko eta jakinarazteko prest daudela dagozkion bideen bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egin nahi dion adierazpen orori erantzuteko. Behar bezala atenditua izanao dela.*

---

Dosierra: 128-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Otsailaren 4an, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentutik jaso nuen mezu elektronikoa gaztelania hutsean zegoen, baita informazio gehiago jasotzeko bertan txertatutako lotura. Gaia: Llamamiento de participación voluntaria Profesores de Enseñanza Secundaria.

Erantzuna: IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA: *herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduari loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Horregatik, iradokitzen dizut kexaren egilearekin harremanetan jarri eta eman diezaiozula aditzera pest egonen garela dagozkion bideen bitartez egin nahi digun adierazpen orori erantzuteko.*

---

Dosierra: 131-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Otsailaren 14an Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak bidalitako mezu elektronikoa gaztelania hutsean zegoen, baita bertan ematen ziguten informazioa. Gaia: Lista provisional candidaturas concurso méritos par selección directores centros públicos.

Erantzuna: IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA: *herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduari loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Horregatik, iradokitzen dizut kexaren egilearekin harremanetan jarri eta eman diezaiozula aditzera pest egonen garela dagozkion bideen bitartez egin nahi digun adierazpen orori erantzuteko.*

---

Dosierra: 190-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko buruak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei otsailaren 28an Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko espezialitate jakin batzuetan izangaiekin aldi baterako kontratazioetarako zerrenda berriak osatzeko deialdia bertan behera uzten zela jakinarazteko mezu elektronikoa. Mezuarekin batera deialdia zetorren, hau ere gaztelania hutsean.

Erantzuna:

Dosierra: 199-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentutik bidalitako gutuna jaso dut etxean. Gutunazaleko idazpen guztiak gaztelania hutsean daude: "Gobierno de Navarra/ España/ Franqueo pagado/ Carta / Notificación/ Pamplona". Nire helbidea ere gaztelaniaz idatzita dago.

Erantzuna:

Dosierra: 200-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zidan nik euskaraz aurkeztutako kexaren erantzuna. Erantzuna euskaraz bidaltzeko eskatu nuen. Berriz ere gaztelania hutsean erantzun diote nire eskaerari, erdara hutsean erantzuteak ez duela indarrean den legedia urratzen argudiatuz.

Erantzuna:

Dosierra: 201-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei 2012-2013 ikasturterako aldi baterako kontratazioetan borondatez parte hartu nahi duten irakasleei helarazteko deialdia.

Erantzuna:

Dosierra: 210-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko Buruak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei martxoaren 21ean haur hezkuntzako espezialitatea lortzeko prozesuaren aurkezpen ekitaldiari buruzko informazioa helarazteko mezu elektronikoa.

Erantzuna:

Dosierra: 271-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko giza baliabideen zerbitzuak gaztelania hutsean bidali die sindikatuei 2012-2013 ikasturterako aldi baterako kontratazioetarako izangai onartu eta baztertuen zerrendaren berri emateko mezu elektronikoa.

Erantzuna:

---

Dosierra: 276-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko Buruak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei apirilaren 18an iragarki-taulan eta Departamentuko web-gunean argitaratutakoaren berri emateko mezua.

Erantzuna:

---

Dosierra: 277-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko Buruak sindikatuei apirilaren 18an bidalitako Departamentuko web-guneko loturak gaztelaniaz soilik ematen zuten irakasleei profil berezituak aitortzeko ebazpenaren gaineko informazioa.

Erantzuna:

---

Dosierra: 316-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - NAPI/INAP

Arrazoia: Ikastaro bat egin dut NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan eta Nafarroako Gobernuak gaztelania hutsean bidali dit ziurtagiria.

Erantzuna:

---

Dosierra: 330-2013

Erakundea: NUP - UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA

Arrazoia: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioak "Encuentros gestionar Cultura 2013" mezua elektronikoa bidali dit. Mezua gaztelania hutsean idatzita zegoen, sinadura eta mezuari erantsitako dokumentua ele bietan egon arren.

Erantzuna:

---

Dosierra: 437-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari zerbitzu-orria euskaraz bidaltzeko eskatu nion. Gaztelania hutsean jaso dut erantzuna. Bertan adierazten didate langileei bidaltzen zaien zerbitzu-orria (gaztelania hutsean) bat datorrela 29/2003 Foru Dekretuak ezartzen duenarekin eta gaztelaniaz bidaliko didatela agiria.

Erantzuna:

---

Dosierra: 512-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Deialdien Ataleko Buruak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei Kontserbatorioko profesional espezialista izateko berariazko profilak egiaztatzeko deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenden berri emateko mezua elektronikoa.

Erantzuna: IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA: *Herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduarekin loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Jakin ezazu prest gaudela dagozkion bideen bitartez egin nahi diguzun adierazpen orori erantzuteko.*

Dosierra: 517-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - NUP

Arrazoia: Nafarroako Unibertsitate Publikoan Matematika ikasgaia euskaraz aukeratu zuten arren, ikasgaia gaztelaniaz hartzera behartu zituzten Ingeniaritzako 40 ikasle, euskaraz eskolak emateko gai den irakasle bakarra zegoelako.

Erantzuna:

Dosierra: 541-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko giza baliabideen zerbitzuak gaztelania hutsean bidali zien sindikatuei 2013-2014 ikasturterako aldi baterako kontratazioetan borondatez parte hartu nahi duten irakasleei helarazteko deialdia.

Erantzuna: IDAZKARI TEKNIKO NAGUSIA: *Herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduari loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Jakin ezazu prest gaudela dagozkion bideen bitartez egin nahi diguzun adierazpen orori erantzuteko.*

Dosierra: 606-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Sakanako herritarra naiz eta urriaren 4an eguerdiko 13:15 aldera Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentura joan nintzen inprimaki batzuen eske. Barrura sartu ahal izateko segurtasun zaindariak emango zidan txartela hartu behar nuela esan zidaten. Zaindariarengana joan eta euskaraz eskatu nion delako txartela. "No sé euskera. En castellano" erantzun zidan.

Erantzuna: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA, Idazkari Tekniko Nagusia: *"Jakinen duzuen, herritar orok zerbitzu publikoen funtzionamenduari loturiko zeinahi kexa mota zuzendu diezaioke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako bideen bitartez, eta behar bezala atenditua izanen da. Horregatik, iradokitzen dizut kexaren egilearekin harremanetan jarri eta eman diezaiozula aditzera prest egonen garela dagozkion bideen bitartez egin nahi digun adierazpen orori erantzuteko".*

Dosierra: 607-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Sakanako herritarra naiz eta urriaren 4an eguerdiko 13:15 aldera Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko beken atalera joan nintzen. Harrera egin zidan langilearengana euskaraz zuzendu eta gaztelaniaz egiteko eskatu zidan; ondorioz, ezin izan nuen euskaraz aritu.

Erantzuna: MODERNIZAZIO ATALA: *Hezkuntza Departamentuak euskaraz nahitaez jakin beharreko lanpostuak betetzen dituzten langileak ditu bere zerbitzura, batez ere, beheko solairuan herritar guztien eskur dauden arreta orokorretako zerbitzuetan (Argibide eta Agiri Bulegoa eta Erregistro Bulegoa). Gainera Departamentuak bere langileak euskara ikastaroetara joan daitezela sustatu eta diruz laguntzen du, hauek hizkuntza horretan arreta emateko konpromezua hartzen dutelarik hala eskatzen zaienean. Modu guztietan, langile guztiak ez dute euskaraz modu egokian arreta emateko beharrezkoa den hizkuntza gaitasunik eta, kontsultak zehatzagoak direnean, beken kudeaketari buruzko kexan izan daitekeen bezala, une horretan arreta emateko gai den inor ez egotea gerta daiteke. Segurtasuneko zainzailearen kasuan, zure iradokizuna kontuan izango dugu eta segurtasuneko zerbitzuak kontratatzeke arduraduna den Barne Departamentuari jakinaraziko diogu, euskararen ezagutza lehentasuna eman dakion formularen bat ezarri daitekeen aztertu dezaten.*

---

Dosierra: 1028-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - LIZARRALDEA B.H.I.

Arrazoia: Aurten Lizarraldea BHIn ari naiz lanean eta irakasleoi banatu diguten irakasle-karneta gaztelania hutsean dago. Itzuli dut euskaraz ere jar dezaten eta “no hay sitio” erantzun didate. Orduan euskaraz bakarrik jartzeko esan diet eta “si total, a los museos que vas a ir son todos en castellano” entzun behar izan dut.

Erantzuna:

---

KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA

Dosierra:	300-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuak antolatutako "Festival de Teatro Clásico de Olite" iragartzeko argitaratutako liburuxka gaztelania hutsean aurkitu dut Agoitzen. Ez dut euskarazko bertsiorik inon aurkitu.
Erantzuna:	
Dosierra:	301-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuak antolatutako "Festival de Teatro Clásico de Olite" festibalean ez da antzezlan bat bera ere euskaraz.
Erantzuna:	
Dosierra:	535-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak gaztelania hutsean argitaratu du Lizarran antolatu ohi duen Antzinako Musikaren Asteko kartela. Hiriaren izen ofiziala (Estella-Lizarra) ere ez du errespetatu: "44 Semana de Música Antigua de Estella, 13-20 septiembre de 2013, Iglesia de San Miguel" dio.
Erantzuna:	
Dosierra:	767-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: KULTURA, TURISMO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Reyno de Navarra, Nafarroako Gobernuak erabiltzen duen turismo markak, alegia, euskara baztertzan du sare sozialetan. Twitterren bidez eta Facebooken bidez bidaltzen zaizkien euskarazko txioak ez dituzte bertxiokatzan, aldiz gaztelerazkoak bai.
Erantzuna:	
Dosierra:	32-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - ARGITALPEN ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak Argitalpenen Funtsean mezu bat igorri die urtarrilaren 4an Gobernuak langile guztiei, salgai dituzten zenbait liburu oparitarako gomendaturik. Mezua eta gomendaturiko liburuak gaztelania hutsean daude.
Erantzuna:	<i>Bidalitako mezuan aipatutako liburuak Gabonetan oparitu zitezkeenak ziren. Zoritxarrez, hilabeteak dira Departamentuek ezaugarri hauetako euskarazko libururik argitaratzen ez dutela. Bai ikasketak, ikerketak, formakuntzakoak... eta abarrekoak. Baina, hauek ez dira oparitzeko egokiak. Hori horrela izanda, "oparitzeko egokia" euskarazko libururik ez zegoenez, mezua gaztelaniaz bidaltzea erabaki genuen. Gure ustez, ez baita da oso egokia liburu guztiak gaztelaniaz izatea eta mezua euskaraz idaztea. Aldrebes gertatuko litzatekeen bezalaxe. Hala nola, zalantza dugu liburuak ongi aukeratu ote genituen eta Behatokiari Argitalpen Funtsean dauden liburuen zerrenda bidaltzeko prest gaude, zuen iritzia jasotzeko. Horretaz gain, ez dugu uste ingongo legerik urratu dugunik.</i>



LANDA GARAPENA, INGURUMENA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA

Dosierra:	263-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Enplegu zerbitzura -Yamaguchi bulegora- deitu dut goizeko 11:00ak aldera eta ezin izan dut euskaraz egin bulegoan ez zegoelako euskaldunik.
Erantzuna:	
Dosierra:	465-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Nafarroako Enplegu Zerbitzutik hurrengo sms mezua bidali didate gaztelera hutsean: "Oferta empleo profesor guitarra bajo elect. y combo en euskera para Alsasua. Enviar CV a musicaeskola@altsasu.net antes del 29-8, más info www.empleo.navarra.es."
Erantzuna:	
Dosierra:	933-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA
Arrazoia:	Azaroaren 18an, goizean, Iruñeko Yamaguchi kalean dagoen Nafarroako Enplegu Zerbitzura deitu nuen eta nire zalantzak argitzeko langile euskaldunik ez zegoela esan zidaten. Beraz, gaztelaniaz hitz egin behar izan nuen.
Erantzuna:	
Dosierra:	644-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: INDUSTRIA, ENERGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak azaroaren 21etik 23ra bitartean antolatutako Biomasko Azoka iragartzeko kartelak ez daude euskaraz idatziak. Hasiera batean, euskaraz eta gaztelaniaz izatekoak ziren, baina Nafarroako Gobernuak euskarazko esaldia kenarazi du.
Erantzuna:	
Dosierra:	645-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: INDUSTRIA, ENERGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuaren webgunean ez dago azaroaren 21etik 23ra bitartean antolatuta duen Biomasko Azokaren egitararen berri ematen duen euskarazko esku-orririk.
Erantzuna:	
Dosierra:	561-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuak 2013-2014 denboraldirako ehiza arauekin liburuxka zabaldu du. Esku-orri hori ez dut euskaraz aurkitu Iruñean, gaztelania hutsean dago: "Normas de caza 2013-2014".
Erantzuna:	

---

Dosierra: 563-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuaren baitako "Ehiza eta arrantza" zerbitzuaren web orriak ez duenez euskarazko bertsiorik, ezin izan dut informazioa euskaraz eskuratu.

Erantzuna:

---

Dosierra: 693-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gaztelania hutsean jaso dut Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuak harpidedunen artean zabaldu duen "Entornos de Navarra" aldizkariaren 22. alea.

Erantzuna:

---

## OSASUN DEPARTAMENTUA

Dosierra:	14-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	OSASUNBIDEAk Agoizko herritarrari martxoaren 6an bidalitako gutunean idatzitako helbide osoa gaztelaniaz zegoen: kalea, "Aoiz", "Navarra".
Erantzuna:	
Dosierra:	64-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Elizondoko osasun-etxerat mediku erdalduna igorri dute. Mediku hori zahar etxerat joaten da egunero bertako zaharrak artatzerat. Osasunbideak ez du euskara jakiterik eskatzen eskualde euskaldunean lanean aritzeko, nahiz orain artio zegoen medikuak euskara jakin. Mediku euskaldun honek plaza atera du eta bertze toki baterat joan da; bere ordez etorri dena berriz, ez da euskal hiztuna.
Erantzuna:	
Dosierra:	84-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	8an mamografia egiteko hitzordua nuen Etxarri-Aranatzen, horretarako bertaratutako unitate mugikorrean. Kontsulta gaztelaniaz pasa behar izan nuen bertan ziren langileek euskaraz ez zekitelako.
Erantzuna:	
Dosierra:	101-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Uharte-Arakilgo osasun etxera deitu dut gaur, urtarrilaren 15ean, goizeko 8:20ean medikuarentzako hitzordua hartzeko. Harrerako langileak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz eman behar izan dizkiot azalpenak.
Erantzuna:	
Dosierra:	106-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Urtarrilaren 24an Nafarroako Gobernuak bularreko minbiziari aurrea hartzeko kanpainaren barruan jasotako deiari erantzunez mamografia egiten izan nintzen Irurtzunen. Harreran zegoen pertsonak eta mamografia egin zidanak, biak gaztelaniaz hitz egin zidaten nik haiei lehen hitzak euskaraz egin arren.
Erantzuna:	
Dosierra:	110-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Etxarri Aranazko Emakumeraren Arreta Zentrotik deitu didate, gaur urtarrilaren 28an, telefonoz hitzordua aldatzeko. Gaztelaniaz mintzatu da deitu didan pertsona. Euskaraz badakien galdetu diot eta "no, por eso te hablo en castellano" erantzun dit. Gaztelaniaz lotu behar izan dugu hitzordu berria.
Erantzuna:	

Dosierra: 140-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Sakanako herritarra naiz eta uztailaren 3an Etxarri Aranazko Emakumearen Arretarako Zentrora deitu dut hitzordua aldatzeko. Telefonoa hartu duen langileak gaztelaniaz egin dit lehen hitza eta euskaraz artatuko nauen galdetu diodanean, "no, en castellano" erantzun dit ozen.

Erantzuna:

Dosierra: 175-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Herritar batek Agoizko osasun etxean luzatu zioten "Solicitud interconsulta" deitutako agiria gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 183-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Urtarrilean medikuarenean izan nintzen Barañain II osasun-etxean. Kontsulta izan nuela egiaztatzeko eman zidaten egiaztageria, ordenadorean egina eta ondoren inprimatua, ez zegoen euskaraz.

Erantzuna:

Dosierra: 184-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Arrazoia: Barañain II osasun-etxean izan nintzen urtarrilean. Botika hartzeko eman zidaten jarraibideak gaztelania hutsean zeuden (Instrucciones al Paciente). Medikuek idatzitako oharrak ez daude euskaraz, baina eredu bera ere ez dago euskaraz. Testua: 2 pulverizaciones nasales (...), horario, desayuno, duración tratamiento.

Erantzuna:

Dosierra: 186-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: OSASUNBIDEAK martxoan bidali zidan gutun-azaleko COMPLEJO HOSPITALARIO DE NAVARRA-ren logo ofiziala gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 197-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA

Arrazoia: Osasun txartela euskaraz nahi dudala jakinarazi dut Barañain II osasun etxean. Ezinezkoa dela erantzun didate.

Erantzuna:

Dosierra:	198-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Martxoaren 4an Iruñeko ospitaleko larrialdi zerbitzuan izan nintzen. Bertan egon nintzen denboran egin zizkidaten agiri guztiak gaztelania hutsean luzatu zizkidaten (pazientea identifikatzeko eranskailuak, medikuaren txostena eta hura sartzeko gutunazala, errezeta, baja-agiria, mutuan entregatu beharreko ezgaitasun parte eta hura sartzeko gutunazala). Lanera joan ez izana zurrizko egiaztagiria eskatu nuen eta hura ere gaztelania hutsean luzatu zidaten. Euskaraz egingo zidaten galdetu nuenean, programa informatikoak elebitan Elizondokoentzat soilik egiten duela erantzun zidaten.
Erantzuna:	
Dosierra:	285-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Ikastaro bat egin dut berriki Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta eta erdara hutsean jaso dut ikastaroa egin izana ziurtatzeko Nafarroako Gobernuaren Osasun Saitetik bidali duten agiria.
Erantzuna:	
Dosierra:	332-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Iruñeko "Príncipe de Viana" zentroan odola ateratzeko toki ondoan, laginak uzteko mostradorea dago. Mostradore gaineko kartelean "Laginak uzteko..." beharrean, "Laginak urteko..." paratzen du.
Erantzuna:	
Dosierra:	333-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Maiatzaren 16an Iruñeko "Príncipe de Viana" zentroan izan naiz odola ateratzen. Eman didaten txanda-zenbakia ez dago euskaraz idatzia.
Erantzuna:	
Dosierra:	334-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Iruñeko "Príncipe de Viana" zentroan odola-ateratzeko kabinetara pasatzeko zeharkatu behar den atean ohar bat dago ordenadorez idatzia; txanda-zenbakia ez trukatzeko dio, zenbaki bakoitza bolante zehatz bati baitagokio. Aipatu oharra ez dago euskaraz idatzia.
Erantzuna:	
Dosierra:	335-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Maiatzaren 16an 10:00ak aldera odola ateratzen izan nintzen Iruñeko "Príncipe de Viana" zentroan. Bolantea jasotzeko zeuden bi langileetatik bakarra ere ez zen euskalduna eta egokitu zitzaidan erizaina ezta ere. Ondorioz, ezin izan nuen euskaraz aritu.
Erantzuna:	

Dosierra:	346-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Uztailaren 22an goizeko 11:00ak aldera Iturramako osasun-etxera deitu dut galdera bat egiteko eta euskaraz egin nahi izan dut. Telefonoa hartu didanak esan dit euskaraz egiteko itxoin behar nuela.
Erantzuna:	
Dosierra:	494-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Abuztu hasieran Arbizu eta Lakuntzako osasun-konsultan administrari lanak betetzen aritu den ordezkoa ez da euskalduna. Ondorioz, herritarrek ezin izan dute zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Dosierra:	495-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Abuztu hasieran Arbizu eta Lakuntzako osasun-konsultan aritu den medikua ez da euskalduna. Ondorioz, herritarrek ezin izan dute zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Dosierra:	498-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Abuztuaren 28an goizeko 10:00ak inguruan Iturramako osasun-etxera deitu dut, 948.198.360 zenbakira. Euskaraz artatua izan nahi nuela adierazi dudan arren, ez dut zerbitzua euskaraz jaso.
Erantzuna:	
Dosierra:	555-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - ERIAREKIKO ARRETA ETA KALITATE ZUZENDARITZA
Arrazoia:	Irailaren 13an Barañaingo Emakumeen Arretarako Zentroan izan nintzen ginekologoarenean. Han egon izanaren egiaztagiria eskatu nion administrariari eta gaztelania hutsean idatzitako papertxo eman zidaten, bai eredia eta baita berak betetakoa ere.
Erantzuna:	
Dosierra:	604-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUN DEPARTAMENTUA - IDAZKARITZA TEKNIKOA
Arrazoia:	Eritasunen bat duten pertsonak garraiatzen ibiltzen den Gurutze Gorriko eta Nafarroako Gobernuko autobus txikia ikusi nuen irailaren 12an Arbizun. Bada, gaztelania hutsean ditu errotilu, logo eta irudi guztiak.
Erantzuna:	
Dosierra:	608-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA
Arrazoia:	Barañaingo herritarra naiz eta Iruñeko Bideko Ama erietxeko Obstetziako 5. konsultan izan naizela dioen egiaztagiria ez zidaten euskaraz eman. Bai eredia, bai zigilua eta bai emaginak betetakoa gaztelaniaz baino ez daude.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 616-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Ordezko medikua bidali dute Zugarramurdiko osasun etxera. Ez daki euskaraz eta euskaraz zuzentzen zaizkion pazienteekin duen jarrera ez da batere egokia.

Erantzuna:

---

Dosierra: 617-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - COMPLEJO HOSPITALARIO DE NAVARRA

Arrazoia: Urriaren 6an ilobatxo sortu-berria bisitatzen izan nintzen Iruñeko Bideko Ama erietxean. Bertan sartu ahal izateko harreran erakutsi behar den txartel horia ez dago euskaraz idatzia. Bai haurraren amaren datuak bai alta emandakoan txartela informazio-lekuan bueltatu behar dela dioen testua gaztelaniaz baino ez daude idatziak.

Erantzuna:

---

Dosierra: 618-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Barañaingo herritarra naiz eta irailean eta urrian bitan izan naiz Iruñeko Bideko Ama erietxeko Obstetriziako 5. kontsultan eta 2. Ekografoan. Bi aldi horietan 3 ginekologo eta 3 emaginekin egotea egokitu zait eta ezin izan dut horietako inorekin euskaraz aritu, bakarra ere ez zelako euskalduna.

Erantzuna:

---

Dosierra: 649-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Urriaren 24an 9:45 aldera Iruñeko Príncipe de Viana zentroan dagoen Erien Harrerarako gunean izan naiz iradokizun bat egiten. Ezin izan dut egokitu zaidan emakumezkoarekin euskaraz aritu eta ez zegoela langile euskaldunik erantzun dit. Beraz, ez dut zerbitzua euskaraz iaso.

Erantzuna:

---

Dosierra: 650-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Urriaren 24an 10:00ak aldera Iruñeko Príncipe de Vianan izan naiz odola ateratzen. Egokitu zaidan erizaina ez zenez euskalduna, ezin izan dut euskaraz aritu.

Erantzuna:

---

Dosierra: 679-2013

Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - ERIAREKIKO ARRETA ETA KALITATE ZUZENDARITZA

Arrazoia: OSASUNBIDEAn ditudan hitzorduen jakinarazpenak euskaraz jasotzen ditudan arren, badira zenbait ohar ez daudenak euskaraz idatziak: "Para abrir, doblar y rasgar aquí" edo "Siempre que acuda a un centro sanitario debiera traer la tarjeta de identificación sanitaria (T.I.S.)". Espezialista mota ere, ez dago euskaraz idatzia: "M.Interna-Embarazo".

Erantzuna:

---

Dosierra: 793-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - COMPLEJO HOSPITALARIO DE NAVARRA  
 Arrazoia: Azaroaren 4an Bideko Ama Ospitaleko Obstetriziako 5. kontsultan "Gripe y embarazo" izeneko informazio-orria ez dut euskaraz jaso. Euskarazko alerik baduten galdetu diet eta ez dietela igorri erran didate.

Erantzuna:

Dosierra: 794-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - COMPLEJO HOSPITALARIO DE NAVARRA  
 Arrazoia: Azaroaren 4an Bideko Ama Ospitaleko Obstetriziako 5. kontsultan "Ante la gripe: ¡Vacúnate!" izeneko esku-orria ez dut euskaraz jaso. Euskarazko alerik baduten galdetu diet eta ez dietela igorri erran didate.

Erantzuna:

Dosierra: 819-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUN DEPARTAMENTUA - IDAZKARITZA TEKNIKOA  
 Arrazoia: Etxarri Aranazko osasun etxean erretzeari uzteko laguntza eskaintzen duen kartela gaztelania hutsean ageri da.

Erantzuna:

Dosierra: 901-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA  
 Arrazoia: Azaroaren 19an 11:55ean Barañain II osasun-etxera deitu dut, 948 28 75 40 zenbakira. Euskaraz egin diot administrariari, baina ez dakiela euskaraz eta euskaraz artatua izan nahi badut 848 42 71 00 zenbakira deitzeko aukera eman dit, bertako langileen bidez eskaera egin ahal izateko. Zenbaki horretara deitu eta "Información y registro" dela ohartu naiz. Langileak azaldu didanez, beraiek ez dute Osasunbidearekin zerikusia duten kontu hori eramaten. Beraz, osasun-etxean zerbitzua euskaraz ez jasotzeaz gain, zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko eskaintzen duten telefonoa ez da zuzena.

Erantzuna:

Dosierra: 935-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA  
 Arrazoia: Azaroaren 22an Barañain II osasun-etxean bertan izan nintzela zioen egiaztagiria eskatu nuen harreran. Ordenadorean idatzitako orria eman zidaten eta ez zegoen euskaraz. Euskarazko egiaztagiria ematen ahal zidan galdetu nion administrariari eta ezetz erantzun zidan. ez zutela euskarazko eredurik.

Erantzuna:

Dosierra: 977-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA  
 Arrazoia: Gastroskopia egiteko hitzordua aldatzeko telefonoz deitu didate Bideko Ama Birjina ospitaletik. Euskaraz egitea eskatu dut eta ez dela posible erantzun didate.

Erantzuna:



---

Dosierra: 978-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA  
 Arrazoa: Arrotxapeako osasun etxera joan nintzen eta ezin izan nion medikuari zer nuen euskaraz azaldu, artatu ninduen medikuak euskaraz ez zekielako. Emandako errezetak ere gaztelania hutsean inprimatu zizkidan.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 1026-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUN DEPARTAMENTUA - IDAZKARITZA TEKNIKOA  
 Arrazoa: Osasunbideari jakinarazi nion osasun etxetik niri eta nire seme-alabei bidaltzen dizkiguten jakinarazpenak euskaraz jaso nahi nituela. Lehen Arretako Zuzendaritzatik erantzun didate jakinarazpen idatziak ele bitan egon daitezkeela (informazio orokorra, informazio kanpainak, etab.) baina norberaren informazio klinikoa (txostenak, hitzorduak, azterketak) gaztelaniaz ematen direla, isilpeko informazioa delako eta, hortaz, ezin direlako itzultzeraz bidali.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 1051-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA  
 Arrazoa: Basaburuako Udalak jakin zuenean 1974. urtetik lanean zegoen erizain euskaldunak erretiroa hartzen zuela Osasun Departamentura eskaera bideratu zuen igorriko ziguten erizain berria euskalduna izan zedin. Eskaerek ez zuten erantzunik jaso eta, gainera, etorri den ordezkioak ez du euskararen profila betetzen. Udalaren eskaerarekin batera, Basaburuako 234 bizilagunek ere kexa agertu dute erizain euskaldun bat eta legea bete dadin eskatzeko.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 1057-2013  
 Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA: OSASUNBIDEA  
 Arrazoa: Arrotxapeako osasun etxean gure alaba txikiaren pediatrik ezin izan zuen bere lana behar bezala egin; euskararik ez dakenez, haurrekin ezin izan zuelako zuzenean komunikatu.  
 Erantzuna:

---

## SUSTAPEN DEPARTAMENTUA

Dosierra:	223-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN DEPARTAMENTUA
Arrazoia:	Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuak Agoitzen erabiltzen dituen kamioen errotulazioa gaztelania hutsean dago. Honela diote: GOBIERNO DE NAVARRA-CONSERVACION DE CARRETERAS-AOIZ.
Erantzuna:	

Dosierra:	79-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN DEPARTAMENTUA - AUDENASA
Arrazoia:	Nik hala eskatuta AUDENASAREN fakturak euskaraz jasotzen ditut. Faktura atxikia izaten duen e-mezua, ordea, ez da euskaraz idatzia egoten. Azkena uztailaren 2an jasotakoa.
Erantzuna:	

Dosierra:	368-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN DEPARTAMENTUA - AUDENASA
Arrazoia:	AUDENASAK fakturak e-mailez igortzen dizkit eta euskaraz jaso ohi ditut. Faktura atxikia dagoen e-maila ordea, ez dago euskaraz idatzia.
Erantzuna:	

Dosierra:	584-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN DEPARTAMENTUA - AUDENASA
Arrazoia:	Audenasak e-mail bidez jakinarazi dit irailleko joan-etorrien faktura AP15-Online zerbitzuan eskura dezakedala. Mezua gaztelania hutsean idatzita dago.
Erantzuna:	

Dosierra:	694-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA: SUSTAPEN DEPARTAMENTUA - AUDENASA
Arrazoia:	Audenasak e-mail bidez jakinarazi dit urriko joan-etorrien faktura AP15-Online zerbitzuan eskura dezakedala. Faktura euskaraz jasotzen dudana arren mezua gaztelania hutsean bidaltzen didate.
Erantzuna:	

Dosierra:	504-2013
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA - HERRI LANEN ZUZENDARITZA NAGUSIA
Arrazoia:	Luzaidetik Baigorriako bidean, Gaineakoletako auzoranzko bidegurutzean dagoen seinalean ez da toponimo ofiziala errespetatzen : "Gañecoleta" dago idatzita.
Erantzuna:	

# 6. FORU ALDUNDIAK

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

Dosierra	499-2013
Erakundea:	ARABAKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Arratzua-Ubarrundiko udalerrian, Dura herritik Landaranzko errepidean hainbat eta hainbat seinale daude "arcén" diotenak erdara hutsean. Bazterbideetan txirrindulariak dabiltzala eta kontuz ibiltzeko adierazten dute.
Erantzuna:	
Dosierra	501-2013
Erakundea:	ARABAKO FORU ALDUNDIA
Arrazoia:	Uribarri-Ganboa urtegiak Arroiabe herrian duen presaren inguruetan badira erdara hutsean dauden seinale zenbait: "zona de seguridad / prohibido el paso", "prohibido encender hogueras".
Erantzuna:	<i>Arratzua Ubarrundiako Mendi Zerbitzuaren basozainak aurkitu du zure argazkian agertzen zen seinalea, "Prohibido encender hogueras" zioena eta Diputazioak jarritakoa zela egiaztatu dugu, seguruenik duela urte asko. Gaztelania hutsean zegoela kontuan izanik, basozainak erretiratu egin du. Nolanahi ere, sute arrisku handiko zonaldea dela kontuan hartuta, kontu handiz ibili behar da inguru hartan. Gogoan izan 2009ko uztailaren 22an Araban izan ziren sute handietako bat inguru horretan sortu zela.</i>
Dosierra	971-2013
Erakundea:	ARABAKO FORU ALDUNDIA - ARABAT
Arrazoia:	AP-1 autopistako langileek gaztelania hutsean banatu zieten ekaina aldean erabiltzaileei Gorbeia merkataritza-gunearen publizitate orria. Carrefour, Norauto eta McDonalds-en logoekin batera, Arabat (Arabako Bideak) sozietate publikoaren eta Arabako Foru Aldundiaren logoak azaltzen dira publizitate-orrian.
Erantzuna:	

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Dossierra:	118-2013
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoa:	Maiatzaren 15ean, goizean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko 901.503.000 telefonora deitu nuen kontsulta bat egiteko. Euskaraz artatua izateko aukera zapaldu nuen telefonoan eta langile erdaldunak erantzun zidan. Nik euskaraz egin nahi nuela esan eta itxoiteko esan zidan. Luze itxoin ondoren, "¿Qué desea?" galdetu zidan beste langile batek. Euskaraz artatua izateko zain nengoela esan nion eta honek: "No va a ser posible" erantzun zidan. Ondorioz, ezin izan nuen kontsulta egin.
Erantzuna:	ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA: <i>Zergei buruzko izapideak egiteko dauden langile gehienak, lana, euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gai dira. Dena den, horrela ez balitz, euskaraz dakien pertsona batekin harremanetan egoteko aukera egongo da. Beraz, barkamena eskatzen dugu tratu egokia emateko dugun betebeharra bete ez badugu.</i>
Dossierra:	243-2013
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoa:	Erletxetan (Galdakao), N-634 Bilbo-Donostia errepidean, Donostiarako noranzkoan, Bizkaiko Foru Aldundiak duen gatz-biltegiko sarbidean gaztelania hutsean dute bideozaintzaz ohartarazten duen kartela.
Erantzuna:	BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Jakinarazten dizut 2013ko abuztuaren 5ean Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepideen Kontserbazio Zerbitzuak zuk aipatutako kartelak osatu egin zituela, pabilioirako sarreran, euskarazko testua duten karteletan. Ondoren, abuztuaren 30ean, pabilioian bertan jarri gabe zeuden kartelak ipini ziren.</i>
Dossierra:	252-2013
Erakundea:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Arrazoa:	Bilboko Artxanda mendian, BI3741 errepidean, jarritako trafiko-seinale berri batean SANTO DOMINGO toponimoa baino ez da ageri; euskarazko toponimoa, EGIRLETA, ez dago.
Erantzuna:	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Aipatutako kartela Bi-3741 Enekuri-Agirleta foru errepideko 6 + 680 kilometro-puntu dago. Kartel hori 2012/01426 ustiapen-espeditentea duten lanei dagokie (Artxanda, hondakindegri berrirako sarbidea BI-3741 errepidearekin lortzeko bidean). Jakinarazi nahi dizut lanen baimenaren titularrari dagokiola hizkuntzei buruzko araudia betetzea.</i> ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA ETA USTIAPEN ZERBITZUKO BURUA: <i>Adierazi behar da Foru Erakunde honek onartu egiten duela erakunde interesdunak aurkeztu duen idazkiaren bidez agerian azaldu den ez betetzearen erantzukizuna eta mentsa hori zuzentzeko eta ongitzeko bidezko neurriak hartzeko konpromisoa hartu duela foru bideen erabiltzaile guztien eta, ondorioz, herritar guztien hizkuntz eskubideak eragingarri bihurtuz.</i>

Dossiera: 307-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Bizkaiko Ogasunaren bulegora informazio eske joan nintzen. Lau mahaitatik igaroarazi ninduten, eta lau horietatik bakarrak zekien euskaraz, nahiko gaizki hala ere, eta bion hobe beharrerako gaztelaniaz egiteko eskatu behar izan nion.

Erantzuna: ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA: *Zergei buruzko izapideak egiteko dauden langile gehienak, lana euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gai dira. Dena den, horrela ez balitz, euskaraz dakien pertsona batekin egoteko aukera eskainiko da. Hori horrela, barkamena eskatu nahi dizugu, tratu egokia emateko dugun betebeharra bete ez badugu. Sentitzen dugu eragozpenak sortu izana. Ahaleginduko gara gure zerbitzua hobetzen.*

Dossiera: 349-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Gaur eguerdian bide-seinale bat ikusi dut erdara hutsean N-634 errepidean, Bilborako norakoan, lurretan, Renault ibilgailuak saltzen dituen GAURSA etxearen parean. Seinaleak honela dio: "¡ATENCIÓN! / Salida de camiones".

Erantzuna: IURRETAKO ALKATEA: *Kexan aipatzen den kasua ez dagokio lurretako Udalari, bi arrazoirengatik: 1. Obra horien erantzukizuna GAURSA merkatal-etxearena da, eta beraz, berari egotzi behar zaio kartel hori gaztelania hutsean jarri izana. 2. Kartela foru-titulartasuneko bidean jarrita dago.*

BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Aipatutako kartela N-634 foru errepideko 83+290 kilometro-puntuan dago eta Ustiapen Zerbitzuaren baimena daukan Renault kontzesionarioa handitu eta berritzeko lanari dagokio. Emandako baimenaren baldintzetako bat da interesdunak P-50 "kamioien irteera" seinalea jartzea. Beraz, partikularrari dagokio hizkuntzaren arloko arautegia betetzea.*

GAURSA: *Seinalea euskaratuta dago. Honako testua ageri da seinalean: Kamioien irteera/ Salida de camiones.*

Dossiera: 357-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Errolda Fiskaleko ataletik bidalitako jakinarazpena hartu dut jaso gabeko jarauntsi baten inguruan. Jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita dago.

Erantzuna: ZERGADUNARENTZAKO INFORMAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA: *Foru Aldundi honek hiritarrei bidaltzen dizkien berriemate guztiak ele bitan igortzen ditu, edo bestela, hiritarrak berak aurretiaz eta beren beregi harremanetarako aukeratzen duen hizkuntzan. Hori horrela izan behar da, nahitaez, gai horretaz egun indarrean dagoen legeria zorrotz bete behar baitugu. Kexan aipatzen dena bezalako gertaerak ezohikoak dira. Horrela izan ez bada, barkamena eskatzen dizugu. Nolanahi ere jakin, jakinarazpenen hizkuntza aldatu nahi bada, 901 503 000 telefono-zenbakira deitu behar dela, eta une horretatik aurrera agiri-sorta osoa euskara hutsean jasoko dela.*

Dossierra: 379-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Electricidad Martin argiketari-etxeak Bizkaiko diputazioarentzat lan egiten duela-eta Aldundiaren iruditeria darabil bere ibilgailuetan baina errotulazioa erdara hutsean dute eta errepidean lanean ibiltzen direnez argidun errotulua erabili ohi dute ibilgailuaren gainean ipinita, gainontzeko gidariak ohartarazteko. Bada testu horiek ere erdara hutsean ipintzen dituzte.

Erantzuna: ARGITERIA INTEGRALAREN MANTENTZE ARDURADUNA: *Joan zen ekainaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, Electricidad Martin argiketari etxeak aldatu egin zituen Aldundiarekin duen kontratuari atxikitako ibilgailu guztien irudi korporatiboa, grafikoa eta argizkoa. Hala bada, ordutik elebidunak dira ibilgailuen errotulu guztiak.*

Dossierra: 455-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Erletxetatik (Galdakao) Larrabetzurantzko errepidean, lanak egiten ari direla-eta, seinaleetika horizontala eta marrak-eta falta dira. Bada, gidariok horretaz oharrarazten gaituzten seinaleak erdara hutsean ipini dituzte.

Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Kartel hori BI-737 foru-errepideko 28. kilometro-puntuan zegoen. Bizkaiko Foru Aldundiko Errepideen Kontserbazio Zerbitzuak gauzatu du obra eta 2013ko iraileko lehenengo astean amaitu zuen. Testua zekarren seinalea kendu egin zen, ez baitzen beharrezkoa bidearen segurtasunerako. Hala ere, Kontserbazio Zerbitzuak gauzatzen dituen obretako seinaleetan testurik badago, testu hori elebiduna izango da*

Dossierra: 456-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Durango-Gasteiz errepidearen hainbat tartetan (Durangoko saihebidetan, Urkiolako mendatean, Otxandiotik Billerlerako(Legutiano) errebueltetan) asfaltatze-lanetan dabilzala-eta marrak ezabatzeari ekin diote lehendabizi. Bada, seinalizazio horizontala deuseztatua egotearen arriskuaz oharrarazteko seinalea ikusi dut, arratsaldean, erdara hutsean, Izurtzatik lurretanzko norabidean, Durangoko Tabirako igerilekuak igaro eta fundizio zahararen parean, biribilgunera heldu orduko.

Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Zure kexan aipatzen direnak asfaltoa jartzeko obrak dira eta seinaleek arriskua adierazten dute. Lanak egiten dituen enpresaren erantzukizuna da lanak seinaleztatzeko orduan indarreko hizkuntza-araudia betetzea. II. Arloko Kontserbazio Integralaren ardura daukan ABEEri (UTE BIZKAIA BI) gogorarazi egin diogu obrak bi hizkuntzatan seinaleztatu behar dituela.*

Dossierra: 500-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Abuztuaren 27ko eguerdian obretako-seinaleak zeuden erdara hutsean Durangoko saihebidetan: "sin señalización horizontal" e.a. diotenetarikoak.

Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Zure kexan aipatzen direnak asfaltoa jartzeko obrak dira eta seinaleek arriskua adierazten dute. Lanak egiten dituen enpresaren erantzukizuna da lanak seinaleztatzeko orduan indarreko hizkuntza-araudia betetzea. II. Arloko Kontserbazio Integralaren ardura daukan ABEEri (UTE BIZKAIA BI) gogorarazi egin diogu obrak bi hizkuntzatan seinaleztatu behar dituela.*

Dossierra: 508-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: N-634 errepidean, Bilbotik Donostiaranzko norabidean, Coca-Colaren ontziratze-lantegira (Galdakao) heldu orduko, autopistarako sarbidea iragartzeko seinale batek "Francia" dio erdara hutsean.  
 Erantzuna:

Dossierra: 514-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: BI-2120 errepidean, Mungian, "salida de camiones" erdara hutsean dioten bide-seinaleak daude. Badira hilabete batzuk gutxienez.  
 Erantzuna:

Dossierra: 609-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: N-634 errepidean, Galdakaoko herri gunea igaro eta Etxebarrira orduko badago bidegurutze bat aukera ematen duena A-8ra sartzeko. Bada, bertan erdara hutsezko bide-seinale bi daude. Batean, "Vitoria" eta "Bilbao" erdal toponimoak ageri dira; bestean, berriz, "Bilbao Este" ageri da.  
 Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Zure kexan aipatu dituzun lamazko bi kartelak N-634 foru errepideko 103+800 kilometro-puntuaren inguruan daude goranzko bidean. Errepideak zaintzeko zerbitzuek lekua aztertu dute, eta aurrekoaz gainera egiaztatu dute beste noranzkoan ere badagoela 104+050 kilometro-puntuan lamazko beste kartel bat izenak gaztelania hutsean dituena. Lamazko kartelak egokitzeko goitik behera aldatu behar dira, eta horrek kostu ekonomiko handia du. Hala ere, jakinarazi behar dizut gaur egun proiektu bat egiten ari dela inguru horretarako, N-634 eta BI-635 errepideen arteko "Irubideko bidegurutzea hobetzea" izenekoa, eta bertan aurreikusita dagoela seinale horiek aldatzea.*

Dossierra: 610-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Boluetatik (Bilbo) Basaurirako errepidean (Kareaga Goikoa kalea, Basauri), Etxebarriranzko sarbidean bide-seinalea dago erdara hutsean. "Atención / Curva peligrosa" dio.  
 Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Errepideen Kontserbazio Zerbitzuko langileek egiaztatu dute leku horretan ezkerretarako bihurgune bat dagoela P-13b seinale baten bidez eta "ATENCION CURVA PELIGROSA" testua daukan kartel osagarri baten bidez iragartzen dena. Euskara/gaztelania itzulpena duen "Kontuz Bihurgune Arriskutsua/Atención Curva Peligrosa" testu bikoitza luzeegia da panel osagarri batean sartzeko, neurri txikikoa baita (900 mm-ko zabalera, hain zuzen). Bestalde, panel osagarri horrek zehatz-mehatz jasotzen du dagokion seinalearen kodea, informazio osagarrikerik erantsi gabe, eta, beraz, ez da ezinbestekoa. Aurreko guztia kontuan hartuta, Errepideen Kontserbazio Zerbitzuak panela kentzea erabaki zuen 2013ko urriaren 24an.*



Dosierra: 611-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Gaztelu auzoan (Abadiño) bide-seinale eta bestelako seinale pilo-piloa dago erdara hutsean Beasain-Durango errepidearen Gerediaga-Elorrio tartearen eraikuntza-lanak direla eta. Honelako testuak dituzte: " Peligro", "Peligro. Maquinaria pesada en movimiento", "Riesgo eléctrico" (argindarraren betiko zutabeetan ipini dute bana), " Peligro. Zona de voladuras", " Zona de obras", " Acceso obra 1", " Acceso a obra 3" (obra gunee piloa daude eta halako kartel bana ageri dute sarbideetan), "Prohibido el paso a toda persona ajena a esta obra". Gazteluan (Abadiño) ez ezik, tartearen obrak egiten ari diren toki guztietan beste horrenbeste gertatzen da. Abadiño-Zelaietatik Elorriora joatean josita dago paisajea, Abadiñoeko lurretan, zein Atxondo udalerrarenetan zein Elorrrion.

Erantzuna: INTERBIAK - ZUZENDARI KUDEATZAILEA: *Zure idatzia jaso bezain laster, obraren emakidadun den enpresari idatzi bat helarazi zizaion, hizkuntzen erabilerari dagokionez kontratuan enpresa emakidadunek duten betebeharra gogorazteko, hain zuzen ere, hiritarrei zuzendutako edozein kartel, seinale edo informaziotarako EAeko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko betebeharra. Azaroaren 4tik kartel berriak jarri dira euskaraz eta gaztelaniaz, kontratuaren baldintzak eta 10/1982 Legea (Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa) betetzen ez zituzten kartelen orde. Azaroaren 18an, berriro aztertu zen gorabehera hori eta kartel guztiek arautegia betetzen dutela egiaztatu zen.*

Dosierra: 612-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Elorrioko San Agustin Etxebarri auzoan erdara hutsezko bide-seinalea dago, Abadiñoranzko norabidean, "polígono" dioena.  
 Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Seinalea BI-3331 foru-errepideko 37+120 kilometro-puntuan dago. Seinale hori ez da foru titulartasunekoa eta beraz, seinalearen titularrari dagokio hizkuntzei buruzko arauetara egokitzea.*  
 BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *Bizkaiko Foru Aldundiko Errepideak Kontserbatzeko Zerbitzuak kendu egingo du seinale hori.*

Dosierra: 966-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Basauriko Bridgestone parean, autopista Frantziarantz hartzeko norantz jo behar den iragartzen duen bide-seinalea erdara hutsean dago: "Francia".  
 Erantzuna: BIDE AZPIEGITUREN ZUZENDARI NAGUSIA: *2014ko urtarrilaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiko Errepideak Kontserbatzeko Zerbitzuek seinale hori elebiz idatzitako erroto berri hau jarri diote seinaleari: Frantzia/Francia.*

Dosierra: 989-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: A8tik Bilborako sarrera berrietan dauden erroto handi batzuk gaztelera hutsean daude: "Basurto" (3 erroto), euskaraz Basurto da; "Avda. Ferrocarril" (1); Autonomía (tildea kenduta bi hizkuntzetarako balioko luke); San Mamés (San Mames edo Santimami jarri beharrean).  
 Erantzuna:

---

Dossierra: 993-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Gerediaga-Elorrio errepidearen eraikuntza lanetan Gaztelu zein Muntzaratz auzoetan (Abadiño), hala Atxondo nola Elorrio udalerrietako lurretan seinale eta errotulu piloa erdara hutsean egon dira. Azkenean euskarazko testuak ere ipini dituzte baina hainbatek akats nabarmenak dituzte, agerian uzten dituztenak ganora eskasa, ardurabakokeria eta euskaldun herritarronganako begirune eza. Erakusgarri, honako testu hauek: "Lan hautean ari ez den pertsona sarrera galerazia dauka"; "Behar beharrezkoa da [...]"; "Derrigodezkoa / Irtera garbigailutik". Testuak berez akastunak izateaz gain, aipagarria da, gainera, zelan pilatu eta nahastu dituzten erdara eta euskara.

Erantzuna: ZUZENDARI KUDEATZAILEA: *Zure kexa jaso bezain laster, obraren enpresa emakidadunari bidali zitzaion, eta gogorarazi egin zitzaion emakida-enpresekin sinatutako kontratuan bertan jasotzen den karteletan, seinaleetan edo hiritarrentzako informazio guztietan EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko betebeharra. Martxoaren 7az geroztik, euskarazko ewta gaztelaniazko kartelak jarrita daude, antzemandako akatsak zuzenduta.*

---

Dossierra: 995-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Dantza bekadunen emanaldian euskarazko azpitoluak akats larriez beteta, esaterako: "iristen didana, gustatuko zeniguke, obe, gusti, segurazki, hasi nintzenetako eguna, gustioi..." horrelako zerrenda luze bat...  
 Erantzuna: KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUKO BURUA: *onartzen dugu azpitoluak akats askorekin atera zirela "emanaldiaren ekoizpenaren zailtasuna eta ia emanaldiaren egunerarte itzuli beharreko testuak ez genituelako eskuratu. Presarekin ibiltzeak, egindako akatsak sortzeaz gain, gainbegiratzeko eta zuzentzeko astirik ez zigun eman. Kexa kontuan hartzen dugu eta hurrengoan horrelakorik ez gertatzea espero dugu.*

---

Dossierra: 1012-2013  
 Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
 Arrazoa: Durangoko Azokan Bizkaiko Foru Aldundiak duen salmahian "Bizkaiaiko (sic) pago" izenburudun liburua ikusi dut. Halako akatsa egonda, non eta liburuaren azalean, non eta izenburuan; eta oharturik bertako Foru administrazioak berak argitaratu duela, ireki ere ez dut egin gura izan, asaldatuta, zabarkeria norainokoa izan litekeen beldur izan bainaiz. Lotsagarria irudit zait bai liburua hala argitaratu izana, bai lotsarik gabe ere salgai ipintzea.

Erantzuna:

---

Dossierra: 1043-2013

Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Euskara lurralde honetako berezko hizkuntza eta ofiziala den arren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak ez dizkigu behar ditugun zerbitzuak euskaraz bermatzen. 9 urteko semea eta biok psikoterapeutarekin eta hezitzaileekin ibili gara Gernikako Patronatuan. 2012-2013 ikasturte amaieran, saioak bukatzeko zituela, hezitzaile berria jarri zioten semeari, erdalduna bera. Nirekin ibili den hezitzailearekin, berriz, gazteleraz bakarrik jardun ahal izan dut, EGA-agiria duen arren nirekin euskaraz egiteko gai ez delako sentitzen. Udazkenean Bizkaiko Foru Aldundiaren umezaro sailera bideratu gaituzte, bertako profesionalak adituagoak direla-ta. Lehen hitzordutik azaldu nuen psikologo euskalduna nahi genuela, semea gazteleraz ikasten hasi berria delako eta kezka nuelako elkar ulertzeko gai izango ote ziren. Ziurrenik psikologo euskaldunik ez genuela izango erantzun zidaten; garrantzitsuena, terapiarekin lehenbailehen hastea zela eta ez dela ongi moldatzen ikusiz gero orduan eskatzeko psikologo euskalduna. Hurrengo hitzorduan bi psikologoak erdaldunak izango zirela konfirmatu zidaten, niretzat ez dagoelako psikologo euskaldunik, eta umearentzako bat badagoen arren umearen ordutegia ongi ez datorkiolako. Ni nola-hala konpodu naiz nire terapeutarekin, baina semeari zer moduz moldatu den galdetu eta 'txarto' erantzun dit, psikologoa erdalduna zelako eta berba egiteko arazoak izan dituelako. Psikologoarekin izaten dituen saioez gain, Aldundiak dituen etxeetako batean igaro behar du semeak aste erdia. Herri euskaldun batera eramateko eskatu nuen, ez nuelako nahi semea erdaldunduta etortzea, eta Mungiara eraman dute. Bertan egin dituen lehen bi asteetan ohartu naiz bertako langileei kosta egiten zaiela nirekin euskaraz hitz egitea. Zentroko hizkuntza-paisaia ere erdara da nagusi, nonbait euskaraz ez dakiten umeak ere badaudelako. Haurra eskolatzear ere Foru Aldundia arduratzen da. Mungiako Ikastetxe Publikoan eskolatu dute semea. Bertan euskaraz egiten duen galdetu genion eta andereñok bakarrik egiten duela erantzun zigun, beste ume guztiak erdaraz aritzen direla atzerritarrek ere badirelako gelan eta erdaraz egin beharra dagoelako. Horiek guztiak direla eta, geroz eta nekezago egiten du nire semeak euskaraz. Hizkuntza-sistema trakets honen KALTEDUN da.

Erantzuna:

Dossierra: 192-2013

Erakundea: BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoa: BECen antolatu berri den Feria del Stock-en izan nintzen. Hizkuntza paisaia erabat erdalduna zen, ez zen euskararik ageri ez azoka iragartzeko kartelean, ez sarreretan, ez megafoniatik hitz egin zuten bakoitzean, ezta lehiaketa batean parte hartzeko banatutako kupoiatan ere.

Erantzuna:

Dossierra: 193-2013

Erakundea: BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoa: Erreklamazio orri bat aurkeztu nuen BEC-en euskaraz. Euskaraz jaso dut BECeko Kalitate eta Erosketa sailaren zuzendariak nire kexari erantzunez sinatutako idazkia, hori bai, euskara ezin traketsagoan.

Erantzuna:

Dossierra: 194-2013

Erakundea: BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoa: Telefonoz deitu dut BEC-era. Makinak gaztelania hutsean erantzun du, ez dit euskaraz egiteko aukerarik eskaini.

Erantzuna:

Dossierra: 505-2013

Erakundea: BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoa: Bilbao Exhibition Centren (Barakaldo) urriaren 4tik 6rako BioCultura azoka izango da eta BEC erakustazoka bera da antolatzaileetarik bat. Bada, [www.bilbaoexhibitioncentre.com](http://www.bilbaoexhibitioncentre.com) webgunean, are euskarazko [ustezko] bertsioan, gaztelania hutsean ageri da BioCultura azokari dagokion guztia. Kartela ere erdara huts-hutsean dago; orobat, egitaraua.

Erantzuna: *KALITATE ETA EROSKETA SAILAREN ZUZENDARIA: Bio Culturaren orri birtualera bi esteka daude, bata Vida Sanatik eta bestea BioCulturatik. Izan ere, BEC ez da BioCultura erakusketaren antolatzaile bakarra. Informatika Sailak Bioculturarekin lotutako euskarazko orriak aztertu ditu, eta lehen zazpi harreman birtualetan honakoak izan dira emaitzak: Webgune nagusian hiru estelka daude gaztelania hutsean: Visitante, Expositores eta Prensa. Horietatik Bioculturaren orrietara joan daiteke, baina ez dira BEC-en orriak, "biocultura.org" baita helbidea. Euskaraz lau daude: Erakusketarien izen-ematea, Hautapen Batzordea, Kartela-Biocultura Bilbao eta Jardueren gida. Hauek "bilbaoexhibitioncentre.com" helbideak dira. Erakusketarien izen-ematea atalak gaztelaniazko orrira bideratzen du: Inscripción Expositores. Frantsesez eta ingelesez ere badaude izena emateko orriak. Kontratu honetan Bartzelonako helbide bat eta bankuko kontuak ikus daitezke, baina ez dira BEC-enak. Hautapen Batzordeak, gaztelaniazko orri batera darama: " eta abar. Bizi dugun egoeran, kontuan hartu beharrekoak dira gastu horiek.*

*ultura Bilbao: Kartel hau gaztelaniaz dago. Jardueren gidak Jardueren gidara bideratzen du eta bertan dagoen 24 orriko idatzia euskaraz dago. Orri nagusian beste esteka bi ere badaude. Horiek prentsakoak eta prentsa-oharrak jasotzen dituzte. BECek ez ditu itzultzen, jatorriz datozen hizkuntzan sartzen ditu, ez baitira oharrak, estekak baizik: La ilusión de la primera cita: Informazio gehiago nahi izanez gero zein telefono edo helbidetara jo azaltzen du: [www.biocultura.org](http://www.biocultura.org), [www.vidasana.org](http://www.vidasana.org), [redaccion@vidasana.org](mailto:redaccion@vidasana.org). Biocultura Bilbao, la gran feria "Bio" llega a Euskadi: aurrekoan bezala gertatzen da honetan ere, helbidea ~~parturain ere etara da mugasi, kontuak erakusketaren bitartekoak daude eta orri eskolatzear ere Foru Aldundia arduratzen da. Mungiako Ikastetxe Publikoan eskolatu dute semea. Bertan euskaraz egiten duen galdetu genion eta andereñok bakarrik egiten duela erantzun zigun, beste ume guztiak erdaraz aritzen direla atzerritarrak ere~~*

Dossierra: 621-2013

Erakundea: BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Arrazoa: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAren martxotik irailera bitarteko zaborraren faktura jaso dugu eta gaztelania hutsean idatzitako 19 eduki inguru daude: datak, helbideak, merkataritza erregistroa, etab.

Erantzuna:

Dossierra: 602-2013

Erakundea: BILBOKO ARTE EDER MUSEOA FUNDAZIOA

Arrazoiak: Orain dela bi urte Bilboko Arte Eder Museoak familiei eskaintzen dizkien ekintzetan parte hartzen hasi nintzen. Momentu horretan bertan euskaraz egiten zen eskaintza askoz ere murriztagoa zela konturatzerakoan erreklamazio bat egin nuen. Iaz, berriro ere beste erreklamazio bat aurkeztu nuen, baina ez batean ez bestean ez dut erantzunik jaso eta aurtengo eskaintzan, berriro ere, desberdintasuna nabaria da. Nire ustez, parekoak izan beharko lirateke bi hizkuntzetan eskaintzen diren ekintzak, baina ez da holan gertatzen.

Erantzuna:

Dossierra: 262-2013

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoiak: Barik txartelean dirua sartzean prozesua erdaraz baino ezin da egin (dirua sartu, kontsultatu...), tranbian behintzat. Gainera, lotsagarria da, txartela ateratzean erdaraz agurtzen zaitu oso ozen.

Erantzuna: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA: *EuskoTrenera bidali dugu kexa, dagozkion neurriak har ditzan, erakunde hori delako bere trenbide eta tranbia lineetan Barik txartela balioztatu eta berriz kargatzeko makinaren funtzionamenduaren ardura duena. EUSKOTREN BEZEROAREN ARRETA BULEGOA: Barik sistema lau hizkuntzatan burutzeko sortu da, eta txartela erosterakoan aukera daiteke hizkuntza. Ondoren hautatutako hizkuntzan azalduko dira mezuak makinan.*

Dossierra: 479-2013

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoiak: Euskara eta gaztelania ez daude egoera berean Bilboko metroan, erabat gutxietsirik baitago euskara. Hona hemen neuk ezagutzen ditudan adibide batzuk: A) Geltokien izenak: CASCO VIEJO (ZAZPI KALEAK jarri beharrean) eta DEUSTO (DEUSTU jarri beharrean). B) Irteeren izenak: Moyuan, GRAN VÍA (KALE NAGUSIA jarri beharrean); Deustun, LEHENDAKARI AGIRRE (AGIRRE LEHENDAKARIA jarri beharrean); Gurutzetan, CRUCES (GURUTZETA jarri beharrean); Barakaldon, FUEROS (FORU KALEA jarri beharrean).

Erantzuna:

Dossierra: 480-2013

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoiak: Euskara eta gaztelania ez daude egoera berean Bilboko metroan. Hona hemen bozgorailuei dagokienez neuk ezagutzen ditudan adibide batzuk: BARAKÁLDO (BARÁKALDO da euskaraz), BIDEZABAL (Z gaztelaniazko ahoskeraz esaten dute, eta gainera, BIDÉZABAL da euskaraz), BASARRÁTE (euskaraz BASÁRRATE da), LARRABASTÉRRRA (euskaraz LARRÁBASTERRA da), PORTUGALÉTE (euskaraz PORTÚGALETE da), BARAKÁLDO (euskaraz BARÁKALDO da).

Erantzuna:

Dossiera: 1008-2013

Erakundea: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoa: CTB Bizkaiko Garraio Partzuergoak gaztelania hutsean argitaratu du iragarkia "Agur para siempre a Creditrans y Gizatrans" goiburua duena, gaurko (3013/12/04) Correo egunkarian. Erantsita doakizue argazkia.

Erantzuna: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA: *Biziki sentitzen dugu egindako akatsa eta beharrezko lanak egingo ditugu berriro gerta ez dadin.*

Dossiera: 287-2013

Erakundea: EUSKALDUNA JAUREGIA

Arrazoa: Bilboko Euskalduna Jauregiko iragarki taula batean gaztelaniaz bakarrik dago Euskalduna Jauregian apirilean egingo diren doako bisita gidatuen berri emateko informazioa. Bila ibili naiz ea beste nonbait euskaraz aurkitzen ote nuen, baina ez dut topatu.

Erantzuna: BEZEROAREKIKO ARRETA ZERBITZUA: *Aipatu errotulua hizkuntza bietan zegoen. Kartela bi hizkuntzetan bidaltzen dugu froga gisa. Hala ere, eta aurrerantzean horrelakorik berriz ez gertatzeko, iragarkia bi hizkuntzetan batera euskarri bereberean egitea erabaki dugu, eta horren adierazle igortzen dugu kartel berria.*

Dossiera: 417-2013

Erakundea: EUSKALDUNA JAUREGIA

Arrazoa: EUSKALDUNA JAUREGIAren kanpoaldean jarritako seinale batean oharra ez dago euskaraz idatzia; "EXCEPTO VEHICULOS AUTORIZADOS" baino ez da ageri.

Erantzuna:

Dossiera: 51-2013

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoa: Metro Bilbaoko txarteldegi automatikoetan ezin da Barik txartelarekin eragiketarik egin euskaraz. Urtarrilaren 15ean Bilboko Zazpi kaleetako geltokitik Etxebarrikora iritsi eta ezin izan nuen aparkalekua ordaintzeko eragiketa euskaraz egin, "Euskara" hautatuta ere makinak gaztelaniaz egiten baitzidan.

Erantzuna: METRO BILBAO: *BARIK txartela Metro Bilbaoren Bezeroen Arretarako Bulegoetan erosten denean, bertan zehazten da txartelaren hizkuntza. Bestela, Metro Bilbaoko txarteldegietan aldatu eta aukeratzen da hizkuntza urrats hauek jarraituz: 1. Sartu BARIK txartela makinan, 2. Hautatu Nire datuak, 3. Erabilera hautatuak aukeratu, 4. Erabili nahi duzun hizkuntza aukeratu, 5. Aldatu-ri eman.*

Dossierra: 272-2013

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoa: Bilboko metroko zenbait geltokiren izenak erdara hutsean ageri dira: Casco Viejo (Zazpikaleak) eta Sopelana (Sopela).

Erantzuna: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO BURUA: *Geltokien izenak Garraioen Partzuergoak erabakitzen ditu. Diseinuaren irizpidea, hasiera batean, geltoki bakoitzak izen bakarra izatea izan zen. Horrela garai hartan, kasu batzuetan, esaterako, Areetan eta Leioan euskal ordaina jarri zen, erdal ordaina ezertarako aipatu barik eta, alderantziz, Bilboko Zazpi Kaleetako geltokiari "Casco Viejo" baino ez zioten ipini.* BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - ZUZENDARI NAGUSIA: *Bizkaiko Garraio Partzuergoak Metro Bilbaoren geltokien izen guztiei dagokienez azken 6 urteetan honako irizpide hau bete du: 1.- Izen bera eta bakarra erabiltzea, euskarazkoa bakarrik. Partzuergoak, gainera, irizpide hau betetzen jarraitu nahi du. 2.- Tarteetan dauden udalei iritzia emateko eskatzea. Bestalde, geltokien izenak aldatzea kaltegarria izan daiteke erabiltzaileentzat, erabileren eta ohituren ondorioz geltokiak dituzten izenekin lotzen direlako. Horrez gain, gastu berriak egin beharko lirateke: Metroaren seinaleak, argitalpenak, eta abar. Bizi dugun egoeran, kontuan hartu beharrekoak dira gastu horiek.*

Dossierra: 273-2013

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoa: Bilboko metroko Astrabuduko geltokian badira errotulu batzuk gaztelaniaz baizik ez daudenak; esate baterako, su-itzalgailuaren azpian dagoena: "extintor".

Erantzuna: MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO BURUA: Eskerrik asko horren berri emateagatik. Bideratu dugu kexa dagokion sailera lehenbailehen konpon dezaten. Izan ere, euskararen presentzia eta erabilera areagotu eta bermatzen saiatu gara hasieratik, euskara-planen bidez. Aurten, gainera, Zilarrezko Bikain lortzera aurkeztuko gara. Euskara, normaltzeko, ordea, funtsezkoa eta ezinbestekoa zaigu bezeroen laguntza, akatsak hautematen eta zuzentzeko bidea ematen, zer hobetu edo aldatu proposatzen, zer egin iradokitzen eta hizkuntzen kudeaketan bidea erraztu eta begiak zabaltzen dizkigutenez gero.

Dossierra: 506-2013

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoa: Metro Bilbaok eta EuskoTrenek Zazpikaleetan (Bilbo) batera duten geltokian, gaur egun euritsua izan baita, garbitzaileek zorua labain dagoela iragartzeko darabiltzaten tramankulu hori koloreko batzuk ipini dituzte sarreran, baina guztiak gaztelania hutsean.

Dossierra: 945-2013

Erakundea: METRO BILBAO

Arrazoa: Etxebarriko metroko aparkalekuan seinale elebidun pare bat daude euskara traketsa ageri dutenak: batean "BAIMENDUKO IBILGAILUAK EZIK" irakur daiteke, eta bestean, "SARBIDE ACERALIAKO ARAZTEGIRA".

Erantzuna:

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

---

Dosierra: 219-2013

Erakundea: LURRALDEBUS - GIPUZKOAKO LURRALDE GARRAIO AGINTARITZA

Arrazoia: Martxoaren 25ean, Arrasaten, goizeko 7:25ean zerbitzua egiten ari zen Lurreldebuseko autobusak, Pesa garraio-enpresakoa, gaztelania hutsean zeraman eskola-garraioaren kartela. "Transporte escolar" zioen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 523-2013

Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Donostiako herritarra naiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bidali ohi dizkidan gutunetan kalearen izena erdarazko grafiaz idatzia egon ohi da euskarazkoan beharrian, hau da, Carquizano ageri da Karkizano beharrian.

Erantzuna:

---



# 7. UDALAK ETA MANKOMUNITATEAK

## ARABAKO UDALAK

Dosierra:	15-2013
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Abetxuko auzoan bi haur eskola daude, bat publikoa eta D eredukoa (Virgen Blanca) eta bestea itunpekoa eta B eredukoa (Colegio Inmaculada). Arrazoi ekonomikoak direla eta Virgen Blanca haur eskola itxi egingo dutela jakinarazi diete gurasoei. B eredukoa besterik ez denez geldituko, haurrak D ereduan eskolatu nahi dituzten gurasoek beste auzo batera eraman beharko dituzte euren seme-alabak (12 ume guztira).
Erantzuna:	GASTEIZKO UDALA. HEZKUNTZA ZERBITZUKO BURUA: <i>Haurreskolak Partzuergoko Virgen Blanca haur eskolak eskaintzari eutsiko dio datorren 2013-2014 ikasturtean.</i> HAURRESKOLAKO PARTZUERGOKO GERENTEA: <i>Gasteizko Udaletxeak 2013ko apirilaren 8an Virgen Blanca haur eskola irekita mantentzea eskatu zion Haurreskolak Partzuergoari, batez ere, Abetxuko auzoan 0-2 zikloko eskaintza publikorik ez dagoela ikusirik. Gauzak horrela, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak 2013ko apirilaren 17an Virgen Blanca haur eskola bi gelekin irekita mantentzea erabaki zuen.</i>
Dosierra:	493-2013
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Euskaltzaindia plazan obretan daude. Hesian arriskuaz ohartarazteko jarrita dauden hainbat seinale gaztelania hutsean daude: "¡Peligro! Riesgo de atrapamiento", "¡Peligro! Maquinaria pesada en movimiento", "Velocidad máxima en el recinto", "Prohibido aparcar".
Erantzuna:	
Dosierra:	519-2013
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Gasteizko Izardui Komandantearen kaleak eta Unibertsitatearen ibilbideak bat egiten duten inguruan bada kaletxo bat alde batean Gasteizko Udal Agiritegia duena eta bestean, berriz, zenbait EHUren zenbait eraikin (Arabako Errektoreordetza, Unibertsitate Pabiloia delakoa, Gizarte-Laneko eskola eta Letretako Fakultatearen eraikin atxikia). Bada, gaur Gasteizko udalaren BAI delako taldea lanak egiten ari da kale horretan eta mutur bietan bide-seinale bana ipini du, erdara hutsean: "calle cortada".
Erantzuna:	
Dosierra:	642-2013
Erakundea:	GASTEIZKO UDALA
Arrazoia:	Udalak 2013ko udarako 165 kirol-jarduera antolatu zituen. Horietako 5 baino ez ziren eskaini euskaraz eta 8 ele bietan, hau da, ikastaroen %3 eta %7 hurrenez hurren.
Erantzuna:	

Dosierra: 643-2013

Erakundea: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: 010@vitoria-gasteiz.org helbidera kontsultaren bat euskaraz bidaliz gero, asteak pasatzen dira erantzuna jaso bitartean. Kontsulta gaztelaniaz bidaliz gero, ordea, ordu pare bat igaro orduko jasotzen duzu erantzuna.

Erantzuna:

Dosierra: 686-2013

Erakundea: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: Gasteizko udalak azaroaren 2ko Correo egunkariaren azalean iragarkia argitaratu zuen erdara huts-hutsean, Vitoria Enplegu Plana iragartzeko. Bertan, Vitoria-Gasteizko Udalaren irudia ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren eta berorren Lanbide zerbitzuaren irudiak ere ageri dira.

Erantzuna:

Dosierra: 688-2013

Erakundea: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: Gasteizko Gamarrako Atea kalean erdara hutsean dago bide-seinalea: "Calle cortada por obras".

Erantzuna:

Dosierra: 692-2013

Erakundea: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: Gasteizko Kantabrikoaren hiribidearen eta Santo Tomas Ubideko kalearen arteko bidegurutzean, Betoñutik Gamarrarako bidean, erdara hutsean dago bide seinalea. Honela dio: "Plaza del río Santo Tomás cortada por obras. Acceso a Portal de Gamarra por Avenida del Cantábrico".

Erantzuna:

Dosierra: 972-2013

Erakundea: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: Data emateko euskaraz urtea/hilabetea/eguna hurrenkera jarraitzen da. Gasteizko Udalak, ordea, espainieraren hurrenkera (eguna/hilabetea/urtea) lehenesten du hainbat eta hainbat lekutan, besteak beste, web gunearen euskarazko bertsioan, udal txarteletan, kaleko informazio-paneletan eta abar.

Erantzuna:

Dosierra: 116-2013

Erakundea: BIASTERIKO UDALA

Arrazoia: Otsailaren 28an Biasteriko udaltzainak isun bat jarri zidan, saiatu nintzen euskaraz egiten berarekin baina ez zen euskalduna.

Erantzuna:

Dosierra: 941-2013

Erakundea: ELTZIEGOKO UDALA

Arrazoia: Eltziegoko Kultur Etxearen azpialdean dagoen tabernan jatekoen menua gaztelaniaz eta ingelesez dago, baina ez euskaraz.

Erantzuna:

## BIZKAIKO UDALAK

Dosierra:	162-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Otsailean Bilboko sarrerik nagusietako batean, EITB eraikinaren eta Mames Barria Futbol zelaiaren ondoan, irekitzear zegoen Parking Barrian gaztelania hutsean jarri zituzten errotuluak.
Erantzuna:	
Dosierra:	229-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera Basque/fest antolatu du Bilbon aste santurako eta bisitariarentzat jarritako kartel handietan informazioa gaztelania hutsean dago gune guzti-guztietan. Horretaz gain, merkatuan jarritako saltokietan kanpoko musika baino ez dute jarri. Bertan dj dagoenari esan eta inork ez omen die esan euskal musika jartzeko, nahiz eta "basque" izan.
Erantzuna:	
Dosierra:	258-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Erriberako azokan, Erriberako zubira ematen duten ateen gaineko errotuluak gaztelania hutsean daude. "Salida" berba soilik irakur daiteke.
Erantzuna:	
Dosierra:	318-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko gobernu militarra delakoaren kanpoaldean, "reservado gobierno militar" dioen aparkatzea debekatzeko seinalea dago. Testuak ez du euskarazko ordainik.
Erantzuna:	
Dosierra:	339-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	BILBAOBERRI udal herri lanerako erakundeak Bilboko Ibañez de Bilbao kalean espaloietan uztailaren 20 inguruan egindako lanetan jarritako oharrik ez daude euskaraz idatziak; "PEATONES" baino ez dago idatzia.
Erantzuna:	
Dosierra:	363-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilboko Zabalguneko plazako udal aparkalekuan jarritako oharretan "PROHIBIDO FUMAR" irakur daiteke, baina ez dago inon euskarazko oharrik.
Erantzuna:	
Dosierra:	364-2013
Erakundea:	BILBOKO UDALA
Arrazoia:	Bilbao Eutokiaren web-orria gaztelaraz agertzen da, eta beste bi hizkuntzatan ere irakur daiteke: ingelesez eta frantsesez. Euskaraz, berriz, ezer ez.
Erantzuna:	

Dosierra: 396-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: BILBAOBERRI udal herri lanerako erakundeak Bilboko Campuzano plazan uztailaren 20 inguruan egiten ari zen lanetan jarritako oharrak ez zeuden euskaraz idatziak; "CALLE CORTADA EXCEPTO GARAJES - DESVIO POR: GRAN VIA Y C/ GREGORIO DE LA REVILLA" baino ez zegoen idatzia.

Erantzuna:

Dosierra: 402-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilboko TAOko makina askotan jarritako oharrak ez daude euskaraz idatziak; ondokoa soilik ageri da: "CONECTADA CON DISPOSITIVO DE ALARMA".

Erantzuna: BILBOKO UDALA, Zirkulazio eta Garraio Saileko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: *"Zuen mezu elektronikoa Bilboko T.A.O. zerbitzua gestionatzen duen enpresara bidali dugu zuzentzeko. Eskerrak eman gura dizkizuegu gure zerbitzua hobetzen laguntzeagatik."*

Dosierra: 409-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilboko udaleko Berdintasun sailak antolatuta, Aldarte elkartearen 'Homofobia iraganeko kontua da' izeneko erakusketa ipini dute San Frantzisko auzoko udaltegian. Erakusketa erdara hutsean dago, nahiz eta www.aldarte .org web gunean erakusketaren fitxa teknikoan "Idiomas: euskera y castellano" ageri den.

Erantzuna:

Dosierra: 696-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: BILBAOTAO web gune berria ezin da euskaraz kontsultatu. Gaztelaniaz dakar urruneko ordainketa zerbitzuari buruzko informazio guztia.

Erantzuna:

Dosierra: 747-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilboko gobernu militarra delakoaren kanpoaldean, "reservado gobierno militar" dioen aparkatzea debekatzeko seinalea dago. Bilboko Euskara zinegotziaren esanetan Udaleko Zirkulazio Sailari 2 aldiz eskatu zaio seinalea bi hizkuntza ofizialetan jartzeko, lehenengo aldiz 2012ko urriaren 19an eta bigarrenaz 2013ko maiatzean. Bada, 2013ko azaroaren 7an seinaleak berdinduz segitzen du.

Erantzuna: HERRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA: *Aparkalekua dagoen solairua Gobernu Militarrena da, eta hortaz, aparkaleku horretako seinaleak ere bai.*

Dosierra: 748-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilbao Ekintzak Urubitarte kalean zuen eraikinean gaur egun MU-BBF Mondragon Unibertsitatearen Bilbao Berrikuntza Faktoriak du egoitza, udalak eta unibertsitateak hamar urterako sinatu duten hitzarmena tarteko. Bada Lan Ekintzak gaztelania hutsean jarri du sarrerako atean lekuz aldatu direla jakinarazteko ohar idatzia. Honela dio: Lan Ekintza se ha trasladado C/Navarra nº 5 (plaza circular). Ahora es Mondragon Unibertsitatea - Bilbao Berrikuntza Faktoria.

Erantzuna:

---

Dosierra: 796-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilboko TAO telefono mugikorraren bidez ordaintzeko web orrialdea gaztelaniaz bakarrik dago ( <https://teletao.mobi/TeleTAOWeb/index.aspx>)

Erantzuna:

---

Dosierra: 931-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Zabalguneko aparkaleku berrian hainbat komunikazio gaztelera hutsean daude: tiketa (nahiz eta makinan euskeraz egin), errotulu batzuk (sarreran dagoena: Plazas libres: Sotano 1, Sotano 2, Sotano 3), Extintor, Ud. está aquí, Salida de emergencia.

Erantzuna:

---

Dosierra: 976-2013

Erakundea: BILBOKO UDALA

Arrazoia: Bilboko Udalarik xexa aurkeztu nion TAOko mugikorrerako aplikazioa euskaraz ez zegoelako. Euskaraz egin nuen xexa, baina gaztelania hutsean jaso dut erantzuna.

Erantzuna:

---

Dosierra: 652-2013

Erakundea: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoia: Udalak erdara-hutsean argitaratu du udal etxebizitzaren zozketan onartutakoaren zerrenda.

Erantzuna:

---

Dosierra: 653-2013

Erakundea: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoia: Abadiñoko Udalak erdara-hutsean argitaratu du udal web gunean etxebizitzaren zozketan onartutakoaren zerrenda. Bai sarrerako testua, bai jaisteko dokumentua, biak daude gaztelania hutsean.

Erantzuna:

---

Dosierra: 46-2013

Erakundea: ABANTO ZIERBENAKO UDALA

Arrazoia: Otsailaren 14an Abantoko elkarte guztiek alkatearen, Manu Tejada Lambarriren, gutuna jaso dugu; bere kargua utziko duela dio. Gutuna ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik.

Erantzuna:

---

Dosierra: 176-2013

Erakundea: ABANTO ZIERBENAKO UDALA

Arrazoia: Abantoko Udaleko Kultur eta Jai Arloko arduradunak gaztelania hutsezko mezua bidali die herriko elkartei. Mezu honetan herriko jaien kartela lehiaketaren berri ematen du. Hauxe da mezua: Egunon a todos y todas: Os enviamos las bases y cartel del concurso de cartel de fiestas de Abanto-Zierbena 2013. Esta información es para que la tengáis y dar difusión. Un saludo.

Erantzuna:

---

Dosierra:	275-2013
Erakundea:	ABANTO ZIERBENAKO UDALA
Arrazoia:	Abantoko udalak "Euskal Astea" antolatu du apirilaren 15etik 23ra eta erdara hutsean ipini du apirilaren 18ko Deia egunkarin horren berri emateko iragarkia.
Erantzuna:	
Dosierra:	1016-2013
Erakundea:	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Arrazoia:	Correo kazetaren gaurko azalean (2013/12/10) Zornotzako babes ofizialeko etxebizitza-kooperatiba ekimen baten gaineko iragarkia argitaratu da, erdara hutsean.
Erantzuna:	
Dosierra:	1041-2013
Erakundea:	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Arrazoia:	Amorebieta-Etxanoko Udalak erdara hutsean argitaratu du Crónicas del Duranguesado hilabetekarian Gabonetako eta urte amaierako zorion-agur iragarkia. Testua alkateak sinatuta ageri da eta euskara izenburu modukoan baizik ez da ageri, apaingarri huts moduan.
Erantzuna:	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ITZULTZAILEA: <i>Amorebieta-Etxanoko Udalak ezarrita dituen hizkuntza irizpideen arabera, herritarrei orokorrean zuzendutako iragarkiak ele bietan joan behar dira. Irizpide honi jarraituz, gure web-orrian Gabonetan jarritako zorion-agur mezua ele bietan dago. Crónicas del Duranguesado aldizkarian agertutako iragarkiari dagokionez, gaztelania hutsean agertzea akats baten ondorioz izan da. Arduradunarekin hitz egin da berriro horrelakorik gerta ez dadin.</i>
Dosierra:	953-2013
Erakundea:	BAKIOKO UDALA
Arrazoia:	Aupa, Bakiotik idazten dizuet. Hurrengo asterako Bizkaiko Foru Aldundiak, Emakunde eta Eudelekin batera ikastaro batzuk antolatu dituzte udalaren elkarlanean. Ikastaro hauek gaztelania hutsez emango dira. Nik uste dut lotsagarria dela eta euskaldunen hizkuntz eskubideak urratzen dituztela. Gutxienez elebiduna izan beharko lirateke.
Erantzuna:	
Dosierra:	393-2013
Erakundea:	BARAKALDOKO UDALA
Arrazoia:	Barakaldon Lutxana auzoan jarritako seinale batean informazioa ez dago euskaraz idatzia; ondokoa baino ez da ageri: ESTE SOLAR SE CERRARA AL TRAFICO EL PROXIMO DIA 26 DE ABRIL DEL 2011...
Erantzuna:	BARAKALDOKO UDALA, Euskara arloko zinegotzi-delegatua: <i>"Barakaldoko Udalaren hizkuntza paisaia elebitasuna nagusi izan arren, hain udalerrri handia izanik, gerta daiteke bide seinalaren bat oraindik gaztelania hutsean egotea. Elebideren bidez intzidentzia honen berri izan genuenez, une honetan dossier honi dagokion kartela, oso zaharra izanik, kenduta dago."</i>



---

Dosierra: 394-2013  
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA  
 Arrazoia: Barakaldon Lutzana auzoko geltokiaren ondoan jarritako seinale batean informazioa ez dago euskaraz idatzia; ondokoa baino ez da ageri: PEATON: CRUCE POR LOS PASOS SEÑALIZADOS.  
 Erantzuna: BARAKALDOKO UDALA, Euskara arloko zinegotzi-delegatua: *"Barakaldoko Udalaren hizkuntza paisaia elebitasuna nagusi izan arren, hain udalerrri handia izanik, gerta daiteke bide seinaleren bat oraindik gaztelania hutsean egotea. Dossier honetan aipatutakoa zuzentzeko bidean dago, azken honen berri oraintxe izan baitugu"*.

---

Dosierra: 395-2013  
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA  
 Arrazoia: Barakaldon Lutzana auzoko Lube plazan jarritako seinale batean informazioa ez dago euskaraz idatzia. Ondokoa baino ez da ageri: COEXISTENCIA USO PEATONAL Y RODADO.  
 Erantzuna: BARAKALDOKO UDALA, Euskara arloko zinegotzi-delegatua: *"Barakaldoko Udalaren hizkuntza paisaia elebitasuna nagusi izan arren, hain udalerrri handia izanik, gerta daiteke bide seinaleren bat oraindik gaztelania hutsean egotea. Elebideren bidez intzidentzia honen berri izan genuenez, une honetan dossier honi dagokion kartel elebiduna jarria da."*

---

Dosierra: 404-2013  
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA  
 Arrazoia: Barakaldon tren-geltoki nagusiko aparkalekuan jarritako oharra ez dago euskaraz idatzia; "EXCEPTO PERSONAL RENFE" baino ez dago idatzia.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 656-2013  
 Erakundea: BARAKALDOKO UDALA  
 Arrazoia: Barakaldoko Udalaren "Sociedad de Gestión Urbanística Eretza S.A." sozietateak erdara hutsean ipini du iragarkia gaurko Correo egunkarian, babes ofizialeko hainbat etxebizitzaren zozketarako izen-ematearen berri emateko.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 419-2013  
 Erakundea: BARRIKAKO UDALA  
 Arrazoia: Barrikako udaletxera deitu dut eta euskaraz egin dut galdera. Arreta egin didanaren erantzuna erdara hutsez izan da, euskararik ez dakiela eta erdaraz egiteko esanez. Nik euskaldun batekin jartzeko eskatu diot, baina bakarrik dagoela adierazi dit arreta ematen duena oportetan ei dagoelako. Ezin izan dut beraz nire arazoa konpondu eta beste bide batzuk topatu beharko ditut horrek dakarren kalte eta denbora galtzarekin.

Erantzuna:

---

Dosierra: 163-2013  
 Erakundea: BERRIZKO UDALA  
 Arrazoia: Berrizko langileek otsailaren 24an jasotako gutuna, lan-arriskuen inguruko 8 orrialdeko idazkia, gaztelania hutsean zegoen. Horretaz gain, gutun-azalaren ondoan dokumentu hori jaso izanaren sinatu beharreko adierazpena zegoen, gaztelania hutsean.

Erantzuna:

Dosierra: 412-2013

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoia: Berrizko Kirol zinegotziak deialdia egin zigun udal kiroldegiko beharginoi ekainaren 14an udaletxean ager gintezen kiroldegiko larrialdi-planaren inguruko ikastaroa jasotzeko. Bertan banatu diguten orrialde-sorta erdara hutsean zegoen eta trebatzaileak erdaraz ekin dio ikastaroari. Material idatzia euskaraz baduten galdetu eta ezetz erantzun digute, udalak ez diela euskaraz ezer prestatzeko eskatu.

Erantzuna:

Dosierra: 489-2013

Erakundea: BERRIZKO UDALA

Arrazoia: Berrizko udaletxearen eremuko ate handiaren bi zutabeetan ibi-seinale bana dago, biak ala biak erdara hutsean: "PASO DE VEHÍCULOS".

Erantzuna:

Dosierra: 75-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko San Fauste auzotik Astolaranzko bidean urtarrilaren 9an jarrita zegoen bide-seinalea gaztelania hutsean zegoen. Honela zioen: "Carril cortado".

Erantzuna:

Dosierra: 76-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko igerilekuetan aldagelen eremutik igeriontzien aldera igarotzeko sarbidean pare bat kartel daude "Prohibido el paso" diotenak biak gaztelania hutsean.

Erantzuna: Kartela aldatu dute. Dokumentua jaso dugu Behatokian.

Dosierra: 436-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko Montorreta kalea trafikoari guztiz itxita egon da luzaroan. Kalea erabat itxi zutenetik erdara hutsezko bide-seinale bat dago, "Atención/Carretera cortada" dioena. Abenduan kexa egin nuen arren, gaur, ia zazpi hilabete igarota, seinaleak bere horretan jarraitzen du.

Erantzuna:

Dosierra: 583-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangoko San Roke auzoan erdara hutsean dago "calle cortada por obras" dioen seinalea .

Erantzuna:

Dosierra: 974-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Durangoko San Roke auzoan Erdara hutsean dago bidea moztuta dagoela adierazten duen seinalea. Honela dio: "Calle cortada por obras". Hilabete eta erdi igaro da kexa egin nuenetik eta seinale horrek bere horretan segitzen du.

Erantzuna: ALKATEA: *Egia da Durangoko San Roke auzoan seinale bat gaztelania hutsean dagoela, "Calle cortada por obras". Construcciones Exbasa enpresak jarritakoa da. Bertan babes ofizialeko etxebizitza berriak eraikitzen ari da VISESA, Eusko Jaurlaritzaren sustapen publikorako sozietatea. Udalak, bertan lanean dagoen enpresari, eta baita obra horretako arduradunari, VISESAri, agindu dio bide-seinale hori elebitan jar dezala ahal bezain pronto.*

Dosierra: 988-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Zaindu deritzon ekimenaren (Durangoko Udalak eta Durangaldeko Mankomunitateak bultzatutakoa) iragarkia erdara hutsean agertu da gaurko Deia egunkarian, hain zuzen, Hemendik Durangaldea gehigarrian. ---Gehigarri hori dohainik ere banatzen da, astekari moduan, Durangaldeko hainbat saltoki eta gune publikotan---.Programak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa ere badu.

Erantzuna: DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO PRESIDENTEA: *Barkamena eskatzen dut, gure zerbitzuetako baten akatsa izan baita. Dena den, hau berriz ez gertatzeko ahaleginak egingo ditugu, hizkuntza irizpideak onartzeko prozesuan gabiltza eta gure helburua da zerbitzu guztiei horien berri ematea, guztiok euskararekiko konpromisoak har ditzagun.*

PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEBASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO ZUZENDARI NAGUSIA: *Bizkaiko lurralde historikoan 2014. urtean Zainduz foru programa garatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia abenduaren 120eko 184/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren. Dekretu horren 4. artikulua arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate eta udal-partzuergoak izan daitezke diru-laguntza horien onuradun, adierazitako jarduerak egitea erabakitzen badute. Deialdi hori dela-eta, Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen BFAko Gizarte Ekintza Sailarekin. Mankomunitateak toki-erakundeak direnez, bete beharreko hizkuntza-arautegia dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez du zentzu horretan ikuskeren lanik egiten. Horregatik, Zainduz programako toki-erakunde onuradunekin sinatzen den lankidetzaren hitzarmenean ez da jasotzen jakinarazpenak eta/edo iragarpenak euskaraz eta gaztelaniaz egin behar direnik, mankomunitatearen ardurak baita eskubide horiek bermatzea. Azkenik, Gizarte Ekintza saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuak diru-laguntzak emateko egiten dituen deialdietan (onuradunak erakunde pribatuak dira), onuradunek jakinarazpenak eta/edo iragarki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dituztela ezartzen du.*

Dosierra: 1003-2013

Erakundea: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Durangoko Landako II udal kiroldegiko aldageletan garbitzaileek betetzen dituzten fitxak, erabiltzaileok ikusteko moduan daudenak, erdara hutsean daude.

Erantzuna:

Dosierra: 970-2013  
 Erakundea: ERMUKO UDALA  
 Arrazoa: Ermuko udal enpresa bik bat egiten dutela -Promoción Económica de Ermuak Promoción Inmobiliaria Municipal de Ermua xurgatu du- dioen iragarkia erdara hutsean argitaratu dute gaurko Correo egunkarian.

Erantzuna:

Dosierra: 56-2013

Erakundea: ERRIGOITIKO UDALA

Arrazoa: Errigoitiko Udalean hizkuntza-eskubideen inguruko egoera salatu nahi dut: Udal honetara zuzenduta zinegotziok egiten ditugun eskariak eta galderak euskaraz egiten ditugun arren, erantzun gehienak gaztelania hutsean ematen dizkigute. Horretaz gain, Udalak argitaratzen duen aldizkarian, urtean 3 ale, garrantzi nabarmena ematen zaio gaztelaniari. Eta bukatzeko, alkate jaunak argitaratzen dituen dekretu guztiak gaztelania hutsean argitaratzen ditu.

Erantzuna:

Dosierra: 331-2013

Erakundea: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Getxoko Udalean datorren asteartean burutuko da Maiatzeko Osoko Bilkura. Gaur bertan heldu dira Getxoko Osoko Bilkuran parte hartzen duten alderdi ezberdinetara Osoko Bilkura horren gai-ordena eta mozioak. 11:34an heldu dira idazkaritzatik, idazkariaren barkamen eske batekin mozioak ez direlako itzuli. Era horretan euskaraz soilik idazten diren mozioak desabantailan gelditzen dira, 13 zinegotzi ez direlako euskaldunak.

Erantzuna:

Dosierra: 427-2013

Erakundea: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Getxoko Udalak oztopatu egiten du hautetsi euskaldunek euren jarduna euskaraz burutu ahal izatea: taldeek erdara hutsean jasotzen dituzte txosten asko eta asko, euskarazko bertsioak oso berandu iristen dira, askotan gaiak eztabaidatu eta hilabete edo gehiagora, sarritan gaizki itzulita, beste batzuetan euskaratu ere ez dira egiten; osoko bilkurarako euskaraz aurkeztutako mozioak garaiz itzultzen dituzte, erdarazkoak ez ordea. Batzordeetan zinegotzi erdaldunak nagusi direnez, gaztelaniaz jardun behar izaten dute itzulpen zerbitzurik ez dagoelako.

Erantzuna:

Dosierra: 937-2013

Erakundea: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Aste honetan bertan, azaroaren 25etik 29ra, alderdi politikoen lanerako behar beharrezkoak diren hiru dokumentu argitara ekarri dira Gobernuaren aldetik Getxoko Udalean: - Udalak egindako Parte Hartzearen azterketa txostena: ERDERA HUTSEAN - Punta Begoñako galerien proiektu berria: ERDERA HUTSEAN - Zaborren pliegoaren gainean enpresa ezberdineak Udalarari egindako eskaintzez dagien balorazioa: ERDERA HUTSEAN. Horrez gain, Punta Begoñako galeriaren gaineko proiektu aurkezpenan, atzo goizean Areetako merkatu eraikinean areto betean, EHUko Unibertsitatetik parte hartu zuten taldekoek (Amaia Masera, Iñaki Antigüedad) Imanol Landa alkateak ez bezala, euren azalpen luzeak eman zituzten erdera hutsean, aretoan euskaldun ugari egon arren. Nere hizkuntza eskubideak agerian urratuak zirela sentiturik, ezinegon handiz, aretoa utzi nuen. Getxoko azken Osoko Bilkuran, azaroaren 26an, ondoko konpromiso hau onartu zen abenduaren 3ko euskararen egunaren deklarazioan bertan: 1.Gure herritarrei udal administrazioarekin d Gizarte Ekintza saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuak diru-laguntzak emateko egiten dituen deialdietan (onuradunak erakunde pribatuak dira), onuradunek jakinarazpen eta/edo iragarki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dituztela ezartzen du.tu hizkuntza eskubidea bera ere. Oso polita, baina aurrekoak ikusita, irain hutsa euskaraz bizi eta lan gure dogunentzat. Euskaraz lan egin nahi duten alderdientzat, bestalde, desabantaila nabaria. Agian txostenak euskaraz helduko dira hilabete batzuren ostean.

Erantzuna:

Dosierra: 1037-2013

Erakundea: IURRETAKO UDALA

Arrazoa: Durangoko Frai Juan Zumarraga kaletik lurretara sartzeko zubian, hasieran, bide-seinale bat ipini dute testu batek lagunduta, lurretako bizilagun ez direnen kotxeak ez daitezen sartu herrigunera, obra batzuk direla-eta, nonbait. Bada, testu hori erdara hutsean dago.

Erantzuna: *ALKATEA: Kasuaren ardura Udalarari dagokio, Maspe kalea egokitzeko obra kontratua PROBISA VIAS Y OBRAS SLU merkataritza-etxeari esleitu baitzion 2013ko urriaren 21eko 1097. Alkatezaren Dekretuaren bidez. 2013ko irailaren 23ko 990. ebazpenaren bidez Maspe kalea egokitzeko lizitazio espedientearen klausula berezien plegua onetsi zuen, eta esleipendunaren betebeharrak zehazten dituen 16. ataleko azken puntuak honakoa dio hitzez hitz: ?Obren seinaleztapena. ? Instalatu beharreko kartel guztiak elebitan idatziko dira, euskaraz eta gazteleraz, euskaraz dagoena nabarmenduta agertuko delarik?. lurretako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela eta inor diskriminatu ez dadin zainduko du eta neurri egokiak hartuko ditu horrelakorik gertatu ez dadin. Beraz, jakin ezazu PROBISA VIAS Y OBRAS SLU merkataritza-etxeari jakinarazi diola idatziz izan duen akatsaeta etorkizunean horrelako errakuntzak zaindu behar dituela jakinarazi, ondorio latsagoak ez jasotzeko.*

Dosierra: 668-2013

Erakundea: LEIOAKO UDALA

Arrazoa: Egunotan Leioako etxebizitza sozialen iragarkia ikusi dut prentsan, erdara hutsean.

Erantzuna:

Dosierra: 191-2013

Erakundea: MALLABIAKO UDALA

Arrazoa: Otsailaren 27an "X campeonato MALLABIA-I Biharko izarrak" pilota-txapelketaren iragarkia agertu zen El Correo egunerokoan. Irargarkia erdara hutsean zegoen. Mallabiko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia ageri ziren babesle moduan.

Erantzuna: MALLABIKO UDALA: *Pilota Elkarteari kexaren berri eman diegu eta adierazi diegu elkarteen betebeharrak dela euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea bere ekitaldietan, iragarpenetan eta antolakuntzan, eta beraz, aurrerantzean elkartearen jardunean euskararen erabilera kontuan hartzeko eskatu diegu, gure diru-laguntzen baldintzetan zehazten den bezala.*

Dosierra: 999-2013

Erakundea: PORTUGALETEKO UDALA

Arrazoa: Portugaleteko hilerriaren parean erdara hutsezko bide-seinalea dago, "Excepto servicios y funeraria" dioena.

Erantzuna: PORTUGALETEKO EUSKARA ZINEGOTZIA: *Portugaleteko Udalak 2011. urtean jarri zuen martxan bere lehen EBPn eta, hari esker, hiru urte eskas hauetan nabarmen egin du aurrera. Hala eta guztiz, begi bistan dago, oraindik ere zer hobetu badaukagula eta aurrera segitu behar dugula. Horretarako, datorren urte honetan ere, ESEP onartzearekin batera hainbat ekintza garatu behar ditugu eta haietako batzuk hizkuntza-paisaiaren ingurukoak izango dira. Hala ere, Udalaren Euskara Zerbitzuak intzidentzia honen berri eman dio Lan eta Mantenu Sailari, gaztelaniazko testu horri dagokion euskal testua ere bidali dio eta sail hori martxan jarri da bide-seinale elebiduna paratzeko. Gure lana eta herriari ematen diogun zerbitzua gero eta hobeto egiteko asmoa darabilgunez, eskerrak eman nahi dizkizugu zure kexaren bidez etengabeko hobekuntzan laguntzeagatik.*

## GIPUZKOAKO UDALAK

Dosierra:	30-2013
Erakundea:	DONOSTIAKO UDALA: DONOSTIA KIROLETAKO UDAL PATRONATUA
Arrazoia:	Herritarrak, urtarrilaren 2an, eguerdiko 12ak aldera, Donostiako Etxadi Udal Kiroldegira - 943.31.18.78- deitu zuen eta ezin izan zuen euskaraz egin. Galdetu zuen ea langile euskaldunik zegoen eta ezetz. Ondoren, Kiroletako udal Patronatura deitu zuen - 943.48.18.50- honen berri emateko asmoz eta erantzuna izan zen "portzentaiak" betetzen dituztela. Ea euskara saila zegoen galdetu zion langile horri eta baietz erantzun zion baina ez zegoela horretarako.
Erantzuna:	<i>Sentitzen dugu eta eskertzen dizugu gertatutakoaren berri ematea. Egun sartzen diren langileen euskara gaitasun maila ziurtatuta dagoen arren, Kiroldegian euskaraz egin ezin izana, zoritxarrez oraindik ere tarteka gerta litekeen zerbait da. Ordutegiak egitean, kontuan hartzen da beti euskaldun bat egotea, bestela enkargatua euskalduna da. Egutegia aztertuta, ohartu gara enkargatua oportetan zegoela. Horretaz gain, euskara ez dakitenez badute gomendioa emana egoera horietan nola jokatu behar duten jakin dezaten, baina garbi ikusi duzu gomendio horiekin ez dugula, nonbait, nahiko genukeen ematzik lortzen beti. Bulego orokorretako telefonoan izandako arazoa argitzea zailago egin zaigu. Hala ere, garbi dago erantzuna, bere gordinean, mezuan aipatzen den bezala izan bazen, ez dela arazo baten aurrean erantzuteko modurik egokiena. Zerbitzu horretan hizkuntza irizpideak oso sustraituta dauden arren, egoera hau baliatuko dugu irizpide horien erabileran hobetzen eta sakontzen jarraitzeko.</i>

Dosierra:	92-2013
Erakundea:	DONOSTIAKO UDALA
Arrazoia:	Aurten ere Donostian eta Hernanin Zirkoa jarri dute. Donostian, Zirkoa noiz eta non izango den iragartzeko kartelak gaztelania hutsean jarri dituzten bitartean, Hernanin kartelak euskara hutsean izan dira. Aipatu kartelak otsailean jarri ziren.
Erantzuna:	

Dosierra:	172-2013
Erakundea:	DONOSTIAKO UDALA
Arrazoia:	Martxoan, Donostiako Etxegintzaren izenean etxera bidalitako gutun ziurtatua gaztelania hutsean zegoen. Amenabar enpresak bidalia izan arren, Etxegintzaren izenean eta Etxegintzaren zigiluarekin zeukan. Horretaz gain, bidalitako beste dokumentu bat Etxegintzaren dokumentua zen.
Erantzuna:	

Dosierra: 359-2013

Erakundea: DONOSTIAKO UDALA - DONOSTIA KIROLA

Arrazoia: Uztailaren 26an Donostia Kirola-ren web gunera jo dut Altzako kiroldegiko ordutegiari buruzko informazioa eskuratzeko: [http://zerbitzuak.donostia.org/ataria/web/kirolak/udako\\_ordutegiak](http://zerbitzuak.donostia.org/ataria/web/kirolak/udako_ordutegiak). Informazioa ez zait euskaraz bistaratu. Behatokiak egiaztatu ahal izan duenez, abuztuaren 27an egoerak berdin zirauen.

Erantzuna:

Dosierra: 445-2013

Erakundea: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoia: Donostiako Udalak bidalitako azkeneko ur eta zaborraren errezioboaren kontzeptua ez da euskara ageri. Lehen "ura-agua" zegoen, euskara lehenetsia. Orain "agua-basuras" baino ez.

Erantzuna: DONOSTIAKO UDALA, Euskara Zerbitzuko Bulego burua: *"Herritarrari erantzun ondoren, finantza erakundetik jaso zuen agiria ekarri zigun. Agiri horretan ikusi genuen lehen elebietan agertzen zen kontzeptua "ura-agua" orain aldatu egin dela eta udalak finantza erakundeari igortzen dion agirian, espazio ezagatik, "agua-basuras" kontzeptua gaztelaniaz bakarrik agertzen dela. Finantza erakundeak ere herritarrari horrelaxe jakinarazten dio. Kontzeptu hori kenduta agiria elebietan dago. Udaleko dagokion atalarekin hitz egin dugu eta kontzeptu hori elebietan ager dadin egokitzapenak egingo dituztela adierazi digute".*

Dosierra: 516-2013

Erakundea: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoia: Donostiako Errege-erregina Katolikoaren kalearen izena txarto ageri da bertan ipinitako plaketan, batean bederen, "Errege Katolikoak" ageri baita.

Erantzuna: EUSKARA ZERBITZUA: *Zure kexa arrazoizkoa da, izan ere, euskaraz Errege-erregina Katolikoaren kalea egokiagoa da orain plakan jarrita dagoena baino. Hori dela-eta, Euskara Zerbitzuak abian jarriko du behar den prozedura administratiboa errotulazioaren ardura duen udal atalak plaka aldatu eta idazkera hori erabil dezan.*

EUSKARA ZERBITZUA: *Kalean jarri dituzten plaka berrien argazkiak igortzen dizkizuet.*

Dosierra: 522-2013

Erakundea: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoia: Donostiako Karkizano kalean bizi naiz. Bertan kalearen izena adierazten duten bi plaka daude. Batean "Karkizano" dagoen arren, bestean "Carquizano" dago idatzia.

Erantzuna: DONOSTIAKO UDALA, Euskara Zerbitzu Burua: *Karkizano/Carquizano idazkerari dagokionez, Donostian indarrean dagoen kale izendegiaren arabera, bi idazkerak erabiltzen direla. Izan ere, kale hori 1932an bihurtu zen publiko (lehen pribatua baitzen) eta une hartan lehendik zeukan izena ontzat ematea erabaki zuen udalak. Hala ere, gaia aztertuko dugu eta euskarazko idazkerari lehentasun erabatekoa emateko modua egongo balitz, behar den prozedura administratiboa egingo da hala erabil dadin."*



---

Dosierra: 938-2013

Erakundea: DONOSTIA KIROLA

Arrazoia: Donostiako Manteo kiroldegian dagoen tabernan bi zerbitzari daude eta ez batak eta ez besteak ez du euskaraz egiten. Euskaraz eskatu eta gaztelaniaz erantzuten dute.

Erantzuna:

---

Dosierra: 959-2013

Erakundea: BEASAINGO UDALA

Arrazoia: Azaroaren 13an, Igartza jauregian ekitaldi bat antolatzen gindoazen. Bertako ateak eta gelak zabaltzeko Dolarea Hoteleko langilea azaldu zitzaigun, Hoteleko arrera egiteko arduraduna. Euskara ez zekien eta hartueman guztia erdera hutsean egin behar izan genuen berarekin.

Erantzuna:

---

Dosierra: 351-2013

Erakundea: EIBARKO UDALA

Arrazoia: Eibarko Udalak prozesu herritarra abiatu du Errabalen zer egin erabakitzeko. Enpresa valentziarra kontratatu du prozesua aurrera eramateko. Maiatzaren 21ean horren guztiaren aurkezpena egin zen udaletxean. Aurkezpena gaztelaniaz egin zen eta horretarako erabili zen power pointa ez zegoen euskaraz.

Erantzuna:

---

Dosierra: 405-2013

Erakundea: EIBARKO UDALA

Arrazoia: Eibarko udal hilerrian jarritako oharra ez dago euskaraz idatzia; "EL CEMENTERIO SE CERRARA A TOQUE DE SIRENA" baino ez dago idatzia.

Erantzuna: EIBARKO UDALA, Euskara Teknikaria: "2013ko maiatzean Elebidetik jaso genuen kexa bera eta orduan konpondu zen."

---

Dosierra: 661-2013

Erakundea: IRUNGO UDALA

Arrazoia: Sareko zuzentzaile ortografikoak Irun izen euskaldunari gaztelaniazko arau ortografikoa aplikatzen dio, zuzen idatzitako izenari tileta gehituz (Ondorioz, ofiziala ez den izenaren erabilpena bultzatzen du).

Erantzuna:

---

## IPAR EUSKAL HERRIKO UDALAK

Dosierra:	600-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Garapen iraunkorraren astearen baitan, apirilaren 6an, Chao kaian BAIONAKO HERRIKO ETXEAK antolatu animazioak iragartzen dituen afitxa frantses hutsean da.
Erantzuna:	
Dosierra:	803-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Aparkalekuan sartzeko hartu behar den txartela frantses hutsean da
Erantzuna:	
Dosierra:	850-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionan, ekaina-iraila bitarteko animazioak iragartzen dituen "FORTUIS Un été aux remparts" izenburuko egitaraua jaso nuen eta frantses hutsean zen.
Erantzuna:	
Dosierra:	851-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionan, Sainte-Claire aparkalekuaren ordutegiak iragartzeko ezarri seinaleak frantses hutsean dira. Bestalde sartzean ezarri segurtasun informazioa ere frantses hutsean da: "Pour votre sécurité veuillez emprunter l'entrée principale".
Erantzuna:	
Dosierra:	852-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionako besten kari herrian zehar ezarritako informazioa frantses hutsean zen. Bertan gai desberdinei buruzko informazioa atzematen zen, bortxaketaren ingurukoa "Le viol est un crime puni de 15 ans de prison" edota trafikoari buruzkoa, garraioei buruzkoa, animazioen kokaguneari buruzkoa. Egia bada izenburuek euskarazko eta gaskoierazko itzulpena zutela, gainerateko informazioa frantses hutsean zen.
Erantzuna:	
Dosierra:	853-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionako besten kari uztailearen 24ean antolatu den "La foulée festayre" lasterketaren kariatara zabaldu afitxa frantses hutsean zen.
Erantzuna:	
Dosierra:	854-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionan, San Andres aparkalekuan, uztailearen 17tik 29ra, autoa uztea debekatua dela iragartzen duen seinalea eta Herriko Etxearen agiria frantses hutsean ziren.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 858-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Irailaren 14 eta 15ean, Baionan Ondarearen Egunak ospatu ziren. Egun horiek iragartzeko egitarauan izenburuak eta laburpen bat agertzen dira euskaraz, gaskoierarekin eta gaztelerarekin batera, baina gainerateko guzia frantses hutsean zen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 878-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Baionako Herriko Etxeak "J'achète à Bayonne, stationner mode d'emploi" eskuorria frantses hutsean da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 879-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: BAIONAKO HERRIKO ETXEAK eta LSHZ erakundeak, urriaren 23an, elkarteen etxean, haurrentzako "La Grande Récré" ekimena antolatu zuten. Egunaren berri ematen zuen esku-orria jaso nuen eta frantses hutsean zen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 880-2013

Erakundea: BAIONAKO UDALA: LSHZ (LAGUNTZA SOZIALEKO HERRIKO ZENTROA )

Arrazoia: BAIONAKO LSHZ erakundeak, 2013ko irailetik 2014ko ekainera adinetako jendearentzako proposatzen dituen kirol eskaintzak iragartzeko egitaraua eta kirol ekimenak frantses hutsean da "Ticket bleu, bouger, respirer, sortir" .

Erantzuna:

---

Dosierra: 881-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: BAIONAKO HERRIKO ETXEAK eguberriren kari antolatu dituen ekimenak iragartzeko euskarriak, afitxak, esku-orriak, frantses hutsean dira: "Noël c'est à Bayonne" diote. Horrez gain, eguberriko merkatua seinalatzen dituen panelak ere frantses hutsean dira.

Erantzuna:

---

Dosierra: 882-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: BAIONAKO HERRIKO ETXEAK esku-orri bat argitaratu du Baionako biztanleentzat, aparkatzeari begira frantses hutsean da: "J'habite à Bayonne, stationner, mode d'emploi".

Erantzuna:

---

Dosierra: 883-2013

Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: BAIONAKO HERRIKO ETXEAK urri-azaroko herriko aldizkarian, BAYONNE MAGAZINE, 177. Zenbakian hain zuzen ere, artikulua bakarria da euskaraz. Aldizkaria webgunean kontsultatu daiteke.

Erantzuna:

---

Dosierra:	915-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	BAIONAKO HERRIKO ETXEAK, eguberriren kariatara aparkatzeko ordu bat eskaintzen du eta horren berri ematen duen afitxa frantses hutsean da.
Erantzuna:	
Dosierra:	924-2013
Erakundea:	BAIONAKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Baionako karriken izen guziak frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	897-2013
Erakundea:	ANGELUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Azaroaren 22an ANGELUKO HERRIKO ETXEArA joan nintzen agiri bat galdegiteko. Bertan ezin izan nuen euskarazko harrera jaso eta frantsesez hitz egin behar izan nuen.
Erantzuna:	<i>Frantses administrazioaren hizkuntza ofiziala frantsesa da. Gure langileen artean euskaldunak badira, baina haien kopurua ez da nahikoa zerbitzu guzietan presente egoteko. Haatik ez naiz ados erraten duzularik "herritarren hizkuntza-eskubideak ez direla kontuan hartu". Galdegindako agiria eskuratu bait du herritarrak, berak eskatu bezala.</i>
Dosierra:	898-2013
Erakundea:	ANGELUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	ANGELUKO HERRIKO ETXEAREN web gunea frantses hutsean da ( <a href="http://www.anglet.fr">www.anglet.fr</a> ).
Erantzuna:	
Dosierra:	899-2013
Erakundea:	ANGELUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Abenduaren 22an Angelun ibili nintzen, Quintaou merkatuan. Herriko karriken izen guziak frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	900-2013
Erakundea:	ANGELUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	ANGELUKO HERRIKO ETXEAREN herriko aldizkaria, ANGLETMAGAZINE 2013ko urria-azarokoa, 118. zenbakia eta C'est à ANGLETaldizkaria, abendukoa, 24. zenbakia, frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	902-2013
Erakundea:	ANGELUKO LIBURUTEGIA
Arrazoia:	ANGELUKO LIBURUTEGIAREN egitaraua, 2014ko urtarrila-martxokoa "Cultivons nos savoirs" izenburupean dena frantses hutsean da. Horrez gain, liburutegiaren web gunea ere frantses hutsean da ( <a href="http://www.bibliotheque-municipale.anglet.fr">www. bibliotheque-municipale.anglet.fr</a> ).
Erantzuna:	

Dosierra: 903-2013

Erakundea: ANGELUKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: ANGELUKO HERRIKO ETXEAREN kultur egitaraua, 2013/2014koa, frantses hutsean da, bertan "Remuons nos sens" izenburua agertzen da.

Erantzuna:

Dosierra: 108-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Donibane Lohizuneko André Ithurralde karrikako auzokideek otsailaren 4an jaso dugun jakinarazpena ez zegoen euskaraz idatzia, frantses hutsean zen. Bertan etorbidean otsailaren 11ko astetik goiti ekaina bitartean egitekoak ziren obren berri ematen zen.

Erantzuna:

Dosierra: 432-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Donibane Lohizuneko André Ithurralde karrikako auzokideei otsailaren 4ean zabaldu jakinarazpena, frantses hutsean zen. Bertan etorbidean otsailaren 11ko astetik goiti ekaina bitartean egitekoak ziren obren berri ematen zen.

Erantzuna:

Dosierra: 839-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Donibane Lohitzunen maiatzaren 18tik 20ra iragan zen Andaluziako festibalaren egitaraua frantses hutsean zen.

Erantzuna:

Dosierra: 859-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Donibane Lohitzunen eta Ziburun, ekainetik urrira bitarteko udako aisi, kirol eta kultur ekintzen gida frantses hutsean jaso nuen.

Erantzuna:

Dosierra: 870-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko TURISMO BULEGOA

Arrazoia: DONIBANE LOHITZUNeko TURISMO BULEGOAK urriaren 8tik 12ra ERREALISADORE GAZTEEN FESTIBALA antolatu zuen, 18. zen. Festibalaren komunikazio euskarriak frantses hutsean jaso nituen eta web gunea ere frantses hutsean zen ([www.jeunes-realisateur.com](http://www.jeunes-realisateur.com)).

Erantzuna:

Dosierra: 876-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA

Arrazoia: DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEAK argitaratu duen hiri barneko komertzianteen gida "Guide des commerces en centre ville" frantses hutsean da.

Erantzuna:

Dosierra:	909-2013
Erakundea:	DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEAK abenduaren 1ean antolatu Les Foulées luziennes lasterketaren euskarri guziak frantses hutsean jaso nituen.
Erantzuna:	
Dosierra:	921-2013
Erakundea:	DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEAREN KULTURA ZERBITZUAK antolatu kultur ekintzen 2013ko iraila-abenduako egitarauan, INFO CULTURE deitzen dena, izenburuak euskaratuak dira, baina gainerateko guzia frantses hutsean da.
Erantzuna:	<i>Kultur zerbitzuak betidanik elebitasunaren kezka ukan du, bere baliabide tekniko eta ekonomikoen baitan. Adibide gisa, oroitarazi nahi dizuet, kultur ekimenen euskarri guziak elebidunak direla osoki edo partzialki. Zuk aipatu INFOCULTURE aldizkarian frantsesa nagusitzen da, eragiten dituen gastuarengatik eta diseinua argia gelditu dadin, baita edukia osoa izan dadin. Haatik, posible zaigunean, eta hori edizio batetik bestera aldatzen doa, elebitasuna sartzen dugu gure azken zenbakian ikusiko zenuten bezala. Hala ere, nere zerbitzuei galdeginen diet etorriko diren zenbakietan euskarari leku gehiago eskaintzeko aukera eta kostua aztertu dezaten. Baina, tamalez, segur dena da, ez dela edizio osoa euskaraz izanen, gorago aipatu arazoengatik.</i>
Dosierra:	925-2013
Erakundea:	DONIBANE LOHIZUNeko HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	Abenduaren 30ean, DONIBANEKO HERRIKO ETXERA joan naiz hauteskundeen zerrendan izena emateko eta etxebizitzaren errolda agiri bat eskuratzeko. Izena eman eta luzatu zaidan agiria frantses hutsean zen.
Erantzuna:	
Dosierra:	927-2013
Erakundea:	DONIBANE GARAZIKO HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	DONIBANE GARAZIKo karriken izen guziak frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	590-2013
Erakundea:	HENDAI AKO HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	Uztailaren 21ean Hendaiako hondartzan nintzen eta megafonia bidez zabaldu mezuak frantsesez eta espainolez egin dira, euskararen arrastorik ez, ordea.
Erantzuna:	HENDAI AKO AUZAPEZA: Udan Hendaiako hondartzetan lanean ari diren zaindaria CRS eta suhiltzaileen ardurapekoak dira. Etorkizunean, postu hauen arduradunei mezuak euskaraz pasatzeko eskaria eginen diet, euskara dakiten langileak dituzten heinean.
Dosierra:	877-2013
Erakundea:	ITSASUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoa:	ITSASUKO HERRIKO ETXEAREN web gunea frantses hutsean da (www.itxassou.fr).
Erantzuna:	

Dosierra: 856-2013

Erakundea: KANBOKO TURISMO BULEGOA

Arrazoia: Uztarizetik Kanbora doan bidean, Arnagara joateko bide gurutzean, "Kanboko tren ttiki" adierazten duen banderola zintzilik egon da uda osoan. Gisa bera agertzen da herri barnean den geltokian. Euskaraz idatzia baldin bada ere, huts bat agertzen da, "Kanboko tren ttikia" litzateke erranaldi zuzena.

Erantzuna:

Dosierra: 869-2013

Erakundea: KANBOKO TURISMO BULEGOA

Arrazoia: Euskal Biskotxaren Bestaren web gunea frantses hutsean da ([www.lafetedugateaubasque.com](http://www.lafetedugateaubasque.com)) . Bestalde, prentsan ikusi ditudan publizitateak ere frantses hutsean dira. Esku-orrian euskaraz agertzen den esaldi bakarra "Euskal biskotxaren besta. urriaren 8an" da.

Erantzuna:

Dosierra: 919-2013

Erakundea: KANBOKO TURISMO BULEGOA

Arrazoia: KANBOKO TURISMO BULEGOAREN web gunea frantsesez bada. Gaztelaraz eta ingelesez sarbideak proposatzen ditu, aldiz, euskarari ez zaio lekurik eskaintzen ([www.cambolesbains.com](http://www.cambolesbains.com)).

Erantzuna:

Dosierra: 871-2013

Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Azaroaren 22tik 24ra Biarritzeko Bellevue gunean arbasoen medikuntza eta kantikoari buruzko nazioarteko forua iragan zen. Foruaren komunikazio euskarri guziak frantses hutsean jaso nituen eta internet orria ere frantses hutsean zen ([www.medecines-ancestrales.com](http://www.medecines-ancestrales.com)).

Erantzuna:

Dosierra: 884-2013

Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEAREN auzoan atzematen diren karriken izenak frantses hutsean dira "rue Louis Barthou", "Avenue Joseph Petit, maire 1919-1929", "Rue Gardague", "Avenue d'Ossuna".

Erantzuna:

Dosierra: 885-2013

Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEAREN auzoan atzematen diren aparkatzearekin zerikusia duten seinaleak frantses hutsean dira: "Réservé 2 roues", "Interdit de 6h30 à 10h30 sauf livraison".

Erantzuna:

Dosierra: 886-2013  
 Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEaren barne seinaletika frantses hutsean da "Etat-civile, carte d'identité, passeport" "Service information, communication".  
 Erantzuna:

Dosierra: 887-2013  
 Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: Azaroaren 18an MIARRITZEKO HERRIKO ETXEara joan nintzen hirigintza agiri bat galdegiteko. Ez harreran, ez eta hirigintza zerbitzuan ez zidaten euskarazko harrera eskaini eta frantsesez hitz egin behar izan nuen.  
 Erantzuna:

Dosierra: 888-2013  
 Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEaren sartzean afixatuak diren jakinarazpen ofizialak, deliberoak, erabakiak edota bandoak frantses hutsean dira. Horrez gain, azaroaren 7tik 15era Gaskoin etorbidearen 7. Zenbakian, obren kariatara aparkatzeko bi leku erreserbatuko direla iragartzeko jakinarazpena ere frantses hutsean da.  
 Erantzuna:

Dosierra: 894-2013  
 Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: MIARRITZEKO HERRIKO IGERILEKURA joan nintzen abenduaren 20an eta oharrak, zein kirol eskaintzaren egitaraua frantses hutsean dira.  
 Erantzuna:

Dosierra: 896-2013  
 Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: Abendu hasieran, MIARRITZEKO HONDARTZA HANDIAN ibiltzera joan nintzen. MIARRITZEKO HERRIKO ETXEak segurtasun ohar berriak ezarri dituela konturatu nintzen, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez agertzen dira, ez ordea euskaraz.: "plage non-surveillée, beach not supervised" edota "accès interdit-mer forte, acceso prohibido-mar fuerte, prohibited acces-rough sea" diote  
 Erantzuna:

Dosierra: 595-2013  
 Erakundea: MUGERREKO HERRIKO ETXEA  
 Arrazoa: MUGERREKO HERRIKO ETXEAK otsailaren 15ean antolatu ABRACADABRA magia eta barietate ikusgarri eta apairua iragartzeko euskarriak frantses hutsean ziren.  
 Erantzuna:



Dosierra: 591-2013

Erakundea: SENPEREKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Urriaren 9an, SENPEREKO HERRIKO ETXEAK herrian bozkatu ahal izateko zabaldu inprimakia frantses hutsean eskuratu du.

Erantzuna:

Dosierra: 811-2013

Erakundea: SENPEREKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Hauteskundeko zerrendetan izen ematea egina denaren ziurtagiria frantses hutsean da.

Erantzuna:

Dosierra: 845-2013

Erakundea: SENPEREKO TURISMO BULEGOA

Arrazoia: Uztailaren 9an Senpereko TURISMO BULEGORA joan nintzen. Bertan uztaileko animazioen egitaraua hartu nuen eta frantses hutsean zen.

Erantzuna:

Dosierra: 614-2013

Erakundea: URRUÑAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: 2013an Urruñako zentroan egitekoak diren obrak iragartzeko esku orria jaso nuen, frantses hutsean zen. Euskaraz agertzen zen esaldi bakarra "Urruñ mugimenduan!" zen.

Erantzuna:

Dosierra: 922-2013

Erakundea: URRUÑAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: URRUÑAKO HERRIKO ETXEAK argitaratu "Urruñan bizi, Vivre à Urrugne" berripaperaren, 47. zenbakia, frantses hutsean da.

Erantzuna:

Dosierra: 855-2013

Erakundea: ZIBURUKO TURISMO BULEGOA

Arrazoia: Maiatzaren 20an Ziburun antolatu Les Foulées Kaskarot lasterketaren kariatara eskuratu nuen esku-orria frantses hutsean zen.

Erantzuna:

Dosierra: 860-2013

Erakundea: ZIBURUKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Donibane Lohitzunen eta Ziburun, ekainetik urrira bitarteko udako aisi, kirol eta kultur ekintzen gida frantses hutsean jaso nuen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 913-2013

Erakundea: ZIBURUKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: ZIBURUKO HERRIKO ETXEAK, azaroaren 18tik abenduaren 18ra argi lehiaketa antolatzen zuen eta afitxa frantses hutsean zen.

Erantzuna:

---

## NAFARROAKO UDALAK

Dosierra: 40-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak Iruñeko Armada etorbidea eta Pakearen enparantzaren artean informazioa ematen duen panel elektrikoan jarritako mezuak beti gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Dosierra: 41-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak urtarrilaren 13an helarazitako ohar idatzia gaztelania hutsean zegoen. Bertan azaltzen zidaten Hezkuntza eta Kultura Arloko jakinarazpen bat luzatu behar zidatela, baina ez nengoela etxean. Testua: "Por la presente le comunicamos que hemos pasado el día 15-1-13 a las 15:15 horas para entregarle una otificación del Ayuntamiento de Pamplona dirigida a ..... referente a Área educación y cultura. Rogamos..."

Erantzuna:

Dosierra: 42-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: IRUÑEKO UDALEKO GAZTEDIAREN ETXEAK 2012ko Gabonetarako argitaratu eta zabaldutako esku-orriak, "Zatoz Eguberrietan Etxera... Tostarteko Piratekin", ez zuen euskararen ordenantza betetzen. Euskarazko leloa eta datak gaztelaniazkoa baino askoz txikiagoa ziren eta barruko informazioa gaztelania hutsean zegoen. Horretaz gain, beheko aldean zetorren Gaztedi Etxearen izen, helbide eta datu korporatiboak ere gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

Dosierra: 43-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak erakunde euskaldun baten ordezkariari 2012ko abenduaren 27an bidalitako ebazpena -RAL 26-DIC-12 (7/EC)- gaztelania hutsean zegoen. Erakundearen izena eta helbidea ere -Iruña izan ezik- gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 44-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Gaztelu Plazako udal aparkalekua kudeatzen duen SABA aparcamientos enpresak urtarrilean eskuragarri jarri zituen esku-orri guzti-guztiak gaztelania hutsean zeuden. Honela zioten: "Saba abonos. Escoge el tuyo".

Erantzuna:

---

Dosierra: 53-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udaleko Kultura Sailak Twitterren zabalduetako kontuak -@pamplonacultura- ez du euskararen erabilera bermatzen, zabalitzen diren mezu gehienak gaztelania hutsean baitaude.

Erantzuna:

---

Dosierra: 54-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak argitaratutako 2012ko Gabonetako egitarauaren ale guztiak, Gaztelu Plazako azokako etxetxoetan eta Udaletxeko atzekaldeko atarian dagoen informazio gunean zeuden guzti-guztiak, gaztelania hutsean zeuden.

Erantzuna:

---

Dosierra: 103-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak, Ana Elizalde Urmeneta- alkateordeak sinatuta, 2012ko abenduaren 31n bidalitako barneko gonbidapena gaztelania hutsean zegoen. Gaia: "Haba de Oro" delakoa.

Erantzuna:

---

Dosierra: 123-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Otsailaren 13an, Iruñeko Udalak Eslaba kalean duen eraikinen zaharberritzerako duen bulegora joan nintzen. Behar nituen inprimakia euskaraz idatzita eskatu nituen, baina ez zituzten. Gaztelania hutsean eraman behar izan nituen. Honela zioen: Información sobre actuaciones para supresión de barreras arquitectónicas...

Erantzuna:

---

Dosierra: 218-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udaltzaingoak ohar idatzia jarri ditu Aste Santuko jarduera erlijiosoek aparkalekuko irteeran eragina izango dutela jakinarazteko. Oharra gaztelania hutsean idatzita dago. Honela dio: "Aviso, la salida del aparcamiento se va a ver afectada por la celebración de los actos religiosos de Semana Santa".

Erantzuna:

---

Dosierra: 227-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Martxoaren 27an Iruñeko udaltzainek identifikatzeko eskatu zidaten. Nik identifikatuko nintzela, baina euskaraz eginen nuela erantzun nien. Bi udaltzainak ez ziren euskaldunak eta atxilotuta eraman ninduten Udaltzainen egoitzara. Luzatu zidaten isunaren boletinean, ez identifikatu nahi izatea ageri da arrazoi gisa.

Erantzuna:

Dosierra: 228-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Udaltzainek herritarrari eman dioten isunaren boletina (Boletín de denuncia) ez dago euskaraz; ez inprimakia ez udaltzainek bertan idatzitakoa. Herritarra euskaraz zuzendu zaie Udaltzainei eta beraz, jakin bazekiten euskalduna zela.

Erantzuna:

Dosierra: 306-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko TAOko makina berrietan, bai eremu urdinekoetan nola laranjakoetan, dena ez dago euskaraz idatzia: 1) Prezioei dagokien atala osorik, 2) isuna baliogabetzeko argibideak eta 3) txartelaren saldoarena. Euskaraz idatzitako testuetan akatsak daude: "markina", "arabili".

Erantzuna:

Dosierra: 315-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Aste honetan Iruñeko Udalak bi eskela jarri ditu Diario de Navarran eta Diario de Noticiasen Tomás caballero gogoratzeko eta biak ala biak gaztelania hutsean zeuden. Udalak hilerrira eramandako lore koroako testua ere gaztelania hutsean zegoen: "El Ayto. de Pamplona a Tomás Caballero".

Erantzuna:

Dosierra: 343-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Ipar Etxabakoitzen, Iruñea etorbideko 41 zenbakiaren pareko autobus geltokian, Barañaingo muga-mugan, dagoen zutikako seinale urdinean "COMARCAL" ageri da; ez da euskarazko ordainik.

Erantzuna:

Dosierra: 448-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-orri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. Animaliak adoptatzeko programaren berri emateko esku-orriaren aurrealdea ele bietan dago (euskarazko hizkien tamaina eta kontrastea apalagoa bada ere), baina atzealdeko informazioa gaztelania hutsean ageri du.

Erantzuna:

Dosierra: 449-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-euskarri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. "Eficiencia energética básica del ciudadano" izenburuko liburuxka ez zegoen euskaraz, gaztelaniazko bertsioan bakarrik eskura zitekeen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 450-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-euskarri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. "Tenencia de animales potencialmente peligrosos en Pamplona" izenburukoa ez zegoen euskaraz, gaztelaniazko bertsioan bakarrik eskura zitekeen.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 451-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-euskarri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. "Movilidad eléctrica: Limpia, silenciosa y eficiente" izenburukoa ez zegoen euskaraz, gaztelaniazko bertsioan bakarrik zegoen eskuragarri.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 452-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-euskarri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. "Servicio Público de Alquiler de Bicicletas en Pamplona" izenburukoa ez zegoen euskaraz, gaztelaniazko bertsioan bakarrik zegoen eskuragarri.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 453-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Seminario etxean duen erregistroan hainbat informazio-euskarri zeuden herritarren eskura abuztu hasieran. "Sistema de recarga de vehículos eléctricos" izenburukoa ez zegoen euskaraz, gaztelaniazko bertsioan bakarrik zegoen eskuragarri.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 484-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Garabiak autoak eramaten dituenean eranskailu laranja bat jartzen dute gidariari horren berri emateko. Eranskinak gaztelania hutsean du testua; beraz, ez du Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantza betetzen.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 485-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak kaleak trafikoarentzat ixten dituenean, obregatik edo beste edozein ekimenengatik (bizikleta-lasterketak, prozesioak) gaztelania hutsean jartzen ditu horren berri emateko oharrak.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 552-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Udalak Eslaba kalean duen komun publikoko afitxa guztiak gaztelania hutsean daude.  
 Erantzuna:

---

Dosierra:	557-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Udalaren TAOko makinek luzatzen dituzten ordainagirietan euskarazko bertsioan "gauzetkiareb" ageri da gaztelaniazko "prabrisas" hitzaren ordain gisa. Horrez gain, inongo hiztegitan ageri ez den "ordezkagiri" dago "resguardoren" ordain gisa.
Erantzuna:	
Dosierra:	689-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Atzo, 23:20 inguruan 092 telefonora deitu nuen laguntza eskatzeko asmoz. Telefonoa hartu zuenak gaztelaniaz egin zuen lehen hitza: "Buenas noches, policía municipal." Eta nik: "Gabon". Hark berriz: "Buenas noches, policía municipal" Tonua zakartuz.- "Gabon" nire erantzuna. "BUENAS NOCHES, POLICÍA MUNICIPAL!!- oraingoan oihuka.- Nik berriz ere: "Gabon". Eta azalpen gehiagorik gabe telefonoa eskegi zidan.
Erantzuna:	
Dosierra:	697-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñean Cardenal Ilundain ikastetxearen sarreran dagoen zutikako seinalea, "PROHIBIDO PERROS" dioena, ez dago euskaraz idatzia.
Erantzuna:	
Dosierra:	698-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Artika kaleak eta Marcelo Zelaieta etorbideak bat egiten duten tokian dagoen estolako inskripzioa ez dago euskaraz idatzia; "AYUNTAMIENTO SANEAMIENTO PAMPLONA" ageri da.
Erantzuna:	
Dosierra:	699-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Cardenal Ilundain ikastetxearen atzean dagoen ibi iraunkorraren "Vado permanente" seinalea ez dago euskaraz idatzia.
Erantzuna:	
Dosierra:	701-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Juan de Goienetxe kaleko 2. zenbakian dagoen zamalanei buruzko seinalean informazio guztia ez dago euskaraz idatzia: "LUNES A VIERNES", "SABADOS" edo "30 minutos" ageri dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	704-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Cardenal Ilundain ikastetxeko atarian dagoen atezain-automatikoan "CONSERJERIA" ageri da, baina ez dago euskarazko ordainik.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 706-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Marcelo Zelaieta 119an dagoen ibi iraunkorraren seinalea ez dago euskaraz idatzia.

Erantzuna:

---

Dosierra: 708-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Cardenal Ilundain ikastetxearen atzealdean bada aparkatzea debekatua dagoela adierazten duen zutikako seinale biribil bat. Gainean "3ª CATEGORIA" dago idatzia, ez dago euskarazko ordainik.

Erantzuna:

---

Dosierra: 710-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Hello Rochapea haur eskolako kartelean "Escuela Infantil-Nursery School" ageri da, baina ez dago euskarazko ordainik.

Erantzuna:

---

Dosierra: 711-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Burgiko Tomas Aita kaleko 1. zenbakiaren parean dagoen zamalanei buruzko seinalean informazio guztia ez dago euskaraz idatzia: "LUNES A VIERNES", "SABADOS" edo "30 minutos" ageri dira.

Erantzuna:

---

Dosierra: 714-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Burgiko Tomas Aita zeharkalean dagoen estoldako inskripzioa ez dago euskaraz idatzia; "AYUNTAMIENTO SANEAMIENTO PAMPLONA" ageri da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 715-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Aita Maceda kaleko 5. zenbakian dagoen ibiaren seinalean informazioa ez dago euskaraz idatzia: "VADO DE 8 A 14 Y DE 16 A 20 H. - AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA- LIC. MPAL. Nº" baino ez da ageri.

Erantzuna:

---

Dosierra: 716-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Antsoain kaleko 2. zenbakiaren parean dagoen zamalanei buruzko zutikako seinalean informazio guztia ez dago euskaraz idatzia: "LUNES A VIERNES", "SABADOS" edo "30 minutos" ageri da eta ez du euskarazko ordainik.

Erantzuna:

---



Dosierra: 717-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko San Blas zeharkalean etxe bateko paretan kalearen izena iragartzen duen kartela dago, baina ez dago euskaraz idatzia "Travesía de SAN BLAS" baino ez da ageri.  
 Erantzuna:

Dosierra: 718-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Artika kalean dagoen ibi iraunkorraren seinalea ez dago euskaraz idatzia.  
 Erantzuna:

Dosierra: 719-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Artika kalearen bukaeran horma batean bada seinale bat ez dagoena euskaraz idatzia. Honakoa ageri da: "¡PELIGRO! CARGA SUSPENDIDA".  
 Erantzuna:

Dosierra: 720-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Artika kalearen bukaeran horma batean bada seinale bat ez dagoena euskaraz idatzia; ondokoa ageri da: "ATENCION PASO DE CAMIONES".  
 Erantzuna:

Dosierra: 721-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Sanferminetako egitaraua ez dut euskaraz jaso, gaztelania hutsean da. Euskarazkoa eskatu dut eta egun batzuen buruan jasoko dudala esan didate.  
 Erantzuna:

Dosierra: 722-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Civicanen ondoan bada familiari eskainitako eskultura bat. Eskulturaren azpiko inskripzioa ez dago euskaraz idatzia: "FAMILIA - MONUMENTO ERIGIDO POR".  
 Erantzuna:

Dosierra: 723-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko udaletxean entzierroaren ibilbidea nondik den adierazten duen seinalea ez dago euskaraz idatzia. "Encierro" ageri da.  
 Erantzuna:

Dosierra: 724-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Iruñeko Fitero Monasterioa kalean aparkatzea debekatua dagoela adierazten duen seinalea dago. Inskripzioak ez daude euskaraz idatzia: "SALIDA DE VEHICULOS – PERMANENTE" ageri da.  
 Erantzuna:

Dosierra:	725-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Tennis elkartearen ondoan dagoen ibi iraunkorraren seinalean informazioa ez dago euskaraz idatzia: "VADO PERMANENTE - AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA - LIC. MPAL. Nº" baino ez da ageri.
Erantzuna:	
Dosierra:	726-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Fitero Monasterioa kalean dagoen lantegi profesionaleko karteletan informazioa ez dago euskaraz idatzia, ezta Udalaren irudi korporatiboa ere: "Taller Profesional - AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA".
Erantzuna:	
Dosierra:	727-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Artika kalean aparkatzea debekatua dagoela adierazten duen zutikako seinale biribila dago. Azpian duen oharra ez dago euskaraz idatzia: "EXCEPTO RECOGIDA RESIDUOS URBANOS de 8 h. a 15 h." baino ez da ageri.
Erantzuna:	
Dosierra:	728-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Arrotxapea auzoan motozikletendako eta 2 gurpileko ziklomotorrendako soilik den aparkalekua dela dioten zutikako seinaleak daude. Euskarazko testua gaztelaniazkoa baino kolore argiagoarekin dago idatzia eta urrunera irakurtzea zaildu egiten du horrek.
Erantzuna:	
Dosierra:	729-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Txantrea auzoan motozikletendako eta 2 gurpileko ziklomotorrendako soilik den aparkalekua dela dioen zutikako seinaleak daude. Euskarazko testua gaztelaniazkoa baino kolore argiagoarekin dago idatzia eta urrunera irakurtzea zaildu egiten du horrek.
Erantzuna:	
Dosierra:	731-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Marcelo Zelaieta etorbidean tren geltokira joateko zuzen jarraitu behar dela dioen zutikako seinale horian euskarazko testuaren tamaina gaztelaniazkoarena baino txikiagoa da.
Erantzuna:	
Dosierra:	732-2013
Erakundea:	IRUÑEKO UDALA
Arrazoia:	Iruñeko Txantrea auzoan zamalanei buruzko zutikako zenbait seinale daude eta informazio guztia ez dago euskaraz idatzia: "LUNES A VIERNES" eta "SÁBADOS" ageri dira.
Erantzuna:	

---

Dosierra: 733-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Txantrea auzoan bidea emateko adierazten duten zenbait seinale daude, zenbait semafororen azpian, "CON SEMAFORO APAGADO O INTERMITENTE" dioten mezua ez dago euskaraz idatzia.

Erantzuna:

---

Dosierra: 734-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Vergel kale inguruan Santiagoko bidea, Zumalakarregiren atea, San Pedro zubia eta "Jesús y María"- ra nondik joaten den azaltzen duten zutikako seinale geizidunetan informazioa euskaraz ere idatzia dagoen arren, euskarazko testuaren tamaina gaztelaniazkoarena baino txikiagoa da.

Erantzuna: ALBERTO TOMÁS, IRUÑEKO UDALEKO TURISMO TEKNIKARIA: *"Seinaleak Ordenantza hori bete dezaten ordezkatu eta egokituko dira, betiere narriatuta daudenean edota jatorrian zuten funtzioa betetzeari uzten diotenean"*.

---

Dosierra: 735-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Anelier pasealekuan Udalaren bizikletak alokatzeko tokian dagoen zutikako seinalean informazioa euskaraz ere badagoen arren, euskarazko testuaren tamaina gaztelaniazkoarena baino txikiagoa da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 736-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Vergel kale inguruan Txantrea auzora joateko ezker hartu behar dela eta hiriaren erdialdera joateko eskuin hartu behar dela dioten zutikako bi seinale daude, bata bestearen azpian. Txantrearenean ez da euskarazko izena ageri eta hiriaren erdialdearenean, euskarazko testua gaztelaniazkoa baino txikiagoa da.

Erantzuna: ALBERTO TOMÁS, IRUÑEKO UDALEKO TURISMO TEKNIKARIA: *"Seinaleak Ordenantza hori bete dezaten ordezkatu eta egokituko dira, betiere narriatuta daudenean edota jatorrian zuten funtzioa betetzeari uzten diotenean"*.

---

Dosierra: 737-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Magdalena zubian dagoen zutikako informazio-seinalean zubiaren izena euskaraz idatzia dagoen arren, gaztelaniazko testua baino askoz letra txikiagoarekin idatzia dago.

Erantzuna:

---

Dosierra: 738-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Txantrea auzoko Lakuntza kalean etxe bateko paretan kalearen izena iragartzen duen kartela dago. Euskaraz idatzia ez egoteaz gain, ez du herriaren izen ofiziala errespetatzen; "CALLE DE LACUNZA" ageri baita.

Erantzuna:

---

Dosierra: 739-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Done Jakue plazan Santo Domingo merkatura ongi etorria egiten duen afixa bat dago eta testua gaztelaniaz eta ingelesez ageri da soilik. Ez dago euskarazko ordainik.  
 Erantzuna:

Dosierra: 740-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Ekaineko uholdeak direla eta, Arrotxapea auzoan, Arga ibaiaren ondoan dagoen farola batean, kaltetutako bizilagunei zuzendutako udaltzaingoaren oharra gaztelania hutsean dago.  
 Erantzuna:

Dosierra: 741-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Ekaineko uholdeak direla eta, Arrotxapea auzoko etxe bateko atarian kaltetutako bizilagunei zuzendutako udaltzaingoaren oharra gaztelania hutsean ageri da. Ez dago euskarazko ordainik.  
 Erantzuna:

Dosierra: 742-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: San Roqueko Media Luna eta Takonerako bastioira nondik joan adierazten duten zutikako seinale gezidunak gaztelaniaz eta euskaraz ageri dira, baina euskarazko testua tamaina txikiagoan dago eta lehenengo kasuan euskarazko izena gaizki dago.  
 Erantzuna:

Dosierra: 743-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Takonerako sarreran, bertako ataria noiz eraiki, eraitsi eta berreraiki zen adierazten duen harrizko inskripzioan parkearen izena gaztelaniaz dago soilik.  
 Erantzuna:

Dosierra: 744-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: Azpilagaña eta Arrosadia, hau da aparkatze mugatuko 3. eremuko auto batean ageri den bizilagun txartel batean informazio ia guztia gaztelanian dago; Sector 3, Tarjeta de residente. Ez dago euskarazko ordainik.  
 Erantzuna:

Dosierra: 755-2013  
 Erakundea: IRUÑEKO UDALA  
 Arrazoia: San Nicolas karrikan ageri den "Antigua Rua de las Tornerías" kartela gaztelania hutsean dago. Ez dago euskarazko ordainik.  
 Erantzuna:

Dosierra: 757-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: San José plazan uda partean jarritako abuztuko "Version-ando" musika zikloa iragartzeko eskenatokian behealdean jarritako kartel horizontala gaztelaniaz eta euskaraz dagoen arren, euskara beste kolore batean ageri da eta zailagoa da irakurtzeko.

Erantzuna:

Dosierra: 786-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arazuri Doktorea Pasealekuan dagoen izen bereko mediku eta historialariaren omenezko oroitarriaren oinarrian gaztelania hutsean dagoen testu bat dago: "Ayuntamiento de Pamplona. Fundación Caja Navarra. Mayo 2003". Ez dago euskarazko ordainik.

Erantzuna:

Dosierra: 787-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udaleko Compañía kaleko Zentroan dauden ordenagailuetako batean ohar bat ageri da: "Aviso: para realizar impresiones debe avisar a la persona de la sala. 2 copias por persona". Testua gaztelania hutsean dago. Ez dago euskararen arrastorik.

Erantzuna:

Dosierra: 788-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udaleko Compañía kaleko Zentroaren metakrilatozko plaka elebiz dago, baina euskarazko testuaren tamaina txikiagoa da eta kolore apalago batean dago.

Erantzuna:

Dosierra: 789-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: San Nikolas elizaren inguruko informazioa ematen duen argibide-taulan elizaren izena euskaraz tamaina txikiagoan ageri da eta euskarazko azalpena motzagoa da gaztelaniakoarekin alderatuta. Horretaz gain, eliza eta mezen ordutegia agertzen duen testua gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

Dosierra: 791-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Xabier kaleko plakan ageri den testua "Calle de Javier (San Francisco)" gaztelania hutsean dago. Euskarazko ordainik ez da.

Erantzuna:

Dosierra: 813-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Gayarre Antzokiaren web gunearen bidez sarrerak erosten dituzularik, entradas.com-en atarira eramaten zaitu. Bada, web gune horrek ez duenez euskarazko bertsiorik -gaztelania, katalana, ingelesa eta frantsesezkoa baditu-, ezin izan dut sarreraren erosketa euskaraz burutu.

Erantzuna:

Dosierra: 814-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Azaroaren 13an 18:00ak aldera Gayarre Antzokiko leihatilan izan nintzen ikuskizun baterako sarrerak erosten. Saltzaileari euskaraz zuzendu nintzaion, baina ez zekiela euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskatu zidan. Ondorioz, ezin izan nuen euskaraz mintzatu. Saltzailea ez zen duela urte pare bat egoten zena; lehen 40 urte inguruko emakumea egoten zen eta atzokoan neska gaztea zen. Duela pare bat urte arrazoi berarengatik kexa paratu nion Iruñeko Udalari, eta orain langile berria hautatu duen arren, ez da euskalduna.

Erantzuna:

Dosierra: 816-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Gayarre antzokian eskainiko duten Herritmoa ikuskizunerako sarrerak erosi ditut. Sarreretan ez da hitz bat bera ere euskaraz idatzia.

Erantzuna:

Dosierra: 817-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Gayarre Antzokiaren web gunearen bidez ikuskizun baterako sarrerak erosten saiatu naiz. Web gunearen euskarazko bertsioaren bidez ezin izan dut erosketa burutu, erosketa prozesuari buruzko informazioa ematen duen orritik aurrera ez dabil eta; bertan ageri den "Sarrera erosi" aukeran sakatu dut zenbait aldiz, baina ez du aitzinera egiten.

Erantzuna:

Dosierra: 818-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Gayarre Antzokiko 2013ko urritik 2014ko urtarrila bitarteko egitarauaren berri ematen duen esku-orria jaso dut Gayarre antzokian. Ikuskizunen berri ematen duen aldean, euskarazko informazio ia guztiak gaztelaniazkoak baino letra kolore argiagoa du eta horrek asko zailtzen du irakurketa. Beherapenei buruzko informazio ematen duen aldean berriz, informazioa ez dago euskaraz idatzia, gaztelania huts-hutsean baizik.

Erantzuna:

---

Dosierra: 956-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Kale izendegia espainolez bakarrik, Donibanetik Sanduzelaira jeisten zaren aldapan, zubia pasa eta gero.

Erantzuna:

---

Dosierra: 960-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko La Olivako monasterioa eta Iratxeko monasterioa kaleen artean dagoen biribilgune ondoan, Loren kabia lore-dendaren paretsuan, dauden zutikako seinaleetan informazioa euskaraz dagoen arren, gaztelaniazko testuak baino tamaina txikiagoa ala kolore argiagoa du: hiriaren erdialdea, epaitegiak, udaltzaingoa eta aparkalekuak non diren adierazten dute seinale horiek. Bestalde, auzoaren izena ez dago euskaraz idatzia, "San Juan" baino ez da ageri.

Erantzuna:

---

Dosierra: 961-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko La Olivako monasterioa eta Belateko monasterioen kaleen artean dagoen biribilgune ondoan, Ozone dantzalekua eta BM supermerkatuaren artean, dagoen zutikako seinalea ez dago euskaraz idatzia; hiriaren erdialdera nondik joan adierazten du seinaleak: "centro ciudad".

Erantzuna:

---

Dosierra: 965-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Belateko monasterioaren kalean, Baiona etorbidearekin elkartu baino lehentxeago, dagoen zutikako seinalean informazioa euskaraz dagoen arren, gaztelaniazko testuak baino tamaina txikiagoa du; hiriaren erdialdera eta ospitaletara nondik joan adierazten du bi plakek.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1045-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arrazoia: Arrotxapean dagoen Iruñerriko garraioari buruzko bide seinale honek ez du euskararen ordenantza betetzen.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1046-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arrotxapea auzoko hiri-garraioko seinale honek ez du euskararen ordenantza betetzen, izan ere gaztelania hutsean baitago

Erantzuna:

---

---

Dosierra: 1047-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arrotxapea auzoko hiri-garraioko seinale honek ez du euskararen ordenantza betetzen, izan ere gaztelania hutsean baitago.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1048-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Sanduzelaiko errotondan hiriko hainbat tokitara joateko oharrak biltzen dituen zutikako seinaleak ez du euskararen ordenantza betetzen. Euskarazko testuak txikiagoak dira eta zailtasun gehiagorekin irakurtzen dira.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1049-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arrotxapea auzoan dagoen Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuan dagoen afixan euskarazko testua grisez idatzita dago eta zailtasun gehiagorekin irakurtzen da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1050-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Arrotxapea auzoan dagoen Carbonilla Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioan dagoen sarrerako afixan euskarazko testua kolore grisean dago eta zailtasun gehiagorekin irakurtzen da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1059-2013

Erakundea: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Aquabox enpresa publikoaren publizitatea jaso nuen postontzian eta ele bietan zegoen arren, euskara bigarren mailan ageri zen, grafia argiagotzeko.

Erantzuna:

---

Dosierra: 225-2013

Erakundea: ALTSASUKO UDALA

Arrazoia: Altsasuko udaletik, behin eta beste behin, espainiera hutsez jaso ohi ditugu jakinarazpenak eta abar. Idatziz ere, eskatu izan diegu mesedez euskaraz idazteko guri, baina alferrik. Jasotako azken jakinarazpena ere, Altsasuko Udalak izara orokorrean abiatutako ikuskatze jarduketei buruzkoa, espainierazko teknolekto zabar eta ulergaitz batean helarazi digute.

Erantzuna:

---

Dosierra: 527-2013

Erakundea: ALTSASUKO UDALA

Arrazoia: Altsasuko Udaleko Berdintasun Sailak ikastaroetako irakasleak kontratatzeke osatu duen lan-poltsan euskara meritua da eta ez da ezinbestekoa euskalduna izatea.

Erantzuna:

---



Dosierra: 619-2013

Erakundea: ALTSASUKO UDALA

Arrazoia: Altsasuko Udalak udarako antolatutako jardueren barnean "Udan bateratuz" izenekoetan hizkuntza-eredu ezberdinetako haurrak batera aritu dira.

Erantzuna:

Dosierra: 530-2013

Erakundea: ARAKILGO UDALA

Arrazoia: Arakilgo udaletxera deitu dut goizeko 9:30ak aldera agiri bat eskatzeko. Telefonoa hartu duen langileak (emakumea bera) gaztelaniaz egin dit agurra. Nik euskaraz azaldu nahi izan diot zer behar nuen, baina "por favor, en castellano" lehor samar batekin erantzun didanez, gaztelaniaz egin behar izan dut eskaera.

Erantzuna: *ALKATEA: Zure kexa kontuan harturik langileen arteko protokoloa ezarri dugu gure ordenantzaz zehazten den bezala, herritarrek hautatutako hizkuntzan zerbitzua jaso ahal izateko. Espero dugu hartutako neurriekin horrelakorik gehiagotan ez gertatzea.*

Dosierra: 657-2013

Erakundea: ARAKILGO UDALA

Arrazoia: Arakilgo Udalak bidalitako kontribuzioaren jakinarazpena jaso dut etxeko postontzian. "Errezibo hau helbideratuta dago. Zure kontutik kobratuko dugu" esaldiak kenduta, gainerako azalpen guztiak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna: *ARAKILGO UDALA, Alkatea: "Aldez aurretik, helarazi nahi dizugu bidalitako kontribuzioaren jakinarazpena Nafarroako Gobernutik jasotzen dugula eta bakarrik erdaraz bidaltzen digutela. Elebidun agertzen den testua guk jartzen dugu, idatzi horretan gure eskuetan zerbait jartzeko dagoen aukera bakarra da, beste guztia horrela iristen zaigu eta ezin dugu aldatu. Euskaldunen hizkuntza-eskubideak babesteko, Arakilgo Udaletxetik, Nafarroako Gobernuari eskatuko diogu, jakinarazpen horiek euskaraz eta erdaraz bidaltzeko, Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak eta Arakilgo euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzak diotena betetzeko. Espero dugu Euskara babesteko eta euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko denon artean lan egitea. Gu pausuak ematen ari gara gure euskara ordenantza garatzeko".*

Dosierra: 211-2013

Erakundea: ARTZIBARKO UDALA

Arrazoia: Artzibarko Udalak diru laguntza-eskaeraren gaineko erabakiaren jakinarazpena bidali zuen Iruñeko elkarte batera 2012ko abenduaren 4an. Gutun-eredua elebiduna izan arren, erabakiaren transkripzioa gaztelania hutsean zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 171-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoia: Movistar-ek igortzen dizkidan jakinarazpenetan helbidea ez da euskaraz agertzen eta bertan erran didatenez, berek ez dute euskaraz paratzen ahal, BARAÑAINGO UDALAK beraiei igorritako kale-izendegia ez dagoelako euskaraz.

Erantzuna: BARAÑAINGO UDALA, Alkatea: *Jakitera ematen dizut Barañaingo Udalaren Web orrian agertzen den kale-izendegia bidali diogula Movistar-i, bai euskaraz eta bai erdaraz.*

Dosierra: 345-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoia: Uztaila erdialdean Barañaingo Udalaren abisua jaso dut etxeko postontzian. Idatzizko jakinarazpen bat eskura emateko etxean izan direla, baina etxean inor ez zegoenez, Udaletxera joateko edo telefonoz deitzeko adierazten zait bertan. Abisuaren eredia euskaraz idatzia dago oro har, (Udaletxeko helbidea ez), baina niri dagokidan informazioa ez; abisua utzitako data eta gaia ez daude euskaraz idatziak.

Erantzuna: BARAÑAINGO UDALA, Alkatea: *"Jakinarazpen-ereduak egokitu ditugu, 18/1986 Foru Legeak ezarritakoa betetzen dute orain." (erantzuna ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baino ez daqo).*

Dosierra: 549-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoia: Maiatzean 2013-2014 ikasturterako gure haurraren haur eskolako matrikula egin nuelarik, fidantza ordaindutakoan luzatu zidaten ordainagiria, zigiluko data barne, ez zegoen euskaraz idatzia; ia dena gaztelaniaz baino ez zegoen. Haur eskola Barañaingo Udalarena da eta gure haurra euskarazko haur eskolan dabil.

Erantzuna: BARAÑAINGO UDALA, Alkatea: *"Idazburuan agertzen den gaiarekin lotuta, han aipatutako agirien edukia abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean euskararen erabilera normalizatuari buruz ezarritakoarekin bat etortzeko gure ereduak egokitu ditugula adierazten dizut. Atxikita doaz, horien berri izan dezazun, moldatutako ereduak".*

Dosierra: 558-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoia: Iruñean kokatutako fundazioa gara eta ez dugu euskaraz jaso Barañaingo Udalak igorri digun erantzun-gutuna, nahiz eta guk igorri genuen gutuna euskaraz idatzia zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 624-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoia: Barañaingo Udalak antolatutako ikastaro batean izena eman ondoren, izen-ematea bertan behera utzi nuen. Udalak dirua itzuli egin dit eta horren berri emateko bankuko ordainagirian Udalarri dagozkion informazioa eta kontzeptuak ez daude euskaraz idatziak: "Ayuntamiento de Bara ain", "Devolución curso cultura", "Gastos compartidos" eta emisio-nahiz balio-datak.

Erantzuna:

Dosierra: 678-2013

Erakundea: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoa: Barañaingo herritarrak gara eta hiri-kontribuzioaren zerga dela eta ordaindu beharrekoaren berri ematen duen jakinarazpena jaso berri dugu. Jakinarazpenaren eredia euskaraz idatzia dagoen arren, guri dagozkigun zenbait datu eta kontzeptu ez daude euskaraz: datak, helbidea (3 tokitan), "Vivienda", "Entidad", "Importe"...

Erantzuna:

Dosierra: 253-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA

Arrazoa: Burlatako Udalak elkarte batek eginiko eskaerari erantzunez bidalitako jakinarazpena erdara hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 373-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA - HILARION ESLAVA MUSIKA-ESKOLA

Arrazoa: Alaba musika-eskolan onartua izan dela jakinarazteko sms-a jaso dut Burlatako musika-eskolatik. Mezua gaztelaniaz soilik zegoen, eta gainera, hizkuntza sexista erabiliz "admitido" jartzen baitu.

Erantzuna: *Hanka-sartze bat izan da eta daukagun aitzakia bakarra da bolada horretan oso lanpeturik ibiltzen garela, korrika eta presaka. Hemendik aurrera kontuan hartuko dugu.*

Dosierra: 374-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA

Arrazoa: Burlatako udaleko web orrialdean alabaren musika eskolako matrikula egiteko argibideak begiratzera sartu naizenean, euskarazko bertsioa begiratu dudana arren, lotura sakatzean gaztelania hutsez dagoen "escuela\_musica\_matriculación\_2013/2014" dokumentura bidaltzen nau derrigorrez eta ez dut euskarazko bertsiorik topatzen.

Erantzuna:

Dosierra: 375-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA

Arrazoa: Burlatako udalak kudeatzen duen txipi-txapa ludotekan euskaraz eta gaztelaniaz diren egunak zehaztuak badaude ere, ez dira betetzen eta egunero gaztelaniaz soilik aritzen dira. Gainera, udan honelako banaketarik ez da egingo, euskara hutsean izango den gunerik ez da ziurtatuko, beraz.

Erantzuna:

Dosierra: 547-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA

Arrazoa: Burlatako Udalaren web orrialdetik Udalak antolatutako jardueretan onartuen zerrendak kontsultatzen euskaraz sartu banaiz ere, bertan behera gelditutako ikastaroak zein diren eta jarduerari dagozkien zerrendak gaztelaniaz daude bakarrik.

Erantzuna:

Dosierra: 548-2013

Erakundea: BURLATAKO UDALA

Arrazoa: Irailaren 17an Burlatako Udaletik deia jaso nuen eta ezin izan nuen ez informazioa euskaraz jaso ez euskaraz aritu. Udalak antolatutako kirol-jardueretan emana dut izena eta itxaron-zerrendan egonik beste ordutegi bat eskaintzeko deitu ninduen langileak ez zekien euskaraz.

Erantzuna:

Dosierra: 286-2013

Erakundea: ETXAURIKO UDALA

Arrazoa: Etxauriko Udalak udal langileen hizkuntz profilak deuseztu ditu

Erantzuna:

Dosierra: 575-2013

Erakundea: ETXAURIKO UDALA

Arrazoa: Etxauriko udalak ohar idatzia utzi zidan etxean otsailaren 6an. Etxean ez nengoenez ezin izan zidatela jakinarazpena eskura eman adierazten zidaten eta udal bulegoetatik pasatzeko haren bila. Jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.

Erantzuna:

Dosierra: 533-2013

Erakundea: LIZARRAKO UDALA

Arrazoa: Lizarrako kultur etxean egun hauetan ikus daitekeen erakusketako lanen izenburuak gaztelania hutsean idatzita daude.

Erantzuna:

Dosierra: 534-2013

Erakundea: LIZARRAKO UDALA

Arrazoa: Lizarrako Musika Eskolako errotuluak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Dosierra: 70-2013

Erakundea: OTSAGABIKO UDALA

Arrazoa: Otsagabiko Udalak erdara hutsean bidali zion Iruñeko elkarte bati diru laguntza-eskaeraren gaineko akordioaren jakinarazpena.

Erantzuna:

Dosierra: 439-2013

Erakundea: ZIORDIKO UDALA

Arrazoa: Ziordiko Udalak gaztelania hutsean luzatzen ditu erroldatze-ziurtagiriak

Erantzuna:

Dosierra: 222-2013

Erakundea: NUFK - NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA

Arrazoa: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak martxoaren 18an, Nafarroako hainbat udalekin burututako bileran banatutako dokumentazioa gaztelania hutsean zegoen, oso osorik.

Erantzuna:

## MANKOMUNITATEAK

Dosierra:	109-2013
Erakundea:	BIZI GARBIA SINDIKATU ANITZA
Arrazoia:	BIZI GARBIA SINDIKATU ANITZAren urtarrileko egunkarian, 24. zenbakiduna, sar hitza ele bietan agertzen bada ere, gainerateko artikuluko guziak frantses hutsean dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	434-2013
Erakundea:	BIZI GARBIA SINDIKATU ANITZA
Arrazoia:	DONIBANEKO HERRIKO ETXEAK ETA BIZI GARBIA SINDIKATU ANITZAK partaidetzan Paul Jovet baratze botanikoan antolatu ekimenen berri donibaneko etxeetan banatu esku orria frantses hutsean zen. Bertan, konpostatzeko eta norberaren ardurapeko baratzezaintzari buruzko iniziazioak eta martxotik urrira bitarteko animazioen berri ematen zuen.
Erantzuna:	
Dosierra:	588-2013
Erakundea:	ATABAL
Arrazoia:	Biarritzeko ATABAL antzokiaren webgunea frantses hutsean da ( <a href="http://www.atabal-biarritz.fr">www.atabal-biarritz.fr</a> )
Erantzuna:	
Dosierra:	844-2013
Erakundea:	BIL TA GARBI Hondakinen Tratamenduko Sindikatu Anitza
Arrazoia:	Ekainaren 21ean prentsurreko batetara joan naiz eta BIL TA GARBI sindikatu anitzeko ordezkariak, lehendakariak barne, prentsurrekoa osoki frantsesez egin dute, nahiz eta euskalduna den.
Erantzuna:	
Dosierra:	889-2013
Erakundea:	AGGLOMÉRATION CÔTE BASQUE - ADOUR
Arrazoia:	Miarritze gairi AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR elkargoak herritarren eskura ezarri zikinontzien oharrak frantses hutsean dira "Trier plus fort! Cessons de jeter sans y penser! Trier le verre on a tous à y gagner" diote
Erantzuna:	AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR sindikatuak ez ditu zikinontzietako informazioak euskaratu nahi izan, horrek, gaskoieraz ere egitea eragingo zuelako. Idatzizko elementuen aniztasunak eta leku eskasak ez zuen informazio argi eta eraginkor bat egiten uzten. Hala ere, informatzen zaitut, bereizketaren anbajadoreak ditugula, etxez-etxe ibiltzen direla informazioa emateko, eta seiren gain bi euskaldunak direla eta horrela euskaraz erantzun dezakete nahia adierazten duten herritarrei. Langile horiek, ikastoletan eta eskola elebidun publikoetan interbentzioak egiten dituzte, euskaraz, komunikazio euskarri berezietan oinarrituz. Azkenik, Aglomerazioak indarrak egiten ditu 75000 aletan banatzen duen gutun tematikoan. Izan ere, bertan euskarazko eta gaskoierazko itzulpenak agertzen baitira.

Dosierra: 891-2013

Erakundea: AGGLOMÉRATION CÔTE BASQUE - ADOUR

Arrazoia: Miarritzeko Herriko Etxearen ondoan CHRONOPLUS joan-jinen linea hartu nuen azaroaren 26an. Garraio molde hori AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR elkargoak kudeatzen du. Izan ere, autobus paradan izenburua euskaraz agertzen bada ere, gainerateko informazioak baita esku-orrietan agertzen diren informazioak frantses hutsean dira. Bestalde autobusari begira emandako informazioak frantsesez, gazteleraz eta ingelesez dator, baina ez euskaraz: "à l'arrêt stoppez votre moteur", "stop your engine when parked", "pare su motor cuando aparcado".

Erantzuna:

Dosierra: 892-2013

Erakundea: AGGLOMÉRATION CÔTE BASQUE - ADOUR

Arrazoia: AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR elkargoaren webgunea frantses hutsean da ([www.agglo-cotebasque.fr](http://www.agglo-cotebasque.fr)).

Erantzuna:

Dosierra: 893-2013

Erakundea: AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR

Arrazoia: AGGLOMERATION COTE BASQUE-ADOUR elkargoak plazaratzen duen informazio aldizkaria, LA LETTRE DE L'AGGLO, 2013ko uztailakoa frantses hutsean jaso dut.

Erantzuna:

Dosierra: 182-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Arrazoia: Urtarrilaren 8an 15:30ak aldera Barañaindik abiatu zen 7 lineako autobusean urtarrilaren 2tik aitzinera indarrean jarritako tarifa berrien eta autobusen ibilbide berrien informazioa zuten esku-orriak zeuden herritarren eskura. Bada, esku-orri horietan informazio garrantzitsu eta berri guztia ez zegoen euskaraz: tarifak eurak, linea berriei buruzko informazioa nahiz ordutegietan eta ibilbideetan aldaketak dituzten lineei buruzko informazioa.

Erantzuna:

Dosierra: 463-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Gaur, 8:50etan, 16. lineako 329 autobusa, 3058-HLB matrikuladuna hartu dut, eta pantailatxo urdinean soilik "parada solicitada?" agertzen zen, euskarazko ordainik gabe. Horrez gain, leihatila guztietan "Salida de emergencia" jartzen du, eta ez dago euskarazko testua duen itsaskinik.

Erantzuna:

Dosierra: 625-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Azaroaren 5ean Iruñerriko Mankomunitateak igorritako e-maila jaso dut: "5º contenedor (actividades 8-10 noviembre)", gaia bera ez dago euskaraz idatzia. Mankomunitatea Barañainen burutzen ari den kanpainaren baitan zenbait e-mail jaso ditut hondarreko aste hauetan eta orain artekoak ez bezala, berriki jaso dudak e-maila ez dago euskaraz idatzia. Mezuan ageri den jarduera bakoitzaren bukaeran dagoen "Ver mas"-en klikatu eta Mankomunitatearen webgunera eramaten zaitu. Bada informazio gehigarri horietako gehienak ez daude euskaraz ezta ere. Honetatik ondorioztatzen ahal dudanez, jarduera horiek ez dira euskaraz izanen.

Erantzuna:

Dosierra: 646-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Barañaingo bizilagunak gara eta 5. edukiontzia erabileran parte-hartzeko izena eman dugu. Informazioa jasotakoan eman dizkiguten euskarrietan, liburuxka, eranskailuak..., informazioa euskaraz badagoen arren, euskarazko testuetan letren tamaina gaztelaniazkoarena baino txikiagoa da eta kolorearen kontrastea ere apalagoa du. Desberdintasun hori nabarmenagoa da kanpainari dagozkion leloetan: Biziberritu organikoak; Hobeki bereizi, biziberritu organikoak...

Erantzuna:

Dosierra: 702-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Billabesan ibiltzeko txartelean dirua sartu dut eta eman didaten ordainagiria ez dago euskaraz idatzia; den-dena gaztelania hutsean baino ez dago.

Erantzuna:

Dosierra: 1027-2013

Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Iruñerriko Mankomunitatetik lau hilean behin bidaltzen dituzten uraren ordainagirietan zenbait kontzeptu ez dago euskaratuta, esatera: "onsumo doméstico", "cuota fija abastecimiento", "canon de saneamiento", "cuota fija de saneamiento", e.a. Bestalde, euskara bigarren mailan ageri da; gaztelaniaz testua beltzean dago eta ongi irakurtzen da eta euskaraz, berriz, gris argian.

Erantzuna:

Dosierra: 356-2013

Erakundea: SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Arrazoia: Sakanako Mankomunitatean epe jakineko lan kontratu gehienak gaztelaniazko agirietan sinatzen dira.

Erantzuna:

---

Dosierra: 546-2013

Erakundea: SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Arrazoia: Arbizuko kanpinean kokatu beharreko kontenedoreak direla eta, deia jaso nuen irailaren 11n Sakanako Mankomunitatetik. Deitu zuen pertsona horrela zuzendu zen niregana: "Buenos días, le llamo por el tema de los contenedores..." Nik, harri-harri eginda eta sinistu ezinik, nondik deitzen zuen galdetu eta Mankomunitatetik deitzen zuela konfirmatu zidan.

Erantzuna:

---

Dosierra: 440-2013

Erakundea: DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA

Arrazoia: Atzo goizean Durangoko atletismo-pistan bertako zerbitzuak (komunak, harmailak...) non diren azaltzen zuten erroteruak ikusi nituen, erdara hutsean.

Erantzuna:

---



# 8. SEKTORE SOZIOEKONOMIKOA

AI SI AL DIA

Dosierra:	849-2013	
Erakundea:	ADOUR LOISIR	IEH
Arrazoia:	ADOUR LOISIRS ATURRI ATSEGINALDI erakundeak Coursic deitu itsasontziarekin Aturri gainean ibilaldiak antolatzen ditu. Bere publizitatea egiteko zabaldu esku-orria frantses hutsean eskuratu nuen, bi hitz soilik ziren euskaraz, egitura beraren izena eta <i>renseignements/xehetasunak</i> .	
Erantzuna:		
Dosierra:	1000-2013	
Erakundea:	ANTIGUO BERRI ZINEMAK	EAE
Arrazoia:	Zineko sarrera-txartela gaztelania hutsean jaso genuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	295-2013	
Erakundea:	CINES ITAROA	NAF
Arrazoia:	CINES ITAROA n izan nintzen maiatzaren 5ean. Luzatu zizkidaten sarrerak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Dosierra:	296-2013	
Erakundea:	CINES ITAROA	NAF
Arrazoia:	Maiatzaren 5ean CINES ITAROA n izan nintzen arratsaldeko 20:00etan. Euskaraz egin nion langileari baina hark ez zekienez gaztelaniaz jarraitu behar izan nuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	58-2013	
Erakundea:	GOLEM Alhóndiga	EAE
Arrazoia:	Internet bidez erosi ditugu Golem Alhóndiga zinemarako sarrerak eta webguneak ez du euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	957-2013	
Erakundea:	IL CIRCO ITALIANO	EAE
Arrazoia:	Abenduaren 24an Ilunben (Donostian), Zirko Italianoren emanaldia iragarri dute kartelen bitartez. Donostian ikusitako kartel guztiak erdera hutsean aurkitzen dira.	
Erantzuna:		
Dosierra:	320-2013	
Erakundea:	LAST TOUR INTERNATIONAL	EAE
Arrazoia:	Bilbao BBK Live musika jaialdiaren Twitter kontutik <@bilbaobbklive> < <a href="http://www.twitter.com/bilbaobbklive">http://www.twitter.com/bilbaobbklive</a> > ez dituzte euskaraz argitaratzen txioak, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		

Dosierra:	105-2013	
Erakundea:	LES ECRANS LUZIENS	IEH
Arrazoia:	Donibane Lohizuneko Le Select zinema kudeatzen duen LES ECRANS LUZIENS elkarteak urtarrilaren 22an Banksyri buruzko "Faites le mur" dokumentala proiektatu zuen, mahai-inguru bat antolatuz. Gaualdi berezia zen eta karia horretara plazaratu euskarria frantses hutsean iaso nuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1054-2013	
Erakundea:	MONTE IGUELDO	EAE
Arrazoia:	Abenduaren 27an Igeldo Parkera igo nintzen kotxez lagun batekin. Parkeko sarrerako langileak ez zekien euskaraz (ez zigun ezta egun ona ere euskaraz egin) eta beraz parkera sartzeko ordaindu beharrekoa eta harrera gazteleraz egin zigun.	
Erantzuna:	<i>MONTE IGUELDO PARKEKO ZUZENDARIA: nahiz eta hasiera batean herritarrari emailen bidez abenduaren 27an parkearen sarreran zeuden langileak ohikoak ez zirela erantzun, langileekin egun horretaz hitz egin ondoren, jakin ahal izan dugu sarrera bateko langilea eukalduna zela. Izan ere, gure langileen %70 elebiduna baita eta zenbait kasutan hiru edo laueleduna ere. Dena dela, bezeroak espero zuen zerbitzua jaso ez izana "biziki sentitzen duqu", normalean ez baita horrelakorik aertatzen.</i>	

## ARGITALPENAK

Dosierra:	841-2013	
Erakundea:	DENAK ARGIAN	EAE
Arrazoia:	Ekainean, Senpereko etxeetan parrokiak banatu DENAK ARGIAN aldizkariaren 64. alean artikulua bat salbu (pilota ttiki izenburuarekin) gainerateko guzia frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	260-2013	
Erakundea:	EDITORIAL ESPASA CALPE	NAF
Arrazoia:	ESPASA CALPE S.A.k Agoizko herritarrari CORREOSen bidezko bidalketaren berri emateko sms mezua gaztelania hutsean idatzea aukeratu zuen; herritarrak ondoko mezua jaso zuen apirilean: "Su envio PR10(...) de ESPASA-CALPE, S.A. está a su disposicion en la oficina de ARRIBA. 35AOIZ/AGOITZ".	
Erantzuna:		
Dosierra:	875-2013	
Erakundea:	EDITIONS TROIS PETITS POINTS - ETC MAGAZINE	IEH
Arrazoia:	Urriaren 30ean, Donibane LohizunekoPariès dendan ETC MAGAZINE aldizkariaren udazkeneko alea, 28. Zenbakia, eskuragai eman zuten. Bertan aldizkaria hartu dut eta frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	435-2013	
Erakundea:	HIRIA ARGITALETXEA	IEH
Arrazoia:	HIRIA argitaletxearen webgunea ezin da euskaraz bistaratu; gaztelaniazko bertsioa besterik ez du.	
Erantzuna:		

## HEDABIDEAK

Dosierra:	929-2013	
Erakundea:	DIARIO DE NOTICIAS Nafarroa	NAF
Arrazoia:	Nafarroako Diario de Noticias egunkarira deitu dut eta telefonoa hartu duen laguna erdalduna da. Goizeko 11:30ean egin dut telefono deia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	403-2013	
Erakundea:	EL CORREO DIGITAL S.L.U.	EAE
Arrazoia:	EL CORREOK maiatzean Bizkaiko 1. Formazio Saloia antolatu zuen. Berau iragartzeko jarritako kartel erraldoietan informazioa ez zegoen euskaraz idatzia. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila zen babeslea.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1014-2013	
Erakundea:	EL CORREO	EAE
Arrazoia:	Gaurko (2013/12/09) Correo egunkariak, beste hainbatetan bezala, Aizkorri mendiaren izena modu zabarrean dakar: "Aitzgorri". Bada, gaztelania hutsezko egunkari horrek euskarazko berbak/esaldiak/testuak ageri dituen gehien-gehienetan txarto idatzita, edozelan, ekartzen ditu. Bada "Aitzgorri" formak ez dauka inongo zentzurik euskal fonetikan. Ea Correo kazetak Euskaltzaindiarekin sinatu duen hitzarmena tarteko zer edo zertan nabaritzen hasten den; ea Correo euskararekin eta euskaldun herritarrokin duen jarrera "normalizatzen" hasten den behingoa.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1034-2013	
Erakundea:	EL CORREO	EAE
Arrazoia:	El Correok antolatu eta Santurtziko Udalaren laguntza duen " <i>Tus mejores fotos de Santurtzi 2013</i> " lehiaketako iragarkia gaztelania hutsean agertu da El Correo egunkarian.	
Erantzuna:		
Dosierra:	596-2013	
Erakundea:	HEBDO +- Frédéric Filali-	IEH
Arrazoia:	Otsailaren 18tik martxoaren 3ra doan l'HEBDO+ aldizkaria eskuratu dut, 199. Zenbakia frantses hutsean da.	
Erantzuna:		

---

Dosierra:	1044-2013	
Erakundea:	GARA	EAE
Arrazoia:	Gara egundariaren kontrazalean aspalditik eta egunero-egunero argitaratzen duten " <i>Jarrai gaitzazu</i> " esaldia ez dago ongi. " <i>Jarrai iezaguzu</i> " izan beharko luke.	
Erantzuna:		

---

Dosierra:	180-2013	
Erakundea:	TV13 S.A.	EAE
Arrazoia:	TV13 telebistak martxoaren 3an, gaueko El cascabel al gato saioan GIPUZKOA izendatzeko erabilitako toponimoak ez du legea betetzen. Pantailan agertutakoa: Juan Carlos Cano. Portavoz PP Guipúzcoa.	
Erantzuna:		

---

KIROLA

Dosierra:	476-2013	
Erakundea:	ACT - TRAINERU KLUBEN ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Jose Luis Korta, ACTko kideak, abuztuaren 14an eta 17an zenbait adierazpen egin zituen Euskadi Irratiko <i>Tostartean</i> saioan (euskaraz). Adierazpen horiek zirela-eta ACTko Zuzendaritza Batzordeak Jose Luis Kortaren aurkako diziplina-espeditentea abiatzeko eskatu zion ACTko Diziplinako Epaille Bakarrari, eta honek 5/13 zigor prozedura abiarazi zuen J.L. Kortaren aurka. Jose Luis Kortak euskaraz aurkeztu zituen prozedura horren barruko frogabideak. Epailleak, irailaren 3ko probidentzia bidez jakinarazi zion 5/13 prozeduraren barruan aurkezten dizkion idazkiak gaztelaniaz aurkeztu behar dituela ezinbestean, eta hala egin ezean ez dituela onartuko. Probidentziaren aurka jotzerik ez dagoela ebatzi du gainera epailleak.	
Erantzuna:	ACTko PRESIDENTEA: <i>ACT arau propioak dituen elkarte pribatua dela aintzat hartuz, eguneroko jarduneko ohiturak zuzenbide iturri gisa har daitezke, Kode Zibileko 1. go artikulua dioenaren arabera. Elkarteko espeditentetan gaztelania erabili izana ez da legea edo orden publikoaren aurkako, eta beraz, horrek elkarteak gaztelera erabili izanaren legezatasuna bermatzen du.</i>	
Dosierra:	918-2013	
Erakundea:	AVIRON BAYONNAIS	IEH
Arrazoia:	AVIRON BAYONNAIS RUGBY PRO kirol taldearen webgunea frantses hutsean da ( <a href="http://www.abrugby.fr">www.abrugby.fr</a> ).	
Erantzuna:		
Dosierra:	768-2013	
Erakundea:	BASKONIA	EAE
Arrazoia:	Saski Baskonia Gasteizko saskibaloitako Twitterreko profil ofizialak gaztelera txiokatzen ditu mezu guztiak. Azaroaren 7an salbuespena egin zuten, baina txioa ingelesez idatzi zuten. Euskaren arrastorik ez da.	
Erantzuna:	GERENTEA: <i>Gustatuko litzaiguke gure tuit guztiak euskaraz eta ingelesez ematea ere, baina denboraldi honetan aurrerapausua eman duguastean behin ingelesezko (Euroleague-a denean) bat eta euskarazko (Endesa liga denean) bat sartuz; lehenago egiten ez zen zerbait. Horretaz gain, euskaraz galdetzen zaigunean hizkuntza berean erantzuten dugu eta duela gutxi gure webguneko atal finkoak euskaratu ditugu. Taldearen konpromisoa garbia da dio, eta gure komunikazio ekintza guztietan euskararen presentzia areagotzen saiatzen gara ahal dugun neurrian.</i>	
Dosierra:	985-2013	
Erakundea:	BILBAO BASKET	EAE
Arrazoia:	Bilbao Basket taldearen bazkide txartelean bi kontzeptu ageri dira euskara eta gaztelaniaz (denboraldia eta babeslea) eta gainontzekoak gaztelera hutsean: <i>puerta, sector, fila, asiento</i> . Bestetik, partidu egunetan megafoniatik ematen diren mezuetan gaztelera nagusi da (%75 inguru). Aldundia babesle nagusia dela kontuan hartuta, erdia euskaraz izan beharko litzateke.	
Erantzuna:		

Dosierra:	50-2013	
Erakundea:	CLUB ATLÉTICO OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Osasunak urte hasieran Taxoaren antolatutako Eskola arteko futbol txapelketako sarreretan ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.Dena gaztelaniaz idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	133-2013	
Erakundea:	CLUB ATHLÉTICO OSASUNA	NAF
Arrazoia:	Uztailaren 2an OSASUNA futbol taldearen 900.130.140 telefonora deitu nuen kontsulta bat egiteko. Erantzungailuak esan zituen mezu guztiak gaztelania hutsean zeuden eta telefonoa hartu zidan langilea ez zen euskalduna. Galdetu nion ea euskaldunik zegoen nire kontsulta areitzeko eta ezetz erantzun zidan.	
Erantzuna:		
Dosierra:	169-2013	
Erakundea:	CLUB ATLÉTICO OSASUNA	EAE
Arrazoia:	Otsailaren 28an Arrotxapeako denda batean ikusitako OSASUNAREN kartela gaztelania hutsean zegoen: "C.A. OSASUNA. Temporada 2012-2013".	
Erantzuna:		
Dosierra:	314-2013	
Erakundea:	EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA	EAE
Arrazoia:	Euskadiko errugbi federazioak Chateaulinen jokatzeko hautatutako emakumeen selekzioko jokalariei bidaiaren argibideak emanez maiatzaren 14an bidalitako jakinarazpenean euskara ez da inon ageri, agurrean salbu: " <i>kaixo denori</i> ".	
Erantzuna:		
Dosierra:	242-2013	
Erakundea:	EUSKAL HERRIKO ITZULIA - Bulego Iraunkorra	EAE
Arrazoia:	2013 urteko Euskal Herriko itzuliaren webgune ofiziala gaztelania hutsean zegoen, ekimenak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen duen arren.	
Erantzuna:		
Dosierra:	244-2013	
Erakundea:	EUSKAL HERRIKO ITZULIA - Bulego Iraunkorra	EAE
Arrazoia:	Apirilaren 2tik 6ra burutu zen Euskal Herriko itzuliaren webgune ofiziala gaztelania hutsean zegoen. Itzuliak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen du	
Erantzuna:	KABINETE ZUZENDARIA: <i>Euskal Herriko Itzuliaren antolakuntza arduradunei bideratu diegu zure kexa, hurrengo urterako kontutan izan eta hizkuntza eskubideak bermatu ditzaten. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailetik hurrengo urtean diru-laguntzarik emanez gero, arreta handiaz begiratuko dugu jendeari zuzendutako jakinarazpenetan, web gunea barne, hizkuntza ofizialak agertzea bermatzen dela.</i>	



Dosierra:	245-2013	
Erakundea:	EUSKAL HERRIKO ITZULIA - Bulego Iraunkorra	EAE
Arrazoa:	Apirilaren 2tik 6ra burutu zen Euskal Herriko itzulian errepideetan itzuliaren berri emateko jarri zituzten karteletan euskara hirugarren mailan azaltzen da, gaztelania eta frantsesaren atzetik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	366-2013	
Erakundea:	FUNDACION 5+11 FUNDAZIOA	EAE
Arrazoa:	Herritarra 5+11 FUNDAZIOAK ekainaren 2an antolatutako 3x3 BAKH BASKONIA ekitaldian izan zen. Ekitaldiak goizeko 10etatik arratsaldeko 20ak arte iraun zuen eta ez zen hitz bat bera ere euskaraz entzun. Aurkezleak egu osoan zehar esan zuena eta beste guztia gaztelania hutsean izan zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	367-2013	
Erakundea:	FUNDACION 5+11 FUNDAZIOA	EAE
Arrazoa:	www.fundacion5mas11.org webgunean sartu naiz eta ezin izan dut informazio guztia euskaraz eskuratu, euskarazko bertsioan atal batzuk gaztelaniaz daudelako (albistek, kirol jarduera batzuk) eta beste batzuetan izenburua euskaraz egon arren edukia gaztelaniaz ageri delako (prestakuntza jarduerak, kirol jarduerak).	
Erantzuna:		
Dosierra:	539-2013	
Erakundea:	GIPUZKOAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA	EAE
Arrazoa:	XAKER Kirol Zerbitzuak' enpresak hiru iragarki berdin argitaratu ditu Correo egunkarian, erdara hutsean: " <i>Se necesitan monitores deportivos de todas las disciplinas: musculación, aerobio, ... para diferentes polideportivos de Bizkaia. Enviar curriculum a: kiroldeaia@xakerkirola.com</i> ".	
Erantzuna:		
Dosierra:	25-2013	
Erakundea:	JUANITO OIARZABAL	EAE
Arrazoa:	Iruñeko euskaltegi bateko postontzian "Juanito Oiarzabal"-ek bidalitako gutuna jaso zuten otsailaren 1ean. Bertan bere eskaintzaren berri dakarren esku-orria eta kartela zeuden. Biak ala biak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Dosierra:	97-2013	NAF
Erakundea:	K1T	
Arrazoa:	K1T-ek antolaturiko " <i>La Miguel Indurain</i> " txirrindu-lasterketari buruzko webguneak ez du euskarazko bertsiorik. Hortaz, ezin izan dut izen-ematea euskaraz egin eta ez dut informazioa euskaraz eskuratu.	
Erantzuna:		

Dosierra:	90-2013	
Erakundea:	LEZAMAKO PILOTA ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Lezamako Pilota Elkartek otsailaren 22an Deia egunkarian " <i>Campeonato comarcal de Lezama</i> " iragartzeko argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	671-2013	
Erakundea:	MENDIALDEA KIROL ELKARTEA	NAF
Arrazoia:	Mendialdea kirol elkartek abenduaren 22rako zozketarako egin dituen loteria-billeteak ez daude euskaraz idatziak; gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	195-2013	
Erakundea:	REAL FEDERACIÓN HÍPICA ESPAÑOLA	EAE
Arrazoia:	Martxoaren 9an Asturiasko Hipika Federazioak antolatutako talde arteko txapelketan parte hartzera aurkeztu zen Bizkaiko gaztetxo bat. Lehiaketaz kanpo parte hartu behar izan zuen epailearen arabera aurkeztu zuen lizentzia ez zelako baliozkoa, Espainiako Hipika federazioak luzatua izan arren gaztelaniaz gain euskaraz idatzita zegoelako. (Epailearen esanetan "en una lengua de mierda").	
Erantzuna:		
Dosierra:	948-2013	
Erakundea:	REAL SOCIEDAD	EAE
Arrazoia:	18:30tan. Errealak Gipuzkoa plazan duen denda ofizialean euskaraz egin dieran arren erdara hutsean erantzun didate eta erdaraz egin izan behar izan dut eresketa. Apirilean gauza bera gertatu zitzaidan.	
Erantzuna:		
Dosierra:	560-2013	
Erakundea:	S.D. ALSASUA	NAF
Arrazoia:	Sociedad Deportiva Alsasuak astebururo-astebururo jokatzen diren Nafarroako futbol ligako partidak iragartzeko plazaratzen dituen afixetan hilabetea eta eguna salbu, gainerako informazioa ez dago euskaraz idatzia.	
Erantzuna:	S.D. ALSASUA: hurrengo jardunaldiko kartela igorri digute. Lehen gaztelaniaz zeuden testuak euskarara itzuli dituzte.	
Dosierra:	544-2013	
Erakundea:	S.D.C. ECHAVACOIZ	NAF
Arrazoia:	Etxabakoitzeko kirol eta kultura elkartean, S.D.C. Echavacoiz, bazkide ez direnek bertara sartzeko sarrera erositakoan jasotzen dute txartela ez dago euskaraz idatzia.	
Erantzuna:		

Dosierra: 545-2013  
 Erakundea: S.D.C. ECHAVACOIZ NAF  
 Arrazoa: Etxabakoitz hitzak jatorri euskalduna izan arren eta izen ofiziala horixe den arren, Iruñeko auzo horretako kirol eta kultura elkarteak ez du izen hori errespetatzen eta elkartearen izenean *Echavacoiz* ageri da.

Erantzuna:

Dosierra: 1056-2013  
 Erakundea: UDC ROCHAPEA NAF  
 Arrazoa: Iraila hasieran UDC Rochapea kirol elkarteak 2013-1014rako ekintza egitaraua jaso nuen postontzian. Gaztelania hutsean dago eta, ondorioz, kontsumitzaile euskaldun gisa nire hizkuntza-eskubideak urratzen ditu

Dosierra: 589-2013

Erakundea: URKIROLAK GYM IEH  
 Arrazoa: Azkainen kokatua den URKIROLAK GYM kirol elkartearen izena eman nahi izan dut. Izen-emate orria frantses hutsean da baita kirol elkartearen webgunea ere ([www.urkirolak-gym-saint-jean-de-luz.com](http://www.urkirolak-gym-saint-jean-de-luz.com)).

Erantzuna:

Dosierra: 910-2013  
 Erakundea: UR KIROLAK TRIATHLON IEH  
 Arrazoa: 2013ko ekainaren 18an UR KIROLAK TRIATHLON elkarteak *Le triathlon des Corsaires* lasterketa antolatu zuen. Afitxak eta webgunea frantses hutsean ziren ([www.triathlon-des-corsaires.fr](http://www.triathlon-des-corsaires.fr)).

Erantzuna:

Dosierra: 677-2013  
 Erakundea: UROLA KIROL ELKARTEA EAE  
 Arrazoa: Zumarragako Urola kirol elkarteak 8-11 urte bitarteko gaztetxoentzako futbol ikastaroa antolatu zuen urriaren erdialdean. Ikastaroa ez zen euskaraz izan, gaztelania hutsean baizik.

Erantzuna: S.D. UROLA K.E., Idazkaria: *UROLA K.E. irabazi asmorik gabeko kirol erakundea da; 11 ekipok eta futbol eskolak osatzen dute. Egun 400 gazte baino gehiagori kirol-balioak eta balio-pertsonalak irakasten dizkie. Une honetan jokalarien gurasoek eta adin anitzeko pertsonak zuzentzen dute elkarteak; boluntarioak dira eta elkartearekin konprometituak daude, beren denbora libretik tartea hartu eta futbol munduaz duten jakintza transmititzen dutenak. Ados nago zurekin gure zerbitzua eskatzen duen pertsona orok informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea duela diozunean eta sinetsiezadazu hori horrela izan dadin gure esku dauden ahalegin guztiak egiten ditugula diodanean. Hori dela eta, amorragarria eta lotsagarria iruditzen zait lagun batek ala lagun talde batek zuen erakundean salaketa aurkezteko lana hartu izatea, baina aldiz, gure ekimen eta komunikazioak Euskadiko berezko hizkuntzan bidali ahal izateko boluntario gisa bere laguntza eskaintzera etortzeko duintasuna izan ez izatea.*

KULTURA

Dosierra:	170-2013	
Erakundea:	AGRUPACION FOTOGRAFICA DE NAVARRA - AFCN	NAF
Arrazoia:	AFCN-k martxoko erakusketa bat iragartzeko argitaratutako kartela gaztelania hutsean zegoen. Erakusketa: Maite Caramés. <i>Despertares</i> .	
Erantzuna:		
Dosierra:	840-2013	
Erakundea:	AMOTZEKO BESTA KOMITEA	IEH
Arrazoia:	AMOTZEKO BESTA KOMITEAK animazioan antolatu zituen maiatzaren 18 eta 19an. Animazioen berri ematen zuen egitaraua eta maiatzaren 19ko animazioaren leku aldaketa iragartzen zuen jakinarazpena frantses hutsean jaso nituen etxean.	
Erantzuna:		
Dosierra:	69-2013	
Erakundea:	ASOCIACIÓN LITERARIA PLAZA NUEVA IDAZLEAK	EAE
Arrazoia:	ASOCIACIÓN LITERARIA PLAZA NUEVA IDAZLEAK elkarteak "PRIMER CERTAMEN INTERNACIONAL DE RELATO. ASTE NAGUSIA 2013" iragartzeko argitaratutako kartelak ez zeuden euskaraz idatziak, gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:	<i>ASOCIACIÓN PLAZA NUEVA IDAZLEAK elkartea da lehiaketa horren antolatzailea. Kexa ongi ulertzen dugu, berandu ohartu ginen eta zuzentzeko aukerarik ez genuen izan. Hurrengo edizioetan zuzentzeko asmo sendoa dugu. Hasieratik izan genuen oso garbi lehiaketak elebiduna izan behar zuela, eta horrelaxe izan da baldintzetan baita argitaratutako liburuan ere.</i>	
Dosierra:	416-2013	
Erakundea:	BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA	EAE
Arrazoia:	BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOAREN kanpoaldean jarritako seinale batean oharra ez dago euskaraz idatzia; ZONA PEATONAL baino ez da ageri.	
Erantzuna:	BILBOKO ITSADARRA ITSAS MUSEOA: ZONA PEATONAL zioen seinalea kentzeari ekin diogu, gaztelania hutsean baitzegoen. Horren ordeztu, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz idatzia dagoen seinalea jarriko dugu.	
Dosierra:	1004-2013	
Erakundea:	BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA	EAE
Arrazoia:	Bilboko Itsasadarra itsas museoak gaztelania hutsean argitaratu du publie-reportaia gaurko 2013-12-04- Correo egunkarian. Museoak fundazio batena da eta fundazioko kide dira, besteak beste, honako erakunde publikoak: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Bilboko Merkataritzak Ganbera.	
Erantzuna:		

Dosierra:	1010-2013	
Erakundea:	DURANGOKO AZOKA - GEREDIAGA ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Durangoko Azokan atsedeen-gune moduan atondutako areto eta kafetegitxoan Bautista Muebles y Decoración (Laudio eta Abadiño) etxearen propaganda-folleto sorta ipini dute, gaztelania hutsean. Segurutz bertan sofak -eta doan- instalatzearen laga zaie bertan publizitatea egitea. Edonola ere euskaraz (ere) edo gutxienez euskaraz behar lukeelakoan nago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1013-2013	
Erakundea:	DURANGOKO AZOKA - GEREDIAGA ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Durangoko Azokako aurtengo Ahotsenerako muntatutako karpan "salida de emergencia" errotulua gaztelania hutsean egon da.	
Erantzuna:	GEREDIAGA ELKARTEKO KUDEATZAILEA: <i>egia da herritarrak esandakoa eta barkamena eskatu nahi dugu egindako akatsarengatik. Hurrengo urteko azokan horrelakorik berriro ez gertatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.</i>	
Dosierra:	274-2013	
Erakundea:	CENTRO CULTURAL ANDALUZ - DURANGO	EAE
Arrazoia:	Centro Cultural Andaluz de Durangok, <i>Fiesta de Primavera Feria de Abril 2013</i> izeneko jaialdia antolatu zuen apirilaren 20rako. Egitarauaren berri emateko argitaratu zuen kartelean euskararen presentzia hutsaren hurrengo da: Durangoko Udala, Landako Gunea, Antolatzailea eta Babeslea dira euskaraz ageri diren hitz bakarrak.	
Erantzuna:	DURANGOKO UDALA: <i>Nahiz eta kartela erdera hutsean agertu, beste bat zegoen euskara hutsean eginga.</i>	
Dosierra:	48-2013	
Erakundea:	CENTRO CULTURAL EXTREMEÑO LA ENCINA	NAF
Arrazoia:	Altsasuko <i>La Encina</i> Extremaduraren Kultur Elkarteak txerri hiltzea antolatu zuen urtarrilaren 26rako. Horren berri emateko argitaratu zituen esku-orriak espainiera hutsean zeuden. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Erantzuna:		
Dosierra:	861-2013	
Erakundea:	CULTURE ET PATRIMOINE ELKARTEA	IEH
Arrazoia:	SENPEREKO CULTURE PATRIMOINE SENPERE elkarteak irailaren 22an, Errobiko gudua bigarren mendeurrena ospatzeko animazioak antolatu zituen. Animazioak iragartzen dituen egitaraua frantses hutsean jaso nuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	603-2013	
Erakundea:	ETXARRI ARANAZKO ABESBATZA	NAF
Arrazoia:	Etxarri-Aranazko abesbatzak maiatzean Arbizuko elizan eta irailean Altsasuko plazan egindako emanaldietan abestien gaineko azalpenak ez zituen euskaraz egin zuzendariak.	
Erantzuna:	ETXARRI ARANAZKO ABESBATZA: <i>Adierazi nahi dugu sentitzen dugula Arbizuko eta Altsasuko agerpen publikoetan euskarari behar zen lekua ez ematea. Jakin badakigu euskararen erabilerari dagokionean badugula zer hobetu. Horretan saiatzen gara, baina argi dago ez dugula beti asmatzen. Aurrerantzean gauzak hobeki lotzen saiatuko gara.</i>	

Dosierra:	857-2013	
Erakundea:	FESTIVAL BIARRITZ AMERIQUE LATINE	IEH
Arrazoia:	Irailaren 30etik urriaren 6ra Biarritzeko Hego Ameriketako zinema festibala iragan zen. Festibaleko komunikazioa, esku-orriak, zein afitxak eta webgunea frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Dosierra:	540-2013	
Erakundea:	KOCOGRAPA	NAF
Arrazoia:	KOCOGRAPA Sormen Grafikorako Guneak ikasturte berrirako proposamenen berri emateko bidali didan mezu elektronikoak gaztelania hutsean du informazio guztia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	810-2013	
Erakundea:	SCÈNE NATIONALE BAYONNE - SUD-AQUITAIN	IEH
Arrazoia:	Ken 7ren kontzertura joateko txartel elektronikoak frantses hutsean dira.	
Erantzuna:		
Dosierra:	833-2013	
Erakundea:	SCÈNE NATIONALE BAYONNE - SUD-AQUITAIN	IEH
Arrazoia:	2012-2013ko kultur ekitaldiak iragartzen dituen egitaraua frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	920-2013	
Erakundea:	SCÈNE NATIONALE BAYONNE - SUD-AQUITAIN	IEH
Arrazoia:	2013-2014ko kultur ekitaldiak iragartzen dituen egitaraua frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1022-2013	
Erakundea:	TXIRULA KULTUR ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Txirula Kultur Taldeak igorritako mezu bat jaso dut nire helbide elektronikoan, Otxarkoagan umeentzat antolatu duten ipuin lehiaketa baten berri eman eta zabaltzeko. PDFan informazioa euskaraz eta gaztelaniaz dago, baina mezua gaztelania hutsean bidali didate.	
Erantzuna:		

ASEGURU-ETXEAK

Dosierra:	594-2013	
Erakundea:	AG2R	IEH
Arrazoia:	AG2R aseguru, mutual eta erretretetaz arduratzen den taldeak etxera igorri didan Expertises informazio orria frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	769-2013	
Erakundea:	AMALUR ASEGURUAK	EAE
Arrazoia:	Durango eta Elorrioko Amalur Aseguruak etxeak gaztelania hutsean banatu du publizitatea etxeetako postontzietan. Aurkia zein ifrentzuan testu bera ageri da, baina biak gaztelaniaz. Euskararen arrastorik ez da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	446-2013	
Erakundea:	LAGUN ARO	EAE
Arrazoia:	Uztailaren 21ean autoaren matxura izan nuen Jaizkibelgo mendatean. Lagun Aroko aseguru dudanez, telefonoz deitu nuen eta pertsonarenganaino iristea lortu nuenean, euskaraz hitz egin nahi izan nuen eta zerbitzuan euskaldunik ez zegoela erantzun zidan deia hartu zidanak. Beraz, harreman guztiak gaztelaniaz izatera behartua izan nintzen zerbitzu zentralarekin. Gero, garabizalearekin hitz egin nuen (Errenteriakoa) eta gauza bera gertatu zitzaidan.	
Erantzuna:	<i>Zerbitzuen lurralde-eremuak Europa eta Mediterraneoaren ertzeko herrialdeak hartzen dituela barnean ibilgailuari laguntza emateari dagokionez, eta munduko herrialde guztiak, berriz, pertsonen laguntza emateari dagokienez. Horregatik, operadoreek hainbat hizkuntza ezagutzen dituzte, baina 365 eguneko eta 24 orduko zerbitzua denez, baliteke gure aseguratuak deitu zuen unean, gorabeheraren bat zela-eta, euskaraz hitz egin zezakeen operadorerik ez egotea. Zerbitzu zehatzaren daturik eman ez dizkiguzue, ezin dugu xehetasun gehiago eman gertatutakoari buruz. Sentitzen dugu sortutako egoera, batez ere ahalgaitzak egiten ditugulako gure bezeroei arreta euskaraz eman ahal izateko. Garabizaleari dagokienez, Aseguru Etxearentzat lan egiten duten lankideak dira, eta ezin dugu ezer egin haiek darabilten hizkuntzari dagokionez. Eskertuko genizueke bezeroari gure barkamen-eska helaraztea eta gure esker ona adieraztea oharrak bidaltzeagatik, gure zerbitzuak hobetzen laguntzen baitigute.</i>	
Dosierra:	447-2013	
Erakundea:	LAGUN ARO	NAF
Arrazoia:	Abuztuaren 2an asebetetze-inkesta egin dit IMA Iberica Asistencia enpresak ordenagailu bidez Lagun Aroren izenean. Ez zegoen hitzik ere euskaraz, dena gaztelaniaz. Idazteko tarte batzuk bazituen, nire kexuak adierazi ahal izan ditut, baina inkesta derrigorrez gaztelaniaz jarraituta eta partzialki hala erantzunda.	
Erantzuna:	LAGUN ARO ASEGURUAK, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua: <i>"Egiaztatu ahal izan dugunez, Bidaiako Laguntza Zerbitzurako gure hornitzailea den IMA IBÉRICA ari da kexa eragin zuen inkesta egiten. Une honetan, lanean ari gara gure bezeroen artean horrelako nahigaberik ez dadin eta inkesta hori bi hizkuntzatan egin dadin, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Eskatzen dizugu gure bezeroari gure esker ona helaraztea hobetzen lagundu digulako."</i>	

Dosierra:	554-2013	NAF
Erakundea:	MAPFRE - DIRECCIÓN DE ATENCIÓN AL CLIENTE	
Arrazoia:	MAPFRE empresas sailetik espainol huts-hutsean bidali digute aseguru berriztatzearen inguruko jakinarazpen idatzia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	599-2013	IEH
Erakundea:	OCIANE	
Arrazoia:	OCIANE mutualak, apirilean, Mutex liburuxka eta honen berri emateko gutuna igorri dizkidate. Bi euskarriak frantses hutsean ziren.	
Erantzuna:		
Dosierra:	872-2013	IEH
Erakundea:	OCIANE	
Arrazoia:	Urriaren 28an, MODULATO PREVOYANCE kontratuaren baitako kuota ordaintzeko diru kenketa automatikoa hautatu dudala iragartzeko jaso dut gutuna. Frantses hutsean zen.	
Erantzuna:	<i>Gure zerbitzuen kalitatea hobetzeko euskara kontuan hartzea galdegiten diguzue. Lehen azterketa baten ondotik, gutunak euskaratzeak baliabide ekonomiko eta teknikoen beharra eragingo luke eta horrek kuotetan eragina ukango luke. Bestalde, Aseguruen kodearen L.112-3 artikulua arabera frantsesaren erabilera derrigorrezkoa egiten du, kontratua frantses legearen baitakoa bada.</i>	
Dosierra:	537-2013	EAE
Erakundea:	SEGUROS SANTA LUCIA	
Arrazoia:	Santa Lucía aseguru-etxearen Durangoko lokalaren leiho edo kristal guztietako iragarki edo kartelak erdara hutsean daude.	
Erantzuna:		



FINANTZAK

Dosierra:	1024-2013	
Erakundea:	BANCO DE ESPAÑA	EAE
Arrazoia:	Espainiako Bankua gaztelania hutsean zabaltzen ari da prentsan, banketxeetako kontu-zabakiak adierazteko modua laster aldatu egingo dela eta aurrerantzean beti IBAN moduan eman beharko direla jakinarazteko iragarkia.	
Erantzuna:	ZERBITZUEN ZUZENDARI NAGUSIA: <i>Espainiako bankuak estatu mailan sustatu zuen SEPA indarrean jartzera zihoala ezagutarazteko joan den abenduaren 11n abiatu zuen "Date cuenta" informazio kanpaina. Beraz, erakunde honen jarduketa hori ezin da Euskal Autonomia Erkidegoan burututako jardueratzat hartu, esan bezala Espainia osorako abiatu baitzen, ez eta Euskararen erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen aplikazio eremukotzat ere. Nolanahi ere, Behatokiak euskararen erabileraren inguruan duen iritzia aintzat hartuko dugu, dagoeneko <a href="http://www.bde.es">www.bde.es</a> web-orrian argitaratzen dugun informazioarekin egiten dugun legez.</i>	
Dosierra:	973-2013	
Erakundea:	BANCO SANTANDER	NAF
Arrazoia:	Elizondon dagoen Banco de Santanderreko kutxazainean hainbat hizkuntzatan egin daitezke eragiketak (frantsesa, ingelera...) baina ez euskaraz.	
Erantzuna:		
Dosierra:	703-2013	
Erakundea:	BBVA	EAE
Arrazoia:	Gipuzkoako herritarra naiz eta urriaren 24an BBVAko zerbitzuei buruzko informazio-orria iritsi zait. Ez dago euskaraz idatzia; guztia gaztelaniaz dago.	
Erantzuna:	KALITATE DEPARTAMENTUA: <i>BBVA bere komunikazioetan euskara ezartzea garatzen ari da. Hori horrela, datozen hilabeteetan jakinarazi diguzun hutsunea konponbidean izango da.</i>	
Dosierra:	712-2013	
Erakundea:	BBVA	EAE
Arrazoia:	Bilboko enpresa gara eta BBVAren jakinarazpena jaso genuen, urriaren 14ko data duena, banka elektronikoa alta emateko eskaera luzatzen zitzaigun bertan. Bada, jakinarazpena ez dago euskaraz idatzia.	
Erantzuna:	KALITATE DEPARTAMENTUA: <i>BBVA bere komunikazioetan euskara ezartzea garatzen ari da. Hori horrela, datozen hilabeteetan jakinarazi diguzun hutsunea konponbidean izango da.</i>	
Dosierra:	713-2013	
Erakundea:	BBVA	EAE
Arrazoia:	BBVAren Bilboko bezeroak gara eta jaso ohi ditugun jakinarazpenetan, helbidean, <i>Vizcaya idatzi ohi dute.</i>	
Erantzuna:	KALITATE DEPARTAMENTUA: <i>BBVA bere komunikazioetan euskara ezartzea garatzen ari da. Hori horrela, datozen hilabeteetan jakinarazi diguzun hutsunea konponbidean izango da.</i>	

Dosierra:	305-2013	
Erakundea:	CAJA RURAL DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	Uztailaren 20an izan zen "La Miguel Indurain" txirrindu-lasterketan izena eman dut webgune bidez. Izen-emateari dagokion ordainketa ongi egin dudala baieztatzeko CAJA RURAL DE NAVARRAK e-mailez igorri didan mezua ( <i>compra tpv</i> ) ez dago euskaraz idatzia. Gainera, lege oharra euskaraz ez, baina gaztelaniaz eta ingelesez idatzia dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	415-2013	
Erakundea:	CITIBANK egoitza soziala	NAF
Arrazoia:	Ekainaren 13an, 11:45ak aldera, dei bat jaso nuen lantokian, Iruñean. Deitu zuen pertsonak eskaintza bat egin nahi zuela eta arduradunarekin hitz egin nahi zuela esan zidan erdaraz, bere burua aurkeztu gabe. Nik nor zen, nondik deitzen zuen eta ea berarekin edo beste batekin euskaraz hitz egin nezakeen galdetu nion. Orduan CITIBANKetik deitzen zuela, Madrildik, eta ez zegoela euskaldunik erantzun zidan. Eskaintza euskaraz egin ahal zuenean deitzeko eta entzungo geniola esan nion. Erdaraz hitz egiteko zer arazo nuen galdetu zidan orduan. Ez nuela arazorik esan nion, baina Nafarroara deitu zuela eta eskaintza egin nahi bazidan atseginez entzungo niola euskaraz. Orduan "madre mía!" bat bota eta telefonoa eskegi zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	806-2013	
Erakundea:	CRÉDIT AGRICOLE	IEH
Arrazoia:	Credit Agricole bankuko web gunea frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	874-2013	
Erakundea:	CRÉDIT AGRICOLE	IEH
Arrazoia:	Etxe bat eraikitzen ari naiz eta harginari txeke bat egin diot, euskaraz. Gure hargina CREDIT AGRICOLE bankuko bezero da, eta txekea pausatu bezain laster atzera itzuli diote euskaraz idatzia zelako.	
Erantzuna:		
Dosierra:	36-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	KUTXABANK-ek Donostiako Prim kalean ireki duen aseguru-bulegoan urtarrilean publizitate guztia, kristaletan eta abarretan jarrita zegoena, gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:	KUTXABANK: 1. Bulego hori ez da Kutxabank S.A.rena, %100ean bere partaidetza duen filial batena baizik. 2. Alderdi honek dakienetik, eta erantsi ditugun argazkien bidez egiaztatutaz, gaur egun, behintzat, ez dago publizitaterik, eta hitzez hitz "kutxabank aseguruak" dioen errotulua besterik ez dago. 3. Adierazitako azalpen guztiak Behatokiak aintzat hartuko dituelakoan gaude, eta ondorioz, jasotako kexa edo erreklamazioa ez dela idatzian aipatu den memoria agertuko; izan ere, alderdi honen iritziz, Kutxabankek ez du erantzukizunik gai horri dagokionez.	

Dosierra:	89-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoa:	Gaur otsailaren 20an eta herenegun otsailaren 18an, ezin izan dut Kutxabank-ekin euskaraz egin. Bietan erantzun didate euskaldunik ez dagoela. Gaur, adibidez, transferentzia bat egin behar izan dut Kutxabank-eko "zerbitzu"-aren bidez eta arazo bat izan dut. Deitu dut laguntza zerbitzura (94 4017907) eta haien erantzuna euskaraz hitz egin dudanean, hau izan da: <i>Hábleme en español</i> . Ondoren, arduradun batekin hitz egitea eskatu dut, eta arduradunik ez zegoela erantzun didate gaztelaniaz.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Harremanetan jarri gara zerbitzu horren arduradunekin, eta esan digute egia dela denbora-tarte batean (otsailaren 18tik 20ra) gorabeherak izan zituztela euskaraz erantzuteko. Dena den, gaur egun zerbitzu horretan ari diren langile guztiak elebidunak dira, eta, beraz, ez dago inolako arazorik gure bezeroekin euskaraz aritzeko. Erreklamazioa egin izana eskertzen dizugu, horrek aukera ematen baitigu gure bezeroen kezkak ezagutzeko eta, horrela, beharrezko neurriak hartzeko.</i>	
Dosierra:	224-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoa:	Kutxara (orain Kutxabank) joan naiz dirua ateratzera. Kutxazaineko pantaila guztiak GAZTELANIA hutsez azaldu zaizkit. Ez dut ikusi hizkuntza aldatzeko aukerarik. Orain dela urte asko aukeratu nuen EUSKARA Kutxako kutxazaineko eragiketak egiteko eta orain arte ez dut arazorik izan alde horretatik. Gaur arte.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Egoera hori martxoaren 19an gertatu zela kontuan izanda, dagoeneko guztiz konponduta dago arazoa. Data horietan Kutxaren integrazio informatikoa egin zen Kutxabanken, eta horregatik, egun batzuetan, martxoaren 15etik 20ra, gutxieneko funtzionaltasunekin funtzionatu behar izan zuen kutxazain automatikoen sareak. Ordutik aurrera, baina, inolako mugarik gabe aritu daiteke euskaraz Kutxabanken autozerbitzuan. Erreklamazioa egin izana eskertzen dugu, horrek aukera ematen baitigu gure bezeroen kezkak ezagutzeko eta, horrela, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko.</i>	
Dosierra:	226-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoa:	Dirua sartu eta ateratzeko Kutxako makinan, libreta eguneratu eta diru sarrera bat egitera joan nintzen, martxoaren hirugarren astean Arrasateko Garibai kaleko bulegora. Makina gazteleraz zegoen, soilik, aurretiaz (urteak dela) hizkuntza hautapena euskara izatea nahi nuela argi adierazi arren. Bulegoko langileari azalpena eskatu nion. Kutxabankeko bategitea dela-eta konfigurazioa aldatu zutela, BBKko eredu jarraituko zutela makinek aurrerantzean eta jabetzen zela nik eginiko hizkuntza hautapena ez zela bete / errespetatzen, baina mesedez, aldaketa egin nezala eskatu zidan. Nik, nire zeregina hori ez zela adierazi nion, Kutxabank izan behar duela bezeroek jada egin genuen hizkuntza hautapena errespetatu eta beteko duena.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Egoera hori martxoaren erdi aldera gertatu zela kontuan izanda, dagoeneko guztiz konponduta dago arazoa. Data horietan Kutxaren integrazio informatikoa egin zen Kutxabanken, eta horregatik, egun batzuetan, martxoaren 15etik 20ra, gutxieneko funtzionaltasunekin funtzionatu behar izan zuen kutxazain automatikoen sareak. Ordutik aurrera, baina, inolako mugarik gabe aritu daiteke euskaraz Kutxabanken autozerbitzuan. Erreklamazioa egin izana eskertzen dugu, horrek aukera ematen baitigu gure bezeroen kezkak ezagutzeko eta, horrela, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko.</i>	

Dosierra:	261-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak urtero antolatzen duen Biltzarrean izena internet bidez eman eta txartelarekin ordaintzeko sistema kontratatu du Kutxabank-ekin. Erabiltzaileek ordainketa egiteko prozesuan erdaraz ikusten dute lehen interfacea (Comercio electrónico seguro. Datos de la compra). Gainera, sistemak erdaraz bidaltzen dio prozesuaren administratzaileari ordainketaren berri ematen duen mezua.	
Erantzuna:		
Dosierra:	290-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxen bategitearen ondoren askotan deitu behar izaten dugu zalantzak argitzeko Kutxabankek web orriaren bezeroentzako arretarako telefono zenbakira (94 401 79 07), eta askotan erdaraz erantzuten dute. Euskaraz hitz egin nahi baduzu beste norbaiten bila hasi behar dute eta luze egon behar izaten da zain norbaitek euskaraz kasu egin arte. Azkeneko aldian 4 minutu pasa izan ziren. Kutxabank KUTXA zenean, euskaraz erantzun eta artatzen gintuzten.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Harremanetan jarri gara zerbitzu horren arduradunekin, eta esan digute egia dela denbora-tarte batean (Kutxen bategitearen ondoren) gorabeherak izan zituztela euskaraz erantzuteko. Dena dela, gaur egun zerbitzu horretan ari diren langile guztiak elebidunak dira, eta, beraz, ez dago inolako arazorik gure bezeroekin euskaraz aritzeko. Eskerrak eman nahi dizkizugu horren berri emateagatik, horrela aukera baitugu gure bezeroen kezken berri izateko eta beharrezko neurriak hartzeko</i>	
Erantzuna:		
Dosierra:	312-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	BBKtik (Gernikako bulegoa) sms mezua bidali didate errenta aitortpena egiteko eguna gogorarazteko. Mezua erdara hutsean dago. Nik ordea euskaraz deitu nuen euskaraz atendentzea nahi nuelako.	
Erantzuna:		
Dosierra:	326-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxen bategitearekin KUTXaren kutxazain automatikoetako sistema aldatu egin dute. Lehen, hizkuntza aukeratzeko pantaila zen bistaritzen zen lehena. Orain 3. pantailaraino ez dago hizkuntza aukeratzetik.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Dagoeneko hitz egin dugu informatika-arduradunekin, pantaila horien konfigurazio aldatu eta aukera hori eskuragarriago jarri ahal izateko. Zure oharra eskertzen dizugu, bezeroei ematen diegun zerbitzua hobetzeko aukera ematen baitiau.</i>	

---

<p>Dosierra: 358-2013</p> <p>Erakundea: KUTXABANK</p> <p>Arrazoia: Maiatzaren 28an Kutxabank-ek Irungo San Migel auzoan duen sukurtsalera joan nintzen goizeko 9ak aldera. Leihatilan bezeroei zerbitzua emateko hiru langile zeuden, erdaldunak hirurak. Langileetako batek arreta euskaraz nahi nuen galdetu zidan txanda egokitu zitzaidanean (28.zkia) eta baietz esatean beste langile baten bila joan zen. 15 minutu pasata (kontadoreak 48. zkia markatzen zuenean) iritsi zen langile euskalduna.</p> <p>Erantzuna: KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kexa aztertu dugu eta dagoeneko arazoa konponduta dago. Neurriak hartu eta langile aldaketa bat egin da, leihatila-zerbitzuan ere euskarazko zerbitzua bermatu ahal izateko bulego horretan, eta zuk, eta zuk bezala euskaraz artatuak izan nahi duten pertsonen euskaraz egiteko aukera izango dute. Horrez gain, Gipuzkoako bulegoetako euskararen mapa osatzeari ekin diogu egon zitezkeen gabeziak aztertu eta legozkiekeen neurriak bideratzeko asmoz, horrelakorik, ahal dela, berriro gerta ez dadin. Izan ere, Kutxabanken helburua bezeroei euskarazko arreta bermatzea da, ahoz zein idatziz. Eskerrak eman nahi dizkizugu horren berri emateagatik, izan ere, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugu, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i></p>	<p>EAE</p>
--	------------

---

Dosierra:	399-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxarekin nituen harreman guztiak euskaraz ziren Kutxabank sortu zuten arte. Orduan dena gaztelerara pasa zidaten, kutxazaina, interneteko web gunea eta posta. Gaur egun ditudan inbertsio fondo batzuen informazioa ere gaztelera hutsean jaso dut. Arreta Tif. zenbakira deituta gazteleraz erantzun didate. Euskaraz artatzea eskatu dut, eta pertsona euskalduna jarri da baina arazoa konpontzeko buelgora joan behar dudala esan didate.	
Erantzuna:	<i>Zure kexan aipatzen dituzun arazoetako bi aspaldi konponduta daude: kutxazainaren eta online bulegoko hizkuntza. Kutxazainetan sistemak batzerakoan arazo bat egon zen eta bi-hiru egunetan ez zuten hizkuntza lehenetsia ezagutu baina laugarren egunerako konpondu egin zen. Online bankan euskara aukeratuta jarraian jartzen da hizkuntza horretan. Inbertsio-fondoan informazioari dagokionez, orain arte beti egon dira euskaraz eta aurrerantzean ere horrela egongo dira, baina, 2013an, zenbait arrazoiengatik ezin izan genituen euskaraz eskaini. Berriz ere gerta ez dadin, neurriak jarri dira eta datorren urtean euskaraz jasoko dituzu. Call Centerreko zerbitzuei dagokienez, jaso ditugun datuen arabera langileen %90 elebiduna da eta, une batez gerta badaiteke ere itxaron behar izatea, ohikoena hasieratik euskaraz artatzea da. Eskerrak eman nahi dizkizugu horren berri emateagatik, izan ere, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugu, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	
Dosierra:	421-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	KUTXA Bankuak, Irungo San Miguel auzoan daukan bulegoan dauden bezeroei atenditzeko pertsonak, ez dakite euskaraz. Katalanak omen dira.	
Erantzuna:	<i>KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: Kexa aztertu dugu eta dagoeneko arazoa konponduta dago. Neurriak hartu eta langile aldaketa bat egin da, leihatila-zerbitzuan ere euskarazko zerbitzua bermatu ahal izateko bulego horretan, eta zuk, eta zuk bezala euskaraz artatuak izan nahi duten pertsonak euskaraz egiteko aukera izango dute. Horrez gain, Gipuzkoako bulegoetako euskararen mapa osatzeari ekin diogu egon zitezkeen gabeziak aztertu eta legezkiekeen neurriak bideratzeko asmoz, horrelakorik, ahal dela, berriro gerta ez dadin. Izan ere, Kutxabanken helburua bezeroei euskarazko arreta bermatzea da, ahoz zein idatziz. Eskerrak eman nahi dizkizugu horren berri emateagatik, izan ere, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugu, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	

Dosierra:	466-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank S.A. banketxearen Arabako bulegoetako (Vital Kutxa) kanpoaldean erdara hutsean dituzte kartel bi: (1) bideo-zaintzaz oharrarazten dutenak: <i>"zona videovigilada"</i> goiburua eta datuen babeserako legediaren aipuak; eta (2) bestelako segurtasun-neurriak aitatzen dituenak: <i>"Establecimiento dotado con: medidas de seguridad; grabación de imágenes; mecanismos de apertura retardada. Sin dinero efectivo"</i> .	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Egoera aztertu ondoren beharrezko gestioak egin ditugu arazo hau konpontzeko. Jada, dagokion sailetik agindua emanda dago, bideozaintzaren berri ematen duen errotulua eta segurtasun-neurriak aitatzen duena hilabete baten buruan, gutxi gorabehera, bi hizkuntzetan jartzeko oraindik elebitan ez daukaten Arabako bulego guztietan. Gure esker ona adierazi nahi dizugu horren berri emateagatik, izan ere, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	
Dosierra:	469-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank-ek Gasteizko Herrandarren kalean duen bulegoan bideozaintza eta segurtasun sistemaz oharrarazteko kartelez gainera, badago beste ohar bat erdara hutsean. Izan ere, bulego hori egunotan zarratuta dago, abuztuko oporren kari, eta ondokoa dioen kartela ipini dute: <i>"ESTA OFICINA PERMANECERÁ CERRADA DEL 6 AL 30 DE AGOSTO / DISCULPEN LAS MOLESTIAS / OFICINAS CERCANAS ABIERTAS: 3132-FRANCIA; 3124-PLAZA BILBAO / Kutxabank 3126-Los Herrán"</i>	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kutxabankeko bulegoetan gure Herrialdeko hizkuntza biak egon behar dira, besteak beste, bulegoetako kanpoaldeko zein barrualdeko kartel edo errotuluetan ageri den informazioan. Kasu honetan dirudenez lankide partikular batek bere kabuz egindako, unean uneko, oharra zen. Izan ere, jakin izan dugunez, era horretako kartelak elebitan banatu ziren saretik. Dena den, sarearen bidez helarazi zaie lankide guztiei kontu handia izateko era honetako arazoak aurrerantzean gerta ez daitezken. Gure esker ona adierazi nahi dizugu horren berri emateagatik, izan ere, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	
Dosierra:	542-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabankeko 901 335566 telefonora deitu dut 11:40etan Visako gai bat argitzeko. Robota hasi zait hizketan gaztelaniaz eta gero euskaraz agurtuz. Nik erantzunak euskaraz emanik ere gaztelaniaz jarraitu du denbora osoan. Bakarrik langilearekin hizketan hasi aurretik hasi da euskaraz (azken ahots mezua). Ulertzen dut robota eta zerbitzua gaizki dabilela eta konpontzea nahi dut niri eta beste euskaldunei zerbitzua behar bezala emateko.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kexa dagokion sailera bideratu dugu eta adierazi digute, hainbat proba egin ondoren, sistema ondo dabilela eta bermatuta dagoela une oro, prozesu guztia euskaraz egin ahal izatea. Halere, horren jarraipena egingo dute horrelako arazorik gertatzen den antzemateko.</i>	

Dosierra:	572-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank-ek Irungo San Migel auzoan duen bulegoan izan naiz. Jendeari informazioa ematen eta zerbitzua bideratzen ari zen pertsona erdalduna zen.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kutxabankeko bulego honetan aldaketak egin dira. lehen, leihatilan zeuden 3 langileak erdaldunak zirenez, aldaketa bat egin zen eta langile euskaldun bat jarri zen. Ondoren, aurreko astean, bigarren langile euskalduna jarri da. Beraz, une honetan 3tik 2 euskaldunak dira. Horrez gain, arlo komertzialean ere 5 langiletatik 4 euskaldunak dira. Irungo herritarren hizkuntza-eskaera kontuan hartuta, langileen %70 euskalduna izanik euskarazko zerbitzua bermatuta dagoela uste dugu. Gure esker ona adierazi nahi dizugu horren berri emateagatik, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	
Dosierra:	573-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank-ek Irungo Colon pasealekuan duen bulegoan izan naiz. Arreta egin didan langilea ez zen euskalduna.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kutxabankeko bulego honetan langileen %50 euskalduna da, leihatiletan eta mahai komertzialetan, 3na langile hain zuzen ere. Kutxabankeko langile euskaldunen ehunekoak udalerrri bakoitzeko euskaldunen ehunekoaren gaineratik egotea dugu helburu eta hori betetzen dugu ia beti, baita Irungo bulegoetan ere. Horrekin gure bezeroei zerbitzua euskaraz bermatzen diegu nahiz eta gerta litekeen inoiz apur bat itxaron behar izatea. Gure esker ona adierazi nahi dizugu horren berri emateagatik, horri esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta, horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako.</i>	
Dosierra:	574-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank-ek Irungo Colon pasealekuan duen bulegoan bezeroen eskura zeuden esku-orriak erdaraz zeuden.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Kutxabankeko bulego horretandauden esku-orriak bi hizkuntzetan daude, alde batetik euskaraz eta bestetik gaztelaniaz. Beraz, kexak erabat harritu gaitu eta eskertuko genizuke ale bat bidaltzea guri, beste zerbaiti buruz ari zaren ala ez ikus dezagun.</i>	
Dosierra:	669-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Vitalalquilerrek (Kutxabank) erdara hutsean argitaratzen ditu iragarkiak prentsan.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Vitalalquilerrek bi hizkuntzetan egiten du publizitatea prentsan, beraz erabat harritu gaitu jaso dugun kexak. Hemen daukazu hori ikusteko adibide bat.</i>	



Dosierra:	670-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Vitalquilerren (Kutxabank) webguneak ez du euskarazko bertsiorik: <a href="http://www.alquilerenvitoria.com">http://www.alquilerenvitoria.com</a>	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Une honetan Vitalquiler lanean ari da webgunea euskaraz jartzeko eta laster batean eginda egongo da.</i>	
Dosierra:	815-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabankeri eskatu nion euskaraz jaso nahi nituela nire kontuko agiriak, gaztelera hutsez bidaltzen baitzizkidan. Hauxe erantzun zidaten; arazoa ondorengoa da, Frantzia bizi zarenez ezin dizkuzugu agiriak euskaraz bidali, nahiz eta Iparraldean bizi, gure programak Frantzia bizi zarela ulertzen duelako.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Gure operatibaren arabera bezeroaren korrespondentzia bere bulegoarekin lotuta dago, eta beraz, lehen euskaraz jasotzen bazuen, orain ere euskaraz jasotzen jarraitu beharko luke. Gaia dagokion sailean argitu ahal izateko zure aurreko bulegoa zein zen jakin beharko nenuke</i>	
Dosierra:	905-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabankeko 901 335566 telefonora deituz gero erantzungailu batekin hitz egin behar da. Erantzungailuak gaztelaniaz bakarrik hitz egiten du eta zenbakiak euskaraz esanez gero ez ditu ulertzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	936-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabanke txartel berriak egin ditu kutxazainetarako eta etxera bidali dizkigu, hilaren 31 baino lehen aktibatzeko, txartela zaharrak data horren ondoren erabilgarri egongo ez direnez, berriengatik ordezkatzeko alegia. Txartela berriak aktibatzerakoan, gaztelerez aktibatuta daudela konturatu naiz, eta beraz, berriro ere euskara aukeratu behar izan dut txartelaren hizkuntza gisa, hurrengo eragiketarako. Txartela berriak lehengo kodea gordea zuen bezala, ezin al zuen txartelaren hizkuntza datua ere gorde eta bezeroari euskaraz aktibatuta bidali? Lehenago Kutxan horrela egiten zen. Kutxabankekin atzera egin dugula salatzeko idazten dut, beraz.	
Erantzuna:	<i>Kutxabankekeko Komunikazio, EGE, Berdintasuna eta Hizkuntza Kudeaketako Zuzendaria den Endika Ruiz de Zaratek bidalitako erantzunaren arabera, zuk aipatu kexa intzidentzia bat izan zela eta jada konponduta dagoela esan digu. Euren partez eskerrak emateko eskatzen digute, haien zerbitzuan hutsuneak ikusi eta konpontzen laguntzeagatik.</i>	
Dosierra:	951-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabank-ek txartela berria bidali dit eta erabiltzera joan naizenean lehenetsitako hizkuntza gaztelera zen. Aurreko txartelaren lehenetsitako hizkuntza euskara izan da.	
Erantzuna:		

Dosierra:	990-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Egun hauetan VISA txartel berriak iritsi zaizkigu emazteari eta bioi lehendik Kutxabankekin ditugunak ordezkatzeko. Lehengoak euskaraz funtzionatzen zutela geneuzkan. Berriak espainierari lehentasuna emanda iritsi zaizkigu, eta hizkuntza-aldaketa egin behar izan dugu.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Dagokion arloarekin hitz egin ondoren, zuk adierazten duzun bezala, intzidentzia bat gertatu zen eta une honetan intzidentzia hori konponduta dago. Bide batez, eskerrak eman nahi genizkizuke horren berri eman izanagatik, izan ere, horien bidez gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.</i>	
Dosierra:	991-2013	
Erakundea:	KUTXABANK	EAE
Arrazoia:	Kutxabanke libretetan eta kontuen jarraipenetan egiten dituen idazpen guztiak espainieraz egiten ditu. Horrela ez bada, ager diezagutela bezeroei aldaketa non eskatu behar den.	
Erantzuna:	KOMUNIKAZIOA, EGE, BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA: <i>Gure Euskara Planean helburu hori jasota dugu eta epe erdira konpontzea aurreikusten dugu. Momentuz, lehenengo fasea eginda dago: eragiketen euskarazko baliokideak prest ditugu gure sistema informatikoetan. Ondoren, bezeroentzat ikusgarri jartzea izango da. Bide batez, kexa egin izana eskertu nahi dizugu, horiei esker gure zerbitzuan egon daitezkeen hutsuneak ikusi eta konpontzeko aukera izaten dugulako, eta horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.</i>	
Dosierra:	45-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA	NAF
Arrazoia:	Euskadiko Kutxak Iruñeko Sarasate pasealekuan duen bulegoan gaztelaniaz baino ez dute bezeroen eskura "Solicita presupuesto para tu seguro de coche" inprimakia. Duela hilabete batzuk kexa bera egin nuen eta konponduko zutela erantzun zidaten. Hala ere, gaztelania hutsean iarraitzen du.	
Erantzuna:		
Dosierra:	214-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Kutxaren <a href="http://www.bancaempresas.com">www.bancaempresas.com</a> web-gunean euskarak ez du inongo tokirik.	
Erantzuna:	<i>Zure ekarpenak dagokion Areara bideratu ostean, komentatu digute adierazten duzun blogean naiz eta artikulu gehienak gaztelerez egon, euskara eta ingelesa ere erabiltzen dutela publikatzeko. Hala ere, gai honen arduradunek aurrerantzean euskaraz post gehiago publikatzeko asmoa erakutsi dute. Eskerrak eman nahi dizkizugu egindako ekarpenagatik, egunetik egunera bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak izaten direlako. Zinez sentitzen dugukexan adierazitako gertaerak eragozpenak sortu badizkizu.</i>	

Dosierra:	362-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA - EUSKARA BATZORDEA	EAE
Arrazoia:	Laboral Kutxak uztailearen 30ean bidalitako propaganda mezu bat jaso dut nire posta-elektronikoan. Beraiekin hainbat kontu kudeatzen ditut posta berdinean. Mezuetakoz batzuk euskara hutsean eta besteren bat ele bietan konfiguratuta jasotzeko ditut, baina azken mezu honetan izenburua kenduta, <i>Online banka zurekin doa</i> , guztia gaztelania hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	388-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA Durango, Landako	EAE
Arrazoia:	Laboral Kutxaren Durangoko Zumalakarregi kaleko bulegoko mostradorean eskuorri baten fotokopia-multzoa dago bezerook hartzeko. <i>Alerta a móviles/Información y seguridad en las transacciones bancarias</i> izenburua du. Bada, guztiak gaztelania hutsean daude; ez dago euskarazko alerik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	940-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA	EAE
Arrazoia:	Laboral Kutxak Guardiako Kale Nagusian duen sukurtsaleko kutxazainaren inguruko euskarri idatzi guztiak gaztelaniaz baino ez daude: aseguruaren informazio-orriak, produktuen inguruko esku-orriak, atean itsatsitako oharra...	
Erantzuna:		
Dosierra:	994-2013	
Erakundea:	LABORAL KUTXA	EAE
Arrazoia:	Ia banketxe guztietan erabil dezaket euskaraz Triodos banketxearen txartela, Laboral Kutxan izan ezik. Hego Euskal Herrian bertan ez ezik, Espainiako estatuko gainontzeko lurraldeetan ere euskaraz erabil dezaket hainbat erakunderen kutxazainetan, hala nola, Sabadell Atlántico, La Caixa eta BBVA. Ipar Euskal Herrian ere euskaraz erabil dezaket, gutxienez gutxienez Crédit Agricole Pirénées Gascogne erakundearen kutxazainetan. Horregatik, ulergaitza egiten zait euskaldunok hobeto tratatzen gaituen banketxeak euskarazko aukerarik ez ematea.	
Erantzuna:	BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Zure ekarpenak dagokion areara bideratu dira, kontuan har ditzaten. Dena den, eskerrak eman nahi dizkizugu egindako ekarpenengatik, bezeroari eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko baliagarriak eta ezinbestekoak izaten baitira, eta gertaera horrek eragozpenak sortu badizkizu, zinez sentitzen dugula jakinarazi nahi dizugu.</i>	
Dosierra:	22-2013	NAF
Erakundea:	LA CAIXA	
Arrazoia:	Iruñeko herritarra naiz eta maiatzaren 2an <i>La Caixa</i> ren gutuna jaso dut. Bertan <i>Línea Abierta</i> txartelari buruzko informazioa ematen zait eta txartela bera du erantsita. Gutuna ez dago euskaraz idatzia.	
Erantzuna:		

Dosierra:	93-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Otsailaren 26an Nafarroako Kutxa Fundazioaren web gunean sartu nintzen kontsulta bat egiteko, <a href="http://www.cajanavarra.com">www.cajanavarra.com</a> , eta gaztelania hutsean zegoen. Ezin izan nuen behar nuen informazioa euskaraz jaso. Horretaz gain, "Zeuk aukeratu, zeuk erabaki 2013" egitasmoaren eskaera orriak ere ez nuen euskaraz aurkitu. Beraz, gaztelaniazkoak erabili behar izan nituen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	95-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	LA CAIXAK Agoizko herritarrari urtarrilaren 23an bidalitako posta elektronikoa gaztelania hutsean zegoen. Gaia: <i>las tarjetas prepaqo le invitan al cine.</i>	
Erantzuna:		
Dosierra:	102-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	LA CAIXAren Berako bulego nagusian guneak adierazteko panelak eta bezeroen eskura dauden inprimakiak nahiz informazio-orriak ez daude euskaraz idatziak. Bulegoa duela gutxi berritu zuten, Can izatetik La Caixara izatera pasa zenean.	
Erantzuna:		
Dosierra:	120-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Otsailaren 28an, Iruñeko Errotxapean LA CAIXAK duen bulegoan (Artika kalea) luzatu zidaten ordainagiria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	122-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Agoizko LA CAIXA bulegoan, martxoaren 12an kutxazain automatikoak eman zidan gutun-azala gaztelania hutsean idatzita zegoen. Testua: " <i>Caixa abierta. Instrucciones para ingresar billetes y cheques.</i> "	
Erantzuna:		
Dosierra:	177-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Martxoan LA CAIXAren Visa txartela aktibatzeke eta txartel berriaren abantailen berri emateko informazioa igorri zidaten. Gutuna gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	342-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko entzierrorako sarreretan Caixak sartutako propaganda ez dago euskaraz idatzia: <i>Obra Social la Caixa- El alma de la Caixa</i>	
Erantzuna:		
Dosierra:	930-2013	

Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	Urriaren bigarren hamabostaldian La Caixaren gutuna jaso nuen; CaixaBank-eko zerbitzuek eta CaixaCard txartelek 2014ko urtarrilaren 1etik aitzinera izanen dituzten salneurrien berri ematen zait bertan. Jaso ditudan 3 orrietan ez da hitz bat bera ere euskaraz nahiz eta lehen CANeko bezeroa nintzelarik, jakinarazpenak euskaraz jasotzeko eskaera egina nuen eta halaxe jasotzen nituen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	981-2013	
Erakundea:	LA CAIXA	NAF
Arrazoia:	La Caixa-tik etxera bidaltzen didaten publizitate guztia beti gaztelania hutsean egon ohi da. Adibidez azaroan jasotako eskuorria.	
Erantzuna:	ZUZENDARIA: <i>La Caixak etxean jasotzen dituzten komunikazioak gaztelaniaz, katalanez edota euskaraz jasotzeko aukera eskaintzen die bere bezeroei. Hortaz, etxera bidaltzen dizkizuten jakinarazpenak euskaraz jaso nahi badituzu, horren berri eman behar duzu zure sukurtsalean, eta handik aurrera zuk aukeratutako hizkuntzan jasoko dituzu jakinarazpen guztiak.</i>	
Dosierra:	776-2013	
Erakundea:	TRIODOS BANK	EAE
Arrazoia:	Triodos banketxeak Euskal Herrian argitaratzen diren "Ekolurra" eta "La Fertilidad de la Tierra" aldizkarietan orrialde osoko gaztelania hutsezko iragarkiak jarri ditu.	
Erantzuna:	<i>Triodos Bank-eko Bezeroen Arreta Zerbitzukoek erantzundakoaren arabera, euren bezeroen izaera eta aniztasun linguistiko eta kulturalari erreparatuta, 2011n zehar hainbat aldaketa bideratu dituzte; hala nola, han eta hemen zabalduko hainbat bulegotan (Bartzelonan, Gironan zein Bilbon, besteak beste) hizkuntza koofizialetan harrera eman eta barne txosten, formulario, publizitatea eta webgunea hizkuntza horietan ere izatea. Kexan aipatu bi aldizkariko iragarkiei dagokionez, "Ekolurra" gaztelaniaz eta euskaraz eta "La fertilidad de la tierra" gaztelania hutsean izanik, "iragarkiak gaztelaniaz argitaratzea egokiago ikusi dugu bi argitalpen horien aniztasun linguistikoa kontuan hartuz". Bi kasu horietan, gainera, publizitatea "nekazaritzako elikagai ekologikoen teknikoei zuzenduta dago eta, beraz, gure ustez kontsumitzaile eta erabiltzaileen 123/2008 dekretutik at gelditzen dira". "Triodos Bank Euskadiko kultur sentsibilitateaz kontzientea da" eta, esaten dutenez, egunero lanean jarraitzen dute euren bezeroak behaaren kalitatea hobetzen laguntzen diguzulako. zeko.</i>	

---

Dosierra:	354-2013	
Erakundea:	VITAL KUTXA FUNDAZIOA	EAE
Arrazoia:	Vital Kutxa Fundazioak Josu Izarra argazkilariaren erakusketa antolatu du Foruen plazan duen egoitzan. <i>De lo global a lo local</i> du izena. Euskaraz izena besterik ez da ageri <i>Mundu mailatik tokian tokikora</i> , gainontzeko guztia gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:	ZUZENDARIA: <i>Euskaldunen eskubideak kontuan edukitzen saiatzen gara eta ahal dugun neurrian elebiz egiten ditugu gure komunikazioak. Kasu honetan hala egin ziren gonbidapenak, komunikabideetan agertutako deialdia eta informazioa, baina egia da Erakusketa aretoan, argazkien testuak ez zirela euskaraz ipini. Eskertzen dizugu gurekin harremanetan jarri izana eta kontuan izango ditugu zure aholkuak.</i>	

---

Dosierra:	490-2013	
Erakundea:	VITAL KUTXA FUNDAZIOA	EAE
Arrazoia:	Vital Fundazioaren Hizkuntza Ikastegiak gaztelania hutsean txertatu zuen iragarkia irailaren 2ko Correo egunkarian: <i>Matrícula abierta curso 2013-2014. Inglés, Alemán, Francés.</i>	
Erantzuna:		

---

## ALDERDI POLITIKOAK

Dosierra:	773-2013	EAE
Erakundea:	EAJ-PNV	
Arrazoia:	Gasteizko Alderdi Jeltzaleak bizkarra eman dio euskarari hedabideei igorritako idazkinetan; apirilekoa da euskaraz igorritako azken prentsa oharra. Orduz geroztik gaztelania hutsean bidali ditu.	
Erantzuna:		
Dosierra:	774-2013	EAE
Erakundea:	EH BILDU	
Arrazoia:	Gasteizko EH Bildu alderdiak hedabideei igortzen dizkien prentsa ohar ia guztiak gaztelania hutsean daude. Oso noizean behin bidaltzen ditu euskaraz.	
Erantzuna:	EH BILDU GASTEIZKO UDAL TALDEKO KOORDINATZAILEA: <i>Azaroaren 16an Gasteizko helbide elektronikoak publikoki kritikatu zuen gure prentsa ohar asko gaztelania hutsean zihoazela. Egia esanda, eta gure funtzionamenduaren barne arazo batzuk tartean, egia da prentsa oharren euskarazko tratamendua jaitsi zela udaren ostean. Edonola ere, eta une horretan nik neuk bertan argitaratutako iruzkin baten bidez (ikusgai dago oraindik ere) kontuaren larritasuna aitortzearekin batera, adierazten genuen bidegabea iruditzen zitzaigula gure udal taldearen euskarazko funtzionamendua bakarrik prentsa oharren hizkuntz tratamenduaren bidez epaitzea. Izan ere, gure udal taldea da euskarazko erabilera handiena (ahozkoa zein idatzia) egiten duena Gasteizko Udaletxean, bederatzi kideetik sei euskaldunak gara, bi ia-euskaldunak eta bat euskara ikasten ari da. Gure barne bizitza ia euskara hutsean burutzen dugu, eta udal egituretara bideratzen ditugun galdera, mozio, eskaera eta antzeko guztiak bi hizkuntzatan egiten ditugu, euskarari lehentasuna emanez (hau guztia oso erraz konprobatu daiteke udal erregistroetan). Horrekin batera, gure karteleria osoa elebidunez doa, euskarari beti lehentasuna emanda. Eta ahozko erabilerari dagokionez, gaitasun nahikoa daukaten zinegotziek (seietatik lauk) beti lehenesten dute euskarazko erabilera. Hau guztia esanda, erraz konprobatu dezakezue salatutako akatsa konpondu egin dugula, horretarako nahikoa daukazue gure web gunera jotzea eta gure web-gunearen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak (<a href="http://gasteiz.ehbildu.net/">http://gasteiz.ehbildu.net/</a> eta <a href="http://gasteiz.ehbildu.net/es/">http://gasteiz.ehbildu.net/es/</a>) partekatzea, ikusteko akats hori konponduta daukagula azarotik.</i>	
Dosierra:	822-2013	IEH
Erakundea:	FRONT DE GAUCHE	
Arrazoia:	FRONT DE GAUCHE alderdiak maiatzaren 5ean ibilaldi bat antolatu du Parisen, <i>Contre l'austérité et la finance grande marche citoyenne pour une VIème République</i> lemapean. Esku orria banatu zitzaidan Baionan, eta frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	254-2013	EAE
Erakundea:	GRUPO INDEPENDIENTE DE PLENTZIA	
Arrazoia:	Plentziako Grupo Independientek tokiko aurrekontuei buruzko 4 orriko aldizkaria banatu zuen apirilaren hasieran herriko etxe guztietan. Aldizkaria gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Dosierra:	848-2013	
Erakundea:	LUTTE OUVRIERE	IEH
Arrazoia:	Uztailaren 16an, Donibane Lohitzuneko merkatu inguruan esku-orriak banatu zituen LUTTE OUVRIERE alderdiak. Frantses hutsean jaso nuen esku-orria. Bertan, <i>Chômage, retraites, salaires: la seule force capable de s'opposer au patronat et au gouvernement, c'est la force collective des travailleurs</i> zioen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	771-2013	
Erakundea:	PP	EAE
Arrazoia:	Gasteizko PP alderdiak hedabideei zuzendutako idazki guztiak gaztelaniz daude. Ez dute sekula euskara erabiltzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	772-2013	
Erakundea:	PSE-EE	EAE
Arrazoia:	Gasteizko PSE-EE alderdiak hedabideei zuzendutako idazki guztiak gaztelaniaz daude. Ez dute sekula euskara erabiltzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	831-2013	
Erakundea:	PSF	IEH
Arrazoia:	Donibane Lohitzuneko hautetsi sozialisten maiatzeko gutuna jaso dut etxera, posta ontzian. 14. Zenbakia duen gutun hori frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	216-2013	
Erakundea:	UPyD	EAE
Arrazoia:	Gipuzkoako Foru Aldundiak lehiaketa publikoetarako ezarritako euskara-eskakizunak ikertzeko eskatu dio UPyDk Europako Batzordeari.	
Erantzuna:		



## SINDIKATUAK

Dosierra:	350-2013	
Erakundea:	CC.OO.SINDIKATA	EAE
Arrazoia:	Gaur Irungo tren geltokian <i>Por un ferrocarril público de todos/as los ciudadanos/as</i> izenburua duen eta CC.OOk sinatzen duen esku-orria banatu digu langile batek. Orria erdara hutsean dago. Ez da lehenbiziko aldia. Greba egin behar dutela adierazteko edota bestelako borroka eta arazoei buruz informatzeko, beti erdaraz egiten dute.	
Erantzuna:		
Dosierra:	947-2013	
Erakundea:	CGT SINDIKATA	EAE
Arrazoia:	Gaur Irungo tren geltokian <i>Por un ferrocarril público, social y sostenible</i> izenburua duen eta CGTk sinatzen duen esku-orria banatu digu langile batek. Orria erdara hutsean dago. Ez da lehenbiziko aldia. Greba egin behar dutela adierazteko edota bestelako borroka eta arazoei buruz informatzeko, beti erdaraz egiten dute.	
Erantzuna:		
Dosierra:	81-2013	
Erakundea:	ELA SINDIKATA	NAF
Arrazoia:	Joan den urtarrilaren 18an ELA eta LAB sindikatuek manifestazioa antolatu zuten Altsasun Sunsundegi lantegiaren alde. Manifestazio amaierako adierazpen guztiak gaztelania hutsean egin ziren. <i>Sakanan lan Sakanan bizi</i> leloa izan zen euskaraz entzun zen gauza bakarra.	
Erantzuna:	LABeko SAKANA-LARRAUN-LEITZALDEKO IDAZKARIA: <i>Kexaren inguruan pare bat zehaztapen egin nahi ditugu: Manifestazioa ez zuten ELA eta LAB sindikatuek deitu, Sunsundegiko enpresa komiteak baizik (UGT, ELA eta LABeko ordezkariak osatzen dute). 3 pertsonak hartu zuten hitza eta ezinezkoa izan zen ele bietan egitea hiru ordezkarietatik bakarrik ere ez zuelako euskaraz egiteko gaitasunik ( bi erdaldunak ziren eta, hirugarrena, euskara ikasten ari den arren ez zen ausartu euskaraz egitera). LABek berez interbentzioa ele bietan prestatu zuen baina erdaraz bakarrik irakurri zuen. LABek ele bietan prestatzen ditu idatzi guztiak gero prentsara bidali edo sindikatuaren webgunean zintzilikatzeko. Hori argituta, eta gaiak guretzat duen garrantzia kontuan izanik , sindikatuaren euskara arduradunari pasako diogu salaketa, euskara planaren jarraipena egin dezan eta behar diren neurriak har ditzan. Bestetik, Sunsundegiko ordezkariak sindikalari salaketaren berri emango zaio. Horrekin batera, hemendik aurrera komunikatua irakurtzen duena euskalduna izan dadin saiatuko gara, naiz eta langileen ordezkaria ez izan. Bukatzeko esan nahi dugu, LAB sindikatuak deitutako mobilizazioa izan balitz euskararen presentzia bermatuta egongo zela, langileen aldetik ezingo balitz egituratik.</i>	
Dosierra:	155-2013	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	NAF
Arrazoia:	2013ko urtarrileko Nafarroako LABen INFOADM - Administrazio Publikoetako informazio buletinean gaztelania zen nagusi. Portadan soilik buletinaren titulua azaltzen zen euskaraz; 7 orrialdeetatik 2 besterik ez zeuden euskaraz. 2012ko abendukoan berdin gertatu zen. Esteka: <a href="http://lab-larrialdiak.blogspot.com.es/p/info-lab.html">http://lab-larrialdiak.blogspot.com.es/p/info-lab.html</a>	
Erantzuna:		

---

Dosierra:	460-2013	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	EAE
Arrazoia:	LAB sindikatuak gaztelania hutsean helarazi du Berria egunkarira prentsa-oharra. Beste bat, ez da lehena	
Erantzuna:		

---

Dosierra:	685-2013	
Erakundea:	LAB SINDIKATUA	EAE
Arrazoia:	LABeko prentsa bulegotik gaztelania hutsean bidali dute Berria egunkariaren Bizkaiko ordezkariak Ambulancias Bizkaia. Nota de prensa mezu elektronikoa zein prentsa oharra bera.	
Erantzuna:		

---

## BESTELAKO ERAGILEAK

Dosierra:	847-2013	
Erakundea:	AMICALE PORTE D ESPAGNE	IEH
Arrazoia:	Martxo eta urriaren bitartean Baionako Pasteur plazan MONTMARTRE MERKATUA antolatzen da. Merkatuaren data iragartzen dituen esku-orria frantses hutsean jaso nuen	
Erantzuna:		
Dosierra:	641-2013	
Erakundea:	ARBASO Euskal Herriko Artisautza Tradizionala Sustatzeko Elkartea	EAE
Arrazoia:	Urriaren 14an ARBASO Elkartera, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala Sustatzeko Elkartera, deitu nuen. Lehenengo deia 10:30 aldera egin nuen eta telefonoa hartu zuen emakumezkoak <i>buenos días</i> batez erantzun zidan. Harrituta, <i>egun on</i> erantzun eta euskaraz, deiaren arrazoia azaltzen hasi nintzen, baina telefonoz beste aldean zegoen pertsonak zera erantzun zidan: <i>Cambia de idioma que no te pillo / entiendo</i> . Hasierako harridura areagotu zen holako elkarte batean telefonoa hartzen duenarekin euskaraz ezin nintzela aritu ikustean. Nire asmoa, elkarteko lehendakariarekin berba egitea zenez, gaztelaniaz galdetu behar izan nion ea lehendakariarekin hitz egin ahal nuen. Beranduago deitzeko esan zidan eta hala egin nuen. Eta, berriro, kontu berberarekin egin nuen topo: elkarteko lehendakariarekin ere ezin euskaraz egin. Jazoera honen aurrean nire haserrea eta etsipena agertu nahi dut.	
Erantzuna:		
Dosierra:	914-2013	
Erakundea:	BETHI GAZTE	IEH
Arrazoia:	2013ko abenduaren 21ean BETHI GAZTE elkarteak jostailu azoka bat antolatu zuen Ziburuko frontoian. Afitxa frantses hutsean zen	
Erantzuna:		
Dosierra:	593-2013	
Erakundea:	BIZI	IEH
Arrazoia:	Urriaren 6an Baionan iragan den Alternatiba egunean, ostatuan euskaraz galdetzean zerbitzariak jarrera mespretxagarri izan zuen nerekin. Lehenik euskaraz galdetu nuenean eta begiak zabal zabalik begiratu ninduen. Bigarrenik euskaraz errepikatu nuen " <i>3 garagardo eta koka 1</i> " eskuekin zenbakiak eta garagardoa ateratzeko keinua erakutsiz. Zerbitzariak erantzun dit ez zuela fitxik ulertu eta espainolez hitz egiteko. Ondorioz, Frantsesez galdetzera behartua izan nintzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	249-2013	
Erakundea:	BIZKAIKO TXAKUR ELKARTEA	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Txakur Elkarteak gaztelania hutsean argitaratu zituen apirilaren 14an Durangon, Landako Erakustazokan egin zen nazioarteko txakur-erakusketa iragartzeko kartelak.	
Erantzuna:		

Dosierra:	27-2013	
Erakundea:	CLUB DE MARKETING DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	Club de Marketing de Navarra delakoak bazkideoi bidalitako gutuna eta ohar informatiboa ez dago euskaraz idatzia; gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	20-2013	
Erakundea:	CONFEDERACION DE EMPRESARIOS DE NAVARRA - CEN	NAF
Arrazoia:	CEN erakundeak "Convenio intersectorial autonómico 2012" jardueraren barnean antolatutako ikastaro guztiak gaztelaniaz izanen dira. Gainera, hauek iragartzeko urtarrilean zabaldutako esku-orriak ere gaztelania hutsean zeuden. Publizitatean azaldu bezala, ikastaro hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntza jaso dute.	
Erantzuna:		
Dosierra:	141-2013	
Erakundea:	CONFEDERACION DE EMPRESARIOS DE NAVARRA - CEN	NAF
Arrazoia:	CENek, CONFEDERACIÓN DE EMPRESARIOS DE NAVARRA, otsailerako Convenio intersectorial autonómico 2012 jardueraren barruan antolatutako ikastaroa <i>Redes sociales en la empresa y reputación online</i> gaztelaniaz izanen da. Gainera, hau iragartzeko urtarrilean zabaldutako esku-orriak ere gaztelania hutsean zeuden. Publizitatean azaldu bezala, ikastaro hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntza jaso zuten.	
Erantzuna:		
Dosierra:	238-2013	
Erakundea:	CPAEN-NNPEK	NAF
Arrazoia:	CPAEN, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak " <i>Semana ecológica en Navarra</i> " izeneko jardura antolatu du. Programazioaren berri ematen duen liburuxkak leloa besterik ez dakar elebiz: " <i>Disfruta con el mundo BIO munduarekin gozatu</i> ". Gainontzeko guztia, agenda eta egunez eguneko egitaraua gaztelania hutsean ageri da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	239-2013	
Erakundea:	CPAEN-NNPEK	NAF
Arrazoia:	CPAEN NNPEK-en (Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua) web orria gaztelania hutsean dago	
Erantzuna:		
Dosierra:	666-2013	
Erakundea:	EUSKADIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEAK	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Odol Emaileen Elkartek Facebook sare sozialean duen orrialdean euskaldunok eta euskara bigarren mailara baztertzen gaituzte. Orrialdearen izena erdara hutsean dago: " <i>Asociación de donantes desangre de Euskadi</i> "; orriaren helbidea erdaraz ageri da: <a href="https://www.facebook.com/AsociacionDeDonantesDeSangreDeEuskadi">https://www.facebook.com/AsociacionDeDonantesDeSangreDeEuskadi</a> ; eta aurkezpena ere erdara hutsean dago, <i>Requisitos</i> eta <i>Antes de donar</i> atalak bezalaxe. Gainera, Facebookeko horman euskaraz argitaratzen dituzten esaldi solteek akatsak izan ohi dituzte.	
Erantzuna:		

Dosierra:	667-2013	
Erakundea:	EUSKADIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEAK	EAE
Arrazoia:	Euskadiko Odol Emaileak antolakundeak Twitter kontua <a href="https://twitter.com/Donantes2punto0">https://twitter.com/Donantes2punto0</a> erdara hutsean darabil; 'bio'delakoa zein txio guztiak erdara hutsean ageri dira. Gainera, ezkerretara erdara hutsean ageri da <i>"Donar sangre es regalar vida"</i> leloa.	
Erantzuna:		
Dosierra:	809-2013	
Erakundea:	EUSKAL HERRIA MAROCCO ELKARTEA	IEH
Arrazoia:	Autoko kristalaren gainean, Euskal Herria Marocco elkarteak antolatzen duen azokaren triptikoa atxeman dut eta frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	491-2013	
Erakundea:	FUNDACIÓ INTERNACIONAL JOSEP CARRERAS	EAE
Arrazoia:	Josep Carreras fundazioak Euskal Herriko prentsan ipinitako iragarkiak gaztelania hutsean egon ohi dira. Adibidez, irailaren 2ko Correon agertu zena: <i>"25 años luchando contra la leucemia"</i> .	
Erantzuna:		
Dosierra:	121-2013	
Erakundea:	IRACHE ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	IRATXE - Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak Agoizko Udaletxean otsailean jarritako kartela gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	651-2013	
Erakundea:	ONCE Nafarroako Herrialde Ordezkaritza	NAF
Arrazoia:	ONCEk azaroaren 11ko zozketa iragartzeko ateratako esku-orria, <i>"11/11 de la ONCE"</i> , ezin izan nuen euskaraz jaso Iruñeko Gazteluko Plazako kioskoan.	
Erantzuna:	ONCE, Nafarroako Herrialde Ordezkaritzako zuzendariondoko teknikoa: <i>"Jakinarazten dizugu gure zozketa eta ekitaldi berezi guztietan publizitatea hizkuntza ofizial guztietan argitaratzen dela eta Nafarroako Foru Erkidegoko saltzaileei gaztelaniazko eta euskarazko aleak banatzen zaizkiela. Gazteluko plazan 3 saltoki egonik ez dakigu zuen idazkian aipaturako kioskoa zein den, baina suposatzea da euskarazko aleak bukatu zirelako ezin izan zitzaiola gure bezeroari euskarazko publizitatea eskaini. Eragozpenak jasan dituen herritarrari gure barkamen eskaera igortzeko eskatzen dizugu."</i>	

MERKATARITZA HANDIA

Dosierra:	457-2013	
Erakundea:	AKI	EAE
Arrazoa:	Aurtengo maiatzean AKI kateak brikolaje-denda handia zabaldu du Durangon. Hizkuntza-paisaian euskara eta euskaldunok ez gaituzte kontuan hartzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	458-2013	
Erakundea:	AKI	EAE
Arrazoa:	AKI brikolaje-denda kateak erdara hutsean du webgunea.	
Erantzuna:		
Dosierra:	765-2013	
Erakundea:	AKI	EAE
Arrazoa:	Aki brikolaje dendek azaroaren 20tik abenduaren 21era bitarteko eskaintzak iragartzen dituen propaganda gaztelania hutsean banatu dute Durangoko postontzietan.	
Erantzuna:		
Dosierra:	158-2013	
Erakundea:	ALCAMPO	EAE
Arrazoa:	ALCAMPOtik otsailean bidali zidaten gutun pertsonalizatua, baita txartela ere, gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		
Dosierra:	237-2013	
Erakundea:	APPLE ESPAÑA	NAF
Arrazoa:	Euskara ez da Apple-n sistemako hizkuntza. Euskaldunok bestelako hizkuntzetara jo behar dugu sistema erabiltzeko.	
Erantzuna:		
Dosierra:	760-2013	
Erakundea:	BRICO CENTRO	EAE
Arrazoa:	Berrizko Brico Centro brikolaje etxeak gaztelania hutsean zabaldu du Eguberrietako propaganda Durangaldeko etxeetako postontzietan.	
Erantzuna:	BRICO CENTRO: <i>"Gure saltokian bezeroari arreta, telefono bidezkoa eta agiriak (albaranak eta fakturak) elebizi egiten dira, baita gure dendako kartelak ere. Egunkari zein irratitan euskarazko publizitatea egiten dugu. Arazoa, une honetan konpontzeko zaila duguna gainera, Bricocentroko eskaintzen liburuxka da. Galizan eta hemen arazo berbera dugu; alegia, oso zaila zaigula liburuxka horiek elebizi egitea duten kostuagatik. Gure egungo egoera ekonomikoa dela eta, ezin dugu horrelakorik egin, nahiz eta gure gogoan den gure bezeroekin elebizi gritea"</i>	
Dosierra:	672-2013	
Erakundea:	BRICO DEPÔT	NAF
Arrazoa:	Urriaren 26an Brico Depôt-en Berriozarko saltokian izan naiz. Bertan jaso dudana ordainagiria ez dago euskaraz idatzia; gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		

Dosierra:	601-203	
Erakundea:	BRICOMARCHÉ	IEH
Arrazoia:	Apirilaren 26an Senpereko BRICOMARCHEk antolatu gaualdi berezia iragartzeko jakinarazpena frantses hutsean jaso dut "Nocturne de 18h à 21h" iragartzen du.	
Erantzuna:		
Dosierra:	867-2013	
Erakundea:	BRICOMARCHÉ	IEH
Arrazoia:	BRICOMARCHE saltegietan, uztailearen 31tik abuztuaren 11a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Pouvoir tout faire moins cher, 1 tête, 2 mains, 1000 projets" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	864-2013	
Erakundea:	BUT	IEH
Arrazoia:	BUT saltegietan, abuztuaren 26a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Les super bonus de la rentrée" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	205-2013	
Erakundea:	CALVIN KLEIN	EAE
Arrazoia:	Urbil merkataritza guneko CALVIN KLEIN saltokiak neguko merkealdien azken txanpa iragartzeko jarritako kartelak ez zeuden euskaraz, honela zioten: "Liquidación total/ Ultimo día 25 de febrero".	
Erantzuna:		
Dosierra:	135-2013	
Erakundea:	CAPRABO	NAF
Arrazoia:	CAPRABOk publizitatea aurkitu dut gaur, otsailak 3, nire etxeko buzoian. Gaztelania hutsean zegoen. Gaia: Disfruta en Caprabo de las frutas y hortalizas de calidad Eroski NATUR.	
Erantzuna:		
Dosierra:	136-2013	
Erakundea:	CAPRABO	NAF
Arrazoia:	Otsailaren lehen egunetan, CAPRABOk luzatutako inkesta (Escuchamos su opinión) gaztelania hutsean aurkitu nuen. Ez zegoen euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	137-2013	
Erakundea:	CAPRABO	NAF
Arrazoia:	Otsailaren lehen egunetan, CAPRABOn aurkitutako esku-orria (Este folleto no contiene gluten) gaztelania hutsean aurkitu nuen. Ez zegoen euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		

Dosierra:	559-2013	
Erakundea:	CAPRABO	NAF
Arrazoia:	Barañaingo (Nafarroa) herritarra naiz eta CAPRABOk urtebetetze eguna zoriontzeko igorri didan opari-gutuna ez dago euskaraz idatzia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	518-2013	
Erakundea:	CARREFOUR	EAE
Arrazoia:	Carrefourrek Gorbeia merkataritza gunean duen saltokian haiek emandako kutxa zenbakira joan behar da ordainketa egitera. Kutxen zenbakiak ez dituzte euskaraz esaten, erdara hutsean baizik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	825-2013	
Erakundea:	CARREFOUR	IEH
Arrazoia:	CARREFOUR saltegietan, maiatzaren 28tik ekainaren 3ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Donibane Lohizunen, etxeko posta ontzian. Bertan "Les 15 jours hallucinants Carrefour!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	826-2013	
Erakundea:	CARREFOUR	IEH
Arrazoia:	CARREFOUR saltegietan, maiatzaren 28tik ekainaren 11ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Week end d'été à prix décontractés!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	863-2013	
Erakundea:	CARREFOUR	IEH
Arrazoia:	CARREFOUR saltegietan, uztailaren 24tik abuztuaren 3a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Les	
Erantzuna:	<p><i>CARREFOUR: Zure eskaria guztiz ulertzen dut baina ezin diot baikorki erantzun. Alde batetik, euskarriak gure Errepublika batuaren hizkuntza ofizialean argitaratzen dira, hau da, frantsesez. Eskualdeko hizkuntzak laguntzea eta babestea logikoa baldin bada ere, frantsesa da gure bezeroen gehiengoak ulertzen duen hizkuntza. Bestalde, arrazoi ekonomikoak direla eta, CARREFOUR-ek katalogo bakarra argitaratzen du nazio mailan. Hortaz, ez daiteke gaur egun argitalpen elebiduna galdegin. Haatik, segurtatzen dizut gaur egunetik goiti, indar bat eginen dugula seinaletika elebiduntzeko ( ordutegiak, oharrak, aparkalekua).</i></p>	
Dosierra:	407-2013	
Erakundea:	COCA COLA	EAE
Arrazoia:	COCA COLAk Galdakaon daukan ontziratze-lantegiko sarbidean berdin berdinak diren bi seinale daude sarrera galarazteko. Erdara hutsean dute testua: "Excepto vehículos autorizados".	
Erantzuna:		



Dosierra:	830-2013	
Erakundea:	CONFORAMA	IEH
Arrazoia:	CONFORAMA saltegietan, maiatzaren ekainaren 9a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Jusqu'au 9 juin liquidation avant travaux jusqu'à épuisement des stocks" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	528-2013	
Erakundea:	DECATHLON	EAE
Arrazoia:	Decathlon-en Irungo saltokian bezeroari informazioa emateko kartelak ez daude euskaraz idatziak, soilik gaztelaniaz daude: "CALZADO", "ROPA HOMBRE", "MUJER", "NATAACION".	
Erantzuna:		
Dosierra:	691-2013	
Erakundea:	DECATHLON	EAE
Arrazoia:	Usurbilgo Urbil merkataritza guneko Decathlonek gaztelania hutsean du aukerako kirol materialaren azoka iragartzeko kartela. Honela dio: DECATHLON. Feria del material deportivo de ocasión. Depósito 18 oct - 31 octubre. Venta: 19 oct - 2 nov. Renueva tus ganas de hacer deporte. Mas información en: trocathlon.decathlon.es.	
Erantzuna:		
Dosierra:	207-2013	
Erakundea:	DOUGLAS	EAE
Arrazoia:	Urbil merkataritza-guneko DOUGLAS saltokiak hileko eskaintzen berri emateko jarritako kartela ez zegoen euskaraz, honela zioen: "Oferta del mes".	
Erantzuna:		
Dosierra:	265-2013	
Erakundea:	EL CORTE INGLÉS	NAF
Arrazoia:	Iruñeko EL CORTE INGLES-ek gutuna bidali dit apirilean urtebetetzea zoriontzeko. Bada gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		

Dosierra:	626-2013	
Erakundea:	EL CORTE INGLÉS	EAE
Arrazoa:	Bilboko Kale Nagusian Corte Inglesen iragarki bat ikusi daiteke, gaztelaniaz eta ingelesez dagoena, baina euskararik batere agertzen ez duena. Honela dio: "Tus mejores compras ! Your best shopping!".	
Erantzuna:	LEGEZKO ORDEZKARIA: <i>Zure kexan aipatzen duzuna gure saltegien kanpoaldean Publizitate eta Marketing Agentzia ezagun batekin estatu mailan egin dugun kanpaina da. Horrek ez du esan nahi establezimendu honek Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa ez duenik ezagutzen, une oro baitakigu bertan bi hizkuntza ofizial daudela eta eguneroko eta etengabeko ahalegina egiten baitugu zentzu horretan, gure bezeroei zerbitzurik onena eta asebetetze-mailarik handiena eskaintzeko. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun establezimenduetako edozeinetara joatea besterik ez dago, kartelak, salerosketa kontratuak, taloiak eta ordainagiriak, megafonia eta abarrekoak bi hizkuntza ofizialetan daudela ikusteko. Establezimendu honek indarrean dagoen legediari jarraikiz lan egiten du, zehatz esanda, 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuarena, eta 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa. Hala eta guztiz ere, Publizitate Sailari eta hura garatzen duen agentziari jakinarazi diegu intzidentzia.</i>	
Dosierra:	35-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Bilboko herritarrak, Eroski euskara gehien erabiltzen duen enpresetako bat dela aitortu arren, gora-beherak izaten dituela salatu nahi du. Kasu zehatz honetan, urtarrilaren 10ean posta elektronikoaren bidez bidalitako "2013 honetan berritasunez kargatuta iristen da" iragarkia mota askotako akatsez beteta dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	82-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Garbera merkataritza guneko EROSKI hipermerkatuan megafonia bidezko mezuak espainol hutsean ematen dituzte.	
Erantzuna:		
Dosierra:	134-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Gaur, otsailak 1, Eroskiko Inbertitzaileen Klubeko kide izateagatik deskontu-taloitegia jaso dut, erdara hutsean, joan den azaroan bezalaxe.	
Erantzuna:		
Dosierra:	152-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoa:	Donostiako herritarra naiz eta Lasarteko EROSKI CENTERek etxera bidalitako "Navidad genEROSKI" publizitatea jaso dut, gaztelania hutsean. Helbidea ere gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Dosierra:	154-2013	EAE
Erakundea:	EROSKI	
Arrazoia:	Donostiako herritarra naiz eta Lasarteko EROSKI CENTER-etik etxera bidalitako gutunak ez du GIPIZKOA izen ofiziala errespetatzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	553-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Duela aste bat Eroski hipermerkatuak Zarautzen duen saltokian izan nintzen. Erosketak egin eta presaka nintzenez ordainketa automatikoa egiten den makineta batera joan nintzen. Aurretik zegoen bezeroari prezioak gaztelaraz esaten entzun nuen makina, eta han zegoen langileari galdetu nion euskaraz egiten zuenik ba ote zegoen. Ezetx erantzun zidan, beste hizkuntza batzuetan baietz, ingelesez eta abar bai, baina euskaraz ez.	
Erantzuna:		
Dosierra:	585-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Etxebarriko Eroski City supermerkatuan hainbat kartel erdara hutsean daude; adibidez, erreklamazio-orriak badituztela dioena eta "Reservado el derecho de admisión" izenburua duena.	
Erantzuna:		
Dosierra:	759-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Eroskik saldu eta harendako espresuki botilaratuta dagoen Bustinza ardoaren etiketak gaztelania hutsean ageri dira.	
Erantzuna:		
Dosierra:	763-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Eroskik merkaturatzen duen Belle xanpu markako produktueta euskarak ez du batere tokirik. Dena gaztelaniaz ageri da. Azken urteetan Eroski atzerantzko urratsak egin ari dela dirudi.	
Erantzuna:		
Dosierra:	958-2013	
Erakundea:	EROSKI	NAF
Arrazoia:	Abenduaren 11n Eroskiren webgunera jo dut saltoki bati buruzko informazio eske. Gaztelaniazko bertsioan zabaldu zait orria, baina kontsulta euskarazko bertsioaren bidez egiten saiatu naiz. Ezin izan dut, ordea, euskarazko bertsioa ez dagoelako eskuragarri. Ondoko oharra ageri da hizkuntzaz aldatzen saiatzerakoan: "Estamos trabajando para ofrecerte lo antes posible las versiones en catalán, euskera y gallego. Disculpa las molestias."	
Erantzuna:		

Dosierra:	1038-2013	
Erakundea:	EROSKI	EAE
Arrazoia:	Grupo Eroskirentzat ontziratzen den LANISOL ekilore-olioaren etiketetan ez da euskararik batere ageri. Gaztelania hutsean idatzita dago informazio guztia.	
Erantzuna:	ELIKADURA-EZ ELIKADURA EROSKI BEREZKO MARKAKO KALITATE-ARDURADUNA: <i>Gutuna kontuan izango dugu aurrerantzean hobetzeko. Dena den, arrazoitu nahi dizugu "Lanisol" olio zergatik ez dugun etiketatzen euskaraz. Jakien etiketei buruzko legedia kontuan izanda, ez gaude behartuta gure produktu guztiak Estatuko hizkuntza ofizial guztietan etiketatzen. RD1334/1999 18. artikulua dio: "Las indicaciones obligatorias del etiquetado de los productos alimenticios que se comercialicen en España se expresarán, al menos, en la lengua española del Estado. Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación a los productos tradicionales elaborados y distribuidos exclusivamente en el ámbito de una comunidad autónoma con lengua oficial propia". "Lanisol" produktu hori Eroskik Estatu osoan merkaturatzen du. Egia esan, Eroskiren barne hizkuntza-politikaren barruan, Eroski markako produktuak Estatuko lau hizkuntza ofizialetan etiketatzeko konpromisoa dauka, beti ere, etiketan dagoen tokia, jarri behar den informazioa eta abar eta hura garatzen duen agentziari jakinarazi diegu intzidentzia. onsumitzaileari hautua errazte aldera ematen zaion informazioa argia eta irakurgarria izatea baita. "Lanisol" markako produktu hau, ez da Eroski markakoa, "Olilan" enpresak Eroskirentzat ontziratutako produktu bat baizik. Hori horrela, gure barne hizkuntza-politikako konpromisoa betetzen dugula uste dugu.</i>	
Dosierra:	943-2013	
Erakundea:	EROSKI BIDAIK	EAE
Arrazoia:	Bidaia erosi dugu EROSKI BIDAIK-en Ordiziako agentzian, eta gaztelania hutsean luzatu dizkigute bidaiaren faktura eta hari buruzko informazioa dakarren karpeta txoa.	
Erantzuna:		
Dosierra:	153-2013	EAE
Erakundea:	FAGOR ETXETRESNA ELEKTRONIKOAK KOOP. ELK.	
Arrazoia:	Fagor Etxetresna Elektronikoak, Kooperatiba Elkartek 2012ko urriaren 11n bidali zidan gutuna gaztelania hutsean zegoen, baita nire helbidea ere.	
Erantzuna:		
Dosierra:	156-2013	
Erakundea:	FAGOR ETXETRESNA ELEKTRONIKOAK KOOP. ELK.	EAE
Arrazoia:	FAGORrek otsailean etxera bidalitako gutun-azaleko helbidea gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	157-2013	
Erakundea:	FAGOR ETXETRESNA ELEKTRONIKOAK KOOP. ELK.	EAE
Arrazoia:	FAGOR Etxetresna Elektronikoak, Kooperatiba Elkartek otsailean etxera bidalitako gutun-azaleko helbideak ez zuen GIPUZKOA izendapen ofiziala errespetatzen, Guipúzcoa idatzita baitzegoen.	
Erantzuna:		

Dosierra:	620-2013	
Erakundea:	FNAC	EAE
Arrazoia:	Donostiako FNACek hilabeteko agendaren berri emateko kaleratzen duen esku-orrian informazio gehiena ez dator euskaraz, %96a gaztelania hutsean izaten da beti.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1058-2013	
Erakundea:	FNAC	EAE
Arrazoia:	Donostiako Fnac-ek urrirako egitaraua hartu nuen eta gaztelania hutsean baino ez zegoela ohartu nintzen (euskaraz lau hitz baino ez). Ez zegoen euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	34-2013	
Erakundea:	FORUM SPORT	EAE
Arrazoia:	Beste batzuetan salatu izan dudan moduan, urtarrilaren 11n FORUM SPORT etxeak bidalitako sms-mezua gaztelania hutsean zegoen. Gaia: "Rebajas! Vale 10 € DE DTO HASTA 27/01/13".	
Erantzuna:		
Dosierra:	391-2013	
Erakundea:	FORUM SPORT	EAE
Arrazoia:	Forum Sportetik erdara hutsean bidali didate sms mezua. Honela dio: "VALE 15€ DTO HASTA 23/06/13. Acumulable a otros dtos. Compra min 70 €. Con SMS y tarjeta FSClub. Cod Tienda Online:".	
Erantzuna:		
Dosierra:	429-2013	
Erakundea:	FORUM SPORT	EAE
Arrazoia:	Forum Sportek ezabatu egin du euskara bere publizitatetik; ikusi ahal izateko bila ibili behar da. Publizitatea euskaraz ikusi nahi nuela eta bestela baja emateko esanez idatzi nien. Euren datu-basetik kenduko nautela esanez erantzun didate.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1035-2013	
Erakundea:	FORUM SPORT	EAE
Arrazoia:	Forum Sportetik sms mezua bidali didate erdara hutsean. Honela dio: "Aprovecha en Forum Sport las mejores promociones para regalar deporte esta Navidad. Hasta 24/12/13. Eguberri on, Feliz Navidad".	
Erantzuna:	FORUM SPORT S.A.: <i>Lehenik adierazi nahi dizugu, FORUM SPORT S.A. Eroski taldeko sozietatea dela, eta talde osoaren komunikazio politika oso argia dela: horretarako aukera eskaintzen duen komunikazio guztia (saltokian bertako komunikazioa, edo bazkideek e-mail, gutun, esku-orri, eta abarren bidez jasotzen duten komunikazio oro) euskaraz eta gaztelaniaz egiten da, hurrenkera horretan. Sms bidezko komunikazioan ematen da salbuespena, espazioa 160 karakterera mugatuta egoteak ez baitu ahalbidetzen komunikazioa ele bietan egin ahal izatea. Hala eta guztiz ere, erreklamazioa egin duen bazkidearen datuak eskuratuko bazenizkigute, eta berak baimenduz gero, sms mezuak bidaltzeko erabiltzen dugun datu-basetik ezabatuko genuke idatziz jasoko duen informazio guztia ele bietan jasoko duela ziurtatzeko.</i>	

Dosierra:	997-2013	
Erakundea:	GARBERA MERKATARITZA GUNEA	EAE
Arrazoia:	Garbera merkataritza gunean izan nintzen joan den asteburuan. Komunean zegoen kartel batek eradra hutsean zioen: "El agua justa. Nuestras cisternas no derraman ni una gota de más. Garbera".	
Erantzuna:	MARKETING ARDURADUNA: <i>Garberak badu konpromisoa euskararekiko eta gure komunikazio guztia elebitan egiten dugu. Hona zenbait argazki hori frogatzeko.</i>	
Dosierra:	827-2013	
Erakundea:	GÉANT CASINO	IEH
Arrazoia:	GEANT CASINO saltegietan, maiatzaren 29tik ekainaren 9ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "2 achetés 2 gratuit" iragartzen zuen.	
Erantzuna:	GÉANT CASINO: <i>Kexaren berri jaso dugu eta zehaztu behar dizut, frantses legearen arabera, euskarrietan frantsesaren erabilera derrigorrezkoa dela. Legeak dio eskualdeko hizkuntzen erabilera hautazkoa dela. Gure euskarriak nazio mailan banatzen direnez ez dugu tokiko hizkuntzan itzulpenik egiteko gaitasunik.</i>	
Dosierra:	266-2013	
Erakundea:	GENERAL OPTICA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko GENERAL OPTICAK Agoizko bezeroari apirilean etxera bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen. Gaia: Esta primavera verás MÁSxMENOS de lo que imaginas.	
Erantzuna:		
Dosierra:	824-2013	
Erakundea:	GIFI	IEH
Arrazoia:	GIFI saltegietan, maiatzaren 28tik ekainaren 5era bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut etxeko posta ontzian. Bertan "S'équiper à bon prix!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	862-2013	
Erakundea:	GIFI	IEH
Arrazoia:	GIFI saltegietan, uztailaren 23tik abuztuaren 3ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut etxeko posta ontzian. Bertan "De l'été à bon prix" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	834-2013	
Erakundea:	HYGENA	IEH
Arrazoia:	HYGENA saltegietan, maiatzaren 2tik ekainaren 8ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen , etxeko posta ontzian. Bertan "Le design à moitié prix, je dis oui!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	567-2013	
Erakundea:	IL CAPO	EAE
Arrazoia:	IL CAPO Jatetxearen publizitate-liburuxka aurkitu nuen ekainean etxeko postontzian. Liburuxka gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		

Dosierra:	832-2013	
Erakundea:	INTER SPORT	IEH
Arrazoia:	INTERSPORT saltegietan, maiatzaren 29tik ekainaren 22ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "L'été commence avec des polos puma et oxbow!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	835-2013	
Erakundea:	INTERMARCHÉ	IEH
Arrazoia:	INTERMARCHE saltegietan, ekainaren 18tik 30era bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Le combat des mousquetaires intermarché du 18 au 30 juin, vous faire économiser partout en France" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	294-2013	
Erakundea:	ITAROA MERKATARITZA GUNEA	NAF
Arrazoia:	Maiatzaren 5ean Uharteko ITAROA merkataritza gunean aurkitu nuen esku-orria, "MIERCOLES 2x1", gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	829-2013	
Erakundea:	LEADER PRICE	IEH
Arrazoia:	LEADER PRICE saltegietan, maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Le mois malin, semaine n°1" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	241-2013	
Erakundea:	LEROY MERLIN	EAE
Arrazoia:	Apirileko 2. astean etxeko postontzian LEROY MERLINen maiatzaren 27a bitarteko eskaintzen berri ematen duen publizitatea jaso dut Hondarribian. Azalean esaldiren bat euskaraz idatzia dagoen arren, barruan ez dakar ezer euskaraz. Eskualde osoan banatzen	
Erantzuna:		
Dosierra:	378-2013	
Erakundea:	LEROY MERLIN	EAE
Arrazoia:	Gipuzkoako Bidasoa eskualdean LEROY MERLINen apirilaren 26tik maiatzaren 27ra bitarteko eskaintzen berri ematen zuen publizitatea jaso genuen etxeko postontzietan. Azaleko izenburua, "Bainugelak eta sukaldeak" eta eskaintzaren iraupena kenduta, gainerako guzti-guztia ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		

Dosierra:	838-2013	
Erakundea:	LEROY MERLIN	IEH
Arrazoia:	LEROY MERLIN saltegietan, ekainaren 19tik abuztuaren 5era bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "On fait équipe tout l'été!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	766-2013	
Erakundea:	LIXONÉ S.L.	EAE
Arrazoia:	Adunako (Gizpuzkoa) Lixone etxeko produktuek lau hizkuntzatan (gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta portugesez) dituzte etiketak, baina euskararik ez da inon ageri.	
Erantzuna:		
Dosierra:	866-2013	
Erakundea:	MAÏSADOUR	IEH
Arrazoia:	MAISADOUR saltegietan, uztailaren 24tik abuztuaren 17a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "Fruits et légumes d'été conservez ce qu'il vous plaît" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	352-2013	
Erakundea:	MAKRO	EAE
Arrazoia:	Oiartzungo Makro merkataritza guneko errotulu garrantzitsuak erdara hutsean daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	353-2013	
Erakundea:	MAKRO	EAE
Arrazoia:	Oiartzungo Makro merkataritza gunean megafonia bidezko mezuak erdara hutsean ematen dituzte	
Erantzuna:		
Dosierra:	150-2013	
Erakundea:	MAX CENTER	EAE
Arrazoia:	Aurreko batzuetan salatu dudan moduan, MAX CENTERreko web gunea gaztelania hutsean dago otsailaren 15ean, ezin da euskaraz kontsultatu.	
Erantzuna:	MAX CENTER MERKATARITZA-GUNEKO ZUZENDARIA: <i>Egokitze prozesu baten ondoren , Max Center merkataritza-gunearen webguneak informazioa euskaraz eskuratzeko aukera eskaintzen du, zure iradokizunari esker.</i>	
Dosierra:	278-2013	
Erakundea:	MEDICAL OPTICA	EAE
Arrazoia:	MEDICAL OPTICAk erdara hutsean bidali dit honako mezua: Conviertete en modelo de Medical Optica. Casting hoy 19 de abril en C/ Landako Etorbidea s/n, Durango. (18 a 20h).+Info: <a href="http://www.medicaloptica.es/blog">www.medicaloptica.es/blog</a> o facebook	
Erantzuna:		



Dosierra:	408-2013	
Erakundea:	MEDICAL OPTICA	EAE
Arrazoia:	MEDICAL OPTICAK ¡El sol ya llegó! publizitate e-maila bidali dit. Erdara hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	828-2013	
Erakundea:	Mr. BRICOLAGE	IEH
Arrazoia:	Mr BRICOLAGE saltegietan, maiatzaren 29tik ekainaren 15era bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "u 22 mai au 15 juin vos produits préférés" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	348-2013	
Erakundea:	MUEBLES REY	NAF
Arrazoia:	Uztaileko hirugarren astean MUEBLES REYren publizitatea jaso dugu Barañainen etxeko postontzian, "¡Sonríe! Estamos de rebajas" izenekoa; kontrazalean Gipuzkoako eta Nafarroako 2 saltokien helbideak baino ageri ez diren arren, 16 orriko argitalpenean ez dago deus euskaraz idatzia. Gainera, ez dituzte Gipuzkoa, Irun eta Errenteria-ren izen ofizialak erresnetatu.	
Erantzuna:		
Dosierra:	980-2013	
Erakundea:	NESPRESSO	NAF
Arrazoia:	Nespresso enpresatik etxera bidaltzen dizkidaten gutunak zein publizitatea BETI gaztelania hutsean izaten da. Helbidea hein handi batean neuk jarri bezala errespetatzen dute, baina Iruñea ordez Pamplona jartzen dute.	
Erantzuna:		
Dosierra:	808-2013	
Erakundea:	NETTO	IEH
Arrazoia:	Netto saltegian, kutxazainak frantsesezko harrera egin dit.	
Erantzuna:		
Dosierra:	865-2013	
Erakundea:	NETTO	IEH
Arrazoia:	NETTO saltegietan, abuztuaren 6tik 18ra bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "La quinzaine- 50% sur le 2ème produit de remise immédiate" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1036-2013	
Erakundea:	PERFUMERIAS IF In Faradis	EAE
Arrazoia:	If lurrindenda batean eman didaten deskontu-txartela erdara hutsean dago, ez dauka informaziorik txikiena ere euskaraz. Honela dio: "Por compras superiores a 30 €, 5€ de regalo. Por compras superiores a 60 €. 10 € de regalo".	
Erantzuna:		

Dosierra:	206-2013	
Erakundea:	RAPA NUI	EAE
Arrazoia:	Urbil merkataritza-guneko RAPA NUI saltokiak zilarrezko salgaien beherapenak iragartzeko jarritako kartelak ez zeuden euskaraz, honela zioten: "Rebajas en artículos de plata 925".	
Erantzuna:		
Dosierra:	208-2013	
Erakundea:	SPRINGFIELD	EAE
Arrazoia:	Urbil merkataritza-guneko SPRINGFIELD saltokiak neguko merkealdien berri emateko jarritako kartelak ez zeuden euskaraz, honela zioten: "Final de existencias/Punto/Camisas".	
Erantzuna:		
Dosierra:	778-2013	
Erakundea:	SUPER BM	EAE
Arrazoia:	Urriaren 31n eguerdiko 12:00etan Super BMren Tolosako saltokiko okindegian ezin izan dut erosketa euskaraz burutu ez zegoelako saltzaile euskaldunik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	836-2013	
Erakundea:	TOYS 'R' US	IEH
Arrazoia:	TOYS 'R' US saltegitan, ekainaren 19tik uztailaren 7a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan "A nous les vacances!" iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1039-2013	
Erakundea:	UVESCO	EAE
Arrazoia:	Grupo UVESCOrentzat ontzirutzen den Mendioliva oliba-olioaren etiketetan ez da euskararik batere ageri. Gaztelania hutsean idatzita dago informazio guztia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	209-2013	
Erakundea:	WOMEN'S SECRET	EAE
Arrazoia:	Urbil merkataritza-guneko WOMEN'S SECRET saltokiak neguko merkealdietan erakuslehoan jarritako kartela ez zegoen euskaraz, honela zioen: "Entra y compra en www.womensecret.com".	
Erantzuna:		
Dosierra:	700-2013	
Erakundea:	ZARA	NAF
Arrazoia:	Urriaren erdialdean haurren arropa saltzen duten Iruñeko Zararen dendan izan nintzen. Luzatu zidaten ordainagirian ez da deus euskaraz idatzia; erosketari buruzko datuak gaztelaniaz daude eta atzealdeko ohar orokorra gaztelaniaz eta ingelesez.	
Erantzuna:		

## ELIKADURA

Dosierra:	761-2013	
Erakundea:	ALDANONDO KORPORAZIOA	EAE
Arrazoia:	Aldanondo Korporazioak Lidl etxearentzat espresuki egiten duen Ernio-Deluxe Idiazabal gaztaren etiketa gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	321-2013	
Erakundea:	ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.	EAE
Arrazoia:	ALZOLAK duela gutxi berritu ditu uraren etiketa eta irudia. Orain <i>Basque water</i> leloa gaineratu diote, baina hala ere azalpenak gaztelania hutsean daude. Izenak gainera ez du toponimo ofiziala errespetatzen (Altzola).	
Erantzuna:		
Dosierra:	322-2013	
Erakundea:	ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.	EAE
Arrazoia:	ALZOLA uraren webgunea <a href="http://www.alzola.es">www.alzola.es</a> gaztelania hutsean dago. Ez du informaziorik ematen euskaraz	
Erantzuna:		
Dosierra:	481-2013	
Erakundea:	ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.	EAE
Arrazoia:	Alzola etxeko ur-botilen etiketak berritu dituzte; " <i>basque water</i> " ageri da izenaren ondoan, baina ez dago hitz bat bera ere euskaraz. Horrez gain, ez dituzte " <i>Altzola</i> " eta " <i>Gipuzkoa</i> " izen ofizialak errespetatzen.	
Erantzuna:	ALZOLA: <i>Bidean goaz. Gonbidatzen zaituztegu bai Behatokia bai kexa jarri duen herritarra bertaratzera eta gure berri emango dizuegu. Herritarrekin komunikatzeko euskal kanalak ditugu eta bertan harremana euskaraz izan dezakete herritarrek.</i>	
Dosierra:	327-2013	
Erakundea:	AZKARREKOLA ARRAUTZAK	EAE
Arrazoia:	Elorrioko 'Azkarrekola' markako arrautzen ontzietan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	168-2013	
Erakundea:	BERTIZ okindegia	EAE
Arrazoia:	Bertiz okindegi frankiziaren Errekaldeko lokalean sartu nintzen ekaina bukaeran eta bertan dena elebidun ageri zen, euskaraz eta gaztelaniaz. Mahai gainean zegoen karta begiratu eta lerro guztietan akats ortografikoak ageri ziren, ordea.	
Erantzuna:		

Dosierra:	441-2013	
Erakundea:	CHOCOLATES SUBIZA	NAF
Arrazoa:	Chocolates Subiza etxeak ekoiztutako "Roncesvalles" markako txokolate tableten bilgarriak erdara hutsean daude. Guztia ageri da gaztelaniaz, baina osagaien berri, gaztelaniaz ez ezik frantsesez eta ingelesez ere ematen dute; euskaraz, ordea, ez da hitz erdirik ageri, ezta Iruñearen euskarazko izen ofiziala ere.	
Erantzuna:		
Dosierra:	187-2013	
Erakundea:	GOSHUA - PRODUCTOS LÁCTEOS SARALEGUI S.L	NAF
Arrazoa:	GOSHUA etxeko natilen etiketan ez da hitz bat bera ere euskaraz.	
Erantzuna:		
Dosierra:	188-2013	
Erakundea:	GOSHUA - PRODUCTOS LÁCTEOS SARALEGUI S.L	NAF
Arrazoa:	GOSHUA etxeko natilen etiketan ez da Iraizotz herriko izendapen ofiziala errespetatzen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	486-2013	
Erakundea:	GOSHUA - PRODUCTOS LÁCTEOS SARALEGUI S.L	NAF
Arrazoa:	<i>Goshua</i> markako gatzatuen bilgarrietan ez da euskararik batere ageri.	
Erantzuna:		
Dosierra:	487-2013	
Erakundea:	GOSHUA - PRODUCTOS LÁCTEOS SARALEGUI S.L	NAF
Arrazoa:	<i>Lácteos Goshua</i> S.L. esnekien webgunea gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez bistaratu daitekeen arren, ez dago euskaraz ikusteko aukerarik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	638-2013	
Erakundea:	INSALUS	EAE
Arrazoa:	INSALUSen ur-botiletako etiketa ez dago euskaraz idatzia; gaztelania hutsean baino ez dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	488-2013	
Erakundea:	JAIO GAZTA S.L.	EAE
Arrazoa:	Iurretako Garaizar auzoan Jaio gazta ekoizten dutenek bide-seinale berri bi ipini dituzte berriki, biak erdara hutsean. Bata Iurretan N-634 errepidetik Goiuriranzko errepidea hartu eta berehala ageri da, Garaizarreranzko bidegurutzean; bestea, Garaizar auzoan bertan, Garaizarko San Mames baselizatik gertu, Jaio etxalderanzko bidetxoaren seinaleak. Aipatutako lehen bide-seinalean " <i>Venta de quesos y pan casero / 2 km</i> " testua ageri da; bestean, " <i>Quesos Idiazabal / Pan casero / Productos naturales / Tienda</i> ".	
Erantzuna:	<i>Zure kexan aipatzen den kasua ez dagokio Udalari. Izan ere, udal eskumena da seinaleak jartzea, auzoak, udal instalazioak eta guztion intereserako diren eraikuntza eta tokiak adierazteko, baina kasu honetan udalak ez du inolako baimenik eman horrelako bide-seinaleak jartzeko, guztiz pribatuak baitira.</i>	

Dosierra:	640-2013	
Erakundea:	LA CASERA	EAE
Arrazoia:	LA CASERAREN gaseosa-botiletako etiketa ez dago euskaraz idatzia; gaztelania hutsean baino ez dago	
Erantzuna:		
Dosierra:	149-2013	
Erakundea:	LACTEBAL LACTEA DE BALMASEDA S.L.	EAE
Arrazoia:	Abadiñoako Eroski hipermerkatuan otsailean erosi nituen LACTEBAL markako gazta fresko poteek gaztelania hutsean dituzte bi etiketak.	
Erantzuna:		
Dosierra:	288-2013	
Erakundea:	LONGANE BASERRIA	EAE
Arrazoia:	Etxeko buzoian (Algortan) Eusko Label produktuak saltzen dituen Bermeoko Longane baserriaren triptikoa jaso dugu. Bi esaldi izan ezik, den-dena gaztelaniaz dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	289-2013	
Erakundea:	LONGANE BASERRIA	EAE
Arrazoia:	Eusko Label produktuak saltzen dituen Bermeoko Longane baserriaren webgunean ez dago aukerarik informazioa euskaraz jasotzeko.	
Erantzuna:		

## OSTALARITZA

Dosierra:	676-2013	
Erakundea:	ANTIO TABERNA-JATETXEA	EAE
Arrazoia:	Urriaren 20an Zumarragako Antioko taberna-jatetxean izan nintzen. Euskaraz zuzendu nintzaion zerbitzariari, baina euskaraz ez zekienez, gaztelaniaz egin behar izan nion	
Erantzuna:		
Dosierra:	581-2013	
Erakundea:	ARRAUNLARI JATETXEA	EAE
Arrazoia:	Hondarribiko Arraunlari jatetxeak kanpoaldean jartzen duen menua gaztelania hutsean idazten du.	
Erantzuna:		
Dosierra:	461-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Durangoko batzokiaren ondotik igaro naiz goiz honetan eta ohartu naiz kanpoaldean eguneko menua erdara huts-hutsean iragartzen segitzen dutela.	
Erantzuna:		
Dosierra:	467-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoia:	Indautxuko Batzokiak iragarkia txertatu du abuztuaren 21eko Deia egunkariaren Aste Nagusiko menuen berri emateko. Iragarkian gaztelania da nagusi. Gainera, <a href="http://www.batzokideindautxu.com">http://www.batzokideindautxu.com</a> eta <a href="http://www.batzokideindautxu.es">www.batzokideindautxu.es</a> webguneak erdara hutsean dituzte.	
Erantzuna:		
Dosierra:	468-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV SABIN ETXEA - ARALAR JATETXEA	EAE
Arrazoia:	EAIk batzoki-jatetxe nagusiaren iragarkiak erdara hutsean argitaratzen ditu. Adibidez, gaurko Deia egunkarian argitaratutakoa: <i>Aralar jatetxea</i> eta <i>Ondo pasa jaietan</i> esaldiak kenduta gainerako guztia gaztelania hutsean dago.	
Erantzuna:	<i>Sociedad Hostelera Ehiztari S.L. (Aralar Jatetxea) osatzen dugun guztiok euskara errespetatu eta goresen dugu, funtsean, Euskal Herriaren berezko hizkuntza delako. Gure uste apalean, begirune hori gure eguneroko jardunean erakusten dugu, ahal dugun neurrian, gure idatziak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko ahalegina egiten dugulako. Horren erakusle dira eguneroko menuak, gure web orrialdea, jatetxean jartzen ditugun oharra eta prentsara eramaten ditugun iragarkiak. Gure asmoa beti izan da iragarki guztiak euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzea, eta hori izan zen, hain zuzen, Deia egunkarian Bilboko jaietarako iragarkiak kontratatzerako orduan egunkariko langileei adierazi genien asmoa. Harrituta utzi gintuen gero, guk ele bitan espero genuen mezuak euskaraz esaldi bakarrik ekartzen zuela ikusteak. Hurrengo batean arreta handiagoa jarriko dugu, halakorik berriz ere gerta ez dadin.</i>	

Dosierra:	580-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoa:	Hondarribiko Batzokian gaztelania hutsean dituzte menuak.	
Erantzuna:		
Dosierra:	681-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoa:	Santutxuko batzokiak bi iragarki ezberdin eman ditu argitara gaurko Deia egunkarian, kudeatazaile berriak dituela adierazi eta menuen eta ordutegien berri emanaz. Biak ala biak gaztelania hutsean idatzita daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	1011-2013	
Erakundea:	EAJ-PNV	EAE
Arrazoa:	Ohi bezala EAJ alderdi "abertzale" eta "euskaltzaleak" euskarari eta euskaldunoi begirunerik ez. Egunotan Durango Euskal Herriko hiriburua bilakatzen den egunetan ere euskarak Durangoko Batzokian ez du tokirik. Lotsarik ez. Erantsita bidaltzen dizuet batzokiko atean gaztelania hutsean ipini duten kartelari egin berri diodan argazkia. Ez dira ba hiru egun igaro ere, Euskararen eguna dela eta ez dela, adierazpen politak egin dituztenetik. Baina horixe besterik ez dira, adierazpen politak, berba hutsak...	
Erantzuna:		
Dosierra:	425-2013	
Erakundea:	HELADOS CAPRA	EAE
Arrazoa:	Bilboko Casilda Iturrizar parkean dagoen helados CAPRA izozki-dendan bezeroen eskura jartzen dituzten menuen euskarazko bertsioak itzulpen ezin traketsagoak dira. Lanak ematen ditu ulertzeak ere.	
Erantzuna:		
Dosierra:	998-2013	
Erakundea:	JUSTIZ JATETXEA	EAE
Arrazoa:	Justiz jatetxean karta gaztelania hutsean eman ziguten	
Erantzuna:		
Dosierra:	775-2013	
Erakundea:	LARRAZABAL BATZOKIA	EAE
Arrazoa:	Gaurko Deia egunkarian gaztelania hutsean argitaratu du iragarkia Bilboko Larrazabal Batzokiak.	
Erantzuna:		
Dosierra:	338-2013	
Erakundea:	OIANUME JATETXE SAGARDOTEGIA	EAE
Arrazoa:	Oianume Jatetxeko menua gaztelera hutsean dago	
Erantzuna:		

---

Dosierra: 418-2013

Erakundea: PAULANER EAE

Arrazoa: Hainbat hilabetez itxita egon ostean, orain dela gutxi zabaldu dute berriro Durangoko PAULANER taberna-bolatokia. Bada, kanpoaldean hainbat kartel ipini dituzte, denak berdinak, ordutegiaren berri emateko, eta ez dago bat bera ere euskaraz.

Erantzuna:

---

Dosierra: 1061-2013

Erakundea: PIL PIL HOSTEL BILBAO EAE

Arrazoa: Pil pil ostatura joan nintzen informazio eske. Nire aurrean zegoen mutilak ingelesez egin zuenez eta harrerako gizonak arazorik ez zuenez izan ingelesez erantzuteko, nik euskaraz egin nion. Oso zakar erantzun zidan, gaztelaniaz egiteko eskatuz. Bestalde, Pil pil ostatuaren webgunea zazpi hizkuntzetan dago, euskaraz ez ordea (eta gaztelaniaz ere oso txarto idatzita)

Erantzuna:

---



## ENERGIA HORNITZAILEAK

Dosierra:	658-2013	
Erakundea:	ENDESA S.A.	EAE
Arrazoia:	Endesarekin ditugu argia eta gas hornikuntzaren kontratua. Hiru saiakera egin ditugu faktura euskaraz bidal dezaten, baina zerbitzua ez dutela prest erantzun digute idatziz. Hirugarren eskariari erantzunez bidalitako jakinarazpenean egoera zuzendu zutela esan ziguten, baina hurrengo faktura ere gaztelania hutsean jaso genuen	
Erantzuna:		
Dosierra:	659-2013	
Erakundea:	ENDESA S.A	EAE
Arrazoia:	Endesak jakinarazpena bidali digu guk eginiko eskaera bati erantzunez. Gure etxeko helbidea idazterakoan ez du Bizkaiko lurralde historikoaren izendapen ofiziala errespetatu, Vizcaya idatzi baitu.	
Erantzuna:		
Dosierra:	660-2013	
Erakundea:	ENDESA S.A. .	EAE
Arrazoia:	Eskaera idatzia egin genion ENDESARI kontsumoaren fakturak euskaraz bidal diezazkigun. Eskaerari erantzunez bidali ziguten gutuna gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	459-2013	
Erakundea:	EROSKI GASOLINDEGIA Abadiño	EAE
Arrazoia:	Abadiñoeko Eroski gasolindegiko hornigailuetan <i>GASOLINAS, Ahorra 25 llenando 10 depósitos</i> kartelaren ale bana jarri dute, den-denak erdara hutsean. Gasolindegiko ordainleku bakoitzaren kristaletan ere deskontu horren berri ematen duten kartelak ipini dituzte, handiagoak, koloreetan, e.a., baina hauek ere, guztiak erdara huts-hutsean.	
Erantzuna:	GERENTEA: <i>Arazoa konpondu dugu: euskaraz falta ziren kartelak egin genituen, baita gasolindegian jarri ere.</i>	

Dosierra:	61-2013	
Erakundea:	IBERDROLA Bilbo	EAE
Arrazoia:	IBERDROLAK 2012ko azaroan "Generación" tarifara pasatzeko kanpaina egin zuen 2012ko azaroan Hondarribian etxez etxe. Euskaraz bazekien galdetu nion langile gazteari eta "me arreglo mejor en castellano" erantzun zidan. Handik aurrera gaztelaniaz jarraitu behar izan nuen.	
Erantzuna:	EAEko ORDEZKARI KOMERTZIALA: <i>Iberdrolak kanal ezberdinak erabiltzen ditu bere kanpaina komertzialetan, horien artean etxez etxe ibiltzen diren agente komertzialak. Kasu honetan Iberdrolak ez die agente komertzialei euskaraz jakitea eskatzen, bezeroak berak aukera dezakeelako harreman hori izan nahi duen ala ez. Bezeroentzako arretaren kasua oso bestelakoa litzateke, eta honako zerbitzuak eskaintzen ditugu euskaraz: Kontratu-agiriak, kontsulta, intzidentzia eta erreklamazioen arreta (bai telefonoz, bai eta zuzeneko arreta-guneetan), hala eskatzen duten bezeroei faktura euskaraz luzatzea. Bestetik, Iberdrolari argindar edo gas hornikuntzaren inguruan euskaraz zuzendutako idatzizko komunikazioei, euskaraz erantzuten zaie beti. Beraz, 6/2003 Legeak, eta 123/2008 Dekretuak kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen inguruan xedatutako betebeharrak zuzen betetzen ditu Iberdrola Generacionek.</i>	
Dosierra:	159-2013	
Erakundea:	IBERDROLA	EAE
Arrazoia:	Gipuzkoako herritarra naiz eta otsailaren 26an telefonoz deitu nuen kontratu berri bat egiteko asmoz. Erantzungailuak gaztelania hutsean erantzun zidan eta gako moduan esandako zenbakiak ez zituen euskaraz interpretatzen. Telefonoa hartu zuen langileak ere ez zekien euskaraz eta deia zain utzi ondoren, handik pixka batera komunikazioa eten egin zen. Bigarren aldiz deitu nuen, erantzungailuarena pasatu berriz eta beste langile batek hartu zuen deia gaztelaniaz. Lehengoa ez gertatzeko hauxe esan nion: " <i>¿Es que en Iberdrola no hay nadie que me pueda atender en euskara?</i> " Orduan deia euskaldun bati pasatu zion eta artatu ninduen bigarren langilea euskalduna zen. Izapideekin bukatzeko, berak kontratu-eskaintzen berri emango zidala agindu zidan baina horien berri jasotzekotan espainieraz jaso beharko nuela. Gauzak horrela, informazioa jaso beharrean nengoenez, gaztelaniaz jardun behar izan nuen derrigorrez.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZUZENDARIA: <i>Zure idatzian ez dira erreklamazio behar bezala aztertu ahal izateko beharko genituzkeen datuak aipatzen. Ezinbestekoa genuke honako informazioa: - Kontratu gure konpainiarekin duen bezeroaren datuak. - Argindar hornikuntzarako kontratuaren erreferentzia.- Erreklamazioan aipatzen den gertaera jazo zen lekuko helbide zehatza- Bezeroak aurkeztutako erreklamazioari buruzko informazioa. Agiri hauek aurkeztu ezean ezin izango diogu zure erreklamazioa enpresa banatzaileari helarazi</i>	

Dosierra:	160-2013	
Erakundea:	IBERDROLA	EAE
Arrazoia:	Gipuzkoako herritarra naiz eta otsailaren 26an telefonoz kontsulta bat egin ondoren eta argi gelditu arren nik zerbitzua euskaraz nahi nuela, etxera posta elektronikoz bidalitako eskaintza gaztelania hutsean zegoen.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZUZENDARIA: <i>Zure idatzian ez dira erreklamazio behar bezala aztertu ahal izateko beharko genituzkeen datuak aipatzen. Ezinbestekoa genuke honako informazioa: - Kontratua gure konpainiarekin duen bezeroaren datuak. - Argindar hornikuntzarako kontratuaren erreferentzia.- Erreklamazioan aipatzen den gertaera jazo zen lekuko helbide zehatza- Bezeroak aurkeztutako erreklamazioari buruzko informazioa. Agiri hauek aurkeztu ezean ezin izango diogu zure erreklamazioa enpresa banatzaileari helarazi</i>	
Dosierra:	161-2013	
Erakundea:	IBERDROLA	EAE
Arrazoia:	IBERDROLA konpainiaren webgunera jo dut informazio eske, baina ezin izan dut informazioa euskaraz eskuratu webguneak ez duelako euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZUZENDARIA: <i>Zure idatzian ez dira erreklamazio behar bezala aztertu ahal izateko beharko genituzkeen datuak aipatzen. Ezinbestekoa genuke honako informazioa: - Kontratua gure konpainiarekin duen bezeroaren datuak. - Argindar hornikuntzarako kontratuaren erreferentzia.- Erreklamazioan aipatzen den gertaera jazo zen lekuko helbide zehatza- Bezeroak aurkeztutako erreklamazioari buruzko informazioa. Agiri hauek aurkeztu ezean ezin izango diogu zure erreklamazioa enpresa banatzaileari helarazi.</i>	
Dosierra:	454-2013	
Erakundea:	IBERDROLA	EAE
Arrazoia:	Uztailaren 23an, 20:00ak aldera, gazte batek gure etxeko atea jo zuen Iberdrolak bidaltzen zuela esanez eta argiaren faktura eta potentzia begiratu behar zituela adieraziz. Guri Iberdrolak horrelakoaren berri eman ez zigunez, ez geniola ezer erakutsiko esan genion. Jarraian Iberdrolak bezeroentzat duen telefono zenbakira deitu nuen. Makinak gaztelaniaz egin zidan zuzenean, hizkuntza hautatzeko aukerarik eskaini gabe. Enplegatua jarri zenean, euskaraz galdetu nuen ea Iberdrolak horren berri ba ote zuen eta hortxe hasi ziren nire arazo guztiak. Lau dei egin eta 35 minutu pasa ondoren ez nuen nirekin euskaraz hitz egingo zuen inor topatu. Bigarren deian gainera " <i>El idioma que habla usted es otro idioma ¿no?</i> " esan zidan langileak. Iberdrolak informazioa emateko garaian euskaldunak baztertu egiten gaituela ohartu nintzen.	
Erantzuna:	IBERDROLA, Bezeroen Arretarako Zerbitzuko Zuzendaria: <i>"Erreklamazioa aztertu ahal izateko herritarraren datuak eta bestelako informazio zehatza behar ditugu."</i> BEZEROEN ARRETARAKO ZUZENDARIA: <i>Ulertzen dugu bezero jaunak jasotako atentzioagatik duen haserrea eta barkamena eskatzen diogu sortutako eragozpenengatik. Era berean, jakinarazi nahi diogu neurri egokiak hartuko ditugula horrelakorik berriz gerta ez dadin.</i>	

---

Dosierra: 623-2013

Erakundea: IBERDROLA EAE

Arrazoia: Urriren 14an goizeko 9:10 aldera IBERDROLAko bezeroen arretarako telefono-zenbakira deitu dut (944 15 14 11). Telefonoa hartu duen pertsonak ez dit euskaraz egin harrera eta ez dit euskaraz hitz egiteko aukerarik eman.

Erantzuna: *BULEGOEI LAGUNTZEKO ZERBITZUKO ARDURADUNA: Neurriak bideratu ditugu Iberdrolako zentralitatekin harremanetan jarri eta euskaraz hitz egin nahi duten pertsona guztiei gure operadoreek arreta eqokia eman diezaieten.*

---

Dosierra: 365-2013

Erakundea: NATURGAS ENERGIA -Bilbo EAE

Arrazoia: edp - Naturgas Energia Comercializadora SAU sozietateak gasa eta argia hornitzeko kontratua gaztelania hutsez bidali dit. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz eta kontratua gaztelaniaz

Erantzuna:

---

## GARRAIOAK

Dosierra:	428-2013	
Erakundea:	AEROPUERTO DE BILBAO	EAE
Arrazoa:	AEROPUERTO DE BILBAOren webguneak ez du euskarazko bertsiorik. Ondorioz, ezin izan dut informazioa euskaraz eskuratu. Gaztelaniaz eta ingelesez eskura daiteke informazioa, ordea.	
Erantzuna:		
Dosierra:	430-2013	
Erakundea:	AEROPUERTO DE BILBAO	EAE
Arrazoa:	AEROPUERTO DE BILBAOren Twitter kontuko azalpena eta txioak ez daude euskaraz idatziak; gaztelaniaz baino ez daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	431-2013	
Erakundea:	AEROPUERTO DE BILBAO	EAE
Arrazoa:	AEROPUERTO DE BILBAOren Facebook kontuko azalpena eta sarrerak ez daude euskaraz idatziak; gaztelaniaz baino ez daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	99-2013	
Erakundea:	AUTOBUSES ALSA-ENATCAR	EAE
Arrazoa:	Otsailaren 2 goizean Bilboko Termibus geltokiko Alsa konpainiara joan nintzen Bilbotik Hendaiarako autobusen ordutegia galdetzerara. Euskaraz galdetu eta gaztelaniaz erantzun zidaten, ezer esan gabe; bide batez, erantzunak ez zuen inolako zerikusirik nire galderarekin, langileak ulertu uste izan zuena erantzun baitzidan. Oso ohikoa izaten da jokabide hori Alsakoengana jotzen dudak bakoitzean.	
Erantzuna:		
Dosierra:	115-2013	
Erakundea:	BUYTRAGO	NAF
Arrazoa:	BUYTRAGOren webguneak ez du euskarazko bertsiorik, ondorioz, ezin izan dut informazioa euskaraz eskuratu. Gaztelaniaz, portugesez, ingelesez eta frantsesez eskura daiteke informazioa, ordea.	
Erantzuna:		
Dosierra:	151-2013	
Erakundea:	CONDA S.A.	NAF
Arrazoa:	Otsailaren 9an, Iruñeko CONDA leihatilara joan nintzen eta han aurkitu nituen "Naturaleza y deporte" eta "Camino de Santiago" izeneko esku-orriak gaztelania hutsean zeuden.	
Erantzuna:		

Dosierra:	647-2013	
Erakundea:	CONDA S.A.	NAF
Arrazoia:	CONDA S.A. konpainiak Iruñeko autobus geltokian txartelak saltzeko duen makina hainbat hizkuntzatan badao ere, euskarazko bertsioa falta da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	203-2013	
Erakundea:	EIBARBUS	EAE
Arrazoia:	EIBARBUSen 2640BZP autobusak gaztelania hutsean zeraman martxoaren 21ean eskola-garraioko zerbitzua egiten ari zela jakinarazteko kartela.	
Erantzuna:		
Dosierra:	319-2013	
Erakundea:	EL TRANSBORDADOR DE VIZCAYA S.L	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Zubiaren webgunea ezin dugu euskaldunok geure hizkuntzan bistaratu. Gaztelaniaz eta ingelesez, ordea, bai.	
Erantzuna:		
Dosierra:	423-2013	
Erakundea:	EL TRANSBORDADOR DE VIZCAYA S.L.	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Zubiari buruzko orrialde osoko iragarkia argitaratu zuten El Correo egunkariaren <i>GPS Guía para salir</i> aldizkarian uztailaren 26ko zenbakian. Iragarkia ez zegoen euskaraz, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	138-2013	
Erakundea:	ENVIALIA Mutiloabeiti	NAF
Arrazoia:	ENVIALIA enpresara joan nintzen otsailaren 4an, Mutiloabeitiko industrialera, pakete bat jaso ez nuelako. Erreklamazioa euskaraz betetzen hasi nintzen eta gaztelaniaz ere egin behar nuela jakinarazi zidaten	
Erantzuna:	<i>KUDEATZAILEA: errespetu osoa diogu euskara, baita euskaldunei ere. Kasu honetan pertsona hark gaztelaniaz ere hitz egiten zuenez, mesedez eskatu genion kexa gaztelaniaz idaztea. Uste dugu eskaini genion zerbitzua ona izan zela eta pertsona hau gure kontra ari dela.</i>	
Dosierra:	250-2013	
Erakundea:	GURUTZETAKO APARKALEKUA -PARKING DE CRUCES	EAE
Arrazoia:	Gurutzetako Ospitaleko aparkalekuan erabiltzaileei zuzendutako hainbat eta hainbat ohar idatzi erdara hutsean daude. Esaterako, oinezkoak irteteko ateetan ageri diren <i>Salida</i> diotenak, bertan erretzea debekatuta dagola diotenak; eta aparkaldia ordaintzeko makinetan ageri diren oharrak ( <i>Cajero Automatico de Pago/Pay Station</i> ).	
Erantzuna:		

Dosierra:	524-2013	
Erakundea:	IAT-ITV ZAMUDIO - APPLUS ITEUVE EUSKADI	EAE
Arrazoia:	Irailaren 2an Zamudion izan nintzen autoaren IAT-a egiten eta ikuskatzailearekin gaztelaniaz egin behar izan nuen. Ordua euskaraz eskatu nuenean harrerakoak euskaraz ederto egin zidan kasu, baina ondorengo harremana, ez nuen euskaraz jaso.	
Erantzuna:	APPLUS ITEUVE EUSKADI, Zamudioko Estazioko zuzendaria: <i>"Irailaren 2an Zamudioko IAT estazioan lanean zeuden ikuskatzaileen artean euskaraz dakitenak ere bazeuden, beraz, kexa jarri duen hiritarrak euskaraz artatua izatea nahi zuela eskatu izan balu, aukera hori emanago aeniokeen."</i>	
Dosierra:	525-2013	
Erakundea:	IAT-ITV ZAMUDIO - APPLUS ITEUVE EUSKADI.	EAE
Arrazoia:	Zamudioko IAT gunean egin nuen ibilgailuaren azterketa teknikoa irailaren 2an. Eman zidaten faktura ez dago euskaraz eta gainera, <i>Vizcaya</i> agertzen da. Egiaztagiriaren eredia euskaraz ere egon arren, 10 kontzeptu, garrantzitsuenak, ez daude euskaraz idatziak.	
Erantzuna:	APPLUS ITEUVE EUSKADI, <i>Zamudiko Estazioko Zuzendaria: "Lehenengoz esan, faktura euskaraz emateko lanean ari garela, ahalik eta lasterren nahi duenari euskaraz emateko. Bestalde, azterketaren egiaztagiria, eskatzen duenari euskaraz emateko aukera badaukagu aspalditik. Beraz, erreklamazioa ipini duen hiritarrak, eskatu izan balu, euskaraz jasotzeko aukera izango zukeen."</i>	
Dosierra:	526-2013	
Erakundea:	IAT-ITV ZAMUDIO - APPLUS ITEUVE EUSKADI	EAE
Arrazoia:	Zamudioko IAT gunean egin nuen ibilgailuaren azterketa teknikoa irailaren 2an. IAT Zamudioren aurkezpen-txartela eman zidaten beste agiri batzuekin batera eta ez zegoen euskaraz idatzia.	
Erantzuna:	APPLUS ITEUVE EUSKADI S.A., Zamudioko Estazioko Zuzendaria: <i>"Nuevas pruebas de frenos" izeneko esku-orria Asociación Española de Entidades Colaboradoras de la Administración en la Inspección Técnica de Vehículos (AECA-ITEV) erakundeak ateratakoa da. beraz. esku-orri horren ardura ez da aurea."</i>	
Dosierra:	684-2013	
Erakundea:	IAT-ITV ZAMUDIO - APPLUS ITEUVE EUSKADI	EAE
Arrazoia:	Zamudioko IAT estazioko zigiluan ez da Bizkaiko lurraldearen izen ofiziala errespetatzen, <i>Vizcaya</i> ageri da <i>Bizkaia</i> beharrean.	
Erantzuna:		
Dosierra:	648-2013	
Erakundea:	IBERIA LAE SA	EAE
Arrazoia:	IBERIA aire konpainiaren web orrialdera, <a href="http://www.iberia.com">www.iberia.com</a> , jo dut informazio eske eta ez dut bila nabilena euskaraz aurkitu web orrialdeak ez duelako euskarazko bertsiorik. Gaztelaniazko, katalanezko eta ingelesezko bertsioak badaude.	
Erantzuna:		

Dosierra:	770-2013	
Erakundea:	LANGARRI LOGÍSTICA	EAE
Arrazoia:	Langarri Logística enpresaren Oartzungo bulegora deitu nuen urriaren 24an eguerdiko 13:00etan eta ez nuen zerbitzua euskaraz jaso.	
Erantzuna:		
Dosierra:	821-2013	
Erakundea:	LANGARRI LOGÍSTICA	EAE
Arrazoia:	Langarri paketeria zerbitzuak emate-agiria gaztelania hutsean du.	
Erantzuna:		
Dosierra:	515-2013	
Erakundea:	PARKING BUEN PASTOR - MUGABURU S.L.	EAE
Arrazoia:	Donostiako Artzain Onaren plazako lurpeko aparkalekuan hainbat eta hainbat errotulu erdara hutsean daude: " <i>boca de incendio</i> " dioten seinaleak; " <i>rómpase en caso de incendio</i> "; " <i>pulsador de alarma</i> " seinaleak; " <i>no salida</i> " zenbait aterean ganean; " <i>reservado</i> " hainbat eta hainbat aparkatze-plazatan; aparkalekurako sarbideetako batean bizpahiru seinale, guztiak berdinak, sarbide hori bertan plaza propioa dutenendako baino ez dela dioena. Aparkalekua Donostiako Udalaren kontzesioa da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	779-2013	
Erakundea:	PARKING ZABALBURU S.A.	EAE
Arrazoia:	Bilboko Zabalburu plazako aparkalekuko ordaintze-makinan erdara hutsean ipini dute honako oharra: <i>No funciona el monedero. Perdonen las molestias</i> . Gainera, bideo-zaintzako kartel bakan batzuk elebidunak badira ere, gehien-gehienak gaztelania hutsean daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	968-2013	
Erakundea:	PARKING ZABALBURU S.A.	EAE
Arrazoia:	Atzo, Bilboko Zabalburu plazako aparkalekuan, behin aparkaldia makinan ordainduta, atera ezinik geratu nintzela-eta irteerako makinak ez zuelako tiketa ondo leitzen ("error de lectura" azaltzen zen erdara hutsean), bertako langilearengana jo nuen eta euskaraz behin baino gehiagotan egin banion ere azkenean erdaraz egin behar izan nuen ez zekiela euskaraz. Berak, baina, ez zidan esan ez zekiela, edo barkatzeko, edo halakorik, ezer ez.	
Erantzuna:	APARKALEKUETAKO KEXAK ETA IRADOKIZUNAK: <i>Garajearen kudeatzaileari zure kexa jakinarazi diogu, ticketetan nahiz errotuloetan adierazpenak itzultzeko lehenbailehen.</i>	



Dosierra:	98-2013	
Erakundea:	TRANSPORTES PESA S.A.	EAE
Arrazoia:	Otsailaren 3 arratsaldean Pesa enpresaren Donostiako txarteldegietan euskaraz eskatu nuen bidai-txartela. Lagnileak gaztelaniaz erantzun zidan noizko nahi nuen galdetuz.	
Erantzuna:	<i>Txarteldegian lanean ari zen pertsonak ez du euskara-maila nahikoa hizkuntza horretan mintzatu ahal izateko, bai, aldiz, ulermen maila handia. Erreklamazio-egileari egoera horren berri eman zion eta barkamena eskatu zion euskaraz mintzatzeko gai ez izateagatik. Nolanahi ere, Tranportes Pesa SA EMUN Koop. E-rekin lankidetzan ari da enpresan hizkuntza normalakuntza ezartzeko bai barne komunikaziorako eta bai herritarrekin komunikatzeko ere, eta 2013 urtean zehar Bikain euskararen kalitate-ziurtagiria eskuratzea du helburu. Hori horrela, beharrak detektatzen hasi gara eta ebaluaketa horretatik eratorritako hobekuntzei ekitea izango da hurrengo urratsa. Transportes PESA SAren idazki, inprimaki eta jakinarazpenak euskaraz egiten dira, <a href="http://www.pesa.net">www.pesa.net</a> webgunean eta autobusetako eta txarteldegietako karteldegietan ikus daitekeen bezala. Halaber, Tranportes PESA SAko langileen euskararen erabilera-maila handia da erabiltzaileei zuzentzeko garaian, nahiz eta esku artean duguna bezalakoak ere gertatzen diren. Hala ere, egiadunei banaka bidaltzen zaizkienak, EAEko bi hizkuntza ofizialetan daude; ba</i>	
Dosierra:	1062-2013	
Erakundea:	TRANSPORTES PESA S.A.	EAE
Arrazoia:	Pesako lehiatilara joan nintzen Termibusera. Euskaraz egin eta gaztelaniaz egiteko eskatu zidaten. Ez da lehen aldia; berez, Pesako lehiatilan sekulan ez dut euskaraz egiteko aukerarik izan.	
Erantzuna:		

## HEZKUNTZA

Dosierra:	310-2013	
Erakundea:	BRITISH COUNCIL BILBAO	EAE
Arrazoia:	Bilboko British Council-en hainbat arazo izan ditut euskararen inguruan: lehenik eta behin telefonoz, gero han bertan, eta azkenik posta elektronikoz bidez jarri nintzen haiekin harremanetan (euskaraz). Lehenengo bietan gaztelaniaz egiteko esan zidaten, nahiko modu zakarrean; hirugarrenean, erantzun automatikoa jaso nuen, gaztelaniaz eta ingelesez. Bitxia da kulturartekotasuna bultzatzen duen erakunde batek euskara (bertoko hizkuntza, ez dezagun ahaztu) horren modu nabarmenean baztertzea.	
Erantzuna:	<i>ZENTRUKO ZUZENDARIA: Afera hau garrantzi handikoa da gure erakundearentzat eta barkamena eskatu nahiko genuke honek sortu ahal izan dituen eragozpenengatik. Betidanik izan dugu gure bezeroei beraienez egokien den hizkuntzan arreta emateko asmoa, bai euskaraz, bai gaztelera eta baita ingelesez ere. Bezeroen arretaz arduratzen den langileriaren erdia baino gehiago euskalduna da eta gure erakundearen politika da, une oro, horietako pertsona bat erabilgarri izatea euskaraz arreta jaso nahi duten bezeroentzat. Arazo puntual bat besterik ez dela izan ziurtatzearen eta berriz ere errepika ez dadin, gure langileriari euskararekiko dugun politika gogoraziko diogu, egiten ditugun idatzizko komunikazioen inguruan auditoria bat burutuko dugu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiten direla bermatzeko eta bezeroen arretan lan egiten duten langileekin trebakuntza saioak burutuko ditugu edozein testuingurutan gure politika aplikatzen dela ziurtatzeko.</i>	
Dosierra:	782-2013	
Erakundea:	INSTITUTO FORMACIÓN PROFESIONAL Salamanca	EAE
Arrazoia:	Urriaren 24an txapa eta pintura ikastaroa egiteko esku-orria jaso dut Zarautzen. Ez dago euskarazko informaziorik bertan. Aipatu ikastaroa ibilgailuen txapa eta pinturari buruzkoa da eta Zarauzko Burkide tailerra aipatzen da bertan.	
Erantzuna:		
Dosierra:	749-2013	
Erakundea:	MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Enpresagintza	EAE
Arrazoia:	Bilbao Ekintzak Uribitarte kalean zuen eraikinean gaur egun MU-BBF Mondragon Unibertsitatearen Bilbao Berrikuntza Faktoriak du egoitza, udalak eta unibertsitateak hamar urterako sinatu duten hitzarmena tarteko. Bada Mondragon Unibertsitateak gaztelania hutsean jarri du eraikineko atarian Gabonetako Loteria salgai dutela iragartzeko ohar idatzia. Honela dio: "Se vende Lotería de Navidad del Estado Nº 33208. Universidad de Mondragon"	
Erantzuna:	<i>IDAZKARI NAGUSIA: Jada zuzendu ditugu Mondragon Unibertsitateko Bilbao Berrikuntza Faktorian zeuden gaztelera hutsezko oharak . Era berean, etorkizunean horrelakorik aertatu ez dadin neurriak ere hartu ditugu.</i>	

## LAN MUNDUA

Dosierra:	942-2013	
Erakundea:	HOBETUZ - LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA	EAE
Arrazoa:	HOBETUZ Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak gaztelania hutsean bidali digu <i>Espedientea betetzeko behar den informazioari buruzko eskaera</i> izeneko idatzia.	
Erantzuna:	<i>HOBETUZetik deitu dute, argibide gehiago eskatuz, ematen ditugun datuekin ezin dutelako gertaera identifikatu. Hartara, zer jardueraren inguruko gertaera den jakin nahi dute, ahalik eta xehetasun gehienarekin.</i>	
	<p>ZUZENDARI GERENTEA: <i>Zuk jasotako e-maila Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek gauzatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2012ko deialdiko espedienteari dagokio. Espedientearen dokumentazio osoa gainbegiratu ondoren, adierazi beharra daukagu zure kexuaren arrazoa egiazkoa dela, beraz, akatsa onartzen dugu eta barkamena eskatzen dizugu gertatutakoagatik. Nabarmendu nahi dugu gertakari hori ez dela batere ohikoa gure jardunetan, gertakari guztiz bakana dela. Izan ere, prestakuntzarako laguntza-deialdien gure jardueran eta kudeaketan: 1.- Informatika-aplikazio eta inprimaki guztiak, eta haietatik sorteen diren laguntza-eskubidurak guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan daude: laguntzak eskatzekoak, ikastaroetako bertaratzeenak eta horien justifikazio ekonomikoenak.2.- Laguntzen onuradun diren titularrei egiten zaizkien jakinarazpen orokor guztiak (eta asko dira) EAEko bi hizkuntza ofizialetan daude.3.- Diru-laguntzak emateko eta horien azken likidazioa egiteko jakinarazpenak, onuradunei banaka bidaltzen zaizkienak, EAEko bi hizkuntza ofizialetan daude; bai eta aurrerakina ordaintzekoak eta azken ordainketa egitekoak, eta diru-laguntza emateko edo likidazioa egiteko informazio gehigarria eskatzekoak diren beste biak ere. (Hortxe izan da gure akatsa, likidazioa egiteko informazio gehigarriaren eskabide bakarrean; eta hura jaso bezain laster ohartarazi izan bazenigu, berehala zuzenduko genukeen akatsa. 4.- Finantzatutako ikastaroetako titularrekin eta haietan interesa duten gainerako herritarrekin, EAEko bi hizkuntza ofizialetan jartzen gara harremanetan.5.- Webaren nahiz sare sozialen bidez komunikatzeko gure jarduera guztia EAEko bi hizkuntzetan egiten dugu.6. Hobetuz, Bai Euskarari ziurtapenari atxikita dago, eta erakunde honek urtero ikuskapenak egiten ditu euskarazko zerbitzuetan arian-arian hobetzeko asmoz. 2012ko laguntzen deialdiak hartuta 1.452 espediente kudeatu ditugu eta finantzatutako ikastaroetan 47.000 lagun baino gehiagok parte hartu dute; hala ere, orain arte, gorabehera hau besterik ez dugu jasota. Nolanahi ere, eta bakarra izanik ere, egon, egon da, eta beharrezko jarraibideak eman dira etorkizunari begira horrelako akatsik berriro gerta ez dadin eta, araudiarekin dugun konpromisoari eutsiz, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubide osoa berma dadin.</i></p>	

## OSASUNGINTZA

Dosierra:	730-2013	
Erakundea:	ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	EAE
Arrazoia:	Arabako herritarra naiz eta dentistarenean izan nintzenean jaso nuen errezeta-orrian dena ez dago euskaraz idatzia; zenbaitetan testua ingelesez dago, euskaratu gabe. Horrez gain, euskarazko testuetan akats ugari daude. Besteak beste: <i>Healthcare pribaturako errezeta, Informazio Botikari bada (Información al farmacéutico, en su caso-ren ordain gisa), Medikuntza bete (Consignar el medicamento-ren ordain gisa), administrazio ibilbidea (vía de administración-en ordain gisa).</i>	
Erantzuna:	ARABAKO ODONTOLOGO ETA ESTOMATOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA, Lehendakaria: <i>"Jakinarazten dizugu lehendabiziko aleetan itzulpen akatsak egon zirela, baina berehala zuzendu genituela."</i>	
Dosierra:	104-2013	
Erakundea:	AUDIKA Donibane Lohizune	IEH
Arrazoia:	AUDIKA zentroak ekainaren 30era bitarteko eskaintzen berri emateko Senperen banatu duen aldizkaria frantses hutsean da: <i>Découvrez nos nouvelles solutions auditives et essayez-les chez vous gratuitement</i> dio.	
Erantzuna:		
Dosierra:	597-2013	
Erakundea:	CAPIO	IEH
Arrazoia:	Martxoaren 16an ebakuntza egin nuen CAPIO Baionako klinika sarea osatzen duen Lafourcade klinikan. Bertan Capio Klinika sarearen informazio boletina eman zidaten, frantses hutsean zen	
Erantzuna:		
Dosierra:	598-2013	
Erakundea:	CAPIO	IEH
Arrazoia:	Martxoaren 16an ebakuntza egin nuen CAPIO Baionako klinika sarea osatzen duen Lafourcade klinikan. Bertan harrera liburuxka bat eman zidaten; frantses hutsean zen.	
Erantzuna:	<i>Zure kexaren berri ukan dugu eta kontuan hartzen dugu. Euskararen sustapenerako lan talde bat badugu, EEPrekin elkarlanean eta pazienteen esku utziko ditugun dokumentuak euskaratzea erabaki dugu.</i>	
Dosierra:	705-2013	
Erakundea:	DENTIX Donostia	EAE
Arrazoia:	Urretxuko herritarra naiz eta DENTIXen Donostiako kontsultako esku-orria jaso nuen urriaren 24an. Eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko informazio orri hori ez dago euskaraz idatzia; gaztelania hutsean da.	
Erantzuna:		

Dosierra:	185-2013	
Erakundea:	FREMAP - IRUÑEA	NAF
Arrazoia:	FREMAPen otsailean ikastaro bat egin ondoren bidali zidaten faktura gaztelania hutsean zegoen	
Erantzuna:		
Dosierra:	781-2013	
Erakundea:	FREMAP - DONOSTIA	EAE
Arrazoia:	Euskaraz kontratatu genuen zerbitzua FREMAPekin. Hala eta guztiz ere zenbait agiri euskaratu gabe bidaltzen jarraitzen dute: idatzizko mediku-parteak, e-mail bidezko buletina, dokumentazioaren zenbait zati, fakturak ...	
Erantzuna:		
Dosierra:	982-2013	
Erakundea:	FREMAP BILBO	EAE
Arrazoia:	Fremapetik botikina bidali digute eta kutzaren kanpoaldea, jarraibideak eta produktuen etiketajea gaztelera hutsean dago. Atxikita, jarraibideak daude. Horrez gain, kutzaren kanpoaldeko mezuak ere gaztelera hutsean: " <i>Fremap 900 61 00 61 asistencia 24 horas</i> " eta " <i>Mutua de accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social Número 61</i> "	
Erantzuna:		
Dosierra:	805-2013	
Erakundea:	HÉLIOS OPHTALMOLOGIE	IEH
Arrazoia:	Helios oftalmologia zentrorra deitzean itxoiite mezua frantsesez eta gaztelaniaz dago. Mesplíe oftalmologoaren idazkariak harrera frantsesez egin dit eta bisita txartela frantses hutsean da.	
Erantzuna:		
Dosierra:	111-2013	
Erakundea:	HOSPITAL QUIRON DONOSTIA	EAE
Arrazoia:	Donostiako QUIRON Ospitalera deitu nuen otsailaren 7an, goizeko 9:00ak aldera kontsulta bat egiteko. Euskaraz egin nuen eta langileak gaztelaniaz erantzun zidan. Nik euskaraz jarraitu nuen pentsatuz ulertzen zuela baina ezetz ohartu nintzen, emandako erantzunarengatik, eta gaztelaniara pasatu behar izan nuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	267-2013	
Erakundea:	HOSPITAL QUIRON DONOSTIA	EAE
Arrazoia:	Donostiako QUIRON Ospitalera joan naiz goizeko 10:30etan. Beheko harrerara joan eta euskaraz galdetu dut non zen zegokidan kontsulta. Langileak gaztelaniaz erantzun dit.	
Erantzuna:		

Dosierra:	268-2013	
Erakundea:	HOSPITAL QUIRON DONOSTIA	EAE
Arrazoa:	Donostiako QUIRON Ospitalera joan naiz10:30ak aldera. 1. solairuko informazio gunera joan eta euskaraz egin dut galdera. Langileak gaztelaniaz erantzun dit.	
Erantzuna:		
Dosierra:	579-2013	
Erakundea:	MSD-ESPAÑA S.A.	EAE
Arrazoa:	Hondarribiko osasun zentroko emaginaren kontsultako kanpoko salan bertaratzen direnen eskura dagoen <a href="http://www.anticonceptivos hoy.com">www.anticonceptivos hoy.com</a> liburuxka, MSD botika-etxearena, erdara hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	613-2013	
Erakundea:	SIMETRA	EAE
Arrazoa:	Apirilaren 30ean jaso nuen SIMETRA erakundeak maiatzaren 21ean, Baionako Salbace karrikan antolatzen zuen Biltzar Nagusia parte hartzeko gomita. Gomita frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		

## TELEKOMUNIKAZIO-ENPRESAK

Dosierra:	21-2013	
Erakundea:	EUSKALTEL S.A.	EAE
Arrazoia:	Herritarrak azaldu bezala, Euskaltelen web orrian euskarazko aukera erabili nahi izan zuen urtarrilaren azken egunetan eta ez zuen lortu. Enpresarekin hitz egin eta gauza puntuala zela esan zioten, berriro saiatzeko... Baina web orrian euskarazko aukera ez dabilela ziurtatu du. Egoera hau ez zen egun bateko gauza izan, urtarrilaren amaieran behin baino gehiagotan egin zuen ahalegina. Herritarrak dionez, erabiltzaile berria da, beraz ezin du esan egoera hau gertatu arte nola funtzionatzen zuen.	
Erantzuna:	<i>EUSKARAREN HIZKUNTZA KALITATEA SAILA: Berresten dugu Euskaltelen webgunea osotara euskaraz dagoela, bai edukiei dagokienez eta bai funtzionaltasun guztiei dagokienez. Beraz, erreferentziako kexa dela eta, bakar-bakarrik esan dezakegu gure sistemen une bateko akatsa izan zela eta sentitzen dugula sor zitzazkeen eragozpenak.</i>	
Dosierra:	311-2013	
Erakundea:	EUSKALTEL S.A.	EAE
Arrazoia:	Euskaltelera euskaraz bidali nuen mezua eta erdaraz jaso nuen erantzun automatikoa.	
Erantzuna:	<i>EUSKARAREN HIZKUNTZA KALITATEA: Mezua bidali zuela dioenean, zeri buruz ari da Euskalteleko helbide jakin batera mezu elektronikoko bat bidali zuen? Webgune bidez bidali zuen mezua? Webgunearen bidez izan bada, zer atal edo aukera zehatzetatik bidali zuen mezua (Kexak, eskaerak, fakturaren hizkuntza, foroa ...)? Erantzunaren zain gelditzen gara, izan ere, orain ditugun datuekin ezin dugu gertatutakoa argitu, ez eta akatsik zuzendu ere.</i>	
Dosierra:	1025-2013	
Erakundea:	EUSKALTEL S.A.	EAE
Arrazoia:	Euskaltelek igorritako aurtengo kalitatearen astearren balantzea jaso dut eta atxikian dauden artxiboak gaztelera hutsez daude, beste behin ere.	
Erantzuna:	<i>EUSKALTELEKO EUSKARAREN HIZKUNTZA KALITATEA: "Euskaltelek antolatzen dituen ekitaldietan dokumentazio guztia elebiduna da, beraz Euskaltelek ez du egin halako bidalketarik". Dena dela, ez dugu baztertzeko euren instalazioetan jardunaldi horiek antolatu zituen enpresak egin izana. Euskaltelek, borondate sendoa du hizkuntza-eskubideak errespetatu eta sustatzeko, eta horren adierazle da abian dugun Euskara Plana".</i>	

Dosierra:	57-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	MOVISTARen 1004 zenbakira deitutakoan makinak gaztelania hutsean erantzuten du. Langile euskaldunak artatua izateko aukera eskaintzen du, baina aukera hori egin arren, askotan langilea ez da euskalduna izaten.	
Erantzuna:	EUSKALTEL, EUSKARAREN HIZKUNTZA-KALITATEA: <i>Ahaleginak egiten ari gara egoera hori berriz gerta ez dadin. Banatzailearekin harremanetan jarri gara eta gogorazi diogu Euskaltelek zer hizkuntza-politika duen bezeroarekin harremanetan jartzeko orduan: bezeroari hark nahi duen EAEko hizkuntza ofizialean erantzun behar zaio. EUSKALTELeK borondate sendoa du bezeroen hizkuntza-eskubideak errespetatu eta sustatzeko, eta horren adierazle da abian dugun Euskara Plana. Jabetzen gara horrelako akatsak inoiz berriro suerta daitezkeela eta asko eskertzen dizuegu horien berri ematea, zuen lankidetzaz bide honetan hobetzeko laguntza garrantzitsua baita.</i>	
Dosierra:	147-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	NAF
Arrazoia:	Barañaingo bizilaguna naiz eta sakelakoaren fakturak euskaraz jasotzen ditudanez, telefono finakoarenak ere halaxe jaso nahi ditudala jakinarazteko deitu nuen MOVISTAR-era. Dei horretatik aitzinera telefono finakoaren fakturak ere euskaraz jasoko nituela erran zidaten arren, maiatzeko kontsumoari dagokiona ez dut euskaraz jasotzen. <i>gaztelaniaz</i> haizik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	280-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Movistar telekomunikazio etxeak webgunea berritu du oraintsu, hala ere <a href="http://www.movistar.es">www.movistar.es</a> webgunea ezin da euskaraz bistaratu. Euskaldunok, galegoak bezalaxe, bazterkeriaz tratatzen segitzen dute.	
Erantzuna:		
Dosierra:	291-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	NAF
Arrazoia:	Maiatzaren 3an 18:45 aldera Movistar-en 1004 zenbakira deitu nuen, Sakelako telefonoen Departamentuarekin solas egiteko. Atenditu ninduen langilea ez zenez euskalduna, ez nuen zerbitzua euskaraz jaso. Langileak adierazi zidanez, Departamentuan ez dago euskaraz dakien langilerik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	292-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	NAF
Arrazoia:	Maiatzaren 3an Movistar-en 1004 zenbakira deitu nuen eta ondoren, jasotako zerbitzuari buruzko iritzia emateko deitu zidaten. Jasotako deia grabatutako mezu baten bidezkoa izan zen eta mezua ez zegoen euskaraz.	
Erantzuna:		



Dosierra:	293-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	NAF
Arrazoia:	(Gertaera orokorra da). Barañaingo herritarra naiz eta ez ditut Movistar-en telefono-finkoaren fakturak euskaraz jasotzen; azkena, apirileko faktura.	
Erantzuna:		
Dosierra:	390-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Sekulan ez naiz Movistarren bezero izan. Hala ere, erdara hutsezko propaganda mezua jaso dut 915841342 telefono zenbakitik. Honela dio: <i>Esté siempre localizable! Ahora, Movistar le ofrece el móvil Alcatel OT282 a un precio mínimo. Mas info. en su Tienda Movistar o 1004.</i>	
Erantzuna:		
Dosierra:	564-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	NAF
Arrazoia:	Ezin izan dut MOVISTAR-en webgunean informazioa euskaraz eskuratu, webguneak ez duelako euskarazko bertsiorik. Gaztelaniaz, katalanez eta galegoz eskura daiteke informazioa, ordea.	
Erantzuna:		
Dosierra:	783-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Movistarrek gaztelania hutsean bidali dit zerbitzuaren kontratua.	
Erantzuna:		
Dosierra:	784-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Movistarren Tolosako Gernikako Arbola Lorategiak kaleko dendan gaztelania hutsean luzatu didate erositako produktuen faktura. Dendan jendearen eskura dituzten aldizkari eta esku-orriak ere gaztelaniaz baino ez daude.	
Erantzuna:		
Dosierra:	785-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Garai batean posible bazen ere gaur egun ez dago MOVISTARen telefonozko arreta-zerbitzua euskaraz jasotzerik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	939-2013	
Erakundea:	MOVISTAR	EAE
Arrazoia:	Movistarren www.movistar.es webguneak ez dauka euskarazko bertsiorik.	
Erantzuna:		

Dosierra:	59-2013	
Erakundea:	ORANGE - FRANCE TELECOM ESPAÑA S.A.	IEH
Arrazoia:	ORANGEren Irungo Colon pasealekuako saltokian izan nintzen urte hasieran. Ez kontratua eta ez katalogoa, ezin izan nituen euskaraz eskuratu.	
Erantzuna:		
Dosierra:	842-2013	
Erakundea:	ORANGE	IEH
Arrazoia:	ORANGE saltegietan, ekainaren 16tik uztailaren 10a bitarteko eskaintzen berri ematen duen aldizkaria frantses hutsean jaso dut Senperen, etxeko posta ontzian. Bertan <i>Vivez connectez tout l'été</i> iragartzen zuen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	414-2013	
Erakundea:	TELEFÓNICA	NAF
Arrazoia:	Iruñeko enpresa baten izenean deitu nuen ekainaren 13an, TELEFONICARA, goizeko 10:30ak aldera 900.10.10.10 telefonora. Euskaraz egin nezakeen galdetu zuen eta baietz esan zidaten. Minutu batzuk pasata, langile euskaldun batek azaldu zidan ezetz, hori partikularrei arreta emateko departamentua zela, eta enpresek ez zutela euskaraz egiteko aukerarik. Azkenean, gaztelaniaz egin behar izan nuen. Gauza bera gertatzen zaidan bigarren aldia da. Euskaraz arreta egitea nahi dudala esan eta baietz erantzun ondoren, langile euskaldunak ezetz esatea, hori ez dela departamentua.	
Erantzuna:		
Dosierra:	246-2013	
Erakundea:	VODAFONE ESPAÑA,	NAF
Arrazoia:	Vodafonek gaztelania hutsean helarazi dio Vodafone Informa agiria, kontratua egitean jakinarazpenak euskaraz nahi zituela adierazi zuen bezeroari.	
Erantzuna:	BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA: <i>Datu pertsonal gehiago (telefono zenbakia; Vodafone kontu-zenbakia..., eta abar) beharko genituzke zerbitzua identifikatu ahal izateko.</i>	
Dosierra:	497-2013	
Erakundea:	VODAFONE ESPAÑA	NAF
Arrazoia:	Xulapaingo bizilaguna naiz eta VODAFONEren abuztuko faktura eta informazioa, "Vodafone informa", ez ditut euskaraz jaso.	
Erantzuna:		

---

Dosierra: 392-2013

Erakundea: YOIGO EAE

Arrazoia: Yoigo telefono konpainiatik bi sms mezu bidali dizkirate erdara hutsean. Honela diote: Yoigo info: Si quieres mas capacidad mensual puedes comprar un bono de datos mensual aquí. Yoigo info: Ya casi has consumido tu límite de volumen de alta velocidad HSPA+ en internet este mes.

Erantzuna: *Herritarra identifikatzeko daturik ez dugun bitartean ezin dugu ezer egin.*

---

Dosierra: 1018-2013

Erakundea: YOIGO EAE

Arrazoia: Yoigo telefono-konpainiak gaurko (2013-12-10) Correo kazetan argitaratu duen iragarkia. Erdara hutsean dago eta argi ageri da Bizkairako beren beregi prestatutako iragarkia dela. Sekula ez dut ikusi konpainia honen iragarkirik euskaraz.

Erantzuna:

---

PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK

Dosierra:	576-2013	
Erakundea:	AECA-ITV Asociación Española de Entidades Colaboradoras de la Administración en la ITV	EAE
Arrazoia:	Zamudioko IAT gunean egin nuen ibilgailuaren azterketa teknikoaren irailaren 2an. <i>Nuevas pruebas de frenos</i> izeneko esku-orria eman zidaten beste agiri batzuekin batera eta ez zegoen euskaraz idatzia.	
Erantzuna:	AECA-ITV, Idazkari Nagusia: <i>Ordezkatzen dudana enpresaburuaren elkarteak Espainiako IAT zentro guztiak biltzen dituela jakinarazten dizut. Elkarteak bere kideei eskaintzen dien zerbitzuen artean ibilgailuen azterketa teknikoaren burutzeko ezinbesteko duten informazioa eta dokumentazioa ematea da. Horren baitan, Nuevas pruebas de Frenos diptikoa banatu du IAT zentro guztietara, gaztelaniaz (Espainiako hizkuntza ofiziala). Hori bai, gure ustez, IAT zentroen enpresa titular bakoitzari dagokio Estatuko gainerako hizkuntza koofizialetan argitaratzea esku-orri hori, hala dagokionean. Zuen gutuna Zamudioko IAT egoitzako enpresari helarazi diogula jakinarazten dizuegu.</i>	
Dosierra:	347-2013	
Erakundea:	AMEZTIA	NAF
Arrazoia:	Uztailean Doneztebeko Ameztia-ren publizitatea aurkitu nuen Elizondoko denda batean; bizikletak alokatzeko aukerari buruzkoa zen. Ez zen deus euskaraz idatzia.	
Erantzuna:		
Dosierra:	387-2013	
Erakundea:	BIZKAIKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA	EAE
Arrazoia:	Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialaren webgunea <a href="http://www.cofbizkaia.net">www.cofbizkaia.net</a> erdara hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	807-2013	
Erakundea:	CENTURY 21 Hendaia	IEH
Arrazoia:	Century21 higiezinaren agentziak publizitatea utzi du postontzian eta frantses hutsean dago.	
Erantzuna:		
Dosierra:	202-2013	
Erakundea:	COBRANZAS EXTRAJUDICIALES	NAF
Arrazoia:	Cobranzas Extrajudiciales-ek Nafarroako erakunde bati martxoaren 17an bidalitako publizitate-faxa espainiera hutsean idatzita zegoen.	
Erantzuna:		

Dosierra:	230-2013	
Erakundea:	COLEGIO OFICIAL DE VETERINARIOS DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	COLEGIO OFICIAL DE VETERINARIOS DE NAVARRAren webgunea gaztelania hutsean dago: www.covetna.org	
Erantzuna:		
Dosierra:	257-2013	
Erakundea:	COLEGIO OFICIAL DE VETERINARIOS DE NAVARRA	NAF
Arrazoia:	COLEGIO OFICIAL DE VETERINARIOS DE NAVARRA apirilean Agoizko herrian zabaldutako kanpaina gaztelania hutsean dago. Esku-orria: <i>"La salud de tu mascota es la salud de tu familia"</i> .	
Erantzuna:		
Dosierra:	389-2013	
Erakundea:	DESER STUDIO	EAE
Arrazoia:	Deser Studiok argazki-denda zabaldu berri du Durangoko Kurutziaga kalean. Publizitatea erdara hutsean ipini dute prentsan eta webgunea www.deser.es gaztelaniaz eta ingelesez dute, baina euskaraz ez.	
Erantzuna:		
Dosierra:	336-2013	
Erakundea:	EKAITZ BULEGOAK	EAE
Arrazoia:	EKAITZ BULEGOAK zerbitzu-enpresak ez du euskaraz jarri Ordiziako atez atekoaren prozesuari buruzko informazioa Joxe Arana kaleko etxebizitza bateko atarian. Ordiziako udalak informazio hori euskaraz eta gaztelaniaz prestatu duen arren, EKAITZ BULEGOAK berau moldatu eta gaztelania hutsean eskaini die bezeroei.	
Erantzuna:		
Dosierra:	337-2013	
Erakundea:	EKAITZ BULEGOAK	EAE
Arrazoia:	Ordiziako Joxe Arana kalean bizi naiz eta EKAITZ BULEGOAK enpresa arduratzen da gure atariko administrazio-lanez. Bada, jasotzen ditugun agirien %80, bileren deialdiak, aktak, etab. ez dira euskaraz idatziak egoten, gaztelania hutsean baizik.	
Erantzuna:		
Dosierra:	383-2013	
Erakundea:	FUNERARIA BASAGUREN	EAE
Arrazoia:	Durangoko Basaguren hileta-etxearen beilatokia non dagoen adierazten duen bide-seinalea, Eulena kaleak Aliendalde industrigunearekin bat egiten duen lekuan, erdara hutsean dago. <i>Tanatorio/Crematorio</i> dio.	
Erantzuna:		

Dosierra:	384-2013	
Erakundea:	FUNERARIA BASAGUREN	EAE
Arrazoia:	Durangoko Basaguren hileta-etxearen webgunea erdara hutsean dago. Ez du informaziorik eskaintzen euskaraz.	
Erantzuna:		
Dosierra:	873-2013	
Erakundea:	IMMO CONSEILS	IEH
Arrazoia:	Urrian, Senperen IMMO CONSEILS agentziak bere bulegoak irekiko dituela iragartzeko jakinarazpena jaso nuen etxera. Bertan agentziak proposatzen dituen zerbitzu desberdinak azaltzen dira eta diagnostikoaren gastuak itzultzeko kupoi bat eskaintzen zidaten. Guzia frantses hutsean zen.	
Erantzuna:		
Dosierra:	355-2013	
Erakundea:	LUR 2000	EAE
Arrazoia:	Baserritarrentzako produktuak-eta saltzen dituen Zornotzako Lur 2000 enpresak webgunea zabaldu berri du ( <a href="http://www.lur2000.com">www.lur2000.com</a> ). Erdara hutsean dago, ordea.	
Erantzuna:		

# 9. ZORIONAK

## ZORIONAK

Dosierra:	67-2013
Erakundea:	RENFE Irun - BEZEROEN ARRETA
Arrazoa:	Urtarrilaren 19an Irungo Bentas geltokian 21:40an emandako bozgorailu bidezko mezuan euskara lehenetsi zuten: "Ez pasa trenbide gainetik, erabili pasabideak gurutzatzeko".
Erantzuna:	
Dosierra:	83-2013
Erakundea:	AUZOLAN EKIMENA
Arrazoa:	AUZOLAN EKIMENak beti lehenesten du euskara, bai idatziz eta bai parte hartu izan dudan jardunaldietan ere.
Erantzuna:	<i>AUZOLAN EKIMENA: Atsegin handiz hartu dugu zuen mezua. Aukera hau baliatu nahi dugu gure jarduera euskaraz egin ahal izateko dugun jokamoldea zuekin partekatuzeko. Egiten ditugun bilera, solasaldi publiko, jardunaldi eta topaketetan beti bakoitzak nahi duen hizkuntzan egiteko aukera ematen dugu, gisa hortan euskara lehenesten dugularik. Guztiek ulertu ahal izateko, aldioro galdegiten dugu ia norbait prest dagoen itzulpenak egiteko, eta azpimarratzekoa da beti izaten dela norbait lan nekagarri hori hartzen duena. Topaketa eta jardunaldietan, aldez aurretik antolatua izaten da itzulpenen ardura. Jardunaldiak egun osokoak izan arren, posible, posible da. Kexak jaso izan ditugu, euskaraz ulertzen ez dutenei "astuna" egiten omen zaielako, baina oro har, itzultzaileekiko esker ona nagusitzen da, eta ulertzen da euskaraz egin nahi izatea. Halaber, ohartu gara ere, euskaraz egin ez baina zeozer ulertzen dutenek ahalegina egiten dutela jardunaldiak itzulpenik gabe segitzeko.</i>
Dosierra:	91-2013
Erakundea:	SALTSAN, KATERIN-ARDOAK
Arrazoa:	SALTSAN, KATERIN-ARDOAK enpresaren web gunea, <a href="http://www.saltsan.com">www.saltsan.com</a> , euskaraz bisita daiteke.
Erantzuna:	
Dosierra:	100-2013
Erakundea:	ZERGATIK Iruñea
Arrazoa:	ZERGATIKen Iruñeko dendan saltzaileak euskaldunak dira.ZERGATIKen Iruñeko dendan saltzaileak euskaldunak dira.
Erantzuna:	
Dosierra:	112-2013
Erakundea:	BUYTRAGO Gasteiz
Arrazoa:	BUYTRAGO enpresaren Gasteizko bulegora deitu dut ekainaren 27 goizean eta euskaraz hitz egin ahal izan dut. Euskaraz nahi dudala esan eta berehala pasatu diote deia langile euskaldunari.
Erantzuna:	



Dosierra: 113-2013  
 Erakundea: BUYTRAGO Iruñea-Oriz  
 Arrazoia: BUYTRAGO enpresaren Iruñeko bulegora deitu dut ekainaren 27 goizean eta euskaraz hitz egin ahal izan dut. Euskaraz nahi dudala esan eta berehala pasatu diote deia langile euskaldunari.  
 Erantzuna:

Dosierra: 119-2013  
 Erakundea: LA CAIXA zentrala  
 Arrazoia: Galiziako Blusens Technology enpresak ekoiztutako telebistek euskaraz konfiguratzeko aukera eskaintzen dute.  
 Erantzuna:

Dosierra: 144-2013  
 Erakundea: DUCHAYA  
 Arrazoia: DUCHAYA enpresaren esku-orria jaso dugu etxeko buzoian, Getxon, eta poztu gara den-dena euskaraz eta gaztelaniaz dagoelako. Web gunean informazio guztia euskaraz ere egongo dela ematen du, nahiz eta oraindik martxan ez egon.  
 Erantzuna:

Dosierra: 146-2013  
 Erakundea: Carl Zeiss Meditec Iberia S.A.U.  
 Arrazoia: ZEISS etxeak CALYPSO SOFTWAREA EUSKARAZ kaleratu du.  
 Erantzuna:

Dosierra: 148-2013  
 Erakundea: HELADOS MENDOZA  
 Arrazoia: Arbizuko festetan herriko plazan zegoen HELADOS MENDOZA izozki-saltzaileak izozkien zaporeen txartelak euskaraz zituen ikusgai. Txartelak txukun-txukunak ziren.  
 Erantzuna:

Dosierra: 174-2013  
 Erakundea: HEALT CARE OIHANA S.L.L.  
 Arrazoia: OIHANA-AITONA enpresak martxoan Agoitzen banatutako esku-orria euskaraz ere bazegoen.  
 Erantzuna:

Dosierra: 178-2013  
 Erakundea: LOKARRI  
 Arrazoia: Martxoan ospatu zen Bake Prozesua indatzerko Foro Soziala iragartzeko euskarrietan euskara lehenestu zuten.  
 Erantzuna:

Dosierra: 181-2013  
 Erakundea: FARMACIA BADOS CAPARROSO  
 Arrazoia: Agoizko BADOS CAPARROSO botikan euskaraz egin daiteke. Gomendio bat egin nahi dut: kartelak, hizkuntza paisaia... ele bietan jartzea.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 189-2013

Erakundea: OSASUNBIDEA

Arrazoa: Osasunbideraen Iruñeko San Martin Doktorea osasun zentroan, orain arte ez bezala, euskaraz luzatu zidaten proba bat egiteko hitzordua emateko agiria.

Erantzuna:

---

Dosierra: 232-2013

Erakundea: LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

Arrazoa: Etxarri-Aranazko Lizardi estetika Zentroak udaberriko eskaintzaren berri ematen duen eskuorria banatu du etxez etxe. Informazio guztia euskara hutsean dago.

Erantzuna:

---

Dosierra: 233-2013

Erakundea: BERIAIN NEKAZAL ETXEA

Arrazoa: Baratzerako eta abereentzako produktuak saltzen dituen BERIAIN nekazal etxeak, dendaren irekiera iragartzeko eskuorria banatu du etxez etxe. Informazioa euskara hutsean ageri da.

Erantzuna:

---

Dosierra: 255-2013

Erakundea: EUGI HARATEGIA

Arrazoa: Agoizko EUGI harategian euskaraz egin daiteke.

Erantzuna:

---

Dosierra: 269-2013

Erakundea: EKIX TABERNA - Patxi Huarte Aleman

Arrazoa: Agoizko EKIX tabernan euskaraz egin daiteke, ez beti, baina gehienetan.

Erantzuna:

---

Dosierra: 270-2013

Erakundea: HOTEL EKAI

Arrazoa: EKAI HOTELean euskaraz egin daiteke langile batekin.

Erantzuna:

---

Dosierra: 328-2013

Erakundea: CIRQUE DU SOLEIL

Arrazoa: Cirque du Soleil-ek euskaraz hutsez ipini zuen ia orrialde erdiko iragarkia maiatzaren 12ko Berria egunkarian.

Erantzuna:

---

Dosierra: 344-2013

Erakundea: MAPFRE Altsasu

Arrazoa: Uztailaren erdialdean MAPFREren Altsasuko bulegoan telefono bidezko arreta eta autoaren aseguru-poliza euskaraz eman dizkirate.

Erantzuna:

---

---

Dosierra: 386-2013  
 Erakundea: BIEZKO BASERRIA  
 Arrazoia: BIEZKO baserriak "Mari-Gorringo" izenez merkaturatzen dituen arrautzen ontzietako azalpenak euskara hutsean daude.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 462-2013  
 Erakundea: DZINGUA KIROL EKINTZAK  
 Arrazoia: Lekeitioko kanpoaldeko aparkalekura kotxea hartzera joan eta eta "Dzingua" kirol dendak utzitako publizitate-orrirtoa aurkitu nuen autoaren haizetakoan, euskara hutsean. Gainera haien webguneak ere, <http://dzinguabizikletak.wordpress.com/> eta <http://dzinguasurf.com> euskara hutsean daude.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 470-2013  
 Erakundea: ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA  
 Arrazoia: Arabako Elikagaien Bankuak euskara hutsean argitaratu zuen "Gero eta jende gehiago dago kalaka emateko prest" iragarkia abuztuaren 26an Diario de Noticias de Álava egunkarian.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 471-2013  
 Erakundea: EMAUSKO TRAPUKETARIAK - ERROTXAPEA  
 Arrazoia: Emausko Trapuketariak altzari zaharrak jasotzera etorri dira, eta aurrez deitu dute 15 minututan etortzekoak zirela abisatzeko. Telefono-deia euskaraz izan da.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 492-2013  
 Erakundea: NAERA HAUNDI BASERRIA  
 Arrazoia: Markina-Xemeingo Xuri Burdindegia S.L.ren ibilgailuak errotulazioa euskara hutsean du. Gainera <http://www.xurisl.net> webgunea ere euskaraz bistaratu daiteke.  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 502-2013  
 Erakundea: XURI SUMINISTRO INDUSTRIALAK S.L.  
 Arrazoia: Markina-Xemeingo Xuri Burdindegia S.L.ren ibilgailuak errotulazioa euskara hutsean du. Gainera, <http://www.xurisl.net> webgunea ere euskaraz bistaratu daiteke  
 Erantzuna:

---

Dosierra: 507-2013  
 Erakundea: ZUREKIN BUS  
 Arrazoia: Basauriko 'Zurekin Bus' autobus-enpresak euskara/euskaldunok kontuan hartu gaitu bere webgunean: <<http://zurekinbus.biz>> . Hala ere, hizkuntza-akatsak ez dira gutxi.  
 Erantzuna:

---

Dosierra:	509-2013
Erakundea:	ZALDAI MENDI TALDEA
Arrazoia:	Zaldai Mendi Taldeak Iurretako IV. Mendi Martxa antolatu du irailaren 21erako. Bada, ibilaldia iragartzeko Durangoko kaleetan ikusi ditudan kartelak euskara hutsean ipini dituzte. Bejondeiela!
Erantzuna:	
Dosierra:	538-2013
Erakundea:	BEARRITZA ABOKATUAK
Arrazoia:	Bearritza Abokatuak' izeneko aholkularitza juridikorako bulegoa zabaldu dute Durangon. Errotulazioa euskaraz ere ageri du. Era berean, euren webgunea euskaraz bistaratu daiteke.
Erantzuna:	BEARRITZA ABOKATUAK BULEGOKO KIDEAK: <i>Poztasun handiz jaso dugu zoriona. Eskerrik asko.</i>
Dosierra:	543-2013
Erakundea:	BESTE ALDE RENT A CAR
Arrazoia:	Iurretako Beste Alde ibilgailu-alokatze etxearen webgunea < <a href="http://www.bestalde.com">http://www.bestalde.com</a> > euskaraz bistaratu dezakegu euskaldunok.
Erantzuna:	
Dosierra:	550-2013
Erakundea:	CENTRO CANINO ZURBANO
Arrazoia:	Arzubiagako (Gasteiz) Centro Canino Zurbanok hainbatetan txertatu du euren iragarkia, euskara hutsez, euskarazko egunkarian; adibidez, 2013-09-28an, zapatuan, 8. orrialdean.
Erantzuna:	
Dosierra:	551-2013
Erakundea:	LEIRE URBELTZ
Arrazoia:	LEIRE URBELTZ ilustratzaileak ele bietan zabaldu du bere kontaktuen artean Bilbaoarten egitekoa duen "Plants that are not Green" erakusketaren inaugurazioaren berri emateko posta elektronikoko mezua.
Erantzuna:	
Dosierra:	592-2013
Erakundea:	SENPEREKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	Urriaren 17an SENPEREKO HERRIKO ETXERA deitu nuen. Izan ere, Herriko Etxera deitzerakoan hizkuntza hautatzeko aukera ematen dizute: 1 sakatu eta frantsesez segitu ala 2 sakatu eta euskara hutsean. Hala ere, ondoren harrera egin zidan idazkaria ez zen guziz elebiduna Ulertzen zuen, baina, ez zen erantzuteko gai.
Erantzuna:	
Dosierra:	639-2013
Erakundea:	OIANUME JATETXE SAGARDOTEGIA
Arrazoia:	Lehen bestela bazen ere, azken aldian OIANUME JATETXE-SAGARDOTEGIra joan naizen guztietan menuaren karta euskaraz luzatu didate.
Erantzuna:	

Dosierra: 683-2013

Erakundea: BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGOA

Arrazoia: Durangoko Landako etorbidea / Madalena plazako Bizkaibusen autobus-geralekuko markesinetako batean Bizkaiko Abokatuen Elkargoko iragarki bat ikusi dut gaur, euskara hutsean, etxebizitza kontuetan arazorik izanez gero euren aholkularitza-eta eskaintzeko

Erantzuna:

Dosierra: 762-2013

Erakundea: BERRIZ BIZIKLETARI ELKARTEA

Arrazoia: Berriz Bizikletari Elkartearen zoriendu azaroaren 24ean egindako Berrizko Ziklokros Sari Nagusiaren afixa euskara hutsean kaleratu zuelako.

Erantzuna:

Dosierra: 868-2013

Erakundea: PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA - BAIONAKO ORDEZKARITZA

Arrazoia: Irailaren 20an Pirinio Atlantikoetako KONTSEILU OROKORRAK iragarkia eman du Berrian euskaraz, 39. Orrialdean, aurtengo ERLAITZAREN BESTA iragartzeko.

Erantzuna:

Dosierra: 907-2013

Erakundea: DONIBANE LOHIZUNEN HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Abenduan Eguberri kari argitaratu egitaraua guztiz elebitan da eta molde orekatuan. Gainera euskara agertzen da lehenik. Hala ere, azala frantses hutsean da. Bestalde, lerratokiaren inguruan diren seinaleak elebitan dira.

Erantzuna:

Dosierra: 908-2013

Erakundea: HAZPARNEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Hazparneko webgunea elebitan da, molde orekatuan, baita herriko aldikaria ere ([www.hasparren.fr](http://www.hasparren.fr)).

Erantzuna:

Dosierra: 912-2013

Erakundea: ZIBURUKO BESTA KOMITEA

Arrazoia: ZIBURUKO BESTA KOMIETAK urriaren 23an Kurutze gorrika bestak antolatzen zituen eta besten afixa elebitan zen.

Erantzuna:

Dosierra: 916-2013

Erakundea: CENTRE HOSPITALIER DE LA CÔTE BASQUE

Arrazoia: BAIONAKO OSPITALEAK, CENTRE HOSPITALIER DE LA COTE BASQUE, langile euskaldunak identifikatzeko sistema bat sortu du, hots, "nahi baduzu euskaraz" adierazten duten ikurrak eramanez.

Erantzuna:

Dosierra:	923-2013
Erakundea:	ITSASUKO HERRIKO ETXEA
Arrazoia:	ITSASUKO HERRIKO ETXERA deitu nuen abenduaren 23an eta lehen hitza euskaraz egin zidaten. Horrez gain, zuzeneko harrera euskaraz jaso nuen.
Erantzuna:	
Dosierra:	944-2013
Erakundea:	BANCO DE SABADELL, S.A.
Arrazoia:	Banco Sabadellek etxean agiriak euskara hutsean jasotzeko aukera eskaintzen du. Ordizako sukurtsalean, euskaraz zuzenduta, euskaraz inprimatu eta luzatu didate produktu baten informazioa, aurrez galdetu gabe, naturaltasun osoz. Banco Guipuzcoano zenean ez zuten horrelako begirunerik euskararekin.
Erantzuna:	
Dosierra:	950-2013
Erakundea:	ALDALAN
Arrazoia:	Enplegua bilatzen daberen enpresa pribatu batera sartu nintzen informazioaren eske, eta hasiera batetik galdetu neban euskeraz atenditzen bazuten harreran zeuden neska biei eta hasieratik euretaiko batek euskera utzien atenditu eustan, aipagarritzat, hizkera oso onagaz.
Erantzuna:	
Dosierra:	983-2013
Erakundea:	HATORTXUROCK
Arrazoia:	Jardueran euskarari lehentasuna emateagatik.langile euskaldunari.
Erantzuna:	
Dosierra:	984-2013
Erakundea:	HATORTXUROCK
Arrazoia:	Hizkuntza jarreretan eragiteagatik. Planoan honela dio: "Askok euskaraz dakigu eta beste askok ulertzen dugu. Lehen hitz euskaraz, mesedez!"
Erantzuna:	
Dosierra:	1017-2013
Erakundea:	BAXENAFARROKO BELARRAK
Arrazoia:	Honako mezuaren bitartez eskatu gura dizuet zoriondu dezazuela 'Baxenafarroko Belarrak' markako mozkinak merkaturatzen dituen Jean-Marc Goienaga. Izan ere, poteetako etiketetan euskara aintzatesten du, eta hortaz euskaldun erosleondako begirunea badu.
Erantzuna:	
Dosierra:	1060-2013
Erakundea:	EROSKI
Arrazoia:	Postontzian "TEKNOLOGIA" izenburua duen Eroskiren publizitate-liburuxka jaso dudalako eta bertan euskara lehenesten delako. Dena dela, taula eta ezaugarri teknikoak gaztelania hutsean daude eta horregatik hurrengorako horiek ere euskaraz eskaini ditzan eskatu nahi nioke Eroskiri.
Erantzuna:	

# 10. KONTSULTAK

## KONTSULTAK

Dosierra:	17-2013
Kontsulta:	Udalek argitaratu behar dituzten iragarkien gaineko kontsulta
Dosierra:	38-2013
Kontsulta:	Kooperatiba batek euskarazko jarduna sendotzeko egin nahi duen urratsak izango lukeen lege-babesari buruzkoa.
Dosierra:	68-2013
Kontsulta:	Bizkaiko Foru Aldundiak gaztelania hutsean bidali dion jakinarazpenaren legezkotasuna
Dosierra:	88-2013
Kontsulta:	Bizkaiko Foru Aldundiak deitutako oposizio-lehiaketako oinarrien legezkotasuna hizkuntzen balorazioari dagokionez.
Dosierra:	94-2013
Kontsulta:	Udalan itzultzailek gabe zinegotziek euskaraz aritzeko duten eskubideaz.
Dosierra:	129-2013
Kontsulta:	Euskara hutsean idatzitako estatutuak ez onartzearen legezkotasuna.
Dosierra:	482-2013
Kontsulta:	Elkarte baten estatutuak elebitan aurkezteko derrigortasunaren inguruko kontsulta
Dosierra:	483-2013
Kontsulta:	Industria Kontseilariak esku-orriak gaztelania hutsean argitaratzeko hartu duen erabakiak duen lege-babesari buruzkoa.
Dosierra:	636-2013
Kontsulta:	Bizkaiko Probintzia Auzitegian burutuko den epaiketa batean herritarrak lekuko gisa euskaraz deklaratu eta ondoren luzatutako akta euskaraz idatzia ez badago berau sinatzeari uko egiteak izan ditzakeen ondorioei buruzko kontsulta
Dosierra:	790-2013
Kontsulta:	Nafarroako udalek argitaratzen dituzten iragarkiak hedabide mota jakin batean publikatzeko obligazioaz.



Dosierra: 792-2013

Kontsulta: Tailerreko makinaren funtzionamenduaren jarraibideak langileen artean zein hizkuntzatan zabaldu behar diren galdetzen duena.

---

Dosierra: 820-2013

Kontsulta: "Trastorno específico del lenguaje" esaldiaren itzulpenari buruzkoa.

---